

Kapital-sozietateei
buruzko legeria

Legislación sobre
sociedades de capital

España

[Leyes, etc., de sociedades. Euskara- Español]

Kapital sozietateei buruzko legeria [Recurso electrónico] = Legislación sobre sociedades de capital / Igone Altzelai Uliondo, Rosa Otxoa-Errarte Goikoetxea, Josu J. Sagasti Aurrekoetxea ; Irene Aldasoro Katarain, itzultzailea. – Datos. - Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2016]. – 1 recurso en línea : PDF. – (Legeak = Leyes ; 18)

Ed. electrónica de la ed. impresa.

Modo de acceso: World Wide Web.

Texto en euskara y español.

ISBN: 978-84-9082-389-7.

1. Sociedades – Derecho – España – Legislación. 2. Sociedades – Derecho – Países de la Unión Europea. I. Altzelai Uliondo, Igone, comp. II. Otxoa-Errarte Goikoetxea, Rosa, comp. III. Sagasti Aurrekoetxea, Josu J., comp. IV. Aldasoro Katarain, Irene, trad. V. Título: Legislación sobre sociedades de capital

(0.034)347.72(460)(094.4)

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
www.ehu.es/argitalpenak - editorial@ehu.eus

Fotokonposizioa/Fotocomposición: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

ISBN: 978-84-9082-389-7

KAPITAL SOZIETATEEI BURUZKO LEGERIA

LEGISLACIÓN SOBRE SOCIEDADES DE CAPITAL

IGONE ALTZELAI ULIONDO
ROSA OTXOA-ERRARTE GOIKOETXEA
JOSU J. SAGASTI AURREKOETXEA
UPV/EHUko Merkataritza Zuzenbideko irakasleak

IRENE ALDASORO KATARAIN
Itzultzailea

JUAN KRUZ IGERABIDE SARASOLA
UPV/EHUko Euskara Zerbitzua

ANA LETURIA NAVAROA
UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko irakaslea
Bildumaren koordinatzailea

aman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

AURKIBIDEA



ÍNDICE

Prólogo, Josu Erkoreka	8
Aurkezpena, Igone Altzelai Uliando, Rosa Otxoa-Errarte Goikoetxea, Josu J. Sagasti Aurrekoetxea	13
Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital	17
Reglamento (CE) n.º 2157/2001 del Consejo, de 8 de octubre de 2001, por el que se aprueba el Estatuto de la Sociedad Anónima Europea (SE)	475
Ley 3/2009, de 3 de abril, sobre modificaciones estructurales de las sociedades mercantiles.	553
Código de Comercio. Libro II. De los Contratos Especiales del Comercio . .	677
LÉXICO	735

Hitzaurrea, Josu Erkoreka	9
Aurkezpena, Igone Altzelai Uliondo, Rosa Otxoa-Errarte Goikoetxea, Josu J. Sagasti Aurrekoetxea	13
1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onesten duena	17
Kontseiluaren 2157/2001 Erregelamendua, 2001eko urriaren 8koa, Europar Sozietate Anonimoaren (SE-aren) Estatutua onesten duena.....	475
3/2009 Legea, apirilaren 3koa, merkataritza-sozietateen egitura-aldaketei buruzkoa.....	553
Merkataritza Kodea. II. Liburu. Merkataritzako Kontratu Bereziak.....	677
LEXIKOA.....	730

Prólogo

La colección LEGEAK-LEYES de la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea cumple con este volumen sus dieciocho números y adquiere así, podría decirse, su mayoría de edad.

Efectivamente, desde que en el año 2006 se publicó el primero de ellos, a lo largo de 17 volúmenes han visto la luz los textos en euskera, en edición bilingüe, de la Constitución española de 1978, de la Ley de Procedimiento Laboral, la Ley de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, la Ley Orgánica del Tribunal Constitucional, las leyes sobre consumo, la Ley Orgánica del Poder Judicial (en los números 6 y 16 de la colección), la Ley General de la Seguridad Social, la Ley de Propiedad Intelectual, la Ley de Empleo, la Ley de Suelo, la legislación sobre consumidores y usuarios, la legislación sobre marcas y propiedad industrial, las leyes laborales, la legislación sobre competencia, los formularios utilizados en el ámbito jurisdiccional social, la Ley Orgánica del Poder Judicial y una selección de leyes sobre genética y biomedicina. Un largo e impresionante listado, fruto de un esforzado trabajo.

Todos ellos son el resultado, evidentemente fructífero, de la colaboración establecida en 2004 entre el Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de Justicia y la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea. Ambas partes apreciaron no ya la conveniencia sino la perentoria necesidad de elaborar traducciones de calidad al euskera de los textos legales de mayor utilización y de hacerlas llegar a los diversos agentes interesados, tribunales, profesionales del derecho, alumnos y profesores, etc., a fin de contribuir a la fijación del lenguaje jurídico en euskera, a la extensión de su uso y, en definitiva, a su normalización.

Hitzaurrea

Euskal Herriko Unibertsitatearen LEGEAK-LEYES bilduma hemezortzigarren alera iristen da esku artean duzunarekin. Adin-nagusitasuna iristen bide du, beraz.

Hala da. Hamazazpi ale etorri zaizkigu errenkan, bata bestearen atzetik, 2006. urtean lehena eman zenetik argitara euskaraz eta gaztelaniaz. Hasi 1978ko Espainiako Konstituziotik eta Lan Arloko Prozeduraren Legetik, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legea, Konstituzio Auzitegiari buruzko Lege Organikoa, kontsumoari buruzko legeak, Botere Judizialaren Lege Organikoa (bildumaren 6. eta 16. zerbakietan), Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra, Jabetza Intelektualari buruzko Legea, Enpleguari buruzko Legea, Lurzoruari buruzko Legea, Kontsumitzaile eta erabiltzaileei buruzko legedia, jabetza industrialari eta markei buruzko legedia, lan eremuko hainbat lege, lehiari buruzko legedia, gizarte arloko jurisdikzioan erabiltzen diren hainbat eredu eta genetika eta biomedikuntzari buruzko hainbat legeraino, zerranda luze eta garrantzitsua ikusi dezakegu, lan saiatuaren ondorio, fruitu eta emaitza.

Emaitza emankorra izan du, agerian denez, 2004an Euskal Herriko Unibertsitateak eta Justizia arloko eskumenen jabe zen Eusko Jaurlaritzaren Sailak izenpetu zuten hitzarmenak. Bi alderdientzako, ez bakarrik onuragarri, baizik eta behar-beharrezko eta ezinbesteko gertatzen zen lege-testu erabilienak euskaratu eta erabiltzaile guztien eskuetan jartzea, zuzenbidearen profesionalenetan bezala, epaitegienetan, ikasle-irakasleenetan eta abar. Kalitatezko itzulpenen bidez, euskal hizkera juridikoa finkatu, haren erabilera areagotu eta, azken batean normalizazio bidean jartzea zuten helburu.

A lo largo de esta trayectoria la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea ha ensayado, primero, implantado, después, y perfeccionado progresivamente una metodología de traducción de los textos legales basada en la colaboración estrecha entre las personas traductoras-lingüistas y los miembros de los diversos Departamentos, de manera que los textos que nos ha ido ofreciendo se han caracterizado permanentemente por su calidad lingüística junto con el rigor técnico.

El volumen que tengo la satisfacción de presentar está dedicado a la Ley de Sociedades de Capital, cuyo texto refundido fue aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/2010, de 2 de julio, y que alcanza, por varias razones, una innegable importancia.

Efectivamente, se trata de la primera vez que en el ordenamiento español se regulan de una manera integral y en un mismo cuerpo legal las sociedades de base capitalista, divididas hasta esta década en dos textos, que requerían, a su vez, una actualización: las leyes de 1951 y de 1953 de Sociedades Anónimas y de Sociedades de Responsabilidad Limitada, respectivamente. A lo que se añaden los aspectos societarios de la Ley del Mercado de Valores.

La regulación que contiene la Ley que estamos glosando nace, como lo señala la propia Exposición de Motivos, con vocación de provisionalidad, de ser superada y convertirse en un escalón más en la progresión del Derecho. El desenvolvimiento acelerado de la economía y el desarrollo del derecho de la Unión Europea darán, sin duda, nuevos pasos en la adecuación y perfeccionamiento del derecho de sociedades. Los textos en euskera estarán preparados, gracias a ésta obra, para acompañar dicho desarrollo.

JOSU ERKOREKA

Consejero del Departamento de Administración Pública y Justicia

Ibilbide honetan zehar, Euskal Herriko Unibertsitateak lege-testuen itzulpen-metodologia propioa landu du, urterik urte zaildu du eta arian-arian hobetu. Metodologia hori itzultzaileen eta Unibertsitatearen departamentuen kideen arteko lankidetzan estuan oinarritzen da eta urte hauetan eskaini dizkiguten euskarazko testuek kalitatezko euskara eta zorroztasun teknikoa uztartu izan dute.

Gaur aurkezten dudan liburu honek Kapital Sozietateei buruzko Legea du gai, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua. Berebiziko garrantzia du, ikusiko dugunez, zenbait ikuspegitatik.

Lehenik eta behin, lehen aldiz biltzen direlako Espainiako ordenamenduan lege-testu bakar batean kapital-sozietateei dagokien arauketa, orain arte 1951ko eta 1952ko legeek arautzen zituztenak, hots, Sozietate Anonimoen Legea eta Erantzukizun Mugatuko Sozietateena. Horiei gehitu behar zaie, gainera, sozietateak arautzen dituen neurrian, Balore Merkatuaren Legea.

Esku artean darabilgun Legeak egiten duen arauketa behin-behinekotasun asmoarekin jaio da, Legearen Azalpenak berak aitortzen duen bezala: gainditua izateko bokazioarekin eta Zuzenbidearen gorabidean maila bat izateko borondatearekin. Ekonomiaren garapen gero eta lasterragoa eta Europar Batasunaren Zuzenbidea hedatu ahala, sozietateen zuzenbidearen garapen berrien iturri izango da zalantzarik gabe, egokitzapen- eta hobekuntza-bidean. Lan honi esker, euskarazko testuak prest egongo dira garabide horretan atzera ez gelditzeko.

JOSU ERKOREKA
Herri Administrazio eta Justizia sailburua

Aurkezpena

Legeak / Leyes Bildumako 18. ale honek —«Kapital Sozietateei buruzko Legeria»k— Merkataritza Zuzenbidearen beste eremu bati ematen dio irekiera, bere esparruan zeuden arauak gaurkotuz, bai eta osatuz ere.

Lehenengo atal nagusia **1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateei buruzko Legearen Testu Bategina Onesten** duenari dagokio. Arau honek testu bakar batean biltzen du aurreko bi lege berezien edukia —1564/1989 Legegintzako Errege Dekretua, Abenduaren 22koa, Sozietate Anonimoei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena eta 2/1995 Legea, Martxoaren 23koa, Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzkoa—. Honez gain, Sozietate Anonimo Kotizatuei eskainitako Titulua ere bereganatzen du —XIV. Titulua—; hau da, bigarren mailako merkatu ofizial batean negozioziorako onaturiko baloreak dituzten sozietate anonimoen alderdi sozietarioenak —alderdi finantzarioaren arauketa Balore Merkatuari buruzko Legean agertzen baita—. Azkenik, arauak Merkataritza Kodeak Akzio bidezko Sozietate Komanditarioari eskaintzen dizkion artikulua ere barneratzen dira. Beraz, Lege multzo bakar batean kapital-sozietateei buruzko lege-araudi orokor guztia biltzen da. Hala eta guztiz ere, arauak berak dioen bezala, testu bategina behin-behinekoa izateko borondate sendoz sortzen da. Honen arabera, eta nahiz eta testuak berak adierazten dituen gai guztiak ez garatu, araua, sortu zenetik gaur arte, hamalau aldiz aldatua izan da. Honela, aldaketa nabarienak hurrengoak izango lirateke: *13/2010 Errege Lege Dekretua, abenduaren 3koa; 2/2011 Legea, martxoaren 4koa; 25/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa; 9/2012 Errege Lege Dekretua, martxoaren 16koa; 1/2012 Legea, ekainaren 22koa; 9/2012 Legea, azaroaren 14koa; 14/2013 Legea, irailaren 27koa; 11/ 2014 Errege Lege Dekretua, irai-*

laren 5koa; 31/2014 Legea, abenduaren 3koa; 5/2015 Legea, apirilaren 27koa; 9/2015 Legea, maiatzaren 25koa; 11/2015 Legea, ekainaren 18koa; 15/2015 Legea, uztailaren 2koa eta 22/2015 Legea, uztailaren 20koa. Hauen artean, nahiz eta guztiek garrantzia izan, *31/2014 Legea* azpimarra daiteke, «Gobernu Korporatibo»ari buruzko eduki eta artikuluko ugarri aldatzen baitira, bereziki Bartzar Nagusi eta Administrazio Kontseiluko berezitasunei dagokienez. Datu honek gaiaren garrantzia eta sozietate mota hauen erabilera, bai merkatuan bai eta ekonomian oro har, nabariarazten ditu.

Bigarrenik, **Kontseiluaren 2157/2001 Erregelamendua, 2001eko Urriaren 8koa, Europar Sozietate Anonimoaren —SEaren— Estatutua onesten duena**, ezartzen da. Sozietate mota hau sortzeko Europar Batasunak ekonomia errealitatea aztertzen du eta hurrengo honetaz konturatzen da, hau da, Europar enpresen esparru juridikoa, oraindik, neurri handi batean, nazionala dela eta ez dela egokia enpresek Europar Hitzarmenak ezartzen dizkien helburuak lortzeko. Horren ondorioz, beharrezkoa da Europar Batasunean elkarrekikotasun bat ezartzea —ahal den neurrian— enpresaren unitate ekonomiko eta juridikoaren artean; honela, zuzenbide nazionalako sozietateekin batera, beste sozietate batzuk eratuko lirateke, Estatu Kide guztietan zuzenean aplikagarria den Europar Batasuneko Zuzenbideko Erregelamendu batek arautuak, bai eraketari bai eta funtzionamenduari ere dagokienez. Era honetako arauak —Erregelamendu berak dioen moduan— europar dimentsioko sozietateak sortzea eta kudeatzea ahalbidetuko du, parekotasun ezak eta merkataritza-sozietateei aplikagarriak zaizkien legeria nazionalen lurraldekako aplikazio mugatuak sorturiko trabek ezin izango dituztelarik galarazi edo oztopatu eragiketa horiek. Aipaturiko zergatiak eta helburuak lortu ahal izateko, Europar Batasunak akzio bidezko kapital-sozietate mota aukeratzen du, hau delako hobeto egokitzen dena, hala alderdi finantzariotik nola kudeaketarenetik. Edonola ere, Erregelamendu honek ez ditu hartzen zuzenbidearen beste eremu batzuk, hala nola Zuzenbide Fiskala, Lehiari buruzko Zuzenbidea, Jabetza Intelektualari buruzko Zuzenbidea eta Konkurtso Zuzenbidea eta, beraz, eremu horietan eta erregelamendu honek hartzen ez dituen beste eremu batzuetan, Estatu Kideetako zuzenbidearen eta Europar Batasuneko zuzenbidearen xedapenak aplikatuko dira.

Hirugarrenik, *3/2009 Legea, apirilaren 3koa, Merkataritza Sozietateen Egitura Aldaketei buruzkoa*, adierazten da. Lege hau *1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren* jatorria eta, une berean, osagarria eta garapena da. *Jatorria*, Lege honen Amaierako Zazpigarren Xedapenak gaikuntza ematen baitio Gobernuari testu bakar batean elkar ditzan «Kapital Sozietatei buruzko Legea». *Osagarria eta garapena*, Lege honetan arautzen baitira merkataritza-sozietateen egitura-aldaketak: Eraldaketa, Bat-egitea, Zatiketa edo Aktiboaren eta Pasiboa-

ren Lagapen Globala eta Sozietate-helbidearen nazioarteko Lekualdatzea. Lege honek era egokian erantzun nahi dio haziz doan eragile ekonomikoen nazioartekotze-prozesuari eta, horrela, Legeak ez ditu eragiketok Europar Batasunaren eremura mugatzen; izan ere, espresuki aurreikusten ditu espainiar sozietateen bat-egiteak Europar Batasunaz kanpoko sozietateekin, zeinak bakoitzaren lege pertsonalek eraenduko baitituzte. Esparru honetan, nabarmentzekoa da egitura-aldaketa hauen artean Aktiboaren eta Pasiboaren Lagapen Globala sartzea, aldi berean, legegintza-tresna bat gehiago eskainiz enpresak eskualdatzeko. Modu berean, aipagarria da ere arau hau sozietateen egitura-aldaketei buruzko merkataritza-araudi orokor bat dela eta, beraz, merkataritza-lege orokor den heinean, izaera honetako edozein sozietateri aplikagarria, edozein ere dela sozietate modua edo mota, non eta ez den, espresuki, kontrakoa ezartzen. Edonola ere, lege honek, berau aldi baterako irtenbidea dela adierazten du espresuki, kodetze baterako une egokia iritsi bitartean, edo, behintzat, merkataritza-sozietateen zuzenbidea lege-multzo batean bildu eta oinarrizko ikusmoldeak bateratzeko unea iritsi bitartean.

Laugarrenik, **Merkataritza Kodearen II. Liburukia, Merkataritzako Kontratu Bereziak**, barneratzen da. Arau honetan Merkataritza Konpainiei dagozkien arauak ezartzen dira. Horrela, lehenik, orokorrean, Sozietate mota guztiei beren eratzean aplikatzen zaizkien arauak eta Sozietate motak. Bigarrenik, Sozietate Pertsonalistak arautzen dira —Konpainia Kolektiboak eta Komanditarioak—. Hirugarrenik, bazkideen eskubideak eta eginbideak bai eta merkataritza-konpainien amaiera eta likidazioa ere aztertzen dira. Azkenik, zenbait konpainia moten berezitasunak adierazten dira: Kreditu-konpainien arau bereziak; Jaulkipen- eta deskontu-bankuak; Trenbideen eta gainerako herri-lanen konpainiak; Gordailu-biltegi orokorren konpainiak; Lurralde-krediturako konpainiak edo bankuak; Nekazaritza-banku eta -sozietateentzako arau bereziak.

Igone ALTZELAI ULIONDO
Rosa OTXOA-ERRARTE GOIKOETXEA
Josu J. SAGASTI AURREKOETXEA
UPV/EHUko Merkataritza Zuzenbideko irakasleak

1/2010 LEGEGINTZAKO ERREGE
DEKRETUA, UZTAILAREN 2KOA,
KAPITAL SOZIETATEEI BURUZKO
LEGEAREN TESTU BATEGINA
ONESTEN DUENA

REAL DECRETO LEGISLATIVO 1/2010,
DE 2 DE JULIO, POR EL QUE SE
APRUEBA EL TEXTO REFUNDIDO DE
LA LEY DE SOCIEDADES DE CAPITAL

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

I

El presente real decreto legislativo cumple con la previsión recogida en la disposición final séptima de la Ley 3/2009, de 3 de abril, sobre modificaciones estructurales de las sociedades mercantiles, que habilita al Gobierno para que, en el plazo de doce meses, proceda a refundir en un único texto, bajo el título de «Ley de Sociedades de Capital», las normas legales que esa disposición enumera. De este modo se supera la tradicional regulación separada de las formas o tipos sociales designadas con esa genérica expresión, que ahora, al ascender a título de la ley, alcanza rango definidor.

La división en dos leyes especiales del régimen jurídico de las sociedades anónimas y de las sociedades de responsabilidad limitada no fue consecuencia tanto del proceso de descodificación cuanto del hecho de que la extensión de la normativa no permitía la inclusión de esos regímenes jurídicos dentro del Código de Comercio de 1885, que dedicaba pocos artículos a las sociedades anónimas y que, por razón del momento en que se elaboró, desconocía a las sociedades de responsabilidad limitada. Se promulgaron así las leyes de 1951 y de 1953 —la primera de ellas de notable perfección técnica para la época en que fue promulgada— como textos legales independientes, característica que se ha mantenido desde entonces como rasgo de la legislación societaria española. En lugar de la regulación en una única ley, el legislador ha afrontado en momentos sucesivos y de forma separada la articulación de la disciplina de las sociedades de capital.

ZIOEN AZALPENA

I

Errege-dekretu honek merkataritza-sozietateen egitura-aldaketei buruzko 2009ko apirilaren 3ko 3/2009 Legearen amaierako zazpigarren xedapenean jasotzen den aurreikuspena betetzen du, zeinak gaikuntza ematen baitio Gobernuari testu bakar batean elkar ditzan, hamabi hilabeteko epean, «Kapital Sozietatei buruzko Legea» izenburuan bildurik, xedapen horrek zerrendatzen dituen lege-arauak. Horrela, esapide orokor horren bidez adierazitako sozietate modu edo motak bereiz arautzeko ohitura gaintzen da; esapideak, orain, legearen izenburu izatera iritsirik, maila definitzailea hartzen baitu.

Sozietate anonimoak eta erantzukizun mugatuko sozietateak araubide juridikoko bi lege berezitan banatzea ez zen izan, hainbeste, dekodetze-prozesuaren ondorio, nola araudiaren hedaduragatik araubide juridiko horiek 1885ko Merkataritza Kodearen barruan sartu ezinaren ondorio, Kode horrek artikulatu gutxi eskaintzen baitzizkien sozietate anonimoek, eta, egin zen uanean egin izateagatik, ez baitzituen jasotzen erantzukizun mugatuko sozietateak. Hala, 1951eko eta 1953ko legeak -bikaintasun tekniko nabarmenekoa haie-tariko lehena, promulgatu zen garaian promulgatua izateko-, lege-testu independente gisa promulgatu ziren, eta berezitasun hori izan da, harrezkero, sozietatei buruzko espainiar legeriaren ezaugarri. Lege bakar batean arautu ordez, legegileak ondoz ondoko aldietan eta bereiz artikulatu du kapital-sozietateen diziplina.

Esta dualidad o incluso pluralidad de «continentes» —cuando la Ley 19/1989, de 25 de julio, decide que la nueva regulación de las sociedades comanditarias por acciones se incluya en el Código, y cuando la Ley 26/2003, de 17 de julio, introduce un título nuevo, el título X, en la Ley del Mercado de Valores, dedicado a las sociedad anónimas cotizadas— no habría suscitado especiales problemas si el «contenido» estuviera suficientemente coordinado. Aunque el legislador ha tratado de conseguir esa coordinación, bien a través de la técnica de la repetición de normas —que, sin embargo, no siempre es absoluta—, bien con el recurso al instrumento de las remisiones, el resultado no ha sido plenamente satisfactorio. Además, tras las grandes reformas realizadas a finales del pasado siglo —la ya citada Ley 19/1989, de 25 de julio y la Ley 2/1995, de 23 de marzo—, existen descoordinaciones, imperfecciones y lagunas respecto de las cuales doctrina y jurisprudencia han ofrecido soluciones legales divergentes sin que exista razón suficiente.

De ahí que las Cortes Generales hayan considerado necesario encomendar al Gobierno la elaboración de un texto refundido de las normas legales sobre sociedades de capital, reuniendo en un texto único el contenido de esas dos leyes especiales, con la importante adición de aquella parte de la Ley del Mercado de Valores que regula los aspectos más puramente societarios de las sociedades anónimas con valores admitidos a negociación en un mercado secundario oficial y con la adición de los artículos que el Código mercantil dedica a la comanditaria por acciones, forma social derivada, de muy escasa utilización en la práctica. Un único cuerpo legal debe contener la totalidad de la regulación legal general de las sociedades de capital, sin más excepción que la derivada de la propia Ley de modificaciones estructurales —en la que se contiene la habilitación—, cuyo contenido, por estar referido a toda clase de sociedades mercantiles, incluidas las «sociedades de personas», no podía incluirse, sin alguna incoherencia, en esa refundición. Se trata de una tarea de extraordinaria importancia por cuanto que la gran mayoría de las sociedades constituidas y operantes en nuestro país o son limitadas o son anónimas; pero se trata también de una tarea que entraña no pocas dificultades.

II

Las Cortes Generales han establecido el método y, al mismo tiempo, los límites del encargo al poder ejecutivo: ese único texto legal debe ser el resultado de la regularización, la aclaración y la armonización de los plurales textos lega-

«Edukiontzia» bitasun eta are aniztasun horrek -1989ko uztailearen 25eko 19/1989 Legeak akzio bidezko sozietate komanditarioei buruzko araudi berria Kodean sartzea erabakitzen duenean, eta 2003ko uztailearen 17ko 26 /2003 Legeak Balore Merkatuari buruzko Legean titulu berri bat, X. titulua, sozietate anonimo kotizatuei eskainia, sartzen duenean- ez zukeen arazo bezirik sortuko baldin eta «edukia» behar bezain koordinaturik egon balitz. Nahiz eta legegilea saiatu den koordinazio hori lortzen, dela arauak errepikatzearen teknikaren bidez -zeina, hala ere, ez baita beti erabatekoa-, dela bidaltze-oharren tresna baliatuz, emaitza ez da izan gututz gogobetegarria. Gainera, aurreko mendearen amaieran egindako erreforma handien ondoren -dagoeneko aipatua den 1989ko uztailearen 25eko 19/1989 Legea eta 1995eko martxoaren 23ko 2/1995 Legea- badira zenbait koordinazio-gabezia, koska eta hutsune, zeinen aurrean doktrinak eta jurisprudentziak legezko irtenbide elkarrengandik urrunduak eman baitituzte, hartarako arrazoi nahikorik ez delarik.

Horregatik, Gorte Nagusiek beharrezko iritzi diote Gobernuari eskatzea kapital-sozietatei buruzko lege-arauen testu bategin bat presta dezala, testu bakar batean bilduz bi lege berezi horien edukia, horri gehituz Balore Merkatuari buruzko Legearen zati hura zeinean arautzen baitira bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatziorako onarturiko baloreak dituzten sozietate anonimoen alderdi sozietarioenak, eta orobat gehituz Merkataritza Kodeak akzio bidezko sozietate komanditarioari (sozietate modu eratorria bera, praktikan oso gutxi erabilia) eskaintzen dizkion artikulua. Lege multzo bakar batean jaso behar da kapital-sozietatei buruzko lege-araudi orokor guztia, Egitura-aldaketei buruko Legetik beretik eratortzen dena beste salbuespenik gabe -lege horretan jasotzen da gaikuntza-; lege horren edukia, merkataritza-sozietate mota guztiei buruzkoa denez, baita «pertsone-sozietateak» direlakoei buruzkoa ere, ezin baitzen sartu, inkoherentziaren batean erori gabe, bategite horretan. Berebiziko garrantzia duen eginkizuna da hori, gure herrialdean eratu eta jardunean ari diren sozietate gehien-gehienak mugatuak edo anonimoak baitira; baina, era berean, baita zailtasun ugari duen eginkizun bat ere.

II

Gorte Nagusiek ezarri dituzte metodoa eta, aldi berean, botere exekutiboari egindako enkarguaren mugak: lehen adierazitako testu askotarikoak arautzearen, argitzearen eta harmonizatzearen ondorio izan behar du lege-

les antes señalados. La refundición no puede limitarse, pues, a una mera yuxtaposición de artículos, sino que exige desarrollar una compleja actuación en pos de ese triple objetivo, en el que, por razón del interés general, descansa la decisión legal. Al redactar el texto refundido, el Gobierno no se ha limitado a reproducir las normas legales objeto de la refundición, sino que ha debido incidir en esa normativa en una delicada labor para cumplir fielmente la encomienda recibida.

Regularizar significa ajustar, reglar o poner en orden. Al servicio de esa regularización se ha modificado, en ocasiones, la sistemática, a la vez que se han intentado reducir las imperfecciones de las proposiciones normativas. Naturalmente, el texto refundido contiene la integridad de lo que refunde. Ni se han suprimido aquellas partes que la experiencia ha podido evidenciar obsoletas; ni se han modificado las soluciones arbitradas por la ley aunque la práctica haya puesto en duda la eficiencia y destacado el coste de aplicación; ni se han incorporado reglas que todavía no han alcanzado reconocimiento legislativo anticipando la previsible solución. Pero un texto refundido que saliera a la luz sin esa imperativa regularización traicionaría los términos de la habilitación conferida.

Junto a la regularización, la habilitación exige aclarar, es decir, eliminar, en la medida de lo posible, las dudas de interpretación que suscitan los textos legales, determinando el exacto alcance de las normas. En ocasiones —las menos—, la propia sistemática permite conseguir ese resultado; las más de las veces se necesita precisar lo que la norma dice con eliminación de aquello que dificulta la comprensión, la modificación de fórmulas poco logradas o la incorporación de los elementos indispensables para facilitar la inteligencia. De este modo, en lugar de proceder a reformar los textos legales, se concreta el sentido de las normas, perfeccionando el conjunto sin necesidad de sustituciones.

En fin, el mandato de armonización impone la supresión de divergencias de expresión legal, unificando y actualizando la terminología, e impone sobre todo superar las discordancias derivadas del anterior proceso legislativo. En este sentido, el texto refundido ha procedido a una muy importante generalización o extensión normativa de soluciones originariamente establecidas para una sola de las sociedades de capital, evitando no sólo remisiones, sino también tener que acudir a razonamientos en búsqueda de identidad de razón. Esta armonización era particularmente necesaria en lo referente a la determinación de la competencia de la junta general y, sobre todo, en lo relativo a la disolución y liquidación de las sociedades de capital, pues contrastaba el muy envejecido capítulo IX de la Ley de sociedades anónimas con el mucho más moderno ca-

testu bakar horrek. Birmoldaketa ez daiteke izan, bada, artikulua bat bestea-
ren ondoren jartze huts bat; aitzitik, horrek egintzabide konplexu bat garatzea
eskaten du helburu hirukoitz horren bila, zeina baita, interes orokorraren ka-
riaz, lege-erabakiaren oinarria. Testuategina idazterakoan, Gobernuak ez
ditu, soilik, birmoldatu beharreko lege-arauak errepikatu; aitzitik, lan delikatu
bat eginez trenkatu behar izan du araudi hori eskaturiko enkargua zintzo be-
tetzeko.

Arautzeak doitzea, erregulatzea edo ordenan jartzea esan nahi du. Arau-
tze horren zerbitzura, batzuetan, sistematika aldatu da, eta, aldi berean,
arau-proposamenen koskak leuntzeko ahalegina egin da. Testuateginak,
jakina, batzen duen guztia jasotzen du. Ez dira ez esperientziak zaharkitu-
tzat eman dituen zatiak kendu; ez legeak erabaki dituen irtenbideak aldatu,
nahiz praktikak haien efizientzia kolokan jarri eta aplikazioaren kostua na-
barmendu; ez oraindik legearen onarpena izan ez duten arauak sartu, izan
dezaketen irtenbidea aurrez ikusirik. Baina aginduzko arautze hori gabe ar-
gitaratuko litzatekeen testuategin batek traizio egingo lieke emandako gai-
kuntzaren baldintzei.

Arautzea ez ezik, argitzea ere eskatzen du gaikuntzak, hots, desagerraraztea,
ahal den neurrian, lege-testuek interpretazioan sortzen dituzten zalantzak, eta
arauen helmen zehatza adieraztea. Batzuetan -gutxienetan-, sistematikak be-
rak ahalbidetzen du emaitza hori lortzea; gehienetan, arauak zer esaten duen
zehaztu behar izaten da, ulermenari traba egiten diona kenduz, ongi biribildu
gabeko formulak aldatuz edo ulertzeko ezinbestekoak diren elementuak sartuz.
Horrela, lege-testuak erreformatu ordez, arauen zentzua zehazten da, osotasuna
hobetuz ezer ordezkatu beharrik gabe.

Azkenik, harmonizatze-aginduak lege-adierazpenen arteko desadostasunak
ezabatzea ezartzen du, terminologia batuz eta eguneratuz, eta, batez ere, au-
rreko legegintza-prozesutik eratorritako bat ez etortzeak gainditzea. Horri da-
gokionez, jatorrian kapital-sozietateetariko bakar batentzat ezarritako irtenbi-
deak nabarmen orokortu edo hedatu ditu testuateginak, hartara saihestuz ez
bakarrik bidaltze-oharrak egitea, baizik eta baita arrazoibideetara jo behar iza-
tea ere arrazoi-berdintasuna lortzeko. Harmonizazio hori bereziki zen beharrez-
koa batzar nagusiaren eskumena zehazteari dagokionez eta, batez ere, kapital-
sozietateen desegite eta likidazioari dagokionez, zeren eta Sozietate Anonimoei
buruzko Legearen IX. kapitulu oso zaharkituak kontrastea egiten baitzuen
Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko Legearen X. kapitulu askoz be-

pítulo X de la Ley de sociedades de responsabilidad limitada, que se ha tomado como base para la refundición.

III

Ese triple criterio puede conducir a resultados positivos en un sistema legislativo como el español en el que las sociedades de responsabilidad limitada —con mucho, las que concitan la preferencia de los operadores económicos— se han configurado tradicionalmente más como unas anónimas simplificadas y flexibles que como sociedades personalistas en las que los socios gocen del beneficio de responsabilidad por las deudas contraídas en nombre de la sociedad. En España las limitadas no son una anónima «por fuera» y una colectiva «por dentro». A pesar del sincretismo del régimen jurídico de las sociedades de responsabilidad limitada, en el que se combinan elementos procedentes de muy distintos modelos legislativos, prevalece en ese régimen la adscripción a la matriz común de las sociedades de capital, con estructura corporativa relativamente rígida. El éxito en la práctica española de esa tradicional opción de política legislativa pone de manifiesto el acierto de los legisladores de 1953 y de 1995, siendo pocos los casos en los que, dentro del límite infranqueable representado por las normas imperativas y por los principios configuradores, la autonomía privada ha decidido añadir algún tinte personalista.

Esta unidad sustancial entre las distintas formas de las sociedades de capital se aprecia con mayor claridad, si cabe, por la sistemática del texto refundido, que ha renunciado a una posible división entre «partes generales» y «partes especiales», articulando los textos por razón de materias, con las oportunas generalizaciones, sin perjuicio de consignar, dentro de cada capítulo o sección, o incluso dentro de cada artículo, las especialidades de cada forma social cuando real y efectivamente existieran. Con todo, el intérprete podrá apreciar que la imposibilidad de franquear los límites de la habilitación deja abiertos interrogantes acerca del sentido de algunas soluciones diferentes por razón de la forma social elegida.

IV

En el plano teórico la distinción entre las sociedades anónimas y las sociedades de responsabilidad limitada descansa en una doble característica: mientras que las primeras son sociedades naturalmente abiertas, las sociedades de

rriagoarekin, zeina hartu baita oinarritzat bategiterako.

III

Irizpide hirukoitz horrek emaitza positiboak ekar ditzake Espainiakoa bezalako legegintza-sistema batean, zeinean erantzukizun mugatuko sozietateak-eragile ekonomikoek, alde handiz, nahiago dituztenak-, areago eratu ohi izan baitira sozietate anonimo sinplifikatu eta malgu gisa, ezen ez sozietate personalista gisa, zeinetan bazkideek erantzukizun-onura baitute sozietatearen izenean egindako zorren aurrean. Espainian, sozietate mugatuak ez dira anonimo «kanpotik» eta kolektibo «barrutik». Erantzukizun mugatuko sozietateen araubide juridikoaren sinkretismoa gorabehera, zeinean legegintza-eredu oso desberdinetatik harturiko elementuak konbinatzen baitira, araubide horretan kapital-sozietateen molde erkidearekiko atxikipena nagusitzen da, eta egitura korporatibo gutxi-asko zurrun bat. Legegintza-politika ohiko horrek espainiar jardunbidean izan duen arrakastak agerian uzten du 1953ko eta 1995eko legegileen zentzu ona, eta kasu gutxitan erabaki du autonomia pribatuak, aginduzko arauak eta printzipio eratzailak adierazitako muga zeharkaezinen barruan, ñabardura pertsonalistaren bat eranstea.

Kapital-sozietate modu guztien arteko batasun funtsezko hori argiago ikusten da, beharbada, testu bateginaren sistematikagatik, zeinak uko egin baitio «parte orokorrak» eta «parte bereziak» bereizteari, eta testuak gaiak kontuan harturik artikulatu dira, dagokion generalizazioak eginez, hargatik eragotzi gabe sozietate modu bakoitzaren berezitasunak jasotzea kapitulu zein atal bakoitzaren barruan, edo are artikulatu bakoitzaren barruan, zinezko eta egiazko berezitasunak daudenean. Hala eta guztiz ere, interpretatzaileak ikusi ahal izango du gaikuntzaren mugetatik irten ezinak zenbait galdera erantzunik gabe uzten dituela aukeraturiko sozietate moduaren kariaz emandako irtenbide desberdin batzuen zentzuari buruz.

IV

Maila teorikoan, sozietate anonimoen eta erantzukizun mugatuko sozietateen arteko bereizketa bi ezaugarriotan oinarritzen da: sozietate anonimoak sozietate izatez irekiak dira, eta erantzukizun mugatuko sozietateak, berriz, sozie-

responsabilidad limitada son sociedades esencialmente cerradas; mientras que las primeras son sociedades con un rígido sistema de defensa del capital social, cifra de retención y, por ende, de garantía para los acreedores sociales, las segundas, en ocasiones, sustituyen esos mecanismos de defensa —a veces más formales que efectivos— por regímenes de responsabilidad, con la consiguiente mayor flexibilidad de la normativa. No procede ahora hacer pronósticos sobre el futuro del capital como técnica de tutela de los terceros —tema que sólo será posible afrontar adecuadamente en el marco supranacional de la Unión Europea—, pero sí interesa señalar que esa contraposición tipológica entre sociedades abiertas y sociedades cerradas no es absoluta, por cuanto que, como la realidad enseña, la gran mayoría de las sociedades anónimas españolas —salvo, obviamente, las cotizadas— son sociedades cuyos estatutos contienen cláusulas limitativas de la libre transmisibilidad de las acciones. El modelo legal subyacente no se corresponde con el modelo real, y esta circunstancia ha sido tenida en cuenta por el legislador español y ha debido ser tomada en consideración a la hora de elaborar el texto refundido. Se produce así, en ese plano de la realidad, una superposición de formas sociales, en el sentido de que para unas mismas necesidades —las que son específicas de las sociedades cerradas— se ofrece a la elección de los particulares dos formas sociales diferentes, concebidas con distinto grado de imperatividad, sin que el sentido de esa dualidad pueda apreciarse siempre con claridad. De este modo queda sin respuesta la pregunta de cuál debe ser en el futuro la relación entre las dos formas principales de las sociedades de capital y la de si el tránsito de una a otra debe respetar los requisitos establecidos para la transformación o si se debe facilitar a través de técnicas más ágiles y sencillas. Más que una rígida contraposición por razón de la forma social elegida, la distinción esencial radicaría en tener o no la condición de sociedad cotizada. El importante papel de las sociedades cotizadas en los mercados de capitales hace necesaria una intervención pública en la actividad económica orientada por una parte a la protección al inversor y por otra a la estabilidad, eficiencia y buen funcionamiento de los mercados financieros.

En este sentido, hay que tener en cuenta que la regulación de las sociedades cotizadas quedará sistematizada, por una parte, en este texto refundido, para recoger los aspectos económicos eminentemente societarios y, por otra, en la Ley 24/1988, de 28 de julio, del Mercado de Valores, donde aparece la regulación de la vertiente financiera de este tipo de sociedades, presidida fundamentalmente por el principio de transparencia para asegurar el buen funcionamiento de los mercados y la protección al inversor.

tate izatez itxiak dira; lehenengoek sistema zorrotz baten bidez babesten dituzte kapital soziala, atxikipen-zifra eta, beraz, sozietatearen hartzekodunen bermea, eta bigarrenen kasuan, berriz, zenbaitetan, babes-mekanismo horiek —formalak bai, baina ez beti eraginkorrak— erantzukizun-araubide batzuez ordezkatzeko dituzte, eta, ondorioz, araudia malguagotzen da. Orain ez dagokio pronostikoak egitea kapitalak hirugarrenen babeserako teknika gisa izango duen etorkizunari buruz -gai horri ezingo zaio egoki aurre egin Europar Batasunaren esparru nazioz gaundikoa baina-, baina komeni da adieraztea ezen sozietate irekien eta itxien arteko kontrajartze tipologiko hori ez dela erabatekoa, zeren eta, errealitateak erakusten duen bezala, espainiar sozietate anonimo gehien-gehienak -kotizatuak salbu, noski- beren estatutuetan akzioak libre eskualdatu ahal izateari klausula mugatzaileak ezartzen dizkieten sozietateak baitira. Azpian dagoen lege-eredua ez dator bat eredu errealekin, eta inguruabar hori kontuan izan du espainiar legegileak eta aintzakotzat hartu behar izan da testu batekina prestatzerakoan. Hala, errealitatearen maila horretan, sozietate moduen gainjartze bat gertatzen da: beharizan berak betetzeko -sozietate itxiek berariazkoak dituzten beharizanak betetzeko-, bi sozietate modu desberdin jartzen dira partikularren aukeran, aginduzkotasun-gradu desberdinez sortuak, bitasun horren zentzua beti argi hauteman ezin delarik. Hala, erantzunik gabe geratzen da zein izan behar duen etorkizunean kapital-sozietateen bi modu nagusien arteko erlazioa eta sozietate modu batetik bestera igarotzeak bete behar ote dituen eraldaketarako ezarritako betekizunak ala teknika zalu eta soilagoen bidez egin behar ote den eraldaketa. Aukeraturiko sozietate moduak eragindako kontrajartze zorrotz bat baino gehiago, sozietate kotizatu izatean edo ez izatean legoke funtsezko bereizketa. Sozietate kotizatuak kapital-merkatuetan duten eginkizun garrantzitsua dela eta, beharrezkoa da esku-hartze publiko bat ekonomia-jardueran; alde batetik, inbertitzailea babestera bideratua eta, bestetik, finantza-merkatuen egonkortasuna, efizientzia eta funtzionamendu ona lortzera bideratua.

Horri dagokionez, kontuan izan behar da sozietate kotizatuen arauketa sistematizaturik geratuko dela; alde batetik, testu bategin honetan, alderdi ekonomiko nagusiki sozietarioak jasotzeko, eta, bestetik, Balore Merkatuari buruzko 1988ko uztailaren 28ko 24/1988 Legean, zeinean agertzen baita sozietate mota horren alderdi finantzarioaren arauketa, bereziki gardentasun printzipioa gailentzen zaiolarik merkatuen funtzionamendu ona eta inbertitzailearen babesa bermatzeko.

El texto refundido nace —y es importante destacarlo— con decidida voluntad de provisionalidad; nace con el deseo de ser superado pronto, convirtiéndose así en un peldaño más de la escala hacia el progreso del Derecho. De un lado, porque no es aventurado afirmar que, en el inmediato futuro, el legislador debe afrontar importantes reformas de la materia, con la revisión de algunas de soluciones legales tradicionales, con la ampliación de la dinámica de los deberes fiduciarios de los administradores, con la más detallada regulación de las sociedades cotizadas y con la creación de un Derecho sustantivo de los grupos de sociedades, confinados hasta ahora en el régimen de las cuentas consolidadas y en esas normas episódicas dispersas por el articulado. De otro lado, porque es aspiración general que la totalidad del Derecho general de las sociedades mercantiles, incluido el aplicable a las sociedades personalistas, se contenga en un cuerpo legal unitario, con superación de la persistente pluralidad legislativa, que el presente texto refundido reduce pero no elimina. En este sentido los trabajos de la Comisión General de Codificación para la elaboración de un Código de las Sociedades Mercantiles o incluso de un nuevo Código Mercantil al servicio de las exigencias de la imprescindible unidad de mercado, habrán de ser valorados por el Gobierno a fin de decidir el tiempo y el modo de tan ambiciosa reforma.

En su virtud, a propuesta del Ministro de Justicia y de la Ministra de Economía y Hacienda, de acuerdo con el Consejo de Estado y previa deliberación del Consejo de Ministros en su reunión del día 2 de julio de 2010,

DISPONGO:

Artículo único. Aprobación del texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital

Se aprueba el texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital, al que se incorpora el contenido de la sección 4.^a del título I del libro II del Código de Comercio de 1885, relativa a las sociedades comanditarias por acciones; el Real Decreto Legislativo 1564/1989, de 22 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Sociedades Anónimas; la Ley 2/1995, de 23 de marzo, de Sociedades de Responsabilidad Limitada; y el contenido del título X de la Ley 24/1988, de 28 de julio, del Mercado de Valores, relativo a las sociedades anónimas cotizadas.

Garrantzitsua da nabarmentzea ezen testuategina behin-behinekoa izateko borondate sendoz jaio dela; berehala gaitua izateko nahiaz jaio da, beste harmaila bat izango delarik, hala, Zuzenbidearen aurrerabidean. Alde batetik, ez delako funsgabea esatea ezen, etorkizun hurbilean, legegileak erreforma garrantzitsuak egin beharko dituela gaiaren inguruan, legezko irtenbide ohiko batzuk berrikusiz, administratzaileen betebeharrak fiduziarioen dinamika zabalduz, sozietate kotizatuak zehatzago arautuz eta kontu bateratuen araubidean eta artikuluetan sakabanaturiko aldizkako arau horietan konfinaturik egon diren sozietate-taldeen buruzko zuzenbide substantibo bat sortuz. Bestetik, hau delako asmo orokorra: lege multzo bakar batean jasotzea merkataritza-sozietateen buruko zuzenbide orokor guztia, sozietate pertsonalistei aplikagarria zaiena barne, hartara gaituz legegintza-aniztasun iraunkorra, testuategin honek murrizten baina guztiz desagerrarazten ez duena. Horri dagokionez, Kodifikazio Batzorde Nagusiaren lanak, Merkataritza Sozietateen Kode bat egitera bideratuak eta are ezinbesteko merkatu-batasunaren eskakizunen zerbitzuko Merkataritza Kode berri bat prestatzekoak, Gobernuak balioetsi beharko ditu, hain asmo handiko erreforma noiz eta nola egin erabakitzeko.

Beraz, Justizia ministroak eta Ekonomia eta Ogasun ministroak proposaturik, Estatu Kontseiluarekin adosturik eta Ministro Kontseiluak 2010eko uztailaren 2ko bere bileran hala erabaki ondoren,

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. Kapital Sozietateen buruko Legearen testuategina onestea

Kapital Sozietateen buruzko Legea onesten da, hari gehitzen zaizkiolarik 1885eko Merkataritza Kodearen II. liburuako I. tituluko 4. atalaren edukia, akzio bidezko sozietate komanditarioen buruzkoa; 1989ko abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretua, Sozietate Anonimoen buruzko Legearen testuategina onesten duena; 1995ko martxoaren 23ko 2/1995 Legea, Erantzukizun Mugatuko Sozietateen buruzkoa; eta Balore Merkatuari buruzko 1988ko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen X. tituluen edukia, sozietate anonimo kotizatuak buruzkoa.

Disposición derogatoria única. Derogación de normas

Se derogan las siguientes disposiciones:

1.º La sección 4.ª del título I del libro II (artículos 151 a 157) del Código de Comercio de 1885, relativa a la sociedad en comandita por acciones.

2.º El Real Decreto Legislativo 1564/1989, de 22 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Sociedades Anónimas.

3.º La Ley 2/1995, de 23 de marzo, de Sociedades de Responsabilidad Limitada.

4.º El título X (artículos 111 a 117) de la Ley 24/1988, de 28 de julio, del Mercado de Valores, relativo a las sociedades cotizadas, con excepción de los apartados 2 y 3 del artículo 114 y los artículos 116 y 116 bis.

Disposición final primera. Título competencial

El texto refundido de la Ley de Sociedades de Capital se dicta en uso de la competencia exclusiva del Estado en materia de legislación mercantil, de conformidad con lo establecido en el artículo 149.1.6.ª de la Constitución Española.

Disposición final segunda. Autorización al Ministro de Justicia

Se autoriza al Ministro de Justicia para la modificación de las referencias a la numeración contenida en el Reglamento del Registro Mercantil, aprobado por Real Decreto 1784/1996, de 19 de julio, de los artículos de los textos de las disposiciones que se derogan por la que corresponde a los contenidos en el texto refundido de la Ley de sociedades de capital.

Disposición final tercera. Entrada en vigor

El presente real decreto legislativo y el texto refundido que aprueba entrarán en vigor el 1 de septiembre de 2010, excepto el artículo 515 que no será de aplicación hasta el 1 de julio de 2011.

Dado en Madrid, el 2 de julio de 2010.

JUAN CARLOS R.

La Vicepresidenta Primera del Gobierno y Ministra de la Presidencia,

MARÍA TERESA FERNÁNDEZ DE LA VEGA SANZ

Xedapen derogatzaile bakarra. Arauak derogatzea

Xedapen hauek derogatzen dira:

1) 1885eko Merkataritza Kodearen II. liburuko I. tituluko 4. atala (151.etik 157.era bitarteko artikulua), akzio bidezko sozietate komanditarioei buruzkoa.

2) 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 22koa, Sozietate Anonimoen buruzko Legearen testuategia onesten duena.

3) 2/1995 Legea, martxoaren 23koa, Erantzukizun Mugatuko Sozietateen buruzkoa.

4) Balore Merkatuari buruzko 1988ko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen X. titulua (111.etik 117.era bitarteko artikulua), sozietate anonimoen kotizatuen buruzkoa, salbu eta 114. artikuluan 2. eta 3. zenbakiak eta 116 eta 116 bis artikulua.

Amaierako lehen xedapena. Eskumen-titulua

Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 artikuluan ezarritakoaren arabera Estatuak merkataritza-legeriaren arloan duen eskumen esklusiboa baliatuz ematen da Kapital Sozietateen buruzko Legearen testuategia.

Amaierako bigarren xedapena. Justizia ministroari baimena ematea

Justizia ministroari baimena ematen zaio 1996ko uztailaren 19ko 1784/1996 Errege Dekretuak onetsirik Merkataritza Erregistroari buruzko Erregelamenduan jasotzen den zenbakeraren erreferentziak aldatzeko, derogatzen diren xedapenen testuen artikuluei dagokienez, eta Kapital-sozietateen buruzko Legearen testuategian jasotzen diren edukiei dagokiena jartzeko.

Amaierako hirugarren xedapena. Indarrean sartzea

Legegintzako errege-dekretu hau eta berak onesten duen testuategia 2010eko irailaren 1ean sartuko dira indarrean, 515. artikulua salbu, zeina ez baita aplikagarria izango 2011ko uztailaren 1a arte.

Madrilen emana, 2010eko uztailaren 2an.

JOAN KARLOS E.

Gobernuko presidenteorde lehen eta Presidentetzako ministroa,

MARÍA TERESA FERNÁNDEZ DE LA VEGA SANZ

KAPITAL SOZIETATEEI
BURUZKO LEGEAREN
TESTU BATEGINA

TEXTO REFUNDIDO
DE LA LEY DE SOCIEDADES
DE CAPITAL

TÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

CAPÍTULO I
Las sociedades de capital

Artículo 1. Sociedades de capital

1. Son sociedades de capital la sociedad de responsabilidad limitada, la sociedad anónima y la sociedad comanditaria por acciones.

2. En la sociedad de responsabilidad limitada, el capital, que estará dividido en participaciones sociales, se integrará por las aportaciones de todos los socios, quienes no responderán personalmente de las deudas sociales.

3. En la sociedad anónima el capital, que estará dividido en acciones, se integrará por las aportaciones de todos los socios, quienes no responderán personalmente de las deudas sociales.

4. En la sociedad comanditaria por acciones, el capital, que estará dividido en acciones, se integrará por las aportaciones de todos los socios, uno de los cuales, al menos, responderá personalmente de las deudas sociales como socio colectivo.

I. TITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA
Kapital-sozietateak

1. artikulua. Kapital-sozietateak

1. Kapital-sozietate dira: erantzukizun mugatuko sozietatea, sozietate anonimoa eta akzio bidezko sozietate komandataria.

2. Erantzukizun mugatuko sozietatean, kapitala, zeina sozietate-partaideztan banaturik egongo baita, bazkide guztien ekarpenen bidez osatuko da, eta bazkideek ez dute pertsonalki erantzungo sozietatearen zorrez.

3. Sozietate anonimoan, kapitala, zeina akziotan banaturik egongo baita, bazkide guztien ekarpenen bidez osatuko da, eta bazkideek ez dute pertsonalki erantzungo sozietatearen zorrez.

4. Akzio bidezko sozietate komandataria, kapitala, zeina akziotan banaturik egongo baita, bazkide guztien ekarpenen bidez osatuko da, eta bazkideetarik gutxienez batek pertsonalki erantzungo du sozietatearen zorrez bazkide kolektibo gisa.

Artículo 2. Carácter mercantil

Las sociedades de capital, cualquiera que sea su objeto, tendrán carácter mercantil.

Artículo 3. Régimen legal

1. Las sociedades de capital, en cuanto no se rijan por disposición legal que les sea específicamente aplicable, quedarán sometidas a los preceptos de esta ley.

2. Las sociedades comanditarias por acciones se regirán por las normas específicamente aplicables a este tipo social y, en lo que no esté en ellas previsto, por lo establecido en esta ley para las sociedades anónimas.

Artículo 4. Capital social mínimo

1. El capital de la sociedad de responsabilidad limitada no podrá ser inferior a tres mil euros y se expresará precisamente en esa moneda.

2. No obstante lo establecido en el apartado anterior, podrán constituirse sociedades de responsabilidad limitada con una cifra de capital social inferior al mínimo legal en los términos previstos en el artículo siguiente.

3. El capital social de la sociedad anónima no podrá ser inferior a sesenta mil euros y se expresará precisamente en esa moneda.

Artículo 4 bis. Sociedades en régimen de formación sucesiva

1. Mientras no se alcance la cifra de capital social mínimo fijada en el apartado Uno del artículo 4, la sociedad de responsabilidad limitada estará sujeta al régimen de formación sucesiva, de acuerdo con las siguientes reglas:

a) Deberá destinarse a la reserva legal una cifra al menos igual al 20 por ciento del beneficio del ejercicio sin límite de cuantía.

b) Una vez cubiertas las atenciones legales o estatutarias, sólo podrán repartirse dividendos a los socios si el valor del patrimonio neto no es o, a consecuencia del reparto, no resultare inferior al 60 por ciento del capital legal mínimo.

c) La suma anual de las retribuciones satisfechas a los socios y administradores por el desempeño de tales cargos durante esos ejercicios no podrá exceder del 20 por ciento del patrimonio neto del correspondiente ejercicio, sin perjuicio de la retribución que les pueda corresponder como trabajador por cuenta

2. artikulua. Merkataritza-izaera

Kapital-sozietateek, edozein ere dela haien objektua, merkataritza-izaera izango dute.

3. artikulua. Lege-araubidea

1. Kapital-sozietateak, berariaz aplikagarriak zaizkien lege-xedapenek erauzten ez dituztenean, lege honen manuen mende geratuko dira.

2. Akzio bidezko sozietate komanditarioak sozietate mota horri berariaz aplikagarriak zaizkion arauak eraunduko dituzte eta, haietan aurreikusirik ez dagoen hartan, lege honetan sozietate anonimoentzat ezartzen denak.

4. artikulua. Gutxieneko kapital soziala

1. Erantzukizun mugatuko sozietatearen kapitala ezin izango da hiru mila euro baino gutxiagokoa eta hain zuzen ere diru horretan adieraziko da.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, erantzukizun mugatuko sozietateak legezko gutxienekoa baino kapital sozial txikiagoz eratu ahal izango dira hurrengo artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

3. Sozietate anonimoaren kapital soziala ezin izango da hirurogei mila euro baino gutxiagokoa eta hain zuzen ere diru horretan adieraziko da.

4 bis artikulua. Ondoz ondo eratzeko araubidea duten sozietateak

1. 4. artikulua 1. zenbakian finkaturiko gutxieneko kapital sozialaren zifra iristen ez den bitartean, erantzukizun mugatuko sozietatea ondoz ondo eratzeko araubidearen mende egongo da, erregela hauen arabera:

a) Ekitaldiko mozkinen ehuneko 20ri dagokion zifra bera bideratu beharko da, gutxienez, legezko erreserbara, gehienezko mugarik gabe.

b) Legeak edo estatutuek aurreikusitako betebeharrak bete ondoren bazkideei dibidenduak banatu ahal izateko, beharrezko izango da ondare garbiaren balioa ez izatea edo, banaketaren ondorioz, ez gertatzea legezko gutxieneko kapital sozialaren ehuneko 60 baino txikiagoa.

c) Bazkideei eta administratzaileei ekitaldi horietan kargu horietan aritzea-gatik urtean emandako ordainsari guztien zenbatekoa ezin izango da dagokion ekitaldiko ondare garbiaren ehuneko 20 baino handiagoa, hargatik eragotzi gabe sozietatearen inoren konturako langile gisa dagokiekeen ordainsaria edo

ajena de la sociedad o a través de la prestación de servicios profesionales que la propia sociedad concierte con dichos socios y administradores.

2. En caso de liquidación, voluntaria o forzosa, si el patrimonio de la sociedad fuera insuficiente para atender al pago de sus obligaciones, los socios y los administradores de la sociedad responderán solidariamente del desembolso de la cifra de capital mínimo establecida en la Ley.

3. No será necesario acreditar la realidad de las aportaciones dinerarias de los socios en la constitución de sociedades de responsabilidad limitada de formación sucesiva. Los fundadores y quienes adquieran alguna de las participaciones asumidas en la constitución responderán solidariamente frente a la sociedad y frente a los acreedores sociales de la realidad de dichas aportaciones.

Artículo 5. Prohibición de capital inferior al mínimo legal

1. No se autorizarán escrituras de constitución de sociedad de capital que tengan una cifra de capital social inferior al legalmente establecido, ni escrituras de modificación del capital social que lo dejen reducido por debajo de dicha cifra, salvo que sea consecuencia del cumplimiento de una ley.

2. Para el caso de sociedades de responsabilidad limitada en régimen de formación sucesiva se aplicará lo establecido en los artículos 4 y 4 bis.

CAPÍTULO II

Denominación, nacionalidad y domicilio

SECCIÓN I.^a

Denominación

Artículo 6. Indicación del tipo social

1. En la denominación de la sociedad de responsabilidad limitada deberá figurar necesariamente la indicación «Sociedad de Responsabilidad Limitada», «Sociedad Limitada» o sus abreviaturas «S.R.L.» o «S.L.».

2. En la denominación de la sociedad anónima deberá figurar necesariamente la indicación «Sociedad Anónima» o su abreviatura «S.A.».

3. La sociedad comanditaria por acciones podrá utilizar una razón social, con el nombre de todos los socios colectivos, de alguno de ellos o de uno solo,

sozietateak berak bazkide edo administratzaile horiekin hitzartzen dituen zerbitzu profesionalen bidez dagokiekeena.

2. Likidazio-kasuan, dela hura borondatezkoa zein nahitaezkoa, sozietatearen ondarea aski ez bada haren eginbideak ordaintzeko, sozietatearen bazkideek eta administratzaileek modu solidarioan erantzungo dute legean ezarritako gutxieneko kapital sozialaren zifra ordaintzeaz.

3. Ondoz ondo eratzeko sistema duten erantzukizun mugatuko sozietateak eratzean, ez da beharrezko izango bazkideek diru-ekarpenak egiazki egin dituztela frogatzea. Sortzaileek eta eraketan harturiko partaidetzen bat eskuratzen dutenek modu solidarioan erantzungo dute sozietatearen aurrean eta sozietatearen hartzekodunen aurrean ekarpen horiek egiazki egiteaz.

5. artikulua. Legezko gutxienekoa baino kapital txikiagoaren debekua

1. Ez da baimenduko legez ezarritakoa baino zifra txikiagoko kapital soziala duen ezein kapital-sozietateren eratze-eskriturarik, ez kapital soziala zifra horren azpitik murrizturik uzten duen ezein kapital sozialen aldaketa-eskriturarik, non eta ez den lege bat betetzearen ondorio.

2. Ondoz ondo eratzeko araubidea duten erantzukizun mugatuko sozietateen kasuan, 4. eta 4 bis artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

II. KAPITULUA

Izendapena, nazionalitatea eta helbidea

I. ATALA

Izendapena

6. artikulua. Sozietate mota adieraztea

1. Erantzukizun mugatuko sozietatea izendatzean, adierazpen honek agertu beharko du nahitaez: «Erantzukizun Mugatuko Sozietatea», «Sozietate Muga-tua» edo «E.M.S.» zein «S.M.», haien laburdurak.

2. Sozietate anonimoa izendatzean, adierazpen honek agertu beharko du nahitaez: «Sozietate Anonimoa» edo «S.A.», haren laburdura.

3. Akzio bidezko sozietate komanditarioak sozietate-izen bat erabili ahal izango du, bazkide kolektibo guztien izenekin, haietariko batzuenekin zein

o bien una denominación objetiva, con la necesaria indicación de «Sociedad comanditaria por acciones» o su abreviatura «S. Com. por A.».

Artículo 7. Prohibición de identidad

1. Las sociedades de capital no podrán adoptar una denominación idéntica a la de cualquier otra sociedad preexistente.

2. Reglamentariamente podrán establecerse ulteriores requisitos para la composición de la denominación social.

SECCIÓN 2.^a

Nacionalidad

Artículo 8. Nacionalidad

Serán españolas y se registrarán por la presente ley todas las sociedades de capital que tengan su domicilio en territorio español, cualquiera que sea el lugar en que se hubieran constituido.

SECCIÓN 3.^a

Domicilio

Artículo 9. Domicilio

1. Las sociedades de capital fijarán su domicilio dentro del territorio español en el lugar en que se halle el centro de su efectiva administración y dirección, o en el que radique su principal establecimiento o explotación.

2. Las sociedades de capital cuyo principal establecimiento o explotación radique dentro del territorio español deberán tener su domicilio en España.

Artículo 10. Discordancia entre domicilio registral y domicilio real

En caso de discordancia entre el domicilio registral y el que correspondería según el artículo anterior, los terceros podrán considerar como domicilio cualquiera de ellos.

bakar batenarekin osatua, edota izendapen objektibo bat, nahitaez agerraraziz adierazpen hau: «Akzio bidezko sozietate komanditarioa» edo «A. bidezko S.K.», haren laburdura.

7. artikulua. Berdintasun-debekua

1. Kapital-sozietateek ezin hartuko dute lehendik dagoen beste zeinahi sozietateren izendapen bera.

2. Geroagoko betekizun batzuk ere ezarri ahal izango dira, erregelamenduz, sozietate-izendapena osatzeko.

2. ATALA

Nazionalitatea

8. artikulua. Nazionalitatea

Espainiarrak izango dira eta lege honek eraenduko ditu helbidea espainiar lurraldean duten kapital-sozietate guztiak, edozein lekutan eratu direla ere.

3. ATALA

Helbidea

9. artikulua. Helbidea

1. Kapital-sozietateek beren egiazko administrazio- eta zuzendaritza-gunea dagoen lekuan jarriko dute helbidea espainiar lurraldearen barruan, edo beren establezimendu edo ustiategi nagusia dagoen lekuan.

2. Establezimendu edo ustiategi nagusia espainiar lurraldearen barruan duten kapital-sozietateek Espainian izan beharko dute helbidea.

10. artikulua. Erregistroko helbidea eta benetako helbidea bat ez etortzea

Erregistroko helbidea eta aurreko artikuluaaren arabera legokiokiena bat ez datozen kasuan, hirugarrenek haietariko zeinahi hartu ahal izango dute helbidetzat.

Artículo 11. Sucursales

1. Las sociedades de capital podrán abrir sucursales en cualquier lugar del territorio nacional o del extranjero.

2. Salvo disposición contraria de los estatutos, el órgano de administración será competente para acordar la creación, la supresión o el traslado de las sucursales.

SECCIÓN 4.^a

Página web

Artículo 11 bis. Página web de la sociedad

1. Las sociedades de capital podrán tener una página web corporativa. Esta página será obligatoria para las sociedades cotizadas.

2. La creación de una página web corporativa deberá acordarse por la junta general de la sociedad. En la convocatoria de la junta, la creación de la página web deberá figurar expresamente en el orden del día de la reunión. Salvo disposición estatutaria en contrario, la modificación, el traslado o la supresión de la página web de la sociedad será competencia del órgano de administración.

3. El acuerdo de creación de la página web se hará constar en la hoja abierta a la sociedad en el Registro Mercantil competente y será publicado en el «Boletín Oficial del Registro Mercantil».

El acuerdo de modificación, de traslado o de supresión de la página web se hará constar en la hoja abierta a la sociedad en el Registro Mercantil competente y será publicado en el «Boletín Oficial del Registro Mercantil», así como en la propia página web que se ha acordado modificar, trasladar o suprimir durante los treinta días siguientes a contar desde la inserción del acuerdo.

La publicación de la página web de la sociedad en el «Boletín Oficial del Registro Mercantil» será gratuita.

Hasta que la publicación de la página web en el «Boletín Oficial del Registro Mercantil» tenga lugar, las inserciones que realice la sociedad en la página web no tendrán efectos jurídicos.

Los estatutos sociales podrán exigir que, antes de que se hagan constar en la hoja abierta a la sociedad en el Registro Mercantil, estos acuerdos se notifiquen individualmente a cada uno de los socios.

11. artikulua. Sukurtsalak

1. Kapital-sozietateek nazio-lurraldeko zein atzerriko edozein lekutan ireki ahal izango dituzte sukurtsalak.

2. Estatutuetan kontrakorik xedatu ezean, administrazio-organoa eskudun izango da sukurtsalak sortzea, kentzea edo lekualdatzea erabakitzeke.

4. ATALA

Web orria

11 bis artikulua. Sozietatearen web orria

1. Kapital-sozietateek web orri korporatibo bat eduki ahal izango dute. Orri hori nahitaezkoa izango da sozietate kotizatuen kasuan.

2. Sozietatearen batzar nagusiak erabaki beharko du web orri korporatiboa sortzea. Batzarrerako deialdian, web orriaren sorrera espresuki adierazi beharko da bilerako gai-zerrendan. Estatutuetan kontrakorik xedatu ezean, administrazio-organoaren eskumena izango da sozietatearen web orria aldatzea, lekualdatzea edo kentzea.

3. Web orria sortzeko erabakia Merkataritza Erregistro eskudunean sozietateari irekitako orrian jasoko da eta Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko.

Web orria aldatzeko, eskualdatzeko edo kentzeko erabakia Merkataritza Erregistro eskudunean sozietateari irekitako orrian jasoko da eta Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko; orobat argitaratuko da aldatzea, eskualdatzea edo kentzea erabaki den web orrian berean, hurrengo hogeita hamar egunetan, erabakia txertatu denetik kontatzen hasita.

Sozietatearen web orria Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean argitaratzea doakoa izango da.

Web orria Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen ez den bitartean sozietateak web orrian egiten dituen txertatzeek ez dute efektu juridikorik izango.

Sozietatearen estatutuetan galdatu ahal izango da ezen erabaki horiek, Merkataritza Erregistroan sozietateari irekitako orrian jasoarazi aurretik, bazkide bakoitzari banaka adieraz dakizkiola.

Artículo 11 ter. Publicaciones en la página web

1. La sociedad garantizará la seguridad de la página web, la autenticidad de los documentos publicados en esa página, así como el acceso gratuito a la misma con posibilidad de descarga e impresión de lo insertado en ella.

2. La carga de la prueba del hecho de la inserción de documentos en la página web y de la fecha en que esa inserción haya tenido lugar corresponderá a la sociedad.

3. Los administradores tienen el deber de mantener lo insertado en la página web durante el término exigido por la ley, y responderán solidariamente entre sí y con la sociedad frente a los socios, acreedores, trabajadores y terceros de los perjuicios causados por la interrupción temporal de acceso a esa página, salvo que la interrupción se deba a caso fortuito o de fuerza mayor. Para acreditar el mantenimiento de lo insertado durante el término exigido por la ley será suficiente la declaración de los administradores, que podrá ser desvirtuada por cualquier interesado mediante cualquier prueba admisible en Derecho.

4. Si la interrupción de acceso a la página web fuera superior a dos días consecutivos o cuatro alternos, no podrá celebrarse la junta general que hubiera sido convocada para acordar sobre el asunto a que se refiera el documento inserto en esa página, salvo que el total de días de publicación efectiva fuera igual o superior al término exigido por la ley. En los casos en los que la ley exija el mantenimiento de la inserción después de celebrada la junta general, si se produjera interrupción, deberá prolongarse la inserción por un número de días igual al que el acceso hubiera estado interrumpido.

Artículo 11 quáter. Comunicaciones por medios electrónicos

Las comunicaciones entre la sociedad y los socios, incluida la remisión de documentos, solicitudes e información, podrán realizarse por medios electrónicos siempre que dichas comunicaciones hubieran sido aceptadas por el socio. La sociedad habilitará, a través de la propia web corporativa, el correspondiente dispositivo de contacto con la sociedad que permita acreditar la fecha indubitada de la recepción así como el contenido de los mensajes electrónicos intercambiados entre socios y sociedad.

11 ter artikulua. Web orriko argitalpenak

1. Web orriaren segurtasuna, orri hartan argitaraturiko dokumentuen egiazkotasuna eta orrira doan sartu ahal izatea bermatuko ditu sozietateak, eta hartan txertaturikoa deskargatzeko eta inprimatzeko aukera emango.

2. Sozietateari dagokio web orrian dokumentuak txertatu direla eta txertatze horiek zein datatan egin diren frogatzearen karga.

3. Web orrian txertaturikoa legeak galdatzen duen denboran edukitzeko betebeharra dute administratzaileek, eta modu solidarioan erantzungo dute, elkarren artean eta sozietatearekin, bazkide, hartzekodun, langile eta hirugarrenen aurrean web orrirako irispidea aldi batean eteteak eragindako kalteez, salbu eta etena ustekabean edo ezinbestez gertatu bada. Web orrian txertaturikoa legeak galdatzen duen denboran eduki dela egiaztatzeko, aski izango da administratzaileen adierazpena, zeina edozein interesdunek indargabetu ahal izango baitu Zuzenbidean onaturiko edozein frogaren bidez.

4. Web orrirako irispidearen etena elkarren segidako bi egunekoa edo txandakako lau egunekoa baino gehiagokoa gertatzen bada, orri horretan txertaturiko dokumentuan aipatzen den gaiari buruz erabaki bat hartzeko deituriko batzar nagusia ezin egingo da, salbu eta argitalpena egiazki egin den egunak, guztira, legeak galdaturiko denborarenak adinbat edo gehiago badira. Legeak batzar nagusia egin ondoren dokumentua txertaturik edukitzea galdatzen duen kasuetan, etenik gertatzen bada, irispidea etenda egon den adina egunez luzatu beharko da hura txertaturik edukitzeko denbora.

11 quater artikulua. Bide elektronikoz egindako adierazpenak

Sozietatearen eta bazkideen arteko adierazpenak, barne harturik dokumentuak, eskaerak eta informazioa bidaltzea, bide elektronikoak erabiliz egin ahal izango dira, baldin eta bazkideak komunikazio-bide horiek onartu baditu. Sozietateak, bere web korporatiboaren bidez, sozietatearekin harremanetan jartzeko dagokion mekanismoa jarriko du, haren bitartez egiaztatu ahal izateko hala sozietatearen eta bazkideen artean gurutzaturiko mezu elektronikoen jasotze-data ziurra nola haien edukia.

CAPÍTULO III

La sociedad unipersonal

SECCIÓN I.^a

La sociedad unipersonal

Artículo 12. Clases de sociedades de capital unipersonales

Se entiende por sociedad unipersonal de responsabilidad limitada o anónima:

a) La constituida por un único socio, sea persona natural o jurídica.

b) La constituida por dos o más socios cuando todas las participaciones o las acciones hayan pasado a ser propiedad de un único socio. Se consideran propiedad del único socio las participaciones sociales o las acciones que pertenezcan a la sociedad unipersonal.

Artículo 13. Publicidad de la unipersonalidad

1. La constitución de una sociedad unipersonal, la declaración de tal situación como consecuencia de haber pasado un único socio a ser propietario de todas las participaciones sociales o de todas las acciones, la pérdida de tal situación o el cambio del socio único como consecuencia de haberse transmitido alguna o todas las participaciones o todas las acciones, se harán constar en escritura pública que se inscribirá en el Registro Mercantil. En la inscripción se expresará necesariamente la identidad del socio único.

2. En tanto subsista la situación de unipersonalidad, la sociedad hará constar expresamente su condición de unipersonal en toda su documentación, correspondencia, notas de pedido y facturas, así como en todos los anuncios que haya de publicar por disposición legal o estatutaria.

Artículo 14. Efectos de la unipersonalidad sobrevenida

1. Transcurridos seis meses desde la adquisición por la sociedad del carácter unipersonal sin que esta circunstancia se hubiere inscrito en el Registro Mercantil, el socio único responderá personal, ilimitada y solidariamente de las deudas sociales contraídas durante el período de unipersonalidad.

III. KAPITULUA

Pertsona bakarreko sozietatea

I. ATALA

Pertsona bakarreko sozietatea

12. artikulua. Pertsona bakarreko kapital-sozietate motak

Pertsona bakarreko sozietate erantzukizun mugatukotzat edo anonimotzat jotzen da:

a) Bazkide bakar batek osatzen duena, dela hura pertsona naturala zein juridikoa.

b) Bi bazkidek edo gehiagok osatzen dutena, partaidetza edo akzio guztiak bazkide bakar baten jabetzakoak izatera pasatu direnean. Pertsona bakarreko sozietatearenak diren sozietate-partaidetzak edo akzioak jotzen dira bazkide bakarraren jabetzakotzat.

13. artikulua. Pertsonabakartasuna publiko egitea

1. Pertsona bakarreko sozietate bat eratzea, bazkide bakar bat sozietate-partaidetza guztien edo akzio guztien jabe izatera pasatu izanaren ondorioz pertsonabakartasun-egoera deklaratzeko, egoera hori galtzea edo partaidetza batzuk edo guztiak edo akzio guztiak eskualdatu izanaren ondorioz bazkide bakarra aldatzea eskritura publiko batean jasoko dira, zeina Merkataritza Erregistroan inskribatuko baita. Inskripzioan, bazkide bakarraren identitatea adieraziko da nahitaez.

2. Pertsonabakartasun-egoerak dirauen bitartean, sozietateak espresuki adieraziko du pertsona bakarrekoa dela bere dokumentazio, korrespondentzia, eskabide-ohar eta faktura guztietan, bai eta lege- zein estatutu-xedapenez argitaratu behar dituen iragarki guztietan ere.

14. artikulua. Gerora gertaturiko pertsonabakartasunaren efektuak

1. Sozietateak pertsona bakarreko izaera lortu duenetik sei hilabete igarotakoan inguruabar hori Merkataritza Erregistroan inskribatu ez bada, bazkide bakarrak modu pertsonal, mugagabe eta solidarioan erantzungo du pertsonabakartasunaren aldiaren izandako sozietate-zorrez.

2. Inscrita la unipersonalidad, el socio único no responderá de las deudas contraídas con posterioridad.

SECCIÓN 2.^a

Régimen jurídico de la sociedad unipersonal

Artículo 15. Decisiones del socio único

1. En la sociedad unipersonal el socio único ejercerá las competencias de la junta general.

2. Las decisiones del socio único se consignarán en acta, bajo su firma o la de su representante, pudiendo ser ejecutadas y formalizadas por el propio socio o por los administradores de la sociedad.

Artículo 16. Contratación del socio único con la sociedad unipersonal

1. Los contratos celebrados entre el socio único y la sociedad deberán constar por escrito o en la forma documental que exija la ley de acuerdo con su naturaleza, y se transcribirán a un libro-registro de la sociedad que habrá de ser legalizado conforme a lo dispuesto para los libros de actas de las sociedades. En la memoria anual se hará referencia expresa e individualizada a estos contratos, con indicación de su naturaleza y condiciones.

2. En caso de concurso del socio único o de la sociedad, no serán oponibles a la masa aquellos contratos comprendidos en el apartado anterior que no hayan sido transcritos al libro-registro y no se hallen referenciados en la memoria anual o lo hayan sido en memoria no depositada con arreglo a la ley.

3. Durante el plazo de dos años a contar desde la fecha de celebración de los contratos a que se refiere el apartado primero, el socio único responderá frente a la sociedad de las ventajas que directa o indirectamente haya obtenido en perjuicio de ésta como consecuencia de dichos contratos.

Artículo 17. Especialidades de las sociedades unipersonales públicas

A las sociedades de responsabilidad limitada o anónimas unipersonales cuyo capital sea propiedad del Estado, Comunidades Autónomas o Corporaciones locales, o de organismos o entidades de ellos dependientes, no serán de aplicación lo establecido en el apartado segundo del artículo 13, el artículo 14 y los apartados 2 y 3 del artículo 16.

2. Pertsonabakartasuna inskribatutakoan, bazkide bakarrak ez du erantzungo harrezkero izandako zorrez.

2. ATALA

Pertsona bakarreko sozietatearen araubide juridikoa

15. artikulua. Bazkide bakarraren erabakiak

1. Pertsona bakarreko sozietatean, bazkide bakarrak baliatuko ditu batzar nagusiaren eskumenak.

2. Bazkide bakarraren erabakiak aktan jasoko dira, berak edo beraren ordezkariak sinaturik, eta bazkideak berak zein sozietatearen administratzaileek exekutatu eta formalizatu ahal izango dituzte.

16. artikulua. Bazkide bakarraren eta pertsona bakarreko sozietatearen arteko kontratua

1. Bazkide bakarraren eta sozietatearen artean egindako kontratuak idatziz edo legeak kontratuaren izaeraren arabera galdatzen duen dokumentu moduan jaso beharko dira, eta sozietatearen erregistro-liburu batera transkribatu, zeinak legeztatua izan beharko baitu sozietateen akta-liburuei buruz xedaturikoaren arabera. Urteko oroitidazkian, espresuki eta banaka aipatuko dira kontratu horiek, zer izaera eta baldintza dituzten adieraziz.

2. Bazkide bakarraren edo sozietatearen konkurtsoa gertatzen den kasuan, aurreko zenbakian jasoriko kontratuak masaren kontra ezin baliatuzkoak izango dira erregistro-liburura transkribatu ez badira eta urteko oroitidazkian aipaturik ageri ez badira edo legearen arabera gordailutu gabeko oroitidazkian aipatu badira.

3. Lehenengo zenbakian aipaturiko kontratuak egin diren datatik kontatzen hasi eta bi urteko epean, bazkide bakarrak sozietatearen aurrean erantzungo du kontratu horien ondorioz sozietatearen kaltetan zuzenean edo zeharka irabazi dituen abantailez.

17. artikulua. Pertsona bakarreko sozietate publikoen berezitasunak

Estatuaren, autonomia-erkidegoen zein toki-korporazioen, edo haien mendeko erakunde eta entitateen jabetzako kapitala duten pertsona bakarreko sozietate erantzukizun mugatukoei zein anonimoei ez zaie aplikatuko 13. artikulua, 14. artikulua eta 16. artikulua 2. eta 3. zenbakietan xedaturikoa.

CAPÍTULO IV

Los grupos de sociedades

Artículo 18. Grupos de sociedades

A los efectos de esta ley, se considerará que existe grupo de sociedades cuando concurra alguno de los casos establecidos en el artículo 42 del Código de Comercio, y será sociedad dominante la que ostente o pueda ostentar, directa o indirectamente, el control de otra u otras.

TÍTULO II

LA CONSTITUCIÓN DE LAS SOCIEDADES DE CAPITAL

CAPÍTULO I

Disposiciones generales

Artículo 19. La constitución de las sociedades

1. Las sociedades de capital se constituyen por contrato entre dos o más personas o, en caso de sociedades unipersonales, por acto unilateral.

2. Las sociedades anónimas podrán constituirse también en forma sucesiva por suscripción pública de acciones.

Artículo 20. Escritura pública e inscripción registral

La constitución de las sociedades de capital exigirá escritura pública, que deberá inscribirse en el Registro Mercantil.

CAPÍTULO II

La escritura de constitución

Artículo 21. Otorgamiento de la escritura de constitución

La escritura de constitución de las sociedades de capital deberá ser otorgada por todos los socios fundadores, sean personas físicas o jurídicas, por sí o

IV. KAPITULUA

Sozietate-taldeak

18. artikulua. Sozietate-taldeak

Lege honi dagokionez, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako kasuren bat gertatzen denean joko da sozietate-taldea badagoela, eta zuzenean edo zeharka beste sozietate baten edo batzuen kontrola duen edo izan dezakeen sozietatea izango da sozietate nagusi.

II. TITULUA

KAPITAL SOZIETATEAK ERATZEA

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

19. artikulua. Kapital-sozietateak eratzea

1. Kapital-sozietateak bi pertsonaren edo gehiagoren arteko kontratuz eratzen dira, edo, pertsona bakarreko sozietateen kasuan, alde bakarreko egintzaz.

2. Sozietate anonimoak ondoz ondo ere eratu ahal izango dira akzioen harpidetza publikoaren bidez.

20. artikulua. Eskritura publikoa eta erregistro-inskripzioa

Kapital-sozietateak eratzeak eskritura publikoa galdatuko du, eta eskritura hori Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko da.

II. KAPITULUA

Eratze-eskritura

21. artikulua. Eratze-eskritura egilestea

Kapital-sozietateen eratze-eskritura bazkide sortzaile guztiek egiletsi beharko dute, direla pertsona fisikoak zein juridikoak, beren kabuz edo ordez-

por medio de representante, quienes habrán de asumir la totalidad de las participaciones sociales o suscribir la totalidad de las acciones.

Artículo 22. Contenido de la escritura de constitución

1. En la escritura de constitución de cualquier sociedad de capital se incluirán, al menos, las siguientes menciones:

a) La identidad del socio o socios.

b) La voluntad de constituir una sociedad de capital, con elección de un tipo social determinado.

c) Las aportaciones que cada socio realice o, en el caso de las anónimas, se haya obligado a realizar, y la numeración de las participaciones o de las acciones atribuidas a cambio.

d) Los estatutos de la sociedad.

e) La identidad de la persona o personas que se encarguen inicialmente de la administración y de la representación de la sociedad.

2. Si la sociedad fuera de responsabilidad limitada, la escritura de constitución determinará el modo concreto en que inicialmente se organice la administración, si los estatutos prevén diferentes alternativas.

3. Si la sociedad fuera anónima, la escritura de constitución expresará, además, la cuantía total, al menos aproximada, de los gastos de constitución, tanto de los ya satisfechos como de los meramente previstos hasta la inscripción.

Artículo 23. Estatutos sociales

En los estatutos que han de regir el funcionamiento de las sociedades de capital se hará constar:

a) La denominación de la sociedad.

b) El objeto social, determinando las actividades que lo integran.

c) El domicilio social.

d) El capital social, las participaciones o las acciones en que se divida, su valor nominal y su numeración correlativa. En el caso de las sociedades de responsabilidad limitada en régimen de formación sucesiva, en tanto la cifra de capital sea inferior al mínimo fijado en el artículo 4, los estatutos contendrán una expresa declaración de sujeción de la sociedad a dicho régimen. Los Regis-

kari bidez, eta sozietate-partaidetza guztiak hartu edo akzio guztiak harpidetu beharko dituzte.

22. artikulua. Eratze-eskrituraren edukia

1. Edozein kapital-sozietateren eratze-eskrituran aipamen hauek jasoko dira gutxienez:

- a) Bazkidearen edo bazkideen identitatea.
- b) Kapital-sozietate bat eratzeko borondatea, sozietate mota jakin bat aukeratzuz.
- c) Bazkide bakoitzak egiten dituen ekarpenak edo, sozietate anonimoen kasuan, egitera lotu den ekarpenak, eta horren truke esleitzen zaizkion partaidetzen edo akzioen zenbakiak.
- d) Sozietatearen estatutuak.
- e) Hasieran sozietatea administratzeko eta ordezkatzeko ardura hartzen duen pertsonaren edo pertsonen identitatea.

2. Sozietatea erantzukizun mugatukoa bada, eratze-eskrituran zehaztuko da zein izango den, konkretuki, hasieran administrazioa antolatzeke modua, baldin eta estatutueta aukera bat baino gehiago aurreikusten bada.

3. Sozietatea anonimoa bada, eratze-eskrituran, gainera, eratze-gastuen zenbateko osoa adieraziko da, gutxi gorabeherakoa behintzat, hala jadanik ordaindu diren gastuena nola inskripzioa egin arte aurreikusten direnena.

23. artikulua. Sozietatearen estatutuak

Sozietateen funtzionamendua eraenduko duten estatutueta hauek jasoko dira:

- a) Sozietatearen izendapena.
- b) Objektu soziala, hura osatzen duten jarduerak zehaztuz.
- c) Sozietate-helbidea.
- d) Kapital soziala, hura osatzen duten partaidetzak edo akzioak, haien balio nominala eta haien zenbaki korrelatiboak. Ondoz ondo eratzeko araubidea duten erantzukizun mugatuko sozietateen kasuan, kapital-zifra 4. artikuluan finkaturiko gutxienekoa baino txikiagoa den bitartean, estatutueta espresuki adieraziko da sozietatea araubide horren mende dagoela. Merkataritza-erregis-

tradores Mercantiles harán constar, de oficio, esta circunstancia en las notas de despacho de cualquier documento inscribible relativo a la sociedad, así como en las certificaciones que expidan.

Si la sociedad fuera de responsabilidad limitada expresará el número de participaciones en que se divida el capital social, el valor nominal de las mismas, su numeración correlativa y, si fueran desiguales, los derechos que cada una atribuya a los socios y la cuantía o la extensión de éstos.

Si la sociedad fuera anónima expresará las clases de acciones y las series, en caso de que existieran; la parte del valor nominal pendiente de desembolso, así como la forma y el plazo máximo en que satisfacerlo; y si las acciones están representadas por medio de títulos o por medio de anotaciones en cuenta. En caso de que se representen por medio de títulos, deberá indicarse si son las acciones nominativas o al portador y si se prevé la emisión de títulos múltiples.

e) El modo o modos de organizar la administración de la sociedad, el número de administradores o, al menos, el número máximo y el mínimo, así como el plazo de duración del cargo y el sistema de retribución, si la tuvieren.

En las sociedades comanditarias por acciones se expresará, además, la identidad de los socios colectivos.

f) El modo de deliberar y adoptar sus acuerdos los órganos colegiados de la sociedad.

Artículo 24. Comienzo de las operaciones

1. Salvo disposición contraria de los estatutos, las operaciones sociales darán comienzo en la fecha de otorgamiento de la escritura de constitución.

2. Los estatutos no podrán fijar una fecha anterior a la del otorgamiento de la escritura, excepto en el supuesto de transformación.

Artículo 25. Duración de la sociedad

Salvo disposición contraria de los estatutos, la sociedad tendrá duración indefinida.

Artículo 26. Ejercicio social

A falta de disposición estatutaria se entenderá que el ejercicio social termina el treinta y uno de diciembre de cada año.

tratzailleek inguruabar hori jasoko dute, ofizioz, sozietateari buruzko edozein agiri inskribagarriren idatzagiri-oharretan, bai eta ematen dituzten ziurtagirietan ere.

Sozietatea erantzukizun mugatukoa bada, kapital soziala osatzen duten partaidetzen kopurua adieraziko da, haien balio nominala, haien zenbaki korrelatiboak eta, desberdinak badira, bakoitzak bazkideei ematen dizkien eskubiak eta haien kopurua edo hedadura.

Sozietatea anonimoa bada, akzio motak adieraziko dira, eta serieak, hala-kerik bada; oraindik ordaintzeko dagoen balio nominalaren zatia, bai eta hura ordaintzeko modua eta gehienezko epea ere; eta ea akzioak titulu bidez edo kontuko idatz-ohar bidez adierazten diren. Titulu bidez adierazten diren kasuan, adierazi beharko da ea akzioak izendunak ala eramailearenak diren eta ea aurreikusten den titulu anizkoitzak jaulkitzea.

e) Sozietatearen administrazioa antolatzeko modua edo moduak, administraziole kopurua edo, behintzat, gehienezko eta gutxienezko kopurua, bai eta karguaren iraupen-epea eta lansaria emateko sistema ere, lansaririk badute.

Akzio bidezko sozietate komanditarioetan, bazkide kolektiboen identitatea ere adieraziko da.

f) Sozietatearen kide anitzeko organoek eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko duten modua.

24. artikulua. Eragiketak hastea

1. Estatutuetan kontrakorik xedatu ezean, sozietatearen eragiketak eratze-eskritura egilesten den datan hasiko dira.

2. Estatutuetan ezin finkatuko da eskritura egilesten den data baino lehenagoko datarik, eraldaketaren kasuan izan ezik.

25. artikulua. Sozietatearen iraupena

Estatutuetan kontrakorik xedatu ezean, sozietateak iraupen mugagabea izango du.

26. artikulua. Sozietatearen ekitaldia

Estatutuetan xedapenik ezean, sozietatearen ekitaldia urte bakoitzeko abenduaren hogeita hamaikan amaitzen dela ulertuko da.

Artículo 27. Ventajas de los fundadores de las sociedades anónimas

1. En los estatutos de las sociedades anónimas los fundadores y los promotores de la sociedad podrán reservarse derechos especiales de contenido económico, cuyo valor en conjunto, cualquiera que sea su naturaleza, no podrá exceder del diez por ciento de los beneficios netos obtenidos según balance, una vez deducida la cuota destinada a la reserva legal y por un período máximo de diez años. Los estatutos habrán de prever un sistema de liquidación para los supuestos de extinción anticipada de estos derechos especiales.

2. Estos derechos podrán incorporarse a títulos nominativos distintos de las acciones, cuya transmisibilidad podrá restringirse en los estatutos sociales.

Artículo 28. Autonomía de la voluntad

En la escritura y en los estatutos se podrán incluir, además, todos los pactos y condiciones que los socios fundadores juzguen conveniente establecer, siempre que no se opongan a las leyes ni contradigan los principios configuradores del tipo social elegido.

Artículo 29. Pactos reservados

Los pactos que se mantengan reservados entre los socios no serán oponibles a la sociedad.

Artículo 30. Responsabilidad de los fundadores

1. Los fundadores responderán solidariamente frente a la sociedad, los socios y los terceros de la constancia en la escritura de constitución de las menciones exigidas por la ley, de la exactitud de cuantas declaraciones hagan en aquella y de la adecuada inversión de los fondos destinados al pago de los gastos de constitución.

2. La responsabilidad de los fundadores alcanzará a las personas por cuya cuenta hayan obrado estos.

27. artikulua. Sozietate anonimoen sortzaileen abantailak

1. Sozietate anonimoen estatutueta, sozietatearen sortzaileek eta sustatzaileek eduki ekonomikoko eskubide bereziak gorde ahal izango dituzte berentzat, gehienez ere hamar urtez; eskubideon balioa, guztira, edozein ere dela haien izaera, ezin izango da balantzearen arabera lorturiko mozkin garbien ehuneko hamar baino handiagoa, aurrez mozkinoi kendu zaielarik legezko erreserbarako kuota. Estatutueta likidazio-sistema bat aurreikusi beharko da eskubide berezi horiek denbora baino lehenago amaitzen diren kasuetarako.

2. Eskubide horiek akzioez besteko titulu izendunei gehitu ahal izango zaizkie, sozietatearen estatutueta mugatu ahal izango delarik haien eskualdagarritasuna.

28. artikulua. Borondatearen autonomia

Eskrituran eta estatutueta sartu ahal izango dira, orobat, bazkide sortzaileek ezartzea komeni dela deritzoten itun eta baldintza guztiak, baldin eta legeei kontrarik egiten ez badiete eta aukeraturiko sozietate motaren eratze-printzipioekin kontraesanik ez badute.

29. artikulua. Isileko itunak

Bazkideen artean isilean gordetzen diren itunak sozietatearen kontra ezin baliatuzkoak izango dira.

30. artikulua. Sortzaileen erantzukizuna

1. Sortzaileek modu solidarioan erantzungo dute sozietatearen, bazkideen eta hirugarrenen aurrean legeak galdatzen dituen aipamenak eratze-eskrituran jasotzeaz, hartan egiten dituzten adierazpen guztien egiaz eta eratze-gastuak ordaintzera bideratzen diren funtsak egoki inbertitzeaz.

2. Sortzaileen erantzukizuna izango dute haien izenean jardun duten pertsonak.

CAPÍTULO III

La inscripción registral

SECCIÓN I.^a

La inscripción

Artículo 31. Legitimación para la solicitud de inscripción

Los socios fundadores y los administradores de la sociedad tendrán las facultades necesarias para la presentación de la escritura de constitución en el Registro Mercantil y, en su caso, en los de la Propiedad y de Bienes Muebles, así como para solicitar o practicar la liquidación y hacer el pago de los impuestos y gastos correspondientes.

Artículo 32. Deber legal de presentación a inscripción

1. Los socios fundadores y los administradores deberán presentar a inscripción en el Registro Mercantil la escritura de constitución en el plazo de dos meses desde la fecha del otorgamiento y responderán solidariamente de los daños y perjuicios que causaren por el incumplimiento de esta obligación.

2. La inscripción de la escritura de constitución y de todos los demás actos relativos a la sociedad podrán practicarse previa justificación de que ha sido solicitada o realizada la liquidación de los impuestos correspondientes al acto inscribible.

Artículo 33. Efectos de la inscripción

Con la inscripción la sociedad adquirirá la personalidad jurídica que corresponda al tipo social elegido.

Artículo 34. Intransmisibilidad de participaciones y acciones antes de la inscripción

Hasta la inscripción de la sociedad o, en su caso, del acuerdo de aumento de capital social en el Registro Mercantil, no podrán transmitirse las participaciones sociales, ni entregarse o transmitirse las acciones.

Artículo 35. Publicación

Una vez inscrita la sociedad en el Registro Mercantil, el registrador mercantil remitirá para su publicación, de forma telemática y sin coste adicional al-

III. KAPITULUA

Erregistro-inskripzioa

I. ATALA

Inskripzioa

31. artikulua. Inskripzio-eskaera egiteko legitimazioa

Sozietateko bazkide sortzaileek eta administratzaileek behar diren ahalmenak izango dituzte eratze-eskritura Merkataritza Erregistroan eta, hala badagokio, Jabetzarenean eta Ondasun Higigarrienean aurkezteko, bai eta likidazioa eskatzeko edo egiteko eta dagozkion zergak eta gastuak ordaintzeko ere.

32. artikulua. Inskribatzera aurkezteko legezko betebeharra

1. Bazkide sortzaileek eta administratzaileek Merkataritza Erregistroan inskribatzera aurkeztu beharko dute eratze-eskritura, egileksi den datatik bi hilabeteke epean, eta modu solidarioan erantzungo dute eginbide hori ez betetzeak ekar ditzakeen kalte-galerez.

2. Eratze-eskritura eta sozietateari buruzko gainerako egintza guztiak inskribatu ahal izateko, egintza inskribagarriari dagozkion zergen likidazioa eskatu dela edo egin dela frogatu beharko da aurrez.

33. artikulua. Inskripzioaren efektuak

Inskripzioaren bidez, aukeraturiko sozietate motari dagokion nortasun juridikoa lortuko du sozietateak.

34. artikulua. Inskripzioa egin aurretik partaidetzak eta akzioak eskualdatu ezina

Harik eta sozietatea edo, hala badagokio, kapital soziala handitzeko erabilia Merkataritza Erregistroan inskribatu arte, ez da zilegi izango sozietatearen partaidetzak eskualdatzea, ez eta akzioak entregatzea edo eskualdatzea ere.

35. artikulua. Argitaratzea

Sozietatea Merkataritza Erregistroan inskribatutakoan, merkataritza-erregistratzaileak Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialera igorriko ditu,

guno, al Boletín Oficial del Registro Mercantil, los datos relativos a la escritura de constitución que reglamentariamente se determinen.

SECCIÓN 2.^a

Sociedad en formación

Artículo 36. Responsabilidad de quienes hubiesen actuado

Por los actos y contratos celebrados en nombre de la sociedad antes de su inscripción en el Registro Mercantil, responderán solidariamente quienes los hubiesen celebrado, a no ser que su eficacia hubiese quedado condicionada a la inscripción y, en su caso, posterior asunción de los mismos por parte de la sociedad.

Artículo 37. Responsabilidad de la sociedad en formación

1. Por los actos y contratos indispensables para la inscripción de la sociedad, por los realizados por los administradores dentro de las facultades que les confiere la escritura para la fase anterior a la inscripción y por los estipulados en virtud de mandato específico por las personas a tal fin designadas por todos los socios, responderá la sociedad en formación con el patrimonio que tuviere.

2. Los socios responderán personalmente hasta el límite de lo que se hubieran obligado a aportar.

3. Salvo que la escritura o los estatutos sociales dispongan otra cosa, si la fecha de comienzo de las operaciones coincide con el otorgamiento de la escritura fundacional, se entenderá que los administradores están facultados para el pleno desarrollo del objeto social y para realizar toda clase de actos y contratos.

Artículo 38. Responsabilidad de la sociedad inscrita

1. Una vez inscrita, la sociedad quedará obligada por aquellos actos y contratos a que se refiere el artículo anterior así como por los que acepte dentro del plazo de tres meses desde su inscripción.

2. En ambos supuestos cesará la responsabilidad solidaria de socios, administradores y representantes a que se refieren los dos artículos anteriores.

3. En el caso de que el valor del patrimonio social, sumado al importe de los gastos indispensables para la inscripción de la sociedad, fuese inferior a la cifra del capital, los socios estarán obligados a cubrir la diferencia.

modu telematikoan eta kostu gehigarririk gabe, erregelamenduz zehazten diren eratze-eskriturari buruzko datuak.

2. ATALA

Eratze-bidean dagoen sozietatea

36. artikulua. Egintzak egin dituztenen erantzukizuna

Sozietatea Merkataritza Erregistroan inskribatu aurretik sozietatearen ize-nean egindako egintzez eta kontratuez, haiek egin dituztenek erantzungo dute, modu solidarioan, non eta egintza eta kontratuon eraginkortasuna ez den geratu haiek inskribatzearen eta, hala badagokio, gero sozietateak haiek bere gain hartzearen baldintzapean.

37. artikulua. Eratze-bidean dagoen sozietatearen erantzukizuna

1. Eratze-bidean dagoen sozietateak erantzungo du, duen ondarearekin, sozietatea inskribatzeko nahitaezkoak diren egintzez eta kontratuez, inskripzioa egin aurreko faserako eskriturak ematen dizkien ahalmenen barruan administratzaileek egindakoez eta bazkide guztiek hartarako izendaturiko pertsonak berriazko mandatuaren indarrez erabakitakoez.

2. Bazkideek pertsonalki erantzungo dute egitera lotu diren ekarpenaren neurriraino.

3. Eskrituran edo sozietatearen estatutuetan besterik xedatu ezean, baldin eta eragiketen hasiera-data sortze-eskritura egilesten denekoa bera bada, ulertuko da ezen administratzaileek ahalmena dutela objektu soziala bete-betean garatzeko eta era guztietako egintzak eta kontratuak egiteko.

38. artikulua. Inskribaturiko sozietatearen erantzukizuna

1. Sozietateak, behin inskribatutakoan, aurreko artikuluan aipatzen diren egintzen eta kontratuen erantzukizuna izango du, bai eta inskribatzen denetik hiru hilabeteko epean onartzen dituenena ere.

2. Bi kasuetan, aurreko bi artikuluetan aipaturiko bazkide, administratzaile eta ordezkarien erantzukizun solidarioa amaitu egingo da.

3. Baldin eta sozietatearen ondarearen balioa, sozietatea inskribatzeko ezinbesteko gastuen zenbatekoari gehiturik, kapitalaren zifra baino txikiagoa bada, bazkideak beharturik daude diferentzia hori estaltzera.

SECCIÓN 3.^a

Sociedad devenida irregular

Artículo 39. Sociedad devenida irregular

1. Una vez verificada la voluntad de no inscribir la sociedad y, en cualquier caso, transcurrido un año desde el otorgamiento de la escritura sin que se haya solicitado su inscripción, se aplicarán las normas de la sociedad colectiva o, en su caso, las de la sociedad civil si la sociedad en formación hubiera iniciado o continuado sus operaciones.

2. En caso de posterior inscripción de la sociedad no será de aplicación lo establecido en el apartado segundo del artículo anterior.

Artículo 40. Derecho del socio a instar la disolución

En caso de sociedad devenida irregular, cualquier socio podrá instar la disolución de la sociedad ante el juez de lo mercantil del lugar del domicilio social y exigir, previa liquidación del patrimonio social, la cuota correspondiente, que se satisfará, siempre que sea posible, con la restitución de sus aportaciones.

CAPÍTULO IV

La constitución sucesiva de la sociedad anónima

Artículo 41. Ámbito de aplicación

Siempre que con anterioridad al otorgamiento de la escritura de constitución de la sociedad anónima se haga una promoción pública de la suscripción de las acciones por cualquier medio de publicidad o por la actuación de intermediarios financieros, se aplicarán las normas previstas en este título.

Artículo 42. Programa de fundación

1. En la fundación por suscripción pública, los promotores comunicarán a la Comisión Nacional del Mercado de Valores el proyecto de emisión y redactarán el programa de fundación, con las indicaciones que juzguen oportunas y necesariamente con las siguientes:

- a) El nombre, apellidos, nacionalidad y domicilio de todos los promotores.
- b) El texto literal de los estatutos que, en su caso, deban regir la sociedad.

Irregular bilakaturiko sozietatea

39. artikulua. Irregular bilakaturiko sozietatea

1. Behin sozietatea ez inskribatzeko borondatea egiaztatutakoan eta, edozein kasutan, eskritura egiletsi zenetik urtebete igaro ondoren sozietatea inskribatzeko eskaerarik egin ez bada, sozietate kolektiboari buruzko arauak aplikatuko dira, edo, hala badagokio, sozietate zibilari buruzkoak, eratze-bidean den sozietateak bere eragiketak hasi edo jarraitu baditu.

2. Sozietatea geroago inskribatzen den kasuan ez da aplikatuko aurreko artikuluaaren bigarren zenbakian ezarritakoa.

40. artikulua. Desegitea eskatzeko bazkideak duen eskubidea

Irregular bilakaturiko sozietate baten kasuan, edozein bazkidek sozietatea desegiteko eskaria egin ahal izango du sozietate-helbidearen lekuko merkataritza gaientarako epailearen aurrean, eta, aurrez sozietatearen ondarea likidaturik, dagokion kuota galdatu, zeina, ahal dela, bazkideari bere ekarpenak itzuliz ordainduko baita.

IV. KAPITULUA

Sozietate anonimoa ondoz ondo eratzea

41. artikulua. Aplikazio-eremua

Sozietate anonimoaren eratze-eskritura egiletsi aurretik akzio-harpidetza-rako sustapen publiko bat egiten bada, edozein publizitate-bide erabiliz edo finantza-bitartekarien jardueraren bidez, titulu honetan aurreikusitako arauak aplikatuko dira.

42. artikulua. Sortze-programa

1. Harpidetza publikoaren bidezko sorreran, sustatzaileek jaulkipen-proiektua adieraziko diote Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari eta sortze-programa idatziko dute, egoki deritzoten oharpenak eta nahitaezko beste hauek eginez:

- a) Sustatzaile guztien izena, deiturak, nazionalitatea eta helbidea.
Sozietate anonimoetarako aurreikusitakoaren arabera beren ekarpen ez-diruzkoek peritu-balioespena izan duten bazkideak libre geratuko dira aurreko artikuluetan aipatzen den erantzukizun solidariotik.

2. ATALA

Erantzukizun-araubidea sozietate anonimoetan

77. artikulua. Erantzukizun solidarioa

Sortzaileek modu solidarioan erantzungo dute sozietatearen, akziodunen eta hirugarrenen aurrean sozietate-ekarpenen egiazkotasunaz eta diruzkoak ez diren ekarpenen balioespenaz.

Sortzaileen erantzukizuna izango dute sortzaileen izenean jardun duten pertsonen ere.

CAPÍTULO IV

El desembolso

SECCIÓN I.^a

Reglas generales

Artículo 78. El desembolso del valor nominal de las participaciones sociales

Las participaciones sociales en que se divida el capital de la sociedad de responsabilidad limitada deberán estar íntegramente asumidas por los socios, e íntegramente desembolsado el valor nominal de cada una de ellas en el momento de otorgar la escritura de constitución de la sociedad o de ejecución del aumento del capital social.

Artículo 79. El desembolso mínimo del valor nominal de las acciones

Las acciones en que se divida el capital de la sociedad anónima deberán estar íntegramente suscritas por los socios, y desembolsado, al menos, en una cuarta parte el valor nominal de cada una de ellas en el momento de otorgar la escritura de constitución de la sociedad o de ejecución del aumento del capital social.

Artículo 80. Aportaciones no dinerarias aplazadas

1. En las sociedades anónimas, en caso de desembolso parcial de las acciones suscritas, la escritura deberá expresar si los futuros desembolsos se efectuarán en metálico o en nuevas aportaciones no dinerarias. En este último caso, se determinará en la escritura su naturaleza, valor y contenido, la forma y el procedimiento de efectuarlas, con mención expresa del plazo de su desembolso.

2. El plazo de desembolso con cargo a aportaciones no dinerarias no podrá exceder de cinco años desde la constitución de la sociedad o del acuerdo de aumento del capital social.

3. El informe del experto o, en su caso, el informe de los administradores se incorporará como anejo a la escritura en la que conste la realización de los desembolsos aplazados.

IV. KAPITULUA

Ordainketa

I. ATALA

Arau orokorrak

78. artikulua. Sozietate-partaidetzen balio nominala ordaintzea

Erantzukizun mugatuko sozietatearen kapitala osatzen duten sozietate-partaidetza guztiak harturik izan beharko dituzte bazkideek, eta haietariko bakoitzaren balio nominal osoa ordaindurik, sozietatearen eratze-eskritura edo kapital sozialaren handitzea exekutatzekoa egilesteko unean.

79. artikulua. Akzioen balio nominalaren gutxieneko ordainketa

Sozietate anonimoaren kapitala osatzen duten akzio guztiak harpideturik izan beharko dituzte bazkideek, eta haietariko bakoitzaren balio nominalaren gutxienez laurden bat ordaindurik, sozietatearen eratze-eskritura edo kapital sozialaren handitzea exekutatzekoa egilesteko unean.

80. artikulua. Diruzkoak ez diren ekarpen geroratuak

1. Sozietate anonimoetan, harpideturiko akzioak partzialki ordaintzen diren kasuan, eskrituran adierazi behako da ea ondorengo ordainketak esku-dirutan ala diruzkoak ez diren beste ekarpen batzuetan egingo diren. Azken kasu horretan, eskrituran zehaztu beharko da haien izaera, balioa eta edukia, ordaintzeko modua eta prozedura, espresuki adieraziz zein den ordaintzeko epea.

2. Ordainketak diruzkoak ez diren ekarpenen kargura egiteko epea, gehiezez ere, bost urtekoa izango da, sozietatea eratzten denetik edo kapital soziala handitzeko erabakia hartzen denetik kontatzen hasita.

3. Adituaren txostena edo, hala badagokio, administratzaileen txostena eranskin gisa gehituko zaio ordainketa geroratuak egin direla jasotzen duen eskriturari.

SECCIÓN 2.^a

Los desembolsos pendientes

Artículo 81. Los desembolsos pendientes

1. En las sociedades anónimas, el accionista deberá aportar a la sociedad la porción de capital que hubiera quedado pendiente de desembolso en la forma y dentro del plazo previsto por los estatutos sociales.

2. La exigencia del pago de los desembolsos pendientes se notificará a los afectados o se anunciará en el Boletín Oficial del Registro Mercantil. Entre la fecha del envío de la comunicación o la del anuncio y la fecha del pago deberá mediar, al menos, el plazo de un mes.

Artículo 82. Mora del accionista

Se encuentra en mora el accionista una vez vencido el plazo fijado por los estatutos sociales para el pago de la porción de capital no desembolsada o el acordado o decidido por los administradores de la sociedad, conforme a lo establecido en el artículo anterior.

Artículo 83. Efectos de la mora

1. El accionista que se hallare en mora en el pago de los desembolsos pendientes no podrá ejercitar el derecho de voto. El importe de sus acciones será deducido del capital social para el cómputo del quórum.

2. Tampoco tendrá derecho el socio moroso a percibir dividendos ni a la suscripción preferente de nuevas acciones ni de obligaciones convertibles.

Una vez abonado el importe de los desembolsos pendientes junto con los intereses adeudados podrá el accionista reclamar el pago de los dividendos no prescritos, pero no podrá reclamar la suscripción preferente, si el plazo para su ejercicio ya hubiere transcurrido.

Artículo 84. Reintegración de la sociedad

1. Cuando el accionista se halle en mora, la sociedad podrá, según los casos y atendida la naturaleza de la aportación no efectuada, reclamar el cumplimiento de la obligación de desembolso, con abono del interés legal y de los daños y perjuicios causados por la morosidad o enajenar las acciones por cuenta y riesgo del socio moroso.

Egiteko dauden ordainketak

81. artikulua. Egiteko dauden ordainketak

1. Sozietate anonimoetan, sozietatearen estatutuetan aurreikusitako moduan eta epean ordaindu beharko dio akziodunak sozietateari ordaintzeko geratu den kapital-zatia.

2. Egiteko dauden ordainketak egin beharra horrek ukitzen ditueni jakinaraziko zaie edo Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean iragarriko da. Jakinarazpena bidaltzen den edo iragarpena egiten den dataren eta ordainketa egiteko dataren artean hilabeteko tarteaz utzi beharko da gutxienez.

82. artikulua. Akziodunaren berandutza

Aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera, ordaindu gabeko kapital-zatia ordaintzeko sozietatearen estatutuek ezarritako epea edo sozietatearen administrazioaileek adostutakoa edo erabakitakoa amaitzen denean dago akzioduna berandutza-egoeran.

83. artikulua. Berandutzaren efektuak

1. Egiteko dauden ordainketei dagokienez berandutza-egoeran dagoen akziodunak ezin baliatuko du bozkatzeko eskubidea. Haren akzioen zenbatekoa kenduko zaio kapital sozialari quoruma kalkulatzeko.

2. Bazkide berankorrek ez du eskubiderik izango ez dibidenduak jasotzeko ez akzio berriak edo obligazio bihurgarriak lehentasunez harpidetzeko.

Egiteko dauden ordainketak egin eta zor dituen interesak pagatutakoan, preskribatu gabeko dibidenduak ordain diezazkiotela erreklamatu ahal izango du akzionistak, baina ezin erreklamatu du lehentasunezko harpidetza, hura baliatzeko epea amaitua bada.

84. artikulua. Sozietatea berrosatzea

1. Akzioduna berandutza-egoeran dagoenean, sozietateak esku izango du, kasuen arabera eta egin gabeko ekarpenaren izaera kontuan izanik, ordaintzeko eginbidea bete dadila erreklamatzeko, legezko interesak eta berankortasunak eragindako kalte-galerak ere ordainaraziz, edo bazkide berankorren kontura eta arriskura akzioak besterentzeko.

2. Cuando haya de procederse a la venta de las acciones, la enajenación se verificará por medio de un miembro del mercado secundario oficial en el que estuvieran admitidas a negociación, o por medio de fedatario público en otro caso, y llevará consigo, si procede, la sustitución del título originario por un duplicado.

Si la venta no pudiese efectuarse, la acción será amortizada, con la consiguiente reducción del capital, quedando en beneficio de la sociedad las cantidades ya desembolsadas.

Artículo 85. Responsabilidad en la transmisión de acciones no liberadas

1. El adquirente de acción no liberada responde solidariamente con todos los transmitentes que le precedan, y a elección de los administradores de la sociedad, del pago de la parte no desembolsada.

2. La responsabilidad de los transmitentes durará tres años, contados desde la fecha de la respectiva transmisión. Cualquier pacto contrario a la responsabilidad solidaria así determinada será nulo.

3. El adquirente que pague podrá reclamar la totalidad de lo pagado de los adquirentes posteriores.

CAPÍTULO V

Las prestaciones accesorias

Artículo 86. Carácter estatutario

1. En los estatutos de las sociedades de capital podrán establecerse prestaciones accesorias distintas de las aportaciones, expresando su contenido concreto y determinado y si se han de realizar gratuitamente o mediante retribución, así como las eventuales cláusulas penales inherentes a su incumplimiento.

2. En ningún caso las prestaciones accesorias podrán integrar el capital social.

3. Los estatutos podrán establecerlas con carácter obligatorio para todos o algunos de los socios o vincular la obligación de realizar las prestaciones accesorias a la titularidad de una o varias participaciones sociales o acciones concretamente determinadas.

Artículo 87. Prestaciones accesorias retribuidas

1. En el caso de que las prestaciones accesorias sean retribuidas los estatutos determinarán la compensación que hayan de recibir los socios que las realicen.

2. Akzioak saldu behar direnean, haiek negoziatorako onartuak dauden bigarren mailako merkatu ofizialeko kide baten bidez egingo da besterentzea, edo, bestela, fede-emaile publiko baten bidez, eta, hala badagokio, jatorrizko titulua kopia batez ordezkatzera ekarriko du.

Salmenta egin ezin bada, akzioa amortizatuko da, eta, ondorioz, kapitala murriztuko, sozietatearentzat geratuko direlarik jada ordainduriko kopuruak.

85. artikulua. Liberatu gabeko akzioak eskualdatzeak duen erantzukizuna

1. Liberatu gabeko akzioa eskuratzen duenak modu solidarioan erantzungo du beraren aurreko eskualdatzaile guztiekin, sozietatearen administratzaileen aukeran, ordaindu gabeko zatia pagatzeaz.

2. Eskualdatzaileen erantzukizunak hiru urte iraungo du, bakoitzaren eskualdaketa egin zen datatik hasita. Hala zehazturiko erantzukizun solidarioaren kontrako edozein itun deusez izango da.

3. Ordaintzen duen eskuratzailerak ordainduriko guztia erreklamatu ahal izango die ondorengo eskuratzailerai.

V. KAPITULUA

Prestazio osagarriak

86. artikulua. Estatutu-izaera

1. Kapital-sozietateen estatutuetan, ekarpenez besteko prestazio osagarriak ezarri ahal izango dira, haien eduki konkretu eta zehatza adieraziz eta doan ala ordainsari baten truke emango diren esanez, eta haiek ez betetzeak dituen klausula penalak ere azalduz.

2. Prestazio osagarriek ez dute ezein kasutan kapital soziala osatuko.

3. Estatutuetan, nahitaezkozkat ezarri ahal izango dira bazkide guztientzat edo batzuentzat edo prestazio osagarriak emateko eginbidea konkretuki zehazturiko sozietate-partaidetza edo akzio baten edo gehiagoren titulartasunarekin lotu.

87. artikulua. Ordainsarizko prestazio osagarriak

1. Prestazio osagarriak ordainsarizkoak diren kasuan, estatutuetan zehaztuko da zer konpentsazio jasoko duten prestaziook ematen dituzten bazkideek.

2. La cuantía de la retribución no podrá exceder en ningún caso del valor que corresponda a la prestación.

Artículo 88. Transmisión de participaciones o de acciones con prestación accesoria

1. Será necesaria la autorización de la sociedad para la transmisión voluntaria por actos inter vivos de cualquier participación o acción perteneciente a un socio personalmente obligado a realizar prestaciones accesorias y para la transmisión de aquellas concretas participaciones sociales o acciones que lleven vinculada la referida obligación.

2. Salvo disposición contraria de los estatutos, en las sociedades de responsabilidad limitada la autorización será competencia de la junta general; y, en las sociedades anónimas, de los administradores.

En cualquier caso, transcurrido el plazo de dos meses desde que se hubiera presentado la solicitud de autorización sin que la sociedad haya contestado a la misma, se considerará que la autorización ha sido concedida.

Artículo 89. Modificación de la obligación de realizar prestaciones accesorias

1. La creación, la modificación y la extinción anticipada de la obligación de realizar prestaciones accesorias deberá acordarse con los requisitos previstos para la modificación de los estatutos y requerirá, además, el consentimiento individual de los obligados.

2. Salvo disposición contraria de los estatutos, la condición de socio no se perderá por la falta de realización de las prestaciones accesorias por causas involuntarias.

TÍTULO IV

PARTICIPACIONES SOCIALES Y ACCIONES

CAPÍTULO I

Disposiciones generales

Artículo 90. Participaciones sociales y acciones

Las participaciones sociales en la sociedad de responsabilidad limitada y las acciones en la sociedad anónima son partes alícuotas, indivisibles y acumulables del capital social.

2. Ordainsariaren zenbatekoa ezin izango da, ezein kasutan, prestazioari dagokion balioa baino handiagoa.

88. artikulua. Prestazio osagarriak dituzten partaidetzak edo akzioak eskualdatzea

1. Sozietatearen baimena beharko da bai prestazio osagarriak ematera pertsonalki beharturik dagoen bazkide baten edozein partaidetza edo akzio *inter vivos* egintzen bidez borondatez eskualdatzeko eta bai eginbide hori uztarturik daramaten sozietate-partaidetza edo akzio konkretuak eskualdatzeko.

2. Estatutuetan kontrakorik xedatu ezean, erantzukizun mugatuko sozietateetan batzar nagusiaren eskumena izango da baimena ematea, eta sozietate anonimoetan, berriz, administratzaileena.

Edozein kasutan, baimen-eskaera aurkeztu zenetik bi hilabetera sozietateak erantzunik eman ez badu, baimena emantzat joko da.

89. artikulua. Prestazio osagarriak emateko eginbidea aldatzea

1. Prestazio osagarriak emateko eginbidea sortzea, aldatzea eta denbora baino lehen amaitzea erabakitzeko, beharrezko izango da estatutuak aldatzeko aurreikusitako betekizunak betetzea, eta, horretaz gainera, eginbidea dutenen bana-banako adostasuna ere beharko da.

2. Estatutuetan kontrakorik xedatu ezean, bazkide-izaera ez da galduko prestazio osagarriak ez emateagatik baldin eta borondatez kanpoko arrazoiak izan badira.

IV. TITULUA

SOZIESTATE PARTAIDETZAK ETA AKZIOAK

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

90. artikulua. Sozietate-partaidetzak eta akzioak

Sozietate-partaidetzak erantzukizun mugatuko sozietatean eta akzioak sozietate anonimoan kapital sozialaren parte alikuotak, zatiezinak eta metagarriak dira.

Artículo 91. Atribución de la condición de socio

Cada participación social y cada acción confieren a su titular legítimo la condición de socio y le atribuyen los derechos reconocidos en esta ley y en los estatutos.

Artículo 92. La acción como valor mobiliario

1. Las acciones podrán estar representadas por medio de títulos o por medio de anotaciones en cuenta. En uno y otro caso tendrán la consideración de valores mobiliarios.

2. Las participaciones sociales no podrán estar representadas por medio de títulos o de anotaciones en cuenta, ni denominarse acciones, y en ningún caso tendrán el carácter de valores.

CAPÍTULO II

Los derechos del socio

SECCIÓN I.^a

Los derechos del socio

Artículo 93. Derechos del socio

En los términos establecidos en esta ley, y salvo los casos en ella previstos, el socio tendrá, como mínimo, los siguientes derechos:

a) El de participar en el reparto de las ganancias sociales y en el patrimonio resultante de la liquidación.

b) El de asunción preferente en la creación de nuevas participaciones o el de suscripción preferente en la emisión de nuevas acciones o de obligaciones convertibles en acciones.

c) El de asistir y votar en las juntas generales y el de impugnar los acuerdos sociales.

d) El de información.

Artículo 94. Diversidad de derechos

1. Las participaciones sociales y las acciones atribuyen a los socios los mismos derechos, con las excepciones establecidas al amparo de la ley.

91. artikulua. Bazkide-izaera ematea

Sozietate-partaidetza bakoitzak eta akzio bakoitzak bazkide-izaera ematen dio haren titular legitimoari, eta lege honetan eta estatutuetan aitortzen diren eskubideak esleitzen.

92. artikulua. Akzioa balore higigarri

1. Akzioak titulu bidez edo kontuko idatz-ohar bidez adierazi ahal izango dira. Kasu batean zein bestean balore higarriztat joko dira.

2. Sozietate-partaidetzak ezin adieraziko dira titulu bidez edo kontuko idatz-ohar bidez, ez eta akzio deitu ere, eta ezein kasutan ez dute izango balore-izaerarik.

II. KAPITULUA

Bazkidearen eskubideak

I. ATALA

Bazkidearen eskubideak

93. artikulua. Bazkidearen eskubideak

Lege honetan ezarritako baldintzetan, eta hartan aurreikusitako kasuak salbu, bazkideak eskubide hauek izango ditu gutxienez:

a) Sozietatearen irabazien banaketan eta likidaziotik ateratzen den ondarean parte hartzeko eskubidea.

b) Partaidetza berriak sortzean haiek lehentasunez hartzeko eskubidea edo akzio berriak zein akzio bihur daitezkeen obligazioak jaulkitzean haiek lehentasunez harpidetzeko eskubidea.

c) Batzar nagusietara joateko eta bozkatzeko eskubidea eta sozietatearen erabakiak aurkaratzekoa.

d) Informazio-eskubidea.

94. artikulua. Askotariko eskubideak

1. Sozietate-partaidetzek eta akzioek eskubide berak ematen dizkiete bazkideei, legearen babesean ezarritako salbuespenekin.

Las participaciones sociales y las acciones pueden otorgar derechos diferentes. Las acciones que tengan el mismo contenido de derechos constituyen una misma clase. Cuando dentro de una clase se constituyan varias series, todas las que integren una serie deberán tener igual valor nominal.

2. Para la creación de participaciones sociales y la emisión de acciones que confieran algún privilegio frente a las ordinarias, habrán de observarse las formalidades prescritas para la modificación de estatutos.

Artículo 95. Privilegio en el reparto de las ganancias sociales

1. Cuando el privilegio consista en el derecho a obtener un dividendo preferente, las demás participaciones sociales o acciones no podrán recibir dividendos con cargo a los beneficios mientras no haya sido satisfecho el dividendo privilegiado correspondiente al ejercicio.

2. La sociedad, salvo que sus estatutos dispongan otra cosa, estará obligada a acordar el reparto de ese dividendo si existieran beneficios distribuibles.

3. Los estatutos habrán de establecer las consecuencias de la falta de pago total o parcial del dividendo preferente, si este tiene o no carácter acumulativo en relación a los dividendos no satisfechos, así como los eventuales derechos de los titulares de estas participaciones o acciones privilegiadas en relación a los dividendos que puedan corresponder a las demás.

Artículo 96. Prohibiciones en materia de privilegio

1. No es válida la creación de participaciones sociales ni la emisión de acciones con derecho a percibir un interés, cualquiera que sea la forma de su determinación.

2. No podrán emitirse acciones que de forma directa o indirecta alteren la proporcionalidad entre el valor nominal y el derecho de voto o el derecho de preferencia.

3. No podrán crearse participaciones sociales que de forma directa o indirecta alteren la proporcionalidad entre el valor nominal y el derecho de preferencia.

Artículo 97. Igualdad de trato

La sociedad deberá dar un trato igual a los socios que se encuentren en condiciones idénticas.

Sozietate-partaidetzek eta akzioek eskubide desberdinak eman ditzakete. Eskubide-eduki bera duten akzioek mota bat bera osatzen dute. Mota baten barruan zenbait serie daudenean, serie bat osatzen duten guztiek balio nominal bera izan beharko dute.

2. Sozietate-partaidetza eta akzio arrunten aldean pribilegioren bat ematen duten partaidetzak sortzeko eta akzioak jaulkitzeko, estatutuak aldatzeko ezarritako formalitateak bete beharko dira.

95. artikulua. Sozietatearen irabaziak banatzean dagoen pribilegioa

1. Pribilegioa lehentasunezko dibidendu bat lortzeko eskubidea denean, gainerako sozietate-partaidetzek edo akzioek ezin jasoko dute dibidendurik mozkinen kargura ekitaldiari dagokion dibidendu pribilegiatua ordaindu ez den bitartean.

2. Sozietatea beharturik egongo da, haren estatutuek besterik xedatzen ez badute, dibidendu hori banatzeko erabakia hartzera mozkin banagarriak badaude.

3. Estatutuetan ezarri beharko da zer ondorio izango dituen lehentasunezko dibidendua osorik edo partzialki ez ordaintzeak, ea hark izaera metagarria duen ala ez duen ordaindu gabeko dibidenduei dagokienez, bai eta partaidetza edo akzio pribilegiatu horien titularrek izan ditzaketen eskubideak ere gainerako partaidetza edo akzioei dagozkien dibidenduen aldean.

96. artikulua. Pribilegioaren inguruko debekuak

1. Ez da baliozkoa interes bat jasotzeko eskubidea ematen duten sozietate-partaidetzak sortzea ez akzioak jaulkitzea, edozein ere dela hura zehazteko modua.

2. Ezin jaulkiko da balio nominalaren eta bozkatzeko eskubidearen edo lehentasun-eskubidearen arteko proportzionaltasuna zuzenean edo zeharka aldatzen duen akziorik.

3. Ezin jaulkiko da balio nominalaren eta lehentasun-eskubidearen arteko proportzionaltasuna zuzenean edo zeharka aldatzen duen sozietate-partaidetzarik.

97. artikulua. Tratu-berdintasuna

Sozietateak tratu bera eman beharko die egoera berean dauden bazkideei.

SECCIÓN 2.^a

Participaciones sociales y acciones sin voto

Artículo 98. Creación o emisión

Las sociedades de responsabilidad limitada podrán crear participaciones sociales sin derecho de voto por un importe nominal no superior a la mitad del capital y las sociedades anónimas podrán emitir acciones sin derecho de voto por un importe nominal no superior a la mitad del capital social desembolsado.

Artículo 99. Dividendo preferente

1. Los titulares de participaciones sociales y las acciones sin voto tendrán derecho a percibir el dividendo anual mínimo, fijo o variable, que establezcan los estatutos sociales. Una vez acordado el dividendo mínimo, sus titulares tendrán derecho al mismo dividendo que corresponda a las participaciones sociales o a las acciones ordinarias.

2. Existiendo beneficios distribuibles, la sociedad está obligada a acordar el reparto del dividendo mínimo a que se refiere el párrafo anterior.

3. De no existir beneficios distribuibles o de no haberlos en cantidad suficiente, la parte de dividendo mínimo no pagada deberá ser satisfecha dentro de los cinco ejercicios siguientes. Mientras no se satisfaga el dividendo mínimo, las participaciones y acciones sin voto tendrán este derecho en igualdad de condiciones que las ordinarias y conservando, en todo caso, sus ventajas económicas.

Artículo 100. Privilegio en caso de reducción de capital por pérdidas

1. Las participaciones sociales y las acciones sin voto no quedarán afectadas por la reducción del capital social por pérdidas, cualquiera que sea la forma en que se realice, sino cuando la reducción supere el valor nominal de las restantes. Si, como consecuencia de la reducción, el valor nominal de las participaciones sociales o de las acciones sin voto excediera de la mitad del capital social de la sociedad de responsabilidad limitada o del desembolsado en la anónima, deberá restablecerse esa proporción en el plazo máximo de dos años. En caso contrario, procederá la disolución de la sociedad.

2. Cuando en virtud de la reducción del capital se amorticen todas las participaciones sociales o todas las acciones ordinarias, las sin voto tendrán este derecho hasta que se restablezca la proporción prevista legalmente con las ordinarias.

Boto gabeko sozietate-partaidetzak eta akzioak

98. artikulua. Sortzea edo jaulkitzea

Erantzukizun mugatuko sozietateek gehienez ere kapitalaren erdiaren zenbateko nominalen sortu ahal izango dituzte boto-eskubiderik gabeko sozietate-partaidetzak eta sozietate anonimoek gehienez ere ordaindutako kapital sozialaren erdiaren zenbateko nominalen jaulki ahal izango dituzte boto-eskubiderik gabeko akzioak.

99. artikulua. Lehentasunezko dibidendua

1. Boto gabeko sozietate-partaidetzen eta akzioen titularrek eskubidea izango dute sozietatearen estatutuek ezartzen duten urteko gutxieneko dibidendua jasotzeko, finkoa zein aldakorra. Behin gutxieneko dibidendua erabakita-koan, haien titularrek sozietate-partaidetzei edo akzio arruntei dagokien dibidendu bera jasotzeko eskubidea izango dute.

2. Mozkin banagarriak egonez gero, sozietatea beharturik dago aurreko zenbakian aipatzen den gutxieneko dibidendua banatzeko erabakia hartzera.

3. Mozkin banagarriak izan ezean edo behar adina izan ezean, gutxieneko dibidenduaren ordaindu gabeko partea hurrengo bost ekitaldien barruan ordaindu beharko da. Gutxieneko dibidendua ordaintzen ez den bitartean, boto gabeko partaidetzek eta akzioek arrunten baldintza beretan izango dute eskubide hori eta, edozein kasutan, beren abantaila ekonomikoak gordeko dituzte.

100. artikulua. Galerengatik kapitala murrizten den kasuan dagoen pribilegioa

1. Galerengatik kapital soziala murrizteak ez du eraginik izango boto gabeko sozietate-partaidetzetan eta akzioetan, edozein ere dela murrizketa egiteko modua, non eta murrizketak ez duen gainerakoen balio nominala gaintitzen. Baldin eta, murrizketaren ondorioz, boto gabeko sozietate-partaidetzen eta akzioen balio nominala erantzukizun mugatuko sozietatearen kapital sozialaren edo, sozietate anonimoan, kapital ordainduaren erdia baino handiagoa bada, gehienez ere bi urteko epean lehengoratu beharko da proportzio hori. Bestela, sozietatea desegin beharko da.

2. Kapitala murriztearen ondorioz sozietate-partaidetza edo akzio arrunt guztiak amortizatzen direnean, boto gabekoek eskubide hori izango dute harik eta legez aurreikusitako arruntekiko proportzioa berreskuratu arte.

Artículo 101. Privilegio en la cuota de liquidación

En el caso de liquidación de la sociedad, las participaciones sociales sin voto conferirán a su titular el derecho a obtener el reembolso de su valor antes de que se distribuya cantidad alguna a las restantes. En las sociedades anónimas el privilegio alcanzará al reembolso del valor desembolsado de las acciones sin voto.

Artículo 102. Otros derechos

1. Las participaciones sociales y las acciones sin voto atribuirán a sus titulares los demás derechos de las ordinarias, salvo lo dispuesto en los artículos anteriores.

2. Las acciones sin voto no podrán agruparse a los efectos de la designación de vocales del Consejo de administración por el sistema de representación proporcional. El valor nominal de estas acciones no se tendrá en cuenta a efectos del ejercicio de ese derecho por los restantes accionistas.

3. Las participaciones sociales sin voto estarán sometidas a las normas estatutarias y supletorias legales sobre transmisión y derecho de asunción preferente.

Artículo 103. Modificaciones estatutarias lesivas

Toda modificación estatutaria que lesione directa o indirectamente los derechos de las participaciones sociales o de acciones sin voto exigirá el acuerdo de la mayoría de las participaciones sociales o de las acciones sin voto afectadas.

CAPÍTULO III

El libro registro de socios y el régimen de transmisión de las participaciones en las sociedades de responsabilidad limitada

SECCIÓN I.^a

El libro registro de socios

Artículo 104. Libro registro de socios

1. La sociedad limitada llevará un Libro registro de socios, en el que se harán constar la titularidad originaria y las sucesivas transmisiones, voluntarias o

101. artikulua. Likidazio-kuotan dagoen pribilegioa

Sozietatea likidatzen den kasuan, boto gabeko sozietate-partaidetzen titularrak eskubidea izango du haien balioa itzul dakion gainerakoei ezein kopuru banatu baino lehen. Sozietate anonimoetan, boto gabeko akzioen balio ordaindua itzultzeko pribilegioa izango da.

102. artikulua. Beste eskubide batzuk

1. Boto gabeko sozietate-partaidetzek eta akzioek partaidetza eta akzio arrunten gainerako eskubideak emango dizkiete haien titularrei, aurreko artikuluetan xedaturikoa salbu.

2. Boto gabeko akzioak ezin elkartuko dira administrazio-kontseiluko ki-deak ordezkaritza proportzionalaren sistemaren bidez izendatzeko. Akzio horien balio nominala ez da kontuan hartuko gainerako akziodunek eskubide hori baliatzeari dagokionez.

3. Eskualdatzeari eta lehentasunez hartzeko eskubideari buruzko estatutu-arauei eta lege-arau ordezeko-osagarrien mende egongo dira boto gabeko sozietate-partaidetak.

103. artikulua. Estatutu-aldaketa kaltegarriak

Boto gabeko sozietate-partaidetzen edo akzioen eskubideak zuzenean edo zeharka kaltetzen dituen edozein estatutu-aldaketa egiteko, beharrezko izango da aldaketak ukitzen dituen boto gabeko sozietate-partaidetzen edo akzioen gehiengoaren adostasuna.

III. KAPITULUA

Bazkideen erregistro-liburua eta partaidetak eskualdatzeko araubidea erantzukizun mugatuko sozietateetan

I. ATALA

Bazkideen erregistro-liburua

104. artikulua. Bazkideen erregistro-liburua

1. Sozietate mugatuak bazkideen erregistro-liburu bat eramango du, hartan jasoko direlarik sozietate-partaidetzen jatorrizko titulartasuna eta ondoko

forzosas, de las participaciones sociales, así como la constitución de derechos reales y otros gravámenes sobre las mismas.

2. La sociedad sólo reputará socio a quien se halle inscrito en dicho libro.

3. En cada anotación se indicará la identidad y domicilio del titular de la participación o del derecho o gravamen constituido sobre aquélla.

4. La sociedad sólo podrá rectificar el contenido del Libro registro si los interesados no se hubieran opuesto a la rectificación en el plazo de un mes desde la notificación fehaciente del propósito de proceder a la misma.

Los datos personales de los socios podrán modificarse a su instancia, no surtiendo entre tanto efectos frente a la sociedad.

Artículo 105. Examen y certificación

1. Cualquier socio podrá examinar el Libro registro de socios, cuya llevanza y custodia corresponde al órgano de administración.

2. El socio y los titulares de derechos reales o de gravámenes sobre las participaciones sociales, tienen derecho a obtener certificación de las participaciones, derechos o gravámenes registrados a su nombre.

SECCIÓN 2.^a

La transmisión de las participaciones

Artículo 106. Documentación de las transmisiones

1. La transmisión de las participaciones sociales, así como la constitución del derecho real de prenda sobre las mismas, deberán constar en documento público.

La constitución de derechos reales diferentes del referido en el párrafo anterior sobre las participaciones sociales deberá constar en escritura pública.

2. El adquirente de las participaciones sociales podrá ejercer los derechos de socio frente a la sociedad desde que ésta tenga conocimiento de la transmisión o constitución del gravamen.

ondoko eskualdatzeak, borondatezkoak zein nahitaezkoak, bai eta haien gainean eraturiko eskubide errealak eta beste zama batzuk ere.

2. Sozietateak ez du bazkideztat izango liburu horretan inskribaturik dagoena baino.

3. Oharpen bakoitzean, partaidetzaren edo haren gainean eraturiko eskubidearen edo zamen titularren identitatea eta helbidea adieraziko dira.

4. Sozietateak erregistro-liburuaren edukia zuzendu ahal izateko, beharrezko izango da, zuzenketa egiteko asmoa zegoela modu fedemailean adierazi zenetik hilabeteko epean, interesdunak zuzenketa kontra agertu ez izatea.

Bazkideen datu pertsonalak haien eskariz aldatu ahal izango dira, eta bitartean ez dute efekturik sortuko sozietatearen aurrean.

105. artikulua. Aztertzea eta ziurtatzea

1. Edozein bazkidek aztertu ahal izango du bazkideen erregistro-liburua, zeina eramatea eta zaintzea administrazio-organoaren ardura baita.

2. Bazkideak eta sozietate-partaidetzen gaineko eskubide errealen edo zamen titularrek eskubidea dute beren izenean erregistraturiko partaidetza, eskubide edo zamen ziurtagiria lortzeko.

2. ATALA

Partaidetzak eskualdatzea

106. artikulua. Eskualdaketa dokumentatzea

1. Sozietate-partaidetzen eskualdaketa, eta orobat haien gainean bahiaren eskubide erreala eratzea, dokumentu publiko batean jaso beharko dira.

Sozietate-partaidetzen gainean aurreko paragrafoan aipaturikoaz besteko eskubide errealak eratzea eskritura publikoan jaso beharko da.

2. Sozietate-partaidetzak eskuratzen dituenak bazkide-eskubideak baliatu ahal izango ditu sozietatearen aurrean sozietateak eskualdatzearen edo zama eratzearen berri jakiten duen unetik.

Artículo 107. Régimen de la transmisión voluntaria por actos inter vivos

1. Salvo disposición contraria de los estatutos, será libre la transmisión voluntaria de participaciones por actos inter vivos entre socios, así como la realizada en favor del cónyuge, ascendiente o descendiente del socio o en favor de sociedades pertenecientes al mismo grupo que la transmitente. En los demás casos, la transmisión está sometida a las reglas y limitaciones que establezcan los estatutos y, en su defecto, las establecidas en esta ley.

2. A falta de regulación estatutaria, la transmisión voluntaria de participaciones sociales por actos inter vivos se registrá por las siguientes reglas:

a) El socio que se proponga transmitir su participación o participaciones deberá comunicarlo por escrito a los administradores, haciendo constar el número y características de las participaciones que pretende transmitir, la identidad del adquirente y el precio y demás condiciones de la transmisión.

b) La transmisión quedará sometida al consentimiento de la sociedad, que se expresará mediante acuerdo de la Junta General, previa inclusión del asunto en el orden del día, adoptado por la mayoría ordinaria establecida por la ley.

c) La sociedad sólo podrá denegar el consentimiento si comunica al transmitente, por conducto notarial, la identidad de uno o varios socios o terceros que adquieran la totalidad de las participaciones. No será necesaria ninguna comunicación al transmitente si concurrió a la junta general donde se adoptaron dichos acuerdos. Los socios concurrentes a la junta general tendrán preferencia para la adquisición. Si son varios los socios concurrentes interesados en adquirir, se distribuirán las participaciones entre todos ellos a prorrata de su participación en el capital social.

Cuando no sea posible comunicar la identidad de uno o varios socios o terceros adquirentes de la totalidad de las participaciones, la junta general podrá acordar que sea la propia sociedad la que adquiera las participaciones que ningún socio o tercero aceptado por la Junta quiera adquirir, conforme a lo establecido en el artículo 140.

d) El precio de las participaciones, la forma de pago y las demás condiciones de la operación, serán las convenidas y comunicadas a la sociedad por el socio transmitente. Si el pago de la totalidad o de parte del precio estuviera aplazado en el proyecto de transmisión, para la adquisición de las participaciones será requisito previo que una entidad de crédito garantice el pago del precio aplazado.

107. artikulua. *Inter vivos* egintzen bidez borondatez eskualdatzeari buruzko araubidea

1. Estatutuetan kontrakorik xedatu ezean, libre izango da *inter vivos* egintzen bidez bazkideen artean partaidetzak borondatez eskualdatzea, bai eta bazkidearen ezkontideari, aurreko bati zein ondorengo bati eskualdatzea edo sozietate eskualdatzailearen talde bereko sozietateei eskualdatzea ere. Gainerako kasuetan, estatutuek ezartzen dituzten arau eta mugapenen mende dago eskualdaketa, eta, halakorik ezean, lege honek ezartzen dituenen mende.

2. Estatutuetan araurik ezean, sozietate-partaidetzak *inter vivos* egintzen bidez borondatez eskualdatzea arau hauen mende egongo da:

a) Bere partaidetza edo partaidetzak eskualdatu nahi dituen bazkideak idatziz jakinarazi beharko die hori administratzaileei, idazkian adieraziz eskualdatu nahi dituen partaidetzen kopurua eta ezaugarriak, eskuratzailearen identitatea, eta prezioa eta eskualdaketa gainerako baldintzak.

b) Eskualdaketa sozietatearen adostasunaren menera jarriko da, eta batzar nagusiak erabakiko du adostasuna ematea, aurrez gaia eguneko gai-zerrendan sarturik, legeak ezartzen duen gehiengo arruntaren onespenez.

c) Sozietateak adostasuna ukatzeko, beharrezko izango da sozietateak eskualdatzaileari adieraztea, notario bidez, partaidetza guztiak eskuratzen dituen bazkide zein hirugarren baten edo gehiagoren identitatea. Ez da beharrezko izango eskualdatzaileari adierazpenik egitea baldin eta hura erabaki horiek hartu ziren batzar nagusian izan bazen. Batzar nagusian izan ziren bazkideek lehentasuna izango dute partaidetzak eskuratzeko. Batzar nagusian izandako bazkide batek baino gehiagok badu eskuratzeko interesa, partaidetzak haien guztien artean hainbanatuko dira, kapital sozialean duten partearen arabera.

Partaidetza guztiak eskuratzen dituen bazkide zein hirugarren baten edo gehiagoren identitatea adieraztea ezinezkoa denean, batzar nagusiak erabaki ahal izango du sozietateak berak eskura ditzala batzarrak onarturiko bazkide edo hirugarrenetariko ezeinek eskuratu nahi ez dituen partaidetzak, 140. artikuluan ezarritakoaren arabera.

d) Partaidetzen prezioa, ordaintzeko modua eta eragiketaren gainerako baldintzak bazkide eskualdatzaileak adostu eta sozietateari adierazi dizkionak izango dira. Prezio osoa edo haren parte bat ordaintzea geroraturik badago eskualdatze-proiektuan, beharrezko izango da, partaidetzak eskuratzeko, aurrez kreditu-entitate batek bermatzea geroraturiko prezioaren ordainketa.

En los casos en que la transmisión proyectada fuera a título oneroso distinto de la compraventa o a título gratuito, el precio de adquisición será el fijado de común acuerdo por las partes y, en su defecto, el valor razonable de las participaciones el día en que se hubiera comunicado a la sociedad el propósito de transmitir. Se entenderá por valor razonable el que determine un experto independiente, distinto al auditor de la sociedad, designado a tal efecto por los administradores de ésta.

En los casos de aportación a sociedad anónima o comanditaria por acciones, se entenderá por valor real de las participaciones el que resulte del informe elaborado por el experto independiente nombrado por el registrador mercantil.

e) El documento público de transmisión deberá otorgarse en el plazo de un mes a contar desde la comunicación por la sociedad de la identidad del adquirente o adquirentes.

f) El socio podrá transmitir las participaciones en las condiciones comunicadas a la sociedad, cuando hayan transcurrido tres meses desde que hubiera puesto en conocimiento de ésta su propósito de transmitir sin que la sociedad le hubiera comunicado la identidad del adquirente o adquirentes.

3. En los estatutos no podrá atribuirse al auditor de cuentas de la sociedad la fijación del valor que tuviera que determinarse a los efectos de su transmisión.

Artículo 108. Cláusulas estatutarias prohibidas

1. Serán nulas las cláusulas estatutarias que hagan prácticamente libre la transmisión voluntaria de las participaciones sociales por actos inter vivos.

2. Serán nulas las cláusulas estatutarias por las que el socio que ofrezca la totalidad o parte de sus participaciones quede obligado a transmitir un número diferente al de las ofrecidas.

3. Sólo serán válidas las cláusulas que prohíban la transmisión voluntaria de las participaciones sociales por actos inter vivos, si los estatutos reconocen al socio el derecho a separarse de la sociedad en cualquier momento. La incorporación de estas cláusulas a los estatutos sociales exigirá el consentimiento de todos los socios.

4. No obstante lo establecido en el apartado anterior, los estatutos podrán impedir la transmisión voluntaria de las participaciones por actos inter vivos, o el ejercicio del derecho de separación, durante un período de tiempo no superior a cinco años a contar desde la constitución de la sociedad, o para las parti-

Proiektaturiko eskualdaketa salerosketaz besteko kostu bidez zein doan egitekoa den kasuetan, eskuratze-prezioa alderdiek elkarren artean finkaturikoa izango da, eta, adostasunik ezean, eskualdatzeko asmoa sozietateari adierazi zitzaion egunean partaidetzek zuten arrazoizko balioa. Arrazoizko balioztat joko da: sozietatearen auditoria ez den eta sozietatearen administratzaileek hartarako izendatzen duten aditu independente batek erabakitzen duena.

Sozietate anonimoetako zein akzio bidezko komanditarioetako ekarpenen kasuetan, merkataritza-erregistratzaileak izendaturiko aditu independenteak egindako txostenetik ateratakoa joko da partaidetzen egiazko balioztat.

e) Eskualdaketa dokumentu publikoa hilabete epean egiletsi beharko da, sozietateak eskuratzailearen edo eskuratzaileen identitatea adierazi duenetik kontatzen hasita.

f) Sozietateari adierazitako baldintzetan eskualdatu ahal izango ditu bazkideak partaidetzak, berak sozietateari eskualdatzeko asmoaren berri jakinarazi zionetik hiru hilabete igaro ondoren sozietateak eskuratzailearen edo eskuratzaileen identitatea adierazi gabe jarraitzen badu.

3. Estatutuetan ezin emango zaio sozietatearen kontu-auditoreari partaidetzak eskualdatzeko zehaztu beharreko balioa finkatzearen ardura.

108. artikulua. Estatutu-klausula debekatuak

1. Sozietate-partaidetzak *inter vivos* egintzen bidez borondatez eskualdatu ahal izatea praktikoki libre uzten duten estatutu-klausulak deusez izango dira.

2. Bere partaidetza guztiak edo haien parte bat eskaintzen dituen bazkidea eskainitakoez besteko kopuru bat eskualdatzera behartzen duten estatutu-klausulak deusez izango dira.

3. Sozietate-partaidetzak *inter vivos* egintzen bidez borondatez eskualdatzea debekatzen duten klausulak ez dira baliozkoak izango estatutuek bazkideari sozietatea edozein unetan uzteko eskubidea aitortzen diotenean baino. Klausula horiek sozietatearen estatutuetan sartzeko, bazkide guztien adostasuna beharko da.

4. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, estatutuek eragotzi dezakete sozietate-partaidetzak *inter vivos* egintzen bidez borondatez eskualdatzea, edo sozietatea uzteko eskubidea baliatzea, gehienez ere bost urtez, sozietatea eratu zenetik kontatzen hasita edo, kapital-handitze batetik datozen partaidetzei da-

cipaciones procedentes de una ampliación de capital, desde el otorgamiento de la escritura pública de su ejecución.

Artículo 109. Régimen de la transmisión forzosa

1. El embargo de participaciones sociales, en cualquier procedimiento de apremio, deberá ser notificado inmediatamente a la sociedad por el juez o autoridad administrativa que lo haya decretado, haciendo constar la identidad del embargante así como las participaciones embargadas. La sociedad procederá a la anotación del embargo en el Libro registro de socios, remitiendo de inmediato a todos los socios copia de la notificación recibida.

2. Celebrada la subasta o, tratándose de cualquier otra forma de enajenación forzosa legalmente prevista, en el momento anterior a la adjudicación, quedará en suspenso la aprobación del remate y la adjudicación de las participaciones sociales embargadas. El juez o la autoridad administrativa remitirán a la sociedad testimonio literal del acta de subasta o del acuerdo de adjudicación y, en su caso, de la adjudicación solicitada por el acreedor. La sociedad trasladará copia de dicho testimonio a todos los socios en el plazo máximo de cinco días a contar de la recepción del mismo.

3. El remate o la adjudicación al acreedor serán firmes transcurrido un mes a contar de la recepción por la sociedad del testimonio a que se refiere el apartado anterior. En tanto no adquieran firmeza, los socios y, en su defecto, y sólo para el caso de que los estatutos establezcan en su favor el derecho de adquisición preferente, la sociedad, podrán subrogarse en lugar del rematante o, en su caso, del acreedor, mediante la aceptación expresa de todas las condiciones de la subasta y la consignación íntegra del importe del remate o, en su caso, de la adjudicación al acreedor y de todos los gastos causados. Si la subrogación fuera ejercitada por varios socios, las participaciones se distribuirán entre todos a prorrata de sus respectivas partes sociales.

Artículo 110. Régimen de la transmisión mortis causa

1. La adquisición de alguna participación social por sucesión hereditaria confiere al heredero o legatario la condición de socio.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, los estatutos podrán establecer a favor de los socios sobrevivientes, y, en su defecto, a favor de la sociedad, un derecho de adquisición de las participaciones del socio fallecido, apreciadas en el valor razonable que tuvieren el día del fallecimiento del socio, cuyo precio se pagará al contado. La valoración se registrará por lo dispuesto en

gokienez, handitzearen exekuzioaren eskritura publikoa egilesten denetik kontatzen hasita.

109. artikulua. Nahitaezko eskualdaketaaren araubidea

1. Sozietate-partaidetzen enbargoa, premiamenduzko edozein prozeduratan, berehala jakinarazi beharko dio sozietateari hura agindu duen epaileak edo administrazio-agintariak, enbargatzailearen identitatea eta partaidetza enbargatuak adieraziz. Sozietateak bazkideen erregistro-liburuan idatziko du enbargoaren oharpena, eta jasotako jakinarazpenaren kopia bidaliko die berehala bazkide guztiei.

2. Enkantea egindakoan, edo, legeak aurreikusitako beste edozein nahitaezko besterentze modu bat bada, esleipena egin aurreko unean, geldieran geratuko da errematea onartzea eta sozietate-partaidetza enbargatuak esleitzea. Epaileak edo administrazio-agintariak enkante-aktaren edo esleipen-erabakia-
ren eta, hala badagokio, hartzekodunak eskaturiko esleipenaren hitzez hitzeko testigantza igorriko dio sozietateari. Sozietateak testigantza horren kopia helaraziko die bazkide guztiei, gehienez ere bost eguneko epean, testigantza jasozten denetik kontatzen hasita.

3. Sozietateak aurreko zenbakian aipaturiko testigantza jasotzen duenetik hilabetera izango dira irmo errematea edo hartzekodunari egindako esleipena. Irmo ez diren bitartean, bazkideak eta, bazkiderik ezean estatutuetan lehentasunez eskuratzeko eskubidea aitortzen zaion kasuan bakarrik, sozietatea, errematatzaileren lekuan subrogatu ahal izango dira edo, hala badagokio, hartzekodunarenean, enkanteko baldintza guztiak espresuki onartuz eta errematearen edo, hala badagokio, hartzekodunari egindako esleipenaren zenbateko osoa eta eragindako gastu guztiak gordailutuz. Subrogazioa bazkide batek baino gehiagok baliatzen badu, partaidetzak denen artean hainbanatuko dira, bakoitzak sozietatean duen partearen arabera.

110. artikulua. *Mortis causa* eskualdatzearen araubidea

1. Sozietate-partaidetzaren bat jaraunspenez oinordetzan eskuratzeak bazkide-izaera ematen dio jaraunslari edo legatu-hartzaileari.

2. Aurreko zenbakian xedaturikoa gorabehera, hildako bazkidearen partaidetzak eskuratzeko eskubide bat ezarri ahal izango da estatutuetan bizirik dirauten bazkideen alde, eta, halakorik ezean, sozietatearen alde, bazkidearen heriotza-egunean zuten arrazoizko balioan balioetsirik partaidetzok, eta haien prezioa eskura ordaindurik. Balioespina lege honetan bazkideek sozietatea uz-

esta ley para los casos de separación de socios y el derecho de adquisición habrá de ejercitarse en el plazo máximo de tres meses a contar desde la comunicación a la sociedad de la adquisición hereditaria.

Artículo 111. Régimen general de las transmisiones

El régimen de la transmisión de las participaciones sociales será el vigente en la fecha en que el socio hubiera comunicado a la sociedad el propósito de transmitir o, en su caso, en la fecha de fallecimiento del socio o en la de la adjudicación judicial o administrativa.

Artículo 112. Ineficacia de las transmisiones con infracción de ley o de los estatutos

Las transmisiones de participaciones sociales que no se ajusten a lo previsto en la ley o, en su caso, a lo establecido en los estatutos no producirán efecto alguno frente a la sociedad.

CAPÍTULO IV

La representación y la transmisión de las acciones

SECCIÓN 1.^a

Representación de las acciones

Subsección 1.^a Representación mediante títulos

Artículo 113. Representación mediante títulos

1. Las acciones representadas por medio de títulos podrán ser nominativas o al portador, pero revestirán necesariamente la forma nominativa mientras no haya sido enteramente desembolsado su importe, cuando su transmisibilidad esté sujeta a restricciones, cuando lleven aparejadas prestaciones accesorias o cuando así lo exijan disposiciones especiales.

2. Cuando las acciones deban representarse por medio de títulos, el accionista tendrá derecho a recibir los que le correspondan, libres de gastos.

Artículo 114. Título de la acción

1. Los títulos, cualquiera que sea su clase, estarán numerados correlativamente, se extenderán en libros talonarios, podrán incorporar una o más ac-

ten duten kasuetarako xedatzen denaren mende egongo da eta eskuratze-eskubidea gehienez ere hiru hilabeteko epean baliatu beharko da, jaraunspenezko eskuratzea sozietateari adierazten zaionetik kontaktzen hasita.

111. artikulua. Eskualdatzeen araubide orokorra

Sozietate-partaidetzak eskualdatzeko araubidea bazkideak sozietateari partaidetzak eskualdatzeko asmoa adierazi zion datan indarrean zegoena izango da edo, hala badagokio, bazkidearen heriotza-datan edo esleipen judizialaren edo administratiboaren datan indarrean zegoena.

112. artikulua. Legea edo estatutuak urratuz egindako eskualdatzeen eraginkortasun eza

Legean aurreikusitakora edo, hala badagokio, estatutuetan ezarritakora egokitzen ez diren sozietate-partaidetzen eskualdatzeak ez dute inolako efekturik izango sozietatearen aurrean.

IV. KAPITULUA

Akzioak adieraztea eta eskualdatzea

I. ATALA

Akzioak adieraztea

1. azpiatala. Titulu bidez adieraztea

113. artikulua. Titulu bidez adieraztea

1. No pueden ser administradores los menores de edad no emancipados, los judicialmente incapacitados, las personas inhabilitadas conforme a la Ley Concursal mientras no haya concluido el período de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso y los condenados por delitos contra la libertad, contra el patrimonio o contra el orden socioeconómico, contra la seguridad colectiva, contra la Administración de Justicia o por cualquier clase de falsedad, así como aquéllos que por razón de su cargo no puedan ejercer el comercio.

2. Tampoco podrán ser administradores los funcionarios al servicio de la Administración pública con funciones a su cargo que se relacionen con las actividades propias de las sociedades de que se trate, los jueces o magistrados y las demás personas afectadas por una incompatibilidad legal.

Artículo 214. Nombramiento y aceptación

1. La competencia para el nombramiento de los administradores corresponde a la junta de socios sin más excepciones que las establecidas en la ley.

2. En defecto de disposición estatutaria, la junta general podrá fijar las garantías que los administradores deberán prestar o relevarlos de esta prestación.

3. El nombramiento de los administradores surtirá efecto desde el momento de su aceptación.

Artículo 215. Inscripción del nombramiento

1. El nombramiento de los administradores, una vez aceptado, deberá ser presentado a inscripción en el Registro Mercantil haciendo constar la identidad de los nombrados y, en relación a los administradores que tengan atribuida la representación de la sociedad, si pueden actuar por sí solos o necesitan hacerlo conjuntamente.

2. La presentación a la inscripción deberá realizarse dentro de los diez días siguientes a la fecha de la aceptación.

2. Pertsona juridiko administratzaileak bere ordezkaria errebokatzeak ez du efekturik izango haren ordezeko pertsona izendatzen ez duen bitartean. Izendapen hori Merkataritza Erregistroan inskribatuko da 215 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

213. artikulua. Debekuak

1. Ezin dira administratzaile izan adingabe emantzipatu gabeak; judizialki gaitasunik ez dutenak; Konkurtso Legearen arabera ezgaituriko pertsonak, harik eta konkurtsoko kalifikazio-epaian finkaturiko ezgaitasun-aldia amaitu arte, eta askatasunaren, ondarearen zein ordena sozioekonomikoaren, segurtasun kolektiboaren eta Justizia Administrazioaren kontrako delituengatik edo edozein eratako faltutzerengatik kondenatuak, ez eta beren karguagatik merkataritzan jardun ezin dutenak ere.

2. Ezin izango dira administratzaile, orobat, administrazio publikoaren zerbitzuko funtzionarioak, baldin eta dagokion sozietateari berezkoak zaizkion jarduerekin zerikusia duten funtzioak badituzte, ez eta epaileak edo magistratuak eta legezko bateraezintasun bat duten gainerako pertsonak ere.

214. artikulua. Izendapena eta onarpena

1. Bazkideen batzarrari dagokio administratzaileak izendatzeko eskumena, legeak ezarritako salbuespenak besterik gorde beharrik gabe.

2. Estatutuetan xedapenik ezean, batzar nagusiak esku izango du administratzaileek eman beharko dituzten bermeak finkatzeko edo administratzaileak bermeok ematetik libratzeko.

3. Administratzaileen izendapenak onartzen den unetik izango du efektua.

215. artikulua. Izendapena inskribatzea

1. Administratzaileen izendapena, behin onartutakoan, Merkataritza Erregistroan inskribatzera aurkeztu beharko da, izendatuen identitatea adieraziz eta, sozietatearen ordezkarietza esleitua zaien administratzaileei dagokienez, ea beren kabuz jardun dezaketen ala batera jardun behar duten azalduz.

2. Izendapena onarpen-dataren ondorengo hamar egunen barruan aurkeztu beharko da inskribatzera.

Artículo 216. Administradores suplentes

1. Salvo disposición contraria de los estatutos sociales, podrán ser nombrados suplentes de los administradores para el caso de que cesen por cualquier causa uno o varios de ellos. El nombramiento y aceptación de los suplentes como administradores se inscribirán en el Registro Mercantil una vez producido el cese del anterior titular.

2. Si los estatutos sociales establecieran un plazo determinado de duración del cargo de administrador, el nombramiento del suplente se entenderá efectuado por el período pendiente de cumplir por la persona cuya vacante se cubra.

Artículo 217. Remuneración de los administradores

1. El cargo de administrador es gratuito, a menos que los estatutos sociales establezcan lo contrario determinando el sistema de remuneración.

2. El sistema de remuneración establecido determinará el concepto o conceptos retributivos a percibir por los administradores en su condición de tales y que podrán consistir, entre otros, en uno o varios de los siguientes:

- a) una asignación fija,
- b) dietas de asistencia,
- c) participación en beneficios,
- d) retribución variable con indicadores o parámetros generales de referencia,
- e) remuneración en acciones o vinculada a su evolución,
- f) indemnizaciones por cese, siempre y cuando el cese no estuviese motivado por el incumplimiento de las funciones de administrador y
- g) los sistemas de ahorro o previsión que se consideren oportunos.

3. El importe máximo de la remuneración anual del conjunto de los administradores en su condición de tales deberá ser aprobado por la junta general y permanecerá vigente en tanto no se apruebe su modificación. Salvo que la junta general determine otra cosa, la distribución de la retribución entre los distintos administradores se establecerá por acuerdo de éstos y, en el caso del consejo de administración, por decisión del mismo, que deberá tomar en consideración las funciones y responsabilidades atribuidas a cada consejero.

4. La remuneración de los administradores deberá en todo caso guardar una proporción razonable con la importancia de la sociedad, la situación eco-

216. artikulua. Ordezko administratzaileak

1. Sozietateko estatutueta kontrakorik xedatu ezean, administratzaileen ordezko batzuk izendatu ahal izango dira, haietariko batek edo gehiagok edozein arrazoiengatik kargua uzten duen kasurako. Ordezko administratzaileen izendapena eta onarpena Merkataritza Erregistroan inskribatuko dira, behin aurreko titularrak kargua utzitakoan.

2. Estatutueta iraupen-epe zehatz bat ezartzen bazaio administratzaile-karguari, kargua hutsik utzi duen pertsonari hura betetzeko falta zitzean denborarako joko da izendatua ordezkoa.

217. artikulua. Administratzaileen ordainsaria

1. Administratzaile-kargua doakoa da, non eta estatutueta ez den kontrakorik ezartzen eta lansari-sistema zehazten.

2. Ezarritako lansari-sistemak zehaztuko ditu administratzaileek administratzaile izateagatik jasoko duten ordainsari-kontzeptua edo -kontzeptuak, zeinak, besteak beste, hauetariko bat edo gehiago izan baitaitezke:

- a) diru kopuru finko bat,
- b) bertaratze-dietak,
- c) mozkinetan parte izatea,
- d) lansari aldakorra, erreferentziazko adierazle edo parametro orokorrean,
- e) akziotan emandako ordainsaria edo haien bilakaerari loturikoa,
- f) kargua uzteagatik emandako kalte-ordainak, baldin eta kargu-uztea ez bada administratzaile-funtzioak ez betetzeak eragina, eta
- g) egoki irizten zaion aurrezki- eta aurreikuspen-sistemak.

3. Administratzaile guztiek administratzaile izateagatik urtean izango duten ordainsariaren gehienezko zenbatekoa batzar nagusiak onartu beharko du eta indarrean egongo da harik eta aldatzea onartzen ez den bitartean. Batzar nagusiak bestelakorik erabakitzen duen kasuan izan ezik, administratzaileen artean lansariak banatzeko modua administratzaileon adostasunez ezarriko da, eta, administrazio-kontseiluaren kasuan, berriz, haren erabakiz, zeinak kontuan hartu beharko baititu kontseilari bakoitzari esleituriko funtzioak eta ardurak.

4. Administratzaileen ordainsariak, edozein kasutan, arrazoizko proportzio bat izan beharko du sozietatearen garrantziarekin, hark une bakoitzean duen

nómica que tuviera en cada momento y los estándares de mercado de empresas comparables. El sistema de remuneración establecido deberá estar orientado a promover la rentabilidad y sostenibilidad a largo plazo de la sociedad e incorporar las cautelas necesarias para evitar la asunción excesiva de riesgos y la recompensa de resultados desfavorables.

Artículo 218. Remuneración mediante participación en beneficios

1. Cuando el sistema de retribución incluya una participación en los beneficios, los estatutos sociales determinarán concretamente la participación o el porcentaje máximo de la misma. En este último caso, la junta general determinará el porcentaje aplicable dentro del máximo establecido en los estatutos sociales.

2. En la sociedad de responsabilidad limitada, el porcentaje máximo de participación en ningún caso podrá ser superior al diez por ciento de los beneficios repartibles entre los socios.

3. En la sociedad anónima, la participación solo podrá ser detrída de los beneficios líquidos y después de estar cubiertas las atenciones de la reserva legal y de la estatutaria y de haberse reconocido a los accionistas un dividendo del cuatro por ciento del valor nominal de las acciones o el tipo más alto que los estatutos hayan establecido.

Artículo 219. Remuneración vinculada a las acciones de la sociedad

1. En la sociedad anónima, cuando el sistema de remuneración de los administradores incluya la entrega de acciones o de opciones sobre acciones, o retribuciones referenciadas al valor de las acciones deberá preverse expresamente en los estatutos sociales y su aplicación requerirá un acuerdo de la junta general de accionistas.

2. El acuerdo de la junta general de accionistas deberá incluir el número máximo de acciones que se podrán asignar en cada ejercicio a este sistema de remuneración, el precio de ejercicio o el sistema de cálculo del precio de ejercicio de las opciones sobre acciones, el valor de las acciones que, en su caso, se tome como referencia y el plazo de duración del plan.

Artículo 220. Prestación de servicios de los administradores

En la sociedad de responsabilidad limitada el establecimiento o la modificación de cualquier clase de relaciones de prestación de servicios o de obra entre la sociedad y uno o varios de sus administradores requerirán acuerdo de la junta general.

egoera ekonomikoarekin eta haren pareko enpresen merkatuko estandarrekin. Ezarritako lansari-sistemak sozietatearen epe luzerako errentagarritasuna eta iraunkortasuna sustatzera bideraturik egon beharko du, eta beharrezko neurriak hartzera, arrisku handiegiak ez hartzeko eta emaitza txarrak konpentsatzea eragozteko.

218. artikulua. Mozkinetan partea izanez ordaintzea

1. Lansari-sistemak mozkinetan parte bat izatea aurreikusten duenean, sozietatearen estatutuetan zehaztuko da zein izango den parte hori edo zein haren gehienezko ehunekoa. Azken kasu horretan, batzar nagusiak zehaztuko du ehuneko aplikagarria sozietatearen estatutuetan ezarritako gehienezkoaren barruan.

2. Erantzukizun mugatuko sozietatean, partearen gehienezko ehunekoa ez da izango, ezein kasutan, bazkideen artean bana daitezkeen mozkinen ehuneko hamar baino handiagoa.

3. Sozietate anonimoan, parte mozkin likidoetatik baino ez da kendo, legez ezarritako erreserbari eta estatutuz ezarritakoari dagozkien betebeharrak bete ondoren eta akziodunei akzioen balio nominalaren ehuneko lauko dibidendu bat edo estatutuetan ezarria den tasa handiena onartu ondoren.

219. artikulua. Sozietatearen akzioekin loturiko ordainsaria

1. Sozietate anonimoan, administratzaileen lansari-sistemak akzioak edo akzioen gaineko aukerak edo akzioen balioaren arabera lansariak entregatzea aurreikusten duenean, hori espresuki adierazi beharko da sozietatearen estatutuetan eta, lansariok aplikatzeko, akziodunen batzar nagusiaren erabaki bat beharko da.

2. Akziodunen batzar nagusiaren erabakian hauek sartu beharko dira: lansari-sistema horri ekitaldi bakoitzean esleitu ahal izango zaizkion gehienezko akzio kopurua; akzioen gaineko aukeren ekitaldi-prezioa edo ekitaldi-prezioa kalkulatzeko sistema; hala badagokio, erreferentziatzen hartzen den akzioen balioa, eta planaren iraupen-epea.

220. artikulua. Administratzaileek eman beharreko zerbitzuak

Erantzukizun mugatuko sozietatean, sozietatearen eta haren administratzaile baten edo gehiagoren artean zerbitzuak eta obrak egiteari buruz edozein harreman mota ezartzeko edo aldatzeko, beharrezko izango da batzar nagusiaren erabakia.

Artículo 221. Duración del cargo

1. Los administradores de la sociedad de responsabilidad limitada ejercerán su cargo por tiempo indefinido, salvo que los estatutos establezcan un plazo determinado, en cuyo caso podrán ser reelegidos una o más veces por períodos de igual duración.

2. Los administradores de la sociedad anónima ejercerán el cargo durante el plazo que señalen los estatutos sociales, que no podrá exceder de seis años y deberá ser igual para todos ellos.

Los administradores podrán ser reelegidos para el cargo, una o varias veces, por períodos de igual duración máxima.

Artículo 222. Caducidad

El nombramiento de los administradores caducará cuando, vencido el plazo, se haya celebrado junta general o haya transcurrido el plazo para la celebración de la junta que ha de resolver sobre la aprobación de las cuentas del ejercicio anterior.

Artículo 223. Cese de los administradores

1. Los administradores podrán ser separados de su cargo en cualquier momento por la junta general aun cuando la separación no conste en el orden del día.

2. En la sociedad limitada los estatutos podrán exigir para el acuerdo de separación una mayoría reforzada que no podrá ser superior a los dos tercios de los votos correspondientes a las participaciones en que se divida el capital social.

Artículo 224. Supuestos especiales de cese de administradores de la sociedad anónima

1. Los administradores que estuviesen incurso en cualquiera de las prohibiciones legales deberán ser inmediatamente destituidos, a solicitud de cualquier accionista, sin perjuicio de la responsabilidad en que puedan incurrir por su conducta desleal.

2. Los administradores y las personas que bajo cualquier forma tengan intereses opuestos a los de la sociedad cesarán en su cargo a solicitud de cualquier socio por acuerdo de la junta general.

221. artikulua. Karguaren iraupena

1. Erantzukizun mugatuko sozietatearen administratzaileek epe zehatzik gabe jardungo dute karguan, salbu eta estatutuetan epe zehatz bat ezartzen bada; kasu horretan, beste behin edo gehiagotan ere izan daitezke hautatuak iraupen bereko aldietarako.

2. Sozietate anonimoaren administratzaileek sozietateko estatutuek adierazten duten epean jardungo dute karguan; epe hori, gehienez ere, sei urtekoa izango da, eta bat bera administratzaile guztientzat.

Administratzaileak beste behin edo gehiagotan izan daitezke hautatuak kargurako, kargualdiaren gehienezko epea beti bera izango delarik.

222. artikulua. Iraungitzea

Epea amaiturik, batzar nagusia egin denean edo aurreko ekitaldiko kontuak onartzeari buruz erabaki behar zuen batzarra egiteko epea amaitu denean iraugingo da administratzaileen izendapena.

223. artikulua. Administratzaileen kargu-uztea

1. Batzar nagusiak edozein unetan kendu ahal izango ditu administratzaileak beren kargutik, nahiz eta haiek kargutik kentzea eguneko gai-zerrendan ez egon.

2. Sozietate mugatuan, estatutuek gehiengo indartu bat galdatu ahal izango dute kargua kentzea erabakitzeko; gehiengo hori ezin izango da kapital soziala osatzen duten partaidetzei dagozkien botoen bi herena baino handiagoa.

224. artikulua. Sozietate anonimoaren administratzaileak kargugabetzeko kasu bereziak

1. Legeak ezarritako debekuetarikoren bat duten administratzaileak berehala kendu beharko dira kargutik, edozein akziodunen eskariz, hargatik eragotzi gabe beren jokabide desleialarengatik izan dezaketen erantzukizuna.

2. Modu batera edo bestera sozietatearen interesen kontrako interesak dituzten administratzaileek eta pertsonak edozein bazkideren eskariz utziko dute kargua, batzar nagusiak hala erabakita.

CAPÍTULO III

Los deberes de los administradores

Artículo 225. Deber general de diligencia

1. Los administradores deberán desempeñar el cargo y cumplir los deberes impuestos por las leyes y los estatutos con la diligencia de un ordenado empresario, teniendo en cuenta la naturaleza del cargo y las funciones atribuidas a cada uno de ellos.

2. Los administradores deberán tener la dedicación adecuada y adoptarán las medidas precisas para la buena dirección y el control de la sociedad.

3. En el desempeño de sus funciones, el administrador tiene el deber de exigir y el derecho de recabar de la sociedad la información adecuada y necesaria que le sirva para el cumplimiento de sus obligaciones.

Artículo 226. Protección de la discrecionalidad empresarial

1. En el ámbito de las decisiones estratégicas y de negocio, sujetas a la discrecionalidad empresarial, el estándar de diligencia de un ordenado empresario se entenderá cumplido cuando el administrador haya actuado de buena fe, sin interés personal en el asunto objeto de decisión, con información suficiente y con arreglo a un procedimiento de decisión adecuado.

2. No se entenderán incluidas dentro del ámbito de discrecionalidad empresarial aquellas decisiones que afecten personalmente a otros administradores y personas vinculadas y, en particular, aquellas que tengan por objeto autorizar las operaciones previstas en el artículo 230.

Artículo 227. Deber de lealtad

1. Los administradores deberán desempeñar el cargo con la lealtad de un fiel representante, obrando de buena fe y en el mejor interés de la sociedad.

2. La infracción del deber de lealtad determinará no solo la obligación de indemnizar el daño causado al patrimonio social, sino también la de devolver a la sociedad el enriquecimiento injusto obtenido por el administrador.

III. KAPITULUA

Administratzaileen betebeharrak

225. artikulua. Prestasunaren betebeharrak

1. Administratzaileek enpresaburu ordenatu baten prestasunez jardungo dute beren karguan eta beteko dituzte legeek eta estatutuek ezarritako betebeharrak, kontuan izanez karguaren izaera eta haietariko bakoitzari esleituriko funtzioak.

2. Administratzaileek sozietatearen zuzendaritza onerako eta kontrolerako egoki den arduraldia izan beharko dute eta hartarako behar diren neurriak hartuko dituzte.

3. Administratzailearen betebeharra eta eskubidea da, bere funtzioetan diharduenean, bere eginbideak betetzeko balioko dion informazio egokia eta beharrezkoa sozietatearengandik biltzea.

226. artikulua. Enpresaren irizpidezketasuna babestea

1. Enpresaren irizpidezketasunari loturik dauden erabaki estrategikoen eta negozio-erabakien eremuan, administratzaileak fede onez, erabaki beharreko gaien interes pertsonalik izan gabe, aski informazioekin eta erabakitze-prozedura egoki baten arabera jokatu duenean joko da betetzat enpresaburu ordenatu baten prestasun-estandarra.

2. Ez dira enpresaren irizpidezketasunaren eremukotzat joko beste administratzaile batzuei eta haiei loturiko pertsonen pertsonalki eragiten dieten erabakiak eta, bereziki, 230 artikuluan aurreikusitako eragiketak baimentzeko erabakiak.

227. artikulua. Leialtasunaren betebeharra

1. Administratzaileek ordezkeri leial baten zintzotasunez jardungo dute karguan, fede onez jokatuz eta sozietatearentzat onena bilatuz.

2. Leialtasunaren betebeharra urratzeak berekin ekarriko du ez bakarrik sozietate-ondareari eragindako kaltea ordaindu beharra, baizik eta baita administratzaileak lorturiko aberastasun bidegabea sozietateari itzuli beharra ere.

Artículo 228. Obligaciones básicas derivadas del deber de lealtad

En particular, el deber de lealtad obliga al administrador a:

a) No ejercitar sus facultades con fines distintos de aquéllos para los que le han sido concedidas.

b) Guardar secreto sobre las informaciones, datos, informes o antecedentes a los que haya tenido acceso en el desempeño de su cargo, incluso cuando haya cesado en él, salvo en los casos en que la ley lo permita o requiera.

c) Abstenerse de participar en la deliberación y votación de acuerdos o decisiones en las que él o una persona vinculada tenga un conflicto de intereses, directo o indirecto. Se excluirán de la anterior obligación de abstención los acuerdos o decisiones que le afecten en su condición de administrador, tales como su designación o revocación para cargos en el órgano de administración u otros de análogo significado.

d) Desempeñar sus funciones bajo el principio de responsabilidad personal con libertad de criterio o juicio e independencia respecto de instrucciones y vinculaciones de terceros.

e) Adoptar las medidas necesarias para evitar incurrir en situaciones en las que sus intereses, sean por cuenta propia o ajena, puedan entrar en conflicto con el interés social y con sus deberes para con la sociedad.

Artículo 229. Deber de evitar situaciones de conflicto de interés

1. En particular, el deber de evitar situaciones de conflicto de interés a que se refiere la letra e) del artículo 228 anterior obliga al administrador a abstenerse de:

a) Realizar transacciones con la sociedad, excepto que se trate de operaciones ordinarias, hechas en condiciones estándar para los clientes y de escasa relevancia, entendiéndose por tales aquéllas cuya información no sea necesaria para expresar la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de la entidad.

b) Utilizar el nombre de la sociedad o invocar su condición de administrador para influir indebidamente en la realización de operaciones privadas.

c) Hacer uso de los activos sociales, incluida la información confidencial de la compañía, con fines privados.

228. artikulua. Leialtasunaren betebeharretik eratorritako eginbide oinarrizkoak

Bereziki, leialtasunaren betebeharrak honetara behartzen du administratzailea:

a) Eman zaizkion ahalmenak ez baliatzera eman zaizkion hartarako bestetarako.

b) Sekretuan gordetzera bere karguan jardutean eskura izan dituen informazioak, datuak, txostenak edo aurrekariak, baita kargua utzi eta gero ere, salbu eta legeak hori baimentzen edo eskatzen duen kasuetan.

c) Hari, edo hari loturiko pertsona bati, interes-gatazka eragiten dioten hitzarmen edo erabakien eztabaidan eta bozketan parte ez hartzera. Salbuetsirik egongo dira aurreko parte ez hartzeko eginbide horretatik administratzaile den aldetik eragiten dioten hitzarmenak edo erabakiak, hala nola bera administrazio-organoko karguetarako izendatzea edo erreбокatzea edo antzeko adierako beste batzuk.

d) Bere funtzioak ardura pertsonalez betetzera, irizpide- edo iritzi-askatasunez eta hirugarrenen jarraibideekiko eta loturekiko independentziaz.

e) Behar diren neurriak hartzera, gatazka-egoerarik sor ez dadin berak bere zein besteren kontura dituen interesen eta interes sozialaren eta berak sozietatearekiko dituen betebeharren artean.

229. artikulua. Interes-gatazka eragiten duten egoerak saihesteko betebeharra

1. Bereziki, aurreko 228. artikulua e) letran aipaturiko interes-gatazka eragiten duten egoerak saihesteko betebeharrak honako hauek baztertzerak behartzen du administratzailea:

a) Sozietatearekin transakzioak egitea, non eta ez diren eragiketa arruntak, bezeroentzat baldintza estandarretan eginak eta garrantzi gutxikoak, halakotzat ulerturik haiek zeinei buruzko informaziorik ez baita behar entitatearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela adierazteko.

b) Sozietatearen izena erabiltzea edo administratzaile dela argudiatzea eragiketa pribatuak egitean bidegabeki eragiteko.

c) Helburu pribatuetarako erabiltzea sozietatearen aktiboak, konpainiaren isilpeko informazioa barne.

d) Aprovecharse de las oportunidades de negocio de la sociedad.

e) Obtener ventajas o remuneraciones de terceros distintos de la sociedad y su grupo asociadas al desempeño de su cargo, salvo que se trate de atenciones de mera cortesía.

f) Desarrollar actividades por cuenta propia o cuenta ajena que entrañen una competencia efectiva, sea actual o potencial, con la sociedad o que, de cualquier otro modo, le sitúen en un conflicto permanente con los intereses de la sociedad.

2. Las previsiones anteriores serán de aplicación también en el caso de que el beneficiario de los actos o de las actividades prohibidas sea una persona vinculada al administrador.

3. En todo caso, los administradores deberán comunicar a los demás administradores y, en su caso, al consejo de administración, o, tratándose de un administrador único, a la junta general cualquier situación de conflicto, directo o indirecto, que ellos o personas vinculadas a ellos pudieran tener con el interés de la sociedad.

Las situaciones de conflicto de interés en que incurran los administradores serán objeto de información en la memoria a que se refiere el artículo 259.

Artículo 230. Régimen de imperatividad y dispensa

1. El régimen relativo al deber de lealtad y a la responsabilidad por su infracción es imperativo. No serán válidas las disposiciones estatutarias que lo limiten o sean contrarias al mismo.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado precedente, la sociedad podrá dispensar las prohibiciones contenidas en el artículo anterior en casos singulares autorizando la realización por parte de un administrador o una persona vinculada de una determinada transacción con la sociedad, el uso de ciertos activos sociales, el aprovechamiento de una concreta oportunidad de negocio, la obtención de una ventaja o remuneración de un tercero.

La autorización deberá ser necesariamente acordada por la junta general cuando tenga por objeto la dispensa de la prohibición de obtener una ventaja o remuneración de terceros, o afecte a una transacción cuyo valor sea superior al diez por ciento de los activos sociales. En las sociedades de responsabilidad limitada, también deberá otorgarse por la junta general la autorización cuando se refiera a la prestación de cualquier clase de asistencia financiera, incluidas garantías de la sociedad a favor del administrador o cuando se dirija al establecimiento con la sociedad de una relación de servicios u obra.

d) Sozietatearen negozio-aukerez baliatzea.

e) Bere karguan jardutearekin loturiko abantailak edo ordainsariak jasotzea sozietateaz besteko eta haren taldeaz besteko hirugarren batzuegandik, salbu eta kortesia hutsezko adeitasunak badira.

f) Sozietatearekin, dela izatez edo ahalez, egiazko lehia sortzen duten jarduerak edo, beste edonola, sozietatearen interesekin gatazka etengabea eragiten dioten jarduerak gitea bere kontura zein besteren kontura.

2. Aurreko aurreikuspenak orobat izango dira aplikagarriak egintza edo jarduera debekatuen onuraduna administratzaileari loturiko pertsona bat den kasuan.

3. Edozein kasutan, administratzaileek gainerako administratzaileei jakinarazi beharko diote, eta, hala badagokio, administrazio-kontseiluari, edo administratzaile bakarraren kasuan, batzar nagusiari, haiek edo haiei loturiko pertsonak sozietatearen interesarekin izan dezaketenez edozein gatazka-egoera, zuzeneko zein zeharkako.

Administratzaileek dituzten interes-gatazkak 259. artikuluan aipaturiko oroitidazkian adieraziko dira.

230. artikulua. Aginduzkotasunaren eta dispentsaren araubidea

1. Leialtasunaren betebeharrari eta hura urratzearen erantzukizunari buruzko araubidea aginduzkoa da. Ez dira baliozkoak izango hura mugatzen duten edo haren kontrakoak diren estatutu-xedapenak.

2. Aurreko zenbakian xedaturikoa gorabehera, aurreko artikuluan jasotako debekuak dispentsatu ahal izango ditu sozietateak kasu berezietan, eta baimena eman administratzaileak edo hari loturiko pertsona batek sozietatearekin transakzio jakin bat egiteko; sozietatearen aktibo jakin batzuk erabiltzeko; negozio-aukera zehatz batez baliatzeko; hirugarren batengandik abantaila bat edo ordainsari bat lortzeko.

Baimena emateko erabakia batzar nagusiak hartu beharko du, nahitaez, baldin eta baimendu beharrekoa hirugarren batengandik abantaila bat edo ordainsari bat lortzea bada edo sozietatearen aktiboen ehuneko hamar baino baliho handiagoko transakzio bati eragiten badio. Erantzukizun mugatuko sozietateetan, orobat eman beharko du baimena batzar nagusiak baldin eta baimendu beharrekoa edozein eratako laguntza finantzario bat bada, sozietateak administratzailearen alde jarritako bermeak barne, edo baldin eta sozietatearekin zerbitzu- edo obra-harreman bat ezartzera bideraturik badago.

En los demás casos, la autorización también podrá ser otorgada por el órgano de administración siempre que quede garantizada la independencia de los miembros que la conceden respecto del administrador dispensado. Además, será preciso asegurar la inocuidad de la operación autorizada para el patrimonio social o, en su caso, su realización en condiciones de mercado y la transparencia del proceso.

3. La obligación de no competir con la sociedad solo podrá ser objeto de dispensa en el supuesto de que no quepa esperar daño para la sociedad o el que quepa esperar se vea compensado por los beneficios que prevén obtenerse de la dispensa. La dispensa se concederá mediante acuerdo expreso y separado de la junta general.

En todo caso, a instancia de cualquier socio, la junta general resolverá sobre el cese del administrador que desarrolle actividades competitivas cuando el riesgo de perjuicio para la sociedad haya devenido relevante.

Artículo 231. Personas vinculadas a los administradores

1. A efectos de los artículos anteriores, tendrán la consideración de personas vinculadas a los administradores:

a) El cónyuge del administrador o las personas con análoga relación de afectividad.

b) Los ascendientes, descendientes y hermanos del administrador o del cónyuge del administrador.

c) Los cónyuges de los ascendientes, de los descendientes y de los hermanos del administrador.

d) Las sociedades en las que el administrador, por sí o por persona interpuesta, se encuentre en alguna de las situaciones contempladas en el apartado primero del artículo 42 del Código de Comercio.

2. Respecto del administrador persona jurídica, se entenderán que son personas vinculadas las siguientes:

a) Los socios que se encuentren, respecto del administrador persona jurídica, en alguna de las situaciones contempladas en el apartado primero del artículo 42 del Código de Comercio.

b) Los administradores, de derecho o de hecho, los liquidadores, y los apoderados con poderes generales del administrador persona jurídica.

Gainerako kasuetan, administrazio-organoak eman ahal izango du baimena, baldin eta bermaturik geratzen bada ezen baimena ematen duten kideak independentziaz jokatzeko dutela dispentsa eman zaion administratzaileari dagokionez. Gainera, ziurtatu behar da ezen baimenduriko eragiketa kaltegabea dela sozietate-ondarearentzat edo, hala badagokio, merkatuko baldintzetan egiten dela eta prozesua gardena dela.

3. Sozietatearekin ez lehiatzeko eginbideak ez du dispentsarik izango sozietatearentzat kalterik espero ez daitekeen kasuan baino, edota espero daitekeen kaltea dispentsari esker lortzea aurreikusten den onurekin konpentsaturik geratzen denean baino. Batzar nagusiak espresuki eta bereiz hartutako erabakiz emango da dispentsa.

Edozein kasutan, edozein bazkideren eskariz, batzar nagusiak ebatziko du lehiatzeko jarduerak egiten dituen administratzailea kargugabetzeari buruz, baldin eta sozietateak kalteak izateko arriskua nabarmena bihurtu bada.

231. artikulua. Administratzaileei loturiko pertsonak

1. Aurreko artikuluei dagokionez, administratzaileei loturiko pertsonatzat joko dira:

a) Administratzailearen ezkontidea edo antzeko harreman afektiboa duten pertsonak.

b) Administratzailearen zein administratzailearen ezkontidearen aurrekoak, ondorengoak eta anai-arrebak.

c) Administratzailearen aurrekoen, ondorengoen eta anai-arreben ezkontideak.

d) Sozietate haiek zeinetan administratzailea, berez edo tarteko pertsona baten bidez, Merkataritza Kodearen 42. artikulua lehengo zenbakian aurreikusitako egoeratariko batean baitago.

2. Pertsona juridiko administratzaile bati dagokionez, hauek joko dira hari loturiko pertsonatzat:

a) Pertsona juridiko administratzaileari dagokionez Merkataritza Kodearen 42. artikulua lehengo zenbakian aurreikusitako egoeratariko batean dauden bazkideak.

b) Administratzaileak, zuzenbidezkoak zein egitatezkoak, likidatzaileak, eta pertsona juridiko administratzailearen ahalmen orokorrak dituzten ahalduak.

c) Las sociedades que formen parte del mismo grupo y sus socios.

d) Las personas que respecto del representante del administrador persona jurídica tengan la consideración de personas vinculadas a los administradores de conformidad con lo que se establece en el párrafo anterior.

Artículo 232. Acciones derivadas de la infracción del deber de lealtad

El ejercicio de la acción de responsabilidad prevista en los artículos 236 y siguientes no obsta al ejercicio de las acciones de impugnación, cesación, remoción de efectos y, en su caso, anulación de los actos y contratos celebrados por los administradores con violación de su deber de lealtad.

CAPÍTULO IV

La representación de la sociedad

Artículo 233. Atribución del poder de representación

1. En la sociedad de capital la representación de la sociedad, en juicio o fuera de él, corresponde a los administradores en la forma determinada por los estatutos, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado siguiente.

2. La atribución del poder de representación se regirá por las siguientes reglas:

a) En el caso de administrador único, el poder de representación corresponderá necesariamente a éste.

b) En caso de varios administradores solidarios, el poder de representación corresponde a cada administrador, sin perjuicio de las disposiciones estatutarias o de los acuerdos de la junta sobre distribución de facultades, que tendrán un alcance meramente interno.

c) En la sociedad de responsabilidad limitada, si hubiera más de dos administradores conjuntos, el poder de representación se ejercerá mancomunadamente al menos por dos de ellos en la forma determinada en los estatutos. Si la sociedad fuera anónima, el poder de representación se ejercerá mancomunadamente.

d) En el caso de consejo de administración, el poder de representación corresponde al propio consejo, que actuará colegiadamente. No obstante, los estatutos podrán atribuir el poder de representación a uno o varios miembros del consejo a título individual o conjunto.

c) Talde berekoak diren sozietateak eta haien bazkideak.

d) Pertsona juridiko administratzailearen ordezkariari dagokionez, aurreko zenbakian ezartzen denaren arabera administratzaileei loturiko pertsonatzat jotzen diren pertsonak.

232. artikulua. Leialtasun-betebeharra urratzetik eratorritako akzioak

236. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako erantzukizun-akzioa baliatzeak ez du eragozten administratzaileek beren leialtasun-betebeharra urratuz egindako egintzak eta kontratuak aurkaratzeko, bukaratzeko, efektuak kentzeko eta, hala badagokio, baliogabetzeko akzioak baliatzea.

IV. KAPITULUA

Sozietatearen ordezkaritza

233. artikulua. Ordezkaritza-ahalmena esleitzea

1. Kapital-sozietatean, administratzaileei dagokie sozietatea ordezkatzea, epaiketan edo hartatik kanpo, estatutuetan zehazturiko moduan, hargatik eragotzi gabe hurrengo zenbakian xedaturikoa.

2. Ordezkaritza-ahalmena emateko arau hauek jarraituko dira:

a) Administratzaile bakarraren kasuan, hark izango du, nahitaez, ordezkaritza-ahalmena.

b) Zenbait administratzaile solidarioren kasuan, administratzaile bakoitzak izango du ordezkaritza-ahalmena, hargatik eragotzi gabe ahalmen-banaketari buruz estatutuetan xedaturikoa edo batzarrean harturiko erabakiak, zeinak ez baitira izango barne-erabilerarako baino.

c) Erantzukizun mugatuko sozietatean, baterako bi administratzaile baino gehiago badaude, gutxienez haietariko bik baliatuko dute, modu mankomunatuan, ordezkaritza-ahalmena, estatutuetan zehazturiko moduan. Sozietatea anonimoa bada, ordezkaritza-ahalmena modu mankomunatuan baliatuko da.

d) Administrazio-kontseiluaren kasuan, kontseiluari berari dagokio ordezkaritza-ahalmena, eta modu kolegiatuan jardungo du. Hala ere, estatutuek kontseiluko kide bati edo gehiagori esleitu ahal izango diote ordezkaritza-ahalmena, bakarkakoa zein baterakoa.

Cuando el consejo, mediante el acuerdo de delegación, nombre una comisión ejecutiva o uno o varios consejeros delegados, se indicará el régimen de su actuación.

Artículo 234. Ámbito del poder de representación

1. La representación se extenderá a todos los actos comprendidos en el objeto social delimitado en los estatutos.

Cualquier limitación de las facultades representativas de los administradores, aunque se halle inscrita en el Registro Mercantil, será ineficaz frente a terceros.

2. La sociedad quedará obligada frente a terceros que hayan obrado de buena fe y sin culpa grave, aún cuando se desprenda de los estatutos inscritos en el Registro Mercantil que el acto no está comprendido en el objeto social.

Artículo 235. Notificaciones a la sociedad

Cuando la administración no se hubiera organizado en forma colegiada, las comunicaciones o notificaciones a la sociedad podrán dirigirse a cualquiera de los administradores. En caso de consejo de administración, se dirigirán a su Presidente.

CAPÍTULO V

La responsabilidad de los administradores

Artículo 236. Presupuestos y extensión subjetiva de la responsabilidad

1. Los administradores responderán frente a la sociedad, frente a los socios y frente a los acreedores sociales, del daño que causen por actos u omisiones contrarios a la ley o a los estatutos o por los realizados incumpliendo los deberes inherentes al desempeño del cargo, siempre y cuando haya intervenido dolo o culpa.

La culpabilidad se presumirá, salvo prueba en contrario, cuando el acto sea contrario a la ley o a los estatutos sociales.

2. En ningún caso exonerará de responsabilidad la circunstancia de que el acto o acuerdo lesivo haya sido adoptado, autorizado o ratificado por la junta general.

3. La responsabilidad de los administradores se extiende igualmente a los administradores de hecho. A tal fin, tendrá la consideración de administrador

Kontseiluak, eskuordetzarako erabakiaren bidez, exekuzio-batzorde bat edo kontseilari ordezkari bat edo gehiago izendatzen dituenean, haien jardueraren araubidea adieraziko du.

234. artikulua. Ordezkaritza-ahalmenaren eremua

1. Estatutuetan zedarrituriko objektu sozialean sartzen diren egintza guztietara helduko da ordezkaritza.

Administratzaileen ordezkaritza-ahalmenen edozein mugapenek, nahiz eta Merkataritza Erregistroan inskribaturik egon, ez du eraginik izango hirugarrenen aurrean.

2. Sozietatea zordun geratuko da fede onez eta erru larririk gabe jardun duten hirugarrenetik, nahiz eta Merkataritza Erregistroan inskribaturiko estatutuetatik ondorioztatu ezen egintza ez dagoela objektu sozialaren barruan.

235. artikulua. Sozietateari jakinarazpenak egitea

Administrazioa modu kolegiatuan antolatu ez denean, sozietateari egin beharreko adierazpen edo jakinarazpenak administratzaileetarako edozeini zuzendu ahal izango zaizkio. Administrazio-kontseiluaren kasuan, haren presidenteari zuzenduko zaizkio.

V. KAPITULUA

Administratzaileen erantzukizuna

236. artikulua. Erantzukizunaren oinarriak eta hedadura subjektiboa

1. Administratzaileek sozietatearen, bazkideen eta sozietatearen hartzekodunen aurrean erantzungo dute legearen edo estatutuen kontra egiten dituzten egintzek edo ez-egiteek eragindakoa kalteez edo karguari dagozkion betebeharrak ez betetzeak eragindakoez, baldin eta tartean doloa edo errua izan bada.

Erruduntasunaren presuntzio egingo da, kontrako frogarik ezean, egintza legearen edo sozietatearen estatutuen kontrakoa denean.

2. Egintza edo erabaki kaltegarria batzar nagusiak onartu, baimendu edo berretsi izanak ez du libratuko, ezein kasutan, erantzukizunetik.

3. Administratzaileen erantzukizuna era berean hedatzen da izatezko administratzaileengana. Horretarako, egitatezko administratzailetzat joko da hala

de hecho tanto la persona que en la realidad del tráfico desempeñe sin título, con un título nulo o extinguido, o con otro título, las funciones propias de administrador, como, en su caso, aquella bajo cuyas instrucciones actúen los administradores de la sociedad.

4. Cuando no exista delegación permanente de facultades del consejo en uno o varios consejeros delegados, todas las disposiciones sobre deberes y responsabilidad de los administradores serán aplicables a la persona, cualquiera que sea su denominación, que tenga atribuidas facultades de más alta dirección de la sociedad, sin perjuicio de las acciones de la sociedad basadas en su relación jurídica con ella.

5. La persona física designada para el ejercicio permanente de las funciones propias del cargo de administrador persona jurídica deberá reunir los requisitos legales establecidos para los administradores, estará sometida a los mismos deberes y responderá solidariamente con la persona jurídica administrador.

Artículo 237. Carácter solidario de la responsabilidad

Todos los miembros del órgano de administración que hubiera adoptado el acuerdo o realizado el acto lesivo responderán solidariamente, salvo los que prueben que, no habiendo intervenido en su adopción y ejecución, desconocían su existencia o, conociéndola, hicieron todo lo conveniente para evitar el daño o, al menos, se opusieron expresamente a aquél.

Artículo 238. Acción social de responsabilidad

1. La acción de responsabilidad contra los administradores se entablará por la sociedad, previo acuerdo de la junta general, que puede ser adoptado a solicitud de cualquier socio aunque no conste en el orden del día. Los estatutos no podrán establecer una mayoría distinta a la ordinaria para la adopción de este acuerdo.

2. En cualquier momento la junta general podrá transigir o renunciar al ejercicio de la acción, siempre que no se opusieren a ello socios que representen el cinco por ciento del capital social.

3. El acuerdo de promover la acción o de transigir determinará la destitución de los administradores afectados.

4. La aprobación de las cuentas anuales no impedirá el ejercicio de la acción de responsabilidad ni supondrá la renuncia a la acción acordada o ejercitada.

titulu gabe, titulu deusez edo amaitu batekin, edo beste titulu batekin, trafikoaren errealitatean administratzaile bati dagozkion funtzioak betetzen dituen nola, hala badagokio, sozietatearen administratzaileek jarraitzen dituzten jarraibideak ematen dituena.

4. Kontseiluaren ahalmenak kontseilari ordezkari bati edo gehiagori modu iraunkorrean eskuordetu ez bazaizkio, administratzaileen betebeharrei eta erantzukizunei buruzko xedapenak aplikagarriak izango zaizkio sozietatearen zuzendaritza maila goreneko ahalmenak esleituak zaizkion pertsonari, edozein ere dela haren izendapena, hargatik eragotzi gabe harekiko erlazio juridikoan oinarritzen diren sozietatearen akzioak.

5. Administratzaile pertsona juridikoaren karguari dagozkion funtzioak modu iraunkorrean betetzeko izendaturiko pertsona fisikoak administratzaileentzat ezarritako legezko betekizunak bete beharko ditu, haien betebeharrak izango ditu eta modu solidarioan erantzungo du pertsona juridiko administratzailearekin.

237. artikulua. Erantzukizunaren izaera solidarioa

Erabaki kaltegarria hartu edo egintza kaltegarria egin duten administrazio-organoko kide guztiak modu solidarioan erantzungo dute, salbu eta hau frogatzen dutenek: Erabakia hartzen edo egintza egiten parte hartu ez zutelarik, ez zekitela halakorik bazenik, edo, baldin bazekiten, kaltea galarazteko zegokion guztia egin zutela edo, behintzat, espresuki haren kontra agertu zirela.

238. artikulua. Sozietatearen erantzukizun-akzioa

1. Administratzaileen kontrako erantzukizun-akzioa sozietateak abiaraziko du, aurrez batzar nagusiak erabakia harturik; erabaki hori edozein bazkideren eskariz har daiteke, nahiz eta akzioa eguneko gai-zerrendan ez egon. Estatutuetan ezin ezarriko da gehiengo arruntaz besteko gehiengorik erabaki hori hartzeko.

2. Batzar nagusiak, edozein unetan, transakzioa egin edo akzioa baliatzeari uko egin ahal izango dio, baldin eta kapital sozialaren ehuneko bost ordezkartzen duen bazkide kopuru bat kontra agertzen ez bada.

3. Akzioa abiarazteko edo transakzioa egiteko erabakiak akzioak ukitzen dituen administratzaileak kargutik kentzea ekarriko du.

4. Urteko kontuak onartzeak ez du eragotziko erantzukizun-akzioa baliatzea, ez eta erabakitako edo baliaturiko akzioari uko egitea eragingo ere.

Artículo 239. Legitimación de la minoría

1. El socio o socios que posean individual o conjuntamente una participación que les permita solicitar la convocatoria de la junta general, podrán entablar la acción de responsabilidad en defensa del interés social cuando los administradores no convocasen la junta general solicitada a tal fin, cuando la sociedad no la entablare dentro del plazo de un mes, contado desde la fecha de adopción del correspondiente acuerdo, o bien cuando este hubiere sido contrario a la exigencia de responsabilidad.

El socio o los socios a los que se refiere el párrafo anterior, podrán ejercitar directamente la acción social de responsabilidad cuando se fundamente en la infracción del deber de lealtad sin necesidad de someter la decisión a la junta general.

2. En caso de estimación total o parcial de la demanda, la sociedad estará obligada a reembolsar a la parte actora los gastos necesarios en que hubiera incurrido con los límites previstos en el artículo 394 de la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil, salvo que esta haya obtenido el reembolso de estos gastos o el ofrecimiento de reembolso de los gastos haya sido incondicional.

Artículo 240. Legitimación subsidiaria de los acreedores para el ejercicio de la acción social

Los acreedores de la sociedad podrán ejercitar la acción social de responsabilidad contra los administradores cuando no haya sido ejercitada por la sociedad o sus socios, siempre que el patrimonio social resulte insuficiente para la satisfacción de sus créditos.

Artículo 241. Acción individual de responsabilidad

Quedan a salvo las acciones de indemnización que puedan corresponder a los socios y a los terceros por actos de administradores que lesionen directamente los intereses de aquellos.

Artículo 241 bis. Prescripción de las acciones de responsabilidad

La acción de responsabilidad contra los administradores, sea social o individual, prescribirá a los cuatro años a contar desde el día en que hubiera podido ejercitarse.

239. artikulua. Gutxiengoaren legitimazioa

1. Bazkide batek edo gehiagok, bakarka zein batera, batzar nagusia biltzeko deialdia eskatzea ahalbidetzen dion partaidetza bat badu, interes soziala babes-teko erantzukizun-akzioa abiarazi ahal izango du, baldin eta: administratzaileek deialdirik egiten ez badute helburu horrekin eskaturiko batzar nagusirako; sozietateak akzioa abiarazten ez badu hilabeteko epean, dagokion erabakia hartzen den datatik kontaturik epea; edota erantzukizuna eskatzearen kontrakoa izan bada erabakia.

Aurreko paragrafoan aipatzen den bazkideak edo bazkideek zuzenean baliatu ahal izango dute sozietatearen erantzukizun-akzioa, erabakia batzar nagusiak hartu beharrik gabe, baldin eta leialtasunaren betebeharra urratzean oinarritzen bada akzioa.

2. Demanda guztiz edo partez baiesten den kasuan, sozietatea beharturik egongo da alderdi auzi-jartzaileari itzultzerantz hark izan dituen gastu nahitaezkoak, Prozedura Zibilaren 2000ko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 394. artikulua mugak gordez, salbu eta alderdi auzi-jartzaileak gastuon itzulketa lortu badu edo gastuak itzultzeko eskaintza baldintzarik gabekoa izan bada.

240. artikulua. Hartzekodunen legitimazio subsidiarioa sozietatearen akzioa baliatzeko

Sozietatearen hartzekodunek sozietatearen erantzukizun-akzioa baliatu ahal izango dute administratzaileen kontra sozietateak edo sozietateko bazkideek baliatu ez dutenean, baldin eta sozietatearen ondarea aski ez bada haien kredituak ordaintzeko.

241. artikulua. Banakako erantzukizun-akzioa

Salburik geratzen dira bazkideen eta hirugarrenen interesak zuzenean kalteztzen dituzten administratzaileen egintzengatik bazkideei eta hirugarrenei dagozkien ordaintze-akzioak.

241 bis artikulua. Erantzukizun-akzioak preskribatzea

Administratzaileen aurkako erantzukizun-akzioa, dela sozietatearena edo indibiduala, lau urtera preskribatuko da, balia zitekeen egunetik kontatzen hasita.

CAPÍTULO VI

El consejo de administración

Artículo 242. Composición

1. El consejo de administración estará formado por un mínimo de tres miembros. Los estatutos fijarán el número de miembros del consejo de administración o bien el máximo y el mínimo, correspondiendo en este caso a la junta de socios la determinación del número concreto de sus componentes.

2. En la sociedad de responsabilidad limitada, en caso de consejo de administración, el número máximo de los componentes del consejo no podrá ser superior a doce.

Artículo 243. Sistema de representación proporcional

1. En la sociedad anónima las acciones que voluntariamente se agrupen, hasta constituir una cifra del capital social igual o superior a la que resulte de dividir este último por el número de componentes del consejo, tendrán derecho a designar los que, superando fracciones enteras, se deduzcan de la correspondiente proporción.

2. En el caso de que se haga uso de esta facultad, las acciones así agrupadas no intervendrán en la votación de los restantes componentes del consejo.

Artículo 244. Cooptación

En la sociedad anónima si durante el plazo para el que fueron nombrados los administradores se produjesen vacantes sin que existieran suplentes, el consejo podrá designar entre los accionistas las personas que hayan de ocuparlas hasta que se reúna la primera junta general.

Artículo 245. Organización y funcionamiento del consejo de administración

Cuando todas las acciones sean nominativas, los estatutos podrán permitir que se sustituya la publicación de la oferta por el envío de la misma a cada uno de los accionistas por correo certificado con acuse de recibo.

337. artikulua. Aurkakotzaren efektuak

Aurkakotza-eskubidea baliatzen den kasuan, kapital soziala ezin murriztuko da harik eta sozietateak hartzekodunaren gogoko bermea eskaintzen duen arte edo, bestela, hartzekodun horri jakinarazten dion arte ezen sozietatearen aldeko fidantza solidario bat eman duela hartarako behar bezala gaiturik da-goen kreditu-entitate batek, hartzekoduna titular den kredituaren muntakoa, eta hura bete dadila eskatzeko akzioa preskribatu arte.

6. ATALA

Partaidetza edo akzio berekiak amortizatzeko eskuratuz murriztea

338. artikulua. Murrizketarako betekizunak

1. Sozietatearen partaidetak edo akzioak gero amortizatzeko eskuratuz egin behar denean murrizketa, bazkide guztiei eskaini beharko zaie haiek esku-ratzeko aukera.

2. Murrizte-erabakiak akzio mota bati baino ez badio eragin behar, behar-rezko izango da, erabaki hori hartzeko, murrizketak ukitzen duen motari da-gozkion akzioen gehiengoaren erabaki bereizia, 293. artikuluan aurreikusitako eran hartua.

339. artikulua. Eskuratzeko eskaintza

1. Erantzukizun mugatuko sozietateetan, bazkide bakoitzari igorriko zaio eskaintza, posta ziurtatuaren bidez eta jasotze-agiria eskatuz.

2. Sozietate anonimoetan, eskuratze-proposamena Merkataritza Erre-gistroaren Aldizkari Ofizialean eta sozietateak helbidea duen probintzian za-balkunde handia duen egunkari batean argitaratu beharko da eta, gutxienez, hilabetean mantendu; proposamenean, akzioak besterendu nahi dituzten ak-ziodunen informaziorako arrazoizkoa denaren barruan beharrezkoak diren ai-pamen guztiak agertuko dira eta, hala badagokio, eskainitako akzioek era-bakian finkaturiko kopurua iritsi ezean horrek ekarriko lituzkeen ondorioak adieraziko.

Akzio guztiak izendunak direnean, estatutuek baimena eman ahal izango dute eskaintza, argitaratu ordez, akziodun bakoitzari bidaltzeko, posta ziur-tuaren bidez eta jasotze-agiria eskatuz.

Artículo 340. La aceptación

1. El plazo de aceptación de la oferta se computará desde el envío de la comunicación.

2. Si las aceptaciones excedieran del número de participaciones o de acciones previamente fijado por la sociedad, se reducirán las ofrecidas por cada socio en proporción al número cuya titularidad ostente cada uno de ellos.

3. A no ser que en el acuerdo de la junta o en la propuesta de adquisición se hubiera establecido otra cosa, cuando las aceptaciones no alcancen el número de participaciones o de acciones previamente fijado, se entenderá que el capital queda reducido en la cantidad correspondiente a las aceptaciones recibidas.

Artículo 341. Bonos de disfrute

1. En la reducción del capital con amortización de acciones podrán atribuirse bonos de disfrute a los titulares de las acciones amortizadas, especificando en el acuerdo de reducción el contenido de los derechos atribuidos a estos bonos.

2. Los bonos de disfrute no podrán atribuir el derecho de voto.

Artículo 342. La obligación de amortizar

Las participaciones sociales adquiridas por la sociedad deberán ser amortizadas en el plazo de tres años a contar de la fecha del ofrecimiento de la adquisición. Las acciones adquiridas por la sociedad deberán ser amortizadas dentro del mes siguiente a la terminación del plazo de la oferta de adquisición.

CAPÍTULO IV

Reducción y aumento del capital simultáneos

Artículo 343. Reducción y aumento del capital simultáneos

1. El acuerdo de reducción del capital social a cero o por debajo de la cifra mínima legal solo podrá adoptarse cuando simultáneamente se acuerde la transformación de la sociedad o el aumento de su capital hasta una cantidad igual o superior a la mencionada cifra mínima.

2. En todo caso habrá de respetarse el derecho de asunción o de suscripción preferente de los socios.

340. artikulua. Onarpena

1. Eskaintza onartzeko epea adierazpena bidaltzen denetik kontatuko da.

2. Sozietateak aurrez finkaturiko partaidetzen edo akzioen kopurua baino gehiago badira onarpenak, bazkide bakoitzak eskainitakoak murriztuko dira, haietariko bakoitza titular den kopuruaren proportzioan.

3. Batzarraren erabakian edo eskuratze-proposamenean bestelakorik ezarri ez bada, onarpenak aurrez finkaturiko partaidetza edo akzio kopurura iristen ez direnean, ulertuko da jasoriko onarpenei dagokien kopuruan murrizturik geratu dela kapitala.

341. artikulua. Gozamen-bonuak

1. Kapitala akzioak amortizatuz murrizten denean, gozamen-bonuak esleitu ahal izango zaizkie amortizaturiko akzioen titularrei, bonu horiei esleitzen zaizkien eskubideen edukiak zehaztuz murrizte-erabakian.

2. Gozamen-bonuek ezin emango dute boto-eskubidea.

342. artikulua. Amortizatzeko eginbidea

Sozietateak eskuraturiko sozietate-partaidetzak hiru urteko epean amortizatu beharko dira, eskuratze-eskaintza egin zen datatik kontaktzen hasita. Sozietateak eskuraturiko akzioak eskuratze-eskaintzaren epea amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan amortizatu beharko dira.

IV. KAPITULUA

Kapitala aldi berean murriztea eta handitzea

343. artikulua. Kapitala aldi berean murriztea eta handitzea

1. Kapitala soziala zerora edo legezko gutxieneko zifraren azpitik murrizteko erabakia hartzeko, beharrezko izango da aldi berean erabakitzea sozietatea eraldatzea edo aipaturiko gutxieneko zifraren zenbateko berean edo gehiagoan handitzea haren kapitala.

2. Edozein kasutan, bazkideen lehentasunezko hartze-eskubidea edo harpidetzea-eskubidea gorde beharko da.

Artículo 344. Eficacia condicionada del acuerdo de reducción

En caso de acuerdo de reducción y de aumento del capital simultáneos, la eficacia del acuerdo de reducción quedará condicionada, en su caso, a la ejecución del acuerdo de aumento del capital.

Artículo 345. La inscripción simultánea

La inscripción del acuerdo de reducción en el Registro Mercantil no podrá practicarse a no ser que simultáneamente se presente a inscripción el acuerdo de transformación o de aumento de capital, así como, en este último caso, su ejecución.

TÍTULO IX SEPARACIÓN Y EXCLUSIÓN DE SOCIOS

CAPÍTULO I La separación de socios

Artículo 346. Causas legales de separación

1. Los socios que no hubieran votado a favor del correspondiente acuerdo, incluidos los socios sin voto, tendrán derecho a separarse de la sociedad de capital en los casos siguientes:

- a) Sustitución o modificación sustancial del objeto social.
- b) Prórroga de la sociedad.
- c) Reactivación de la sociedad.
- d) Creación modificación o extinción anticipada de la obligación de realizar prestaciones accesorias, salvo disposición contraria de los estatutos.

2. En las sociedades de responsabilidad limitada tendrán, además, derecho a separarse de la sociedad los socios que no hubieran votado a favor del acuerdo de modificación del régimen de transmisión de las participaciones sociales.

3. En los casos de transformación de la sociedad y de traslado de domicilio al extranjero los socios tendrán derecho de separación en los términos establecidos en la Ley 3/2009, de 3 de abril, sobre modificaciones estructurales de las sociedades mercantiles.

344. artikulua. Murrizte-erabakiaren eraginkortasun baldintzatua

Kapitala aldi berean murriztea eta handitzea erabakitzen den kasuan, ezinbestekoa izango da, murrizte-erabakia eraginkorra izan dadin, kapitala handitzeko erabakia exekutatzea.

345. artikulua. Aldi bereko inskripzioa

Murrizteko erabakia ezin inskribatuko da Merkataritza Erregistroan, ez bada, aldi berean, kapitala eraldatzeko edo handitzeko erabakia inskribatzera aurkezten, eta, azken kasu horretan, baita haren exekuzioa ere.

IX. TITULUA

SOZietATEA UZTEA ETA SOZietATETIK KANPORATZEA

I. KAPITULUA

Bazkideek sozietatea uztea

346. artikulua. Sozietatea uzteko legezko kausak

1. Dagokion erabakiaren alde bozkatu ez duten bazkideek, botorik gabeko bazkideak barne, kapital-sozietatea uzteko eskubidea izango dute kasu hauetan:

- a) Objektu soziala ordeztea edo hark funtsezko aldaketak izatea.
- b) Sozietatearen iraupena luzatzea.
- c) Sozietatea berrabiatzea.

d) Prestazio osagarriak emateko eginbidea sortzea, aldatzea edo behar baino lehenago amaitzea, estatutuetan kontrakorik xedatu ezean.

2. Erantzukizun mugatuko sozietateetan, sozietate-partaidetak eskualdatzeko araubidea aldatzeko erabakiaren alde bozkatu ez duten bazkideek ere izango dute sozietatea uzteko eskubidea.

3. Sozietatea eraldatzen den kasuan eta helbidea atzerrira eramaten den kasuan, merkataritza-sozietateen egitura-aldaketei buruzko 2009ko apirilaren 3ko 3/2009 Legeak ezarritako baldintzetan izango dute bazkideek sozietatea uzteko eskubidea.

Artículo 347. Causas estatutarias de separación

1. Los estatutos podrán establecer otras causas de separación distintas a las previstas en presente ley. En este caso determinarán el modo en que deberá acreditarse la existencia de la causa, la forma de ejercitar el derecho de separación y el plazo de su ejercicio.

2. Para la incorporación a los estatutos, la modificación o la supresión de estas causas de separación será necesario el consentimiento de todos los socios.

Artículo 348. Ejercicio del derecho de separación

1. Los acuerdos que den lugar al derecho de separación se publicarán en el Boletín Oficial del Registro Mercantil. En las sociedades de responsabilidad limitada y en las anónimas cuando todas las acciones sean nominativas, los administradores podrán sustituir la publicación por una comunicación escrita a cada uno de los socios que no hayan votado a favor del acuerdo.

2. El derecho de separación habrá de ejercitarse por escrito en el plazo de un mes a contar desde la publicación del acuerdo o desde la recepción de la comunicación.

Artículo 348 bis. Derecho de separación en caso de falta de distribución de dividendos

1. A partir del quinto ejercicio a contar desde la inscripción en el Registro Mercantil de la sociedad, el socio que hubiera votado a favor de la distribución de los beneficios sociales tendrá derecho de separación en el caso de que la junta general no acordara la distribución como dividendo de, al menos, un tercio de los beneficios propios de la explotación del objeto social obtenidos durante el ejercicio anterior, que sean legalmente repartibles.

2. El plazo para el ejercicio del derecho de separación será de un mes a contar desde la fecha en que se hubiera celebrado la junta general ordinaria de socios.

3. Lo dispuesto en este artículo no será de aplicación a las sociedades cotizadas.

Artículo 349. Inscripción del acuerdo

Para la inscripción en el Registro Mercantil de la escritura que documente el acuerdo que origina el derecho de separación, será necesario que la propia escritura u otra posterior contenga la declaración de los administradores de que ningún socio ha ejercitado el derecho de separación dentro del plazo estable-

347. artikulua. Sozietatea uzteko estatutuzko kausak

1. Estatutuetan, lege honetan aurreikusitakoez besteko kausa batzuk ere ezarri ahal izango dira sozietatea uzteko. Kasu horretan, estatutuek zehaztu beharko dute kausa badagoela egiaztatzeko modua, sozietatea uzteko eskubidea baliatzeko era eta eskubidea baliatzeko epea.

2. Kausa horiek estatutuetan sartzeko, aldatzeko edo kentzeko, beharrezko izango da bazkide guztien adostasuna.

348. artikulua. Sozietatea uzteko eskubidea baliatzea

1. Sozietatea uzteko eskubideari bide ematen dioten erabakiak Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira. Erantzukizun mugatuko sozietateetan eta sozietate anonimoetan akzio guztiak izendunak direnean, administratzaileek, argitalpena egin ordez, adierazpen idatzi bat bidali ahal izango diote erabakiaren alde bozkatu ez duen bazkide bakoitzari.

2. Sozietatea uzteko eskubidea idatziz baliatu beharko da, hilabeteko epean, erabakia argitaratzen denetik edo adierazpena jasotzen denetik kontatzen hasita.

348 bis artikulua. Sozietatea uzteko eskubidea dibidenduak banatzen ez diren kasuan.

1. Sozietatea Merkataritza Erregistroan inskribatzen denetik kontatzen hasi eta bosgarren ekitalditik aurrera, sozietatearen mozkinak banatzearen aldeko botoa eman duen bazkideak sozietatea uzteko eskubidea izango du, baldin eta batzar nagusiak ez badu erabaki dibidendu gisa banatzea aurreko ekitaldian objektu soziala ustiatzetik lortu diren eta legez banagarriak diren mozkinen herena, gutxienez.

2. Sozietatea uzteko eskubidea baliatzeko epea hilabetekoa izango da, bazkideen ohiko batzar nagusia egin zen datatik kontatzen hasita.

3. Artikulu honetan xedaturikoa ez zaie aplikatuko sozietate kotizatuei.

349. artikulua. Erabakia inskribatzea

Sozietatea uzteko eskubidea sortzen duen erabakia dokumentatzen duen eskritura Merkataritza Erregistroan inskribatzeko, beharrezko izango da eskritura horretan bertan edo ondorengo beste batean jasotzea administratzaileen deklarazioa, zeinetan adierazten den ezein bazkidek ez duela baliatu sozietatea

cido o de que la sociedad, previa autorización de la junta general, ha adquirido las participaciones sociales o acciones de los socios separados, o la reducción del capital.

CAPÍTULO II

La exclusión de socios

Artículo 350. Causas legales de exclusión de los socios

La sociedad de responsabilidad limitada podrá excluir al socio que incumpla voluntariamente la obligación de realizar prestaciones accesorias, así como al socio administrador que infrinja la prohibición de competencia o hubiera sido condenado por sentencia firme a indemnizar a la sociedad los daños y perjuicios causados por actos contrarios a esta ley o a los estatutos o realizados sin la debida diligencia.

Artículo 351. Causas estatutarias de exclusión de socios

En las sociedades de capital, con el consentimiento de todos los socios, podrán incorporarse a los estatutos causas determinadas de exclusión o modificarse o suprimirse las que figurasen en ellos con anterioridad.

Artículo 352. Procedimiento de exclusión

1. La exclusión requerirá acuerdo de la junta general. En el acta de la reunión o en anejo se hará constar la identidad de los socios que hayan votado a favor del acuerdo.

2. Salvo en el caso de condena del socio administrador a indemnizar a la sociedad, la exclusión de un socio con participación igual o superior al veinticinco por ciento en el capital social requerirá, además del acuerdo de la junta general, resolución judicial firme, siempre que el socio no se conforme con la exclusión acordada.

3. Cualquier socio que hubiera votado a favor del acuerdo estará legitimado para ejercitar la acción de exclusión en nombre de la sociedad cuando ésta no lo hubiera hecho en el plazo de un mes a contar desde la fecha de adopción del acuerdo de exclusión.

uzteko eskubidea ezarritako epearen barruan edo sozietateak, aurrez batzar nagusiak baimena emanik, sozietatea utzi duten bazkideen partaidetzak edo akzioak eskuratu dituela, edo kapital-murrizketa.

II. KAPITULUA

Bazkideak kanporatzea

350. artikulua. Bazkideak kanporatzeko legezko kausak

Erantzukizun mugatuko sozietateak zilegi izango du bazkide bat kanporatzea, baldin eta bazkide horrek, nahita, prestazio osagarriak emateko eginbidea betetzen ez badu, eta baita bazkide administratzaile bat kanporatzea ere, hark lehia-debekua urratzen badu edo epai irmoz kondenatua izan bada lege honen edo estatutuen kontrako egintzek edo behar bezalako prestasunez egin gabekoek eragindako kalte-galerak sozietateari ordaintzera.

351. artikulua. Bazkideak kanporatzeko estatutuzko kausak

Kapital-sozietateetan zilegi izango da, bazkide guztien adostasunez, kanporatzeko kausa jakin batzuk estatutuetan sartzea edo lehenagotik han jasota daudenak aldatzea edo kentzea.

352. artikulua. Kanporatzeko prozedura

1. Bazkideak kanporatzeko, batzar nagusiaren erabakia beharko da. Bilaren aktan edo eranskin batean, erabakiaren alde bozkatu duten bazkideen identitatea jasoko da.

2. Sozietateari ordaintzera kondenatua izan den bazkide administratzailearen kasuan izan ezik, kapital sozialaren ehuneko hogeita bosteko edo gehiagoko partaidetza duen bazkide bat kanporatzeko, beharrezko izango da, batzar nagusiaren erabakiaz gainera, ebazpen judizial irmo bat, baldin eta bazkidea ados ez badago erabakitako kanporatzearekin.

3. Erabakiaren alde bozkatu duen edozein bazkide legitimaturik egongo da sozietatearen izenean kanporatze-akzioa baliatzeko, baldin eta sozietateak akzio hori hilabeteko epean baliatu ez badu, kanporatze-erabakia hartu zen datatik kontatzen hasita.

CAPÍTULO III

Normas comunes a la separación y la exclusión de socios

Artículo 353. Valoración de las participaciones o de las acciones del socio

1. A falta de acuerdo entre la sociedad y el socio sobre el valor razonable de las participaciones sociales o de las acciones, o sobre la persona o personas que hayan de valorarlas y el procedimiento a seguir para su valoración, serán valoradas por un experto independiente, designado por el registrador mercantil del domicilio social a solicitud de la sociedad o de cualquiera de los socios titulares de las participaciones o de las acciones objeto de valoración.

2. Si las acciones cotizasen en un mercado secundario oficial, el valor de reembolso será el del precio medio de cotización del último trimestre.

Artículo 354. Informe del experto independiente

1. Para el ejercicio de su función, el experto podrá obtener de la sociedad todas las informaciones y documentos que considere útiles y proceder a todas las verificaciones que estime necesarias.

2. En el plazo máximo de dos meses a contar desde su nombramiento, el experto emitirá su informe, que notificará inmediatamente por conducto notarial a la sociedad y a los socios afectados, acompañando copia, y depositará otra en el Registro Mercantil.

Artículo 355. Retribución del experto independiente

1. La retribución del experto correrá a cargo de la sociedad.

2. No obstante, en los casos de exclusión, la sociedad podrá deducir de la cantidad a reembolsar al socio excluido lo que resulte de aplicar a los honorarios satisfechos el porcentaje que dicho socio tuviere en el capital social.

Artículo 356. Reembolso

1. Dentro de los dos meses siguientes a la recepción del informe de valoración, los socios afectados tendrán derecho a obtener en el domicilio social el valor razonable de sus participaciones sociales o acciones en concepto de precio de las que la sociedad adquiere o de reembolso de las que se amortizan.

III. KAPITULUA

Sozietatea uzteari eta sozietatetik kanporatzeari buruzko arau erkideak

353. artikulua. Bazkidearen partaidetzak edo akzioak balioestea

1. Sozietatearen eta bazkidearen artean adostasunik ez badago sozietate-partaidetzen edo akzioen arrazoizko balioari buruz, edo haiek balioetsi behar dituzten pertsoneri edo balioesteko jarraitu beharreko prozedurari buruz, aditu independente batek balioetsiko ditu; aditu hori sozietate-helbideko merkataritza-erregistratzaileak izendatuko du, sozietatearen eskariz edo balioestekoak diren partaidetza edo akzioen titular diren bazkideetarikoko edozeinen eskariz.

2. Akzioek bigarren mailako merkatu ofizial batean kotizatzen badute, azken hiruhilekoan batez beste izan duten kotizazio-prezioarena izango da itzulketa-balioa.

354. artikulua. Aditu independentearen txostena

1. Adituak, bere funtzioa betetzeko, baliagarri jotzen dituen informazio eta dokumentu guztiak lortu ahal izango ditu sozietatearengandik, eta beharrezko deritzon egiaztatze guztiak egin.

2. Izendatua izan zenetik kontaktzen hasi eta gehienez ere bi hilabeteko epean emango du adituak bere txostena, zeina berehala jakinaraziko baitie, notario bidez, sozietateari eta balioespenak ukitzen dituen bazkideei, haren kopia bat igorritz; beste kopia bat, berriz, Merkataritza Erregistroan gordailutuko du.

355. artikulua. Aditu independentearen lansaria

1. Adituaren lansaria sozietatearen kargura izango da.

2. Kanporatze-kasuetan, hala ere, sozietateak zilegi izango du bazkide kanporatuari itzuli beharreko kopurutik kentzea ordainduriko zerbitzu-sariari bazkide horrek kapital sozialean duen ehunekoa aplikatuz ateratzen dena.

356. artikulua. Itzulketa

1. Balioespen-txostena jaso ondorengo bi hilabeteen barruan, balioespenak ukitzen dituen bazkideek eskubidea izango dute sozietate-helbidean jasotzeko beren sozietate-partaidetzen edo akzioen arrazoizko balioa, sozietateak eskuratzen dituenen prezioaren edo amortizatzen direnen itzulketaren konzeptuan.

2. Transcurrido dicho plazo, los administradores consignarán en entidad de crédito del término municipal en que radique el domicilio social, a nombre de los interesados, la cantidad correspondiente al referido valor.

3. Por excepción a lo establecido en los apartados anteriores, en todos aquellos casos en los que los acreedores de la sociedad de capital tuvieran derecho de oposición, el reembolso a los socios sólo podrá producirse transcurrido el plazo de tres meses contados desde la fecha de notificación personal a los acreedores o la publicación en el Boletín Oficial del Registro Mercantil y en uno de los diarios de mayor circulación en la localidad en que radique el domicilio social, y siempre que los acreedores ordinarios no hubiesen ejercido el derecho de oposición. Si los acreedores hubieran ejercitado ese derecho se estará a lo establecido en la sección 5.^a del capítulo III del título VIII.

Artículo 357. Protección de los acreedores de las sociedades de responsabilidad limitada

Los socios de las sociedades de responsabilidad limitada a quienes se hubiere reembolsado el valor de las participaciones amortizadas estarán sujetos al régimen de responsabilidad por las deudas sociales establecido para el caso de reducción de capital por restitución de aportaciones.

Artículo 358. Escritura pública de reducción del capital social

1. Salvo que la junta general que haya adoptado los acuerdos correspondientes autorice la adquisición por la sociedad de las participaciones o de las acciones de los socios afectados, efectuado el reembolso o consignado el importe de las mismas, los administradores, sin necesidad de acuerdo específico de la junta general, otorgarán inmediatamente escritura pública de reducción del capital social expresando en ella las participaciones o acciones amortizadas, la identidad del socio o socios afectados, la causa de la amortización, la fecha de reembolso o de la consignación y la cifra a la que hubiera quedado reducido el capital social.

2. En el caso de que, como consecuencia de la reducción, el capital social descendiera por debajo del mínimo legal, se estará lo dispuesto en esta ley en materia de disolución.

Artículo 359. Escritura pública de adquisición

En el caso de adquisición por la sociedad de las participaciones o acciones de los socios afectados, efectuado el pago del precio o consignado su importe,

2. Epe hori igarotakoan, administratzaileek sozietate-helbidea dagoen udalerriko kreditu-entitate batean gordailutuko dute, interesdunen izenean, aipaturiko balioari dagokion kopurua.

3. Aurreko zenbakietan ezarritakoaren salbuespenez, kapital-sozietatearen hartzekodunek aurkakotza-eskubidea duten kasu guztietan, beharrezko izango da, bazkideei itzulketa egiteko, hiru hilabete igaroak izatea hartzekodunei jakinarazpen pertsonala egin zaien datatik edo Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean eta sozietate-helbidea dagoen herrian zabalkunde handiena duten egunkarietariko batean argitaratu zenetik, betiere hartzekodun arruntek aurkakotza-eskubidea baliatu ez badute. Hartzekodunek esku-bide hori baliatu badute, VIII. tituluko III. kapituluaren 5. atalean ezarritakoa jarraituko da.

357. artikulua. Erantzukizun mugatuko sozietateen hartzekodunen babesak

Kapitala ekarpenak itzuliz murrizten den kasuan sozietatearen zorrenatik ezarritako erantzukizun-araubidearen mende egongo dira, erantzukizun mugatuko sozietateetan, amortizaturiko partaidetzen balioa itzuli zaien bazkideak.

358. artikulua. Kapital sozialaren murrizketaren eskritura publikoa

1. Salbu eta dagozkion erabakiak hartu dituen batzar nagusiak baimentzen badu kanporaturiko edo sozietatea utziriko bazkideen partaidetzak edo akzioak sozietateak eskuratzea, itzulketa eginez edo haien zenbatekoa gordailutuz, administratzaileek, batzar nagusiaren erabaki berezi baten beharrik gabe, kapital sozialaren murrizketaren eskritura publikoa egiletsiko dute behala, hartan adieraziz amortizaturiko partaidetzak edo akzioak, amortizazioak ukitzen duen bazkidearen edo bazkideen identitatea, amortizazioaren arrazoia, itzulketaren edo gordailutzearen data eta kapital sozialaren murriztu ondorengo zifra.

2. Murrizketaren ondorioz kapitala legezko gutxienekoaren azpitik geratzen den kasuan, lege honetan desgiteari dagokionez xedaturikoa jarraituko da.

359. artikulua. Eskuraketaren eskritura publikoa

Kanporaturiko edo sozietatea utziriko bazkideen partaidetzak edo akzioak sozietateak eskuratzen baditu, prezioa ordainduz edo haien zenbatekoa gordai-

los administradores, sin necesidad de acuerdo específico de la junta general, otorgarán escritura pública de adquisición de participaciones sociales o de acciones, sin que sea preceptivo el concurso de los socios excluidos o separados, expresando en ella las participaciones o acciones adquiridas, la identidad del socio o socios afectados, la causa de la separación o de la exclusión y la fecha de pago o consignación.

TÍTULO X DISOLUCIÓN Y LIQUIDACIÓN

CAPÍTULO I La disolución

SECCIÓN I.^a

Disolución de pleno derecho

Artículo 360. Disolución de pleno derecho

1. Las sociedades de capital se disolverán de pleno derecho en los siguientes casos:

a) Por el transcurso del término de duración fijado en los estatutos, a no ser que con anterioridad hubiera sido expresamente prorrogada e inscrita la prórroga en el Registro Mercantil.

b) Por el transcurso de un año desde la adopción del acuerdo de reducción del capital social por debajo del mínimo legal como consecuencia del cumplimiento de una ley, si no se hubiere inscrito en el Registro Mercantil la transformación o la disolución de la sociedad, o el aumento del capital social hasta una cantidad igual o superior al mínimo legal.

Transcurrido un año sin que se hubiere inscrito la transformación o la disolución de la sociedad o el aumento de su capital, los administradores responderán personal y solidariamente entre sí y con la sociedad de las deudas sociales.

2. El registrador, de oficio o a instancia de cualquier interesado, hará constar la disolución de pleno derecho en la hoja abierta a la sociedad.

lutuz, administratzaileek, batzar nagusiaren erabaki berezi baten beharrik gabe, sozietate-partaidetzak edo akzioak eskuratzearen eskritura publikoa egiletsiko dute, kanporaturiko edo sozietatea utziriko bazkideek nahitaez parte hartu beharrik gabe, hartan adieraziz eskuraturiko partaidetzak edo akzioak, eskuraketak ukitzen duen bazkidearen edo bazkideen identitatea, sozietatea uztearen edo kanporatzearen kausa eta ordainketaren edo gordailutzearen data.

X. TITULUA

DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

I. KAPITULUA

Desegitea

I. ATALA

Zuzenbide osoz desegitea

360. artikulua. Zuzenbide osoz desegitea

1. Kapital-sozietateak kasu hauetan desegingo dira zuzenbide osoz:

a) Estatutuetan finkaturiko iraupen-epea amaitzean, non eta epe hori ez den aurretik espresuki luzatu eta luzapena Merkataritza Erregistroan inskribatu.

b) Lege bat betetzearen ondorioz kapital soziala legezko gutxienekoaren azpitik murrizteko erabakia hartu zenetik urtebete igarotakoan, baldin eta Merkataritza Erregistroan inskribatu ez bada sozietatearen eraldatzea edo desegitea, edo kapital soziala legezko gutxieneko kopururaino edo gorago handitzea.

Urtebete igaro eta sozietatearen eraldatzea edo desegitea edo kapital-handitzea inskribatu ez bada, administratzaileek pertsonalki eta modu solidarioan erantzungo dute, elkarren artean eta sozietatearekin, sozietatearen zorrez.

2. Erregistratzaileak, ofizioz edo edozein interesdunen eskariz, sozietateari irekitako orrian jasoko du zuzenbide osoz gertaturiko desegitea.

Artículo 361. Disolución y concurso

1. La declaración de concurso de la sociedad de capital no constituirá, por sí sola, causa de disolución.

2. La apertura de la fase de liquidación en el concurso de acreedores producirá la disolución de pleno derecho de la sociedad.

En tal caso, el juez del concurso hará constar la disolución en la resolución de apertura de la fase de liquidación del concurso.

SECCIÓN 2.^a

Disolución por constatación de la existencia de causa legal o estatutaria

Artículo 362. Disolución por constatación de la existencia de causa legal o estatutaria

Las sociedades de capital se disolverán por la existencia de causa legal o estatutaria debidamente constatada por la junta general o por resolución judicial.

Artículo 363. Causas de disolución

1. La sociedad de capital deberá disolverse:

a) Por el cese en el ejercicio de la actividad o actividades que constituyan el objeto social. En particular, se entenderá que se ha producido el cese tras un período de inactividad superior a un año.

b) Por la conclusión de la empresa que constituya su objeto.

c) Por la imposibilidad manifiesta de conseguir el fin social.

d) Por la paralización de los órganos sociales de modo que resulte imposible su funcionamiento.

e) Por pérdidas que dejen reducido el patrimonio neto a una cantidad inferior a la mitad del capital social, a no ser que éste se aumente o se reduzca en la medida suficiente, y siempre que no sea procedente solicitar la declaración de concurso.

f) Por reducción del capital social por debajo del mínimo legal, que no sea consecuencia del cumplimiento de una ley.

g) Porque el valor nominal de las participaciones sociales sin voto o de las acciones sin voto excediera de la mitad del capital social desembolsado y no se restableciera la proporción en el plazo de dos años.

361. artikulua. Desegitea eta konkurtsoa

1. Kapital-sozietatearen konkurtsoa deklaratzek ez du, berak bakarrik, desegitea eragingo.

2. Hartzekodunen konkurtsoan likidazio-fasea irekitzeko sozietatea zuzenbide osoz desegitea ekarriko du.

Kasu horretan, konkurtsoko epaileak konkurtsoko likidazio-fasea irekitzeko ebazpenean jasoko du desegitea.

2. ATALA

Lege- zein estatutu-kausa bat dagoela egiaztatzeagatik desegitea

362. artikulua. Lege- zein estatutu-kausa bat dagoela egiaztatzeagatik desegitea

Batzar nagusiak edo ebazpen judizial batek behar bezala egiaztatu duen lege- zein estatutu-kausa bat dagoelako desegingo dira kapital-sozietateak.

363. artikulua. Desegiteko kausak

1. Kapital-sozietatea desegin egin beharko da:

a) Objektu soziala den jarduera edo jarduerak egiteari uzteagatik. Bereziki, urtebete baino gehiagoan jardunik gabe egondakoan ulertuko da jarduerari utzi zaiola.

b) Haren objektu den zeregina amaitzeagatik.

c) Helburu soziala lortzeko ezintasun nabarmenagatik.

d) Sozietatearen organoak gelditzeagatik, halako moduz non haren funtzionamendua ezinezkoa gertatzen baita.

e) Ondare garbia kapital sozialaren erdia baino gutxiagora murriztu duten galerak izateagatik, non eta kapitala ez den handitzen edo murrizten behar den neurrian, eta betiere konkurtso-deklarazioa eskatzea ez badagokio.

f) Kapital soziala legezko gutxienezko behera murrizteagatik, lege bat betetzearen ondorioz ez bada.

g) Botorik gabeko sozietate-partaidetzen edo botorik gabeko akzioen balio nominala kapital sozial ordainduaren erdia baino handiagoa izanik, bi urteko epean berriro proportzioa ez ezartzeagatik.

h) Por cualquier otra causa establecida en los estatutos.

2. La sociedad comanditaria por acciones deberá disolverse también por fallecimiento, cese, incapacidad o apertura de la fase de liquidación en el concurso de acreedores de todos los socios colectivos, salvo que en el plazo de seis meses y mediante modificación de los estatutos se incorpore algún socio colectivo o se acuerde la transformación de la sociedad en otro tipo social.

Artículo 364. Acuerdo de disolución

En los casos previstos en el artículo anterior, la disolución de la sociedad requerirá acuerdo de la junta general adoptado con la mayoría ordinaria establecida para las sociedades de responsabilidad limitada en el artículo 198, y con el quórum de constitución y las mayorías establecidas para las sociedades anónimas en los artículos 193 y 201.

Artículo 365. Deber de convocatoria

1. Los administradores deberán convocar la junta general en el plazo de dos meses para que adopte el acuerdo de disolución o, si la sociedad fuera insolvente, ésta inste el concurso.

Cualquier socio podrá solicitar de los administradores la convocatoria si, a su juicio, concurriera alguna causa de disolución o la sociedad fuera insolvente.

2. La junta general podrá adoptar el acuerdo de disolución o, si constare en el orden del día, aquél o aquéllos que sean necesarios para la remoción de la causa.

Artículo 366. Disolución judicial

1. Si la junta no fuera convocada, no se celebrara, o no adoptara alguno de los acuerdos previstos en el artículo anterior, cualquier interesado podrá instar la disolución de la sociedad ante el juez de lo mercantil del domicilio social. La solicitud de disolución judicial deberá dirigirse contra la sociedad.

2. Los administradores están obligados a solicitar la disolución judicial de la sociedad cuando el acuerdo social fuese contrario a la disolución o no pudiera ser logrado.

La solicitud habrá de formularse en el plazo de dos meses a contar desde la fecha prevista para la celebración de la junta, cuando ésta no se haya consti-

h) Estatutuetan ezarritako beste edozein kausarengatik.

2. Akzio bidezko sozietate komandatariora orobat desegingo da bazkide kolektibo guztien heriotzagatik, kargu-uzteagatik, ezgaitasunagatik, edo hartze-kodunen konkurtsoan likidazio-fasea irekitzeagatik, salbu eta sei hilabeteko epean, estatutuak aldatuz, bazkide kolektiboren bat sartzen bada edo sozietatea beste sozietate mota bat bihurtzea erabakitzen bada.

364. artikulua. Desegiteko erabakia

Aurreko artikuluan aurreikusitako kasuetan, batzar nagusiaren erabakia beharko da sozietatea desegiteko, erantzukizun mugatuko sozietateentzat 198. artikuluan ezarritako gehiengo arruntez hartua, eta sozietate anonimoentzat 193. eta 201. artikuluetan ezarritako eratze-quorumaz eta gehiengoz hartua.

365. artikulua. Deialdia egiteko betebeharra

1. Administratzaileek bi hilabeteko epean deitu beharko dute batzar nagusia desegiteko erabakia har dezan edo, sozietatea kaudimengabea bada, sozietateak konkurtsoa eska dezan.

Edozein bazkidek eskatu ahal izango die administratzaileei deialdia egiteko, baldin eta, haren iritziz, desegiteko kausaren bat badago edo sozietatea kaudimengabea bada.

2. Batzar nagusiak desegiteko erabakia hartu ahal izango du edo, eguneko gai-zerrendan badago, kausa desagerrarazteko beharrezkoa den erabakia edo erabakiak.

366. artikulua. Desegite judiziala

1. Batzarra deitzen ez bada, egiten ez bada, edo, aurreko artikuluan aurreikusitako erabakietarikoren bat hartzen ez bada, edozein interesdunek eskatu ahal izango du sozietatearen desegitea sozietate-helbidearen lekuko merkataritza gaietarako epailearen aurrean. Desegite judizialerako eskaera sozietatearen kontra bideratu beharko da.

2. Administratzaileak beharturik daude sozietatearen desegite judiziala eskatzera sozietatearen erabakia desegitearen kontrakoa denean edo erabakia hartu ezin denean.

Eskaera bi hilabeteko epean egin beharko da, batzarra egitea aurreikusita zegoen datatik kontatzen hasita, batzarra eratu ez bada, edo batzarraren egune-

tuido, o desde el día de la junta, cuando el acuerdo hubiera sido contrario a la disolución o no se hubiera adoptado.

Artículo 367. Responsabilidad solidaria de los administradores

1. Responderán solidariamente de las obligaciones sociales posteriores al acaecimiento de la causa legal de disolución los administradores que incumplan la obligación de convocar en el plazo de dos meses la junta general para que adopte, en su caso, el acuerdo de disolución, así como los administradores que no soliciten la disolución judicial o, si procediere, el concurso de la sociedad, en el plazo de dos meses a contar desde la fecha prevista para la celebración de la junta, cuando ésta no se haya constituido, o desde el día de la junta, cuando el acuerdo hubiera sido contrario a la disolución.

2. En estos casos las obligaciones sociales reclamadas se presumirán de fecha posterior al acaecimiento de la causa legal de disolución de la sociedad, salvo que los administradores acrediten que son de fecha anterior.

SECCIÓN 3.^a

Disolución por mero acuerdo de la junta general

Artículo 368. Disolución por mero acuerdo de la junta general

La sociedad de capital podrá disolverse por mero acuerdo de la junta general adoptado con los requisitos establecidos para la modificación de los estatutos.

SECCIÓN 4.^a

Disposiciones comunes

Artículo 369. Publicidad de la disolución

La disolución de la sociedad se inscribirá en el Registro Mercantil. El registrador mercantil remitirá de oficio, de forma telemática y sin coste adicional alguno, la inscripción de la disolución al «Boletín Oficial del Registro Mercantil» para su publicación.

Artículo 370. Reactivación de la sociedad disuelta

1. La junta general podrá acordar el retorno de la sociedad disuelta a la vida activa siempre que haya desaparecido la causa de disolución, el patrimo-

tik kontatzen hasita, erabakia desegitearen kontrakoa izan bada edo erabakirik hartu ez bada.

367. artikulua. Administrazioaileen erantzukizun solidarioa

1. Modu solidarioan erantzungo dute, desegiteko legezko kausa gertatu ondorengo eginbide sozialez, batzar nagusiak hala badagokio desegiteko erabakia har dezan hura bi hilabeteko epean deitzeko eginbidea betetzen ez duten administrazioaileek, bai eta desegite judiziala edo, hala badagokio, sozietatearen konkurtsoa bi hilabeteko epean eskatzen ez duten administrazioaileek ere, batzarra egitea aurreikusita zegoen datatik kontaturik epe hori, batzarra eratu ez den kasuan, edo batzarraren egunetik kontaturik, erabakia desegitearen kontrakoa izan den kasuan.

2. Kasu horietan, erreklamaturiko eginbide sozialak sozietatea desegiteko legezko kausa gertatu ondorengoak direla joko da, salbu eta administrazioaileek egiaztatzen badute aurrekoak direla.

3. ATALA

Batzar nagusiaren erabaki hutsagatik desegitea

368. artikulua. Batzar nagusiaren erabaki hutsagatik desegitea

Kapital-sozietatea batzar nagusiaren erabaki hutsez desegin ahal izango da, estatutuak aldatzeko ezarritako betekizunak betez hartzen bada erabakia.

4. ATALA

Xedapen erkideak

369. artikulua. Desegitea publiko egitea

Sozietatearen desegitea Merkataritza Erregistroan inskribatuko da. Merkataritza-erregistroaileak, ofizioz, Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialera igorriko du desegitearen inskripzioa, modu telematikoan eta kostu gehigarririk gabe, han argitara dadin.

370. artikulua. Desegindako sozietatea berrabiatzea

1. Desegindako sozietatea bizitza aktibora itzularaztea erabaki ahal izango du batzar nagusiak, baldin eta desegitearen kausa desagertu bada, kontabilita-

nio contable no sea inferior al capital social y no haya comenzado el pago de la cuota de liquidación a los socios. No podrá acordarse la reactivación en los casos de disolución de pleno derecho.

2. El acuerdo de reactivación se adoptará con los requisitos establecidos para la modificación de los estatutos.

3. El socio que no vote a favor de la reactivación tiene derecho a separarse de la sociedad.

4. Los acreedores sociales podrán oponerse al acuerdo de reactivación, en las mismas condiciones y con los mismos efectos previstos en la ley para el caso de reducción del capital.

CAPÍTULO II

La liquidación

SECCIÓN I.^a

Disposiciones generales

Artículo 371. Sociedad en liquidación

1. La disolución de la sociedad abre el período de liquidación.

2. La sociedad disuelta conservará su personalidad jurídica mientras la liquidación se realiza. Durante ese tiempo deberá añadir a su denominación la expresión «en liquidación».

3. Durante el período de liquidación se observarán las disposiciones de los estatutos en cuanto a la convocatoria y reunión de las juntas generales de socios, a las que darán cuenta los liquidadores de la marcha de la liquidación para que acuerden lo que convenga al interés común, y continuarán aplicándose a la sociedad las demás normas previstas en esta ley que no sean incompatibles con las establecidas en este capítulo.

Artículo 372. Especialidad de la liquidación concursal

En caso de apertura de la fase de liquidación en el concurso de acreedores de la sociedad, la liquidación se realizará conforme a lo establecido en el capítulo II del título V de la Ley Concursal.

te-ondarea kapital soziala baino txikiagoa ez bada eta bazkideei likidazio-kuota ordaintzen hasi ez bazaie. Zuzenbide osoz desegiten den kasuetan ezin erabakiko da sozietatea berrabiatzea.

2. Berrabiatzeko erabakia estatutuak aldatzeko ezarritako betekizunak bete hartuko da.

3. Berrabiatzearen alde bozkatzan ez duen bazkideak sozietatea uzteko eskubidea du.

4. Sozietatearen hartzekodunek kontra egin diezaiokete berrabiatzeko erabakia, legean kapital-murrizketaren kasurako aurreikusitako baldintza beretan eta efektu berekin.

II. KAPITULUA

Likidazioa

I. ATALA

Xedapen orokorrak

371. artikulua. Likidatze-bidean dagoen sozietatea

1. Sozietatea desegitean likidazioaldia hasten da.

2. Desegindako sozietateak bere nortasun juridikoari eutsiko dio likidazioa egiten den bitartean. Denbora horretan, «likidatze-bidean» esapidea erantsi beharko dio bere izendapenari.

3. Likidazioaldian, estatutuetakoa xedapenak jarraituko dira bazkideen batzar nagusiak deitzeari eta biltzeari dagokionez, eta likidatzaileek batzar nagusiei emango die likidazioaren martxaren kontu, interes erkideari komeni ziona erabaki dezaten; sozietateari, berriz, lege honetan aurreikusitako gainerako arauak aplikatzen jarraituko zaizkio, kapitulu honetan ezarritakoekin bateraezina ez badira.

372. artikulua. Konkurtso-likidazioaren berezitasuna

Likidazio-fasea sozietatearen hartzekodunen konkurtsoan irekitzen den kasuan, Konkurtso Legearen V. tituluko II. kapituluaren ezarritakoaren arabera egingo da likidazioa.

Artículo 373. Intervención del Gobierno en las sociedades anónimas

1. Cuando el Gobierno, a instancia de accionistas que representen, al menos, la quinta parte del capital social, o del personal de la empresa, juzgase conveniente para la economía nacional o para el interés social la continuación de la sociedad anónima, podrá acordarlo así por real decreto, en que se concretará la forma en que ésta habrá de subsistir y las compensaciones que, al ser expropiados de su derecho, han de recibir los accionistas.

2. En todo caso, el real decreto reservará a los accionistas, reunidos en junta general, el derecho a prorrogar la vida de la sociedad y a continuar la explotación de la empresa, siempre que el acuerdo se adopte dentro del plazo de tres meses, a contar de la publicación del real decreto.

SECCIÓN 2.^a

Los liquidadores

Artículo 374. Cese de los administradores

1. Con la apertura del período de liquidación cesarán en su cargo los administradores, extinguiéndose el poder de representación.

2. Los antiguos administradores, si fuesen requeridos, deberán prestar su colaboración para la práctica de las operaciones de liquidación.

Artículo 375. Los liquidadores

1. Con la apertura del período de liquidación los liquidadores asumirán las funciones establecidas en esta ley, debiendo velar por la integridad del patrimonio social en tanto no sea liquidado y repartido entre los socios.

2. Serán de aplicación a los liquidadores las normas establecidas para los administradores que no se opongan a lo dispuesto en este capítulo.

Artículo 376. Nombramiento de liquidadores

1. Salvo disposición contraria de los estatutos o, en su defecto, en caso de nombramiento de los liquidadores por la junta general de socios que acuerde la disolución de la sociedad, quienes fueren administradores al tiempo de la disolución de la sociedad quedarán convertidos en liquidadores.

373. artikulua. Gobernuak sozietate anonimoetan esku hartzea

1. Gobernuak irizten badio, kapital sozialaren gutxienez bostena ordezkatzan duten akziodunen eskariz, edo enpresako pertsonalaren eskariz, komenigarria dela sozietate anonimoak jarraitzea ekonomia nazionalaren edo gizarte-interesaren onerako, hala erabaki ahal izango du errege-dekretuz, zein zehaztuko baitira sozietateak zein moldetan iraun beharko duen eta zer konpentsazio izango dituzten akziodunek beren eskubideez desjabetuak izatean.

2. Edozein kasutan, errege-dekretuak akziodunen batzar nagusiaren esku utziko du sozietatearen bizia luzatzeko eta enpresa ustiatzen jarraitzeko eskubidea, betiere erabakia hiru hilabeteko epearen barruan hartzen bada, errege-dekretua argitaratzen denetik kontaktzen hasita.

2. ATALA

Likidatzaileak

374. artikulua. Administratzaileen kargu-uztea

1. Likidazioaldia hastarekin batera, administratzaileek kargua utziko dute, eta ordezkaritza-ahalmena azkendu egingo da.

2. Aurreko administratzaileek, hala eskatzen bazaie, laguntza eman beharko dute likidazioaren eragiketak egiteko.

375. artikulua. Likidatzaileak

1. Likidazioaldia hastean, likidatzaileek beren gain hartuko dituzte lege honetan ezarritako funtzioak, eta sozietatearen ondarearen osotasuna zaindu beharko dute hura likidatu eta bazkideen artean banatzen ez den bitartean.

2. Administratzaileentzat ezarritako arauak aplikatuko zaizkie likidatzaileei, kapitulu honetan xedaturikoaren kontrakoak ez bada.

376. artikulua. Likidatzaileak izendatzea

1. Estatutuetan kontrakorik xedatu ezean edo, halakorik ezean, sozietatea desegitea erabakitzen duen bazkideen batzarrak likidatzaileak izendatzen dituen kasuan, sozietatea desegin den unean administratzaile direnak bihurtuko dira likidatzaile.

2. En los casos en los que la disolución hubiera sido consecuencia de la apertura de la fase de liquidación de la sociedad en concurso de acreedores, no procederá el nombramiento de los liquidadores.

Artículo 377. Cobertura de vacantes

1. En caso de fallecimiento o de cese del liquidador único, de todos los liquidadores solidarios, de alguno de los liquidadores que actúen conjuntamente, o de la mayoría de los liquidadores que actúen colegiadamente, sin que existan suplentes, cualquier socio o persona con interés legítimo podrá solicitar del Secretario judicial o Registrador mercantil del domicilio social la convocatoria de junta general para el nombramiento de los liquidadores. Además, cualquiera de los liquidadores que permanezcan en el ejercicio del cargo podrá convocar la junta general con ese único objeto.

2. Cuando la junta convocada de acuerdo con el apartado anterior no proceda al nombramiento de liquidadores, cualquier interesado podrá solicitar su designación al Secretario judicial o Registrador mercantil del domicilio social.

3. La solicitud dirigida al Registrador mercantil se tramitará de acuerdo a lo dispuesto en el Reglamento del Registro Mercantil. La instada ante el Secretario judicial seguirá los trámites establecidos en la legislación de jurisdicción voluntaria.

4. La resolución por la que se acuerde o rechace el nombramiento, será recurrible ante el Juez de lo Mercantil.

Artículo 378. Duración del cargo

Salvo disposición contraria de los estatutos, los liquidadores ejercerán su cargo por tiempo indefinido.

Artículo 379. Poder de representación

1. Salvo disposición contraria de los estatutos, el poder de representación corresponderá a cada liquidador individualmente.

2. La representación de los liquidadores se extiende a todas aquellas operaciones que sean necesarias para la liquidación de la sociedad.

3. Los liquidadores podrán comparecer en juicio en representación de la sociedad y concertar transacciones y arbitrajes cuando así convenga al interés social.

2. Hartzekodunen konkurtsoan dagoen sozietatearen likidazio-fasea irekitzearen ondorio izan bada desegitea, ez da izendatuko likidatzaileirik.

377. artikulua. Kargu-hutsaldiak betetzea

1. Likidatzaile bakarraren, likidatzaile solidario guztien, batera diharduten likidatzaileetarikoren baten edo modu kolegiatuan diharduten likidatzaile gehienen heriotza edo kargu-uztea gertatzen den kasuan, ordezkorik ez bada, edozein bazkidek edo interes legitimoa duen edozein pertsonak eskatu ahal izango dio sozietate-helbideko idazkari judizialari edo merkataritza-erregistratzaileari dei dezala batzar nagusia likidatzaileak izendatzeko. Gainera, karguan dirauten likidatzaileetarik edozeinek deitu ahal izango du batzar nagusia xede bakar horrekin.

2. Aurreko zenbakiaren arabera deituriko batzarrak likidatzaileirik izendatzen ez duenean, edozein interesdunek eskatu ahal izango dio sozietate-helbideko idazkari judizialari edo merkataritza-erregistratzaileari likidatzaileak izenda ditzala.

3. Merkataritza-erregistratzaileari zuzenduriko eskaera Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduan xedaturikoaren arabera izapidetuko da. Idazkari judizialari eskaturikoak borondatzeko jurisdikzioaren legerian ezarritako izapideak jarraituko ditu.

4. Izendapena onartzen duen edo ukatzen duen ebazpena merkataritza gaietako epailearen aurrean errekurritu ahal izango da.

378. artikulua. Karguaren iraupena

Estatutuetan kontrakorik xedatu ezean, likidatzaileek epe zehatzik gabe jardungo dute karguan.

379. artikulua. Ordezkaritza-ahalmena

1. Estatutuetan kontrakorik xedatu ezean, likidatzaile bakoitzak banaka izango du ordezkaritza-ahalmena.

2. Likidatzaileen ordezkaritza sozietatea likidatzeko beharrezkoak diren eragiketa guztietara hedatzen da.

3. Likidatzaileek esku izango dute sozietatearen ordezkarik gisa auzitan agertzeko eta, interes sozialari hala komeni zaionean, transakzioak eta arbitrajeak hitzartzeko.

Artículo 380. Separación de los liquidadores

1. La separación de los liquidadores designados por la junta general, podrá ser acordada por la misma aun cuando no conste en el orden del día. Si los liquidadores hubieran sido designados en los estatutos sociales, el acuerdo deberá ser adoptado con los requisitos de mayoría y, en el caso de sociedades anónimas, de quórum, establecidos para la modificación de los estatutos.

Los liquidadores de la sociedad anónima podrán también ser separados por decisión del Secretario judicial o Registrador mercantil del domicilio social, mediante justa causa, a petición de accionistas que representen la vigésima parte del capital social.

2. La separación de los liquidadores nombrados por el Secretario judicial o por Registrador mercantil sólo podrá ser decidida por aquél que los hubiera nombrado, a solicitud fundada de quien acredite interés legítimo.

3. La resolución que se dicte sobre la separación de los liquidadores será recurrible ante el Juez de lo Mercantil.

Artículo 381. Interventores

1. En caso de liquidación de sociedades anónimas, los accionistas que representen la vigésima parte del capital social podrán solicitar del Secretario judicial o del Registrador mercantil del domicilio social la designación de un interventor que fiscalice las operaciones de liquidación.

Si la sociedad hubiera emitido y tuviera en circulación obligaciones, también podrá nombrar un interventor el sindicato de obligacionistas.

2. La solicitud dirigida al Registrador mercantil se tramitará de acuerdo a lo dispuesto en el Reglamento del Registro Mercantil. La instada ante el Secretario judicial seguirá los trámites establecidos en la legislación de jurisdicción voluntaria.

3. La resolución por la que se acuerde o rechace el nombramiento, será recurrible ante el Juez de lo Mercantil.

Artículo 382. Intervención pública en la liquidación de la sociedad anónima

En las sociedades anónimas, cuando el patrimonio que haya de ser objeto de liquidación y división sea cuantioso, estén repartidas entre gran número de tenedores las acciones o las obligaciones, o la importancia de la liquidación por cualquier otra causa lo justifique, podrá el Gobierno designar persona que se

380. artikulua. Likidatzaileak kargutik kentzea

1. Batzar nagusiak izendaturiko likidatzaileak kargutik kentzeko erabakia har dezake batzarrak nahiz eta puntu hori eguneko gai-zerrendan jasota ez egon. Likidatzaileak sozietatearen estatutuetan izendatuak izan badira, estatutuak aldatzeko ezarritako gehiengo beharko da erabakia hartzeko eta, sozietate anonimoen kasuan, estatutuak aldatzeko ezarritako quoruma.

Sozietate anonimoaren likidatzaileak orobat kendu ahal izango dira kargutik sozietate-helbideko idazkari judizialaren edo merkataritza-erregistratzaileen erabakiz, kausa justu bat tarteko, kapital sozialaren hogeirena ordezkatzeko duten akziodunek eskaria eginda.

2. Idazkari judizialak edo merkataritza-erregistratzaileak izendaturiko likidatzaileak kargutik kentzea ezin erabakiko du haiek izendatu dituenak baino, interes legitimoa duela egiaztatzen duen edonoren eskari funtsatuz.

3. Likidatzaileak kargutik kentzeari buruz ematen den ebazpena merkataritza gaietako epailearen aurrean errekurritu ahal izango da.

381. artikulua. Kontu-hartzaileak

1. Sozietate anonimoen likidazioaren kasuan, kapital sozialaren hogeirena ordezkatzeko duten akziodunek sozietate-helbideko idazkari judizialari edo merkataritza-erregistratzaileari eskatu ahal izango diote kontu-hartzaile bat izenda dezala, likidazio-eragiketak fiskalizatu ditzan.

Sozietateak obligazioak jaulki eta zirkulazioan badauzka, orobat izendatu ahal izango du kontu-hartzaile bat obligaziodunen sindikatuak.

2. Merkataritza-erregistratzaileari zuzenduriko eskaera Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduan xedaturikoaren arabera izapidetuko da. Idazkari judizialari eskaturikoak borondatezko jurisdikzioaren legerian ezarritako izapideak jarraituko ditu.

3. Izendapena onartzen duen edo ukatzen duen ebazpena merkataritza gaietako epailearen aurrean errekurritu ahal izango da.

382. artikulua. Kontu-hartze publikoa sozietate anonimoaren likidazioan

Sozietate anonimoetan, likidatu eta zatitu beharreko ondarea handia denean, akzioak edo obligazioak edukitzeak kopuru handi baten artean banaturik daudenean, edo likidazioaren garrantziak beste edozein arrazoiengatik hala justifikatzen duenean, Gobernuak pertsona bat izendatu ahal izango du, sozie-

encargue de intervenir y presidir la liquidación de la sociedad y de velar por el cumplimiento de las leyes y del estatuto social.

SECCIÓN 3.^a

Las operaciones de liquidación

Artículo 383. Deber inicial de los liquidadores

En el plazo de tres meses a contar desde la apertura de la liquidación, los liquidadores formularán un inventario y un balance de la sociedad con referencia al día en que se hubiera disuelto.

Artículo 384. Operaciones sociales

A los liquidadores corresponde concluir las operaciones pendientes y realizar las nuevas que sean necesarias para la liquidación de la sociedad.

Artículo 385. Cobro de los créditos y pago de las deudas sociales

1. A los liquidadores corresponde percibir los créditos sociales y pagar las deudas sociales.

2. En las sociedades anónimas y comanditarias por acciones, los liquidadores deberán percibir los desembolsos pendientes que estuviesen acordados al tiempo de iniciarse la liquidación. También podrán exigir otros desembolsos pendientes hasta completar el importe nominal de las acciones en la cuantía necesaria para satisfacer a los acreedores.

Artículo 386. Deberes de llevanza de la contabilidad y de conservación

Los liquidadores deberán llevar la contabilidad de la sociedad, así como llevar y custodiar los libros, la documentación y correspondencia de ésta.

Artículo 387. Deber de enajenación de bienes sociales

Los liquidadores deberán enajenar los bienes sociales.

Artículo 388. Deber de información a los socios

1. Los liquidadores harán llegar periódicamente a conocimiento de los socios y de los acreedores el estado de la liquidación por los medios que en cada caso se reputen más eficaces.

tatearen likidazioaren kontu har dezan eta buru egin dezan eta legeak eta sozietatearen estatutuak gordetzen direla begira dezan.

3. ATALA

Likidazio-eragiketak

383. artikulua. Likidatzaileen hasierako betebeharra

Likidazioa hasten denetik hiru hilabeteko epean, likidatzaileek sozietatearen inbentario bat eta balantze bat egingo dituzte, hura desegin zen egunari dagokionak.

384. artikulua. Sozietate-eragiketak

Likidatzaileei dagokie egiteko dauden eragiketak burutzea eta sozietatea likidatzeko egin behar diren eragiketa berriak egitea.

385. artikulua. Kredituak kobratzea eta sozietatearen zorrak ordaintzea

1. Likidatzaileei dagokie sozietatearen kredituak jasotzea eta sozietatearen zorrak ordaintzea.

2. Sozietate anonimoetan eta akzio bidezko komanditarioetan, likidazioa hastean hitzarturik zeuden ordainketa oraindik egin gabeak jaso beharko dituzte likidatzaileek. Egiteko dauden beste ordainketa batzuk ere galdatu ahal izango dituzte, harik eta akzioen balio nominalaren zenbatekoa hartzekodunei ordaindu ahal izateko adinakoa izatera iritsi arte.

386. artikulua. Kontabilitatea eramateko eta gordetzeko betebeharrak

Likidatzaileek sozietatearen kontabilitatea eraman beharko dute, bai eta haren liburuak, agiriak eta korrespondentzia eraman eta zaindu ere.

387. artikulua. Sozietatearen ondasunak besterentzeko betebeharra

Likidatzaileek sozietatearen ondasunak besterendu beharko dituzte.

388. artikulua. Bazkideak informatzeko betebeharra

1. Likidatzaileek likidazioaren egoeraren berri emango diete, aldian behin, bazkideei eta hartzekodunei, kasu bakoitzean eraginkorren jotzen diren bideak erabiliz.

2. Si la liquidación se prolongase por un plazo superior al previsto para la aprobación de las cuentas anuales, los liquidadores presentarán a la junta general, dentro de los seis primeros meses de cada ejercicio, las cuentas anuales de la sociedad y un informe pormenorizado que permitan apreciar con exactitud el estado de la liquidación.

Artículo 389. Sustitución de los liquidadores por duración excesiva de la liquidación

1. Transcurridos tres años desde la apertura de la liquidación sin que se haya sometido a la aprobación de la junta general el balance final de liquidación, cualquier socio o persona con interés legítimo podrá solicitar del Secretario judicial o Registrador mercantil del domicilio social la separación de los liquidadores.

2. El Secretario judicial o Registrador mercantil, previa audiencia de los liquidadores, acordará la separación si no existiere causa que justifique la dilación y nombrará liquidadores a la persona o personas que tenga por conveniente, fijando su régimen de actuación.

3. La resolución que se dicte sobre la revocación del auditor será recurrible ante el Juez de lo Mercantil.

Artículo 390. Balance final de liquidación

1. Concluidas las operaciones de liquidación, los liquidadores someterán a la aprobación de la junta general un balance final, un informe completo sobre dichas operaciones y un proyecto de división entre los socios del activo resultante.

2. El acuerdo aprobatorio podrá ser impugnado por los socios que no hubieran votado a favor del mismo, en el plazo de dos meses a contar desde la fecha de su adopción. Al admitir la demanda de impugnación, el juez acordará de oficio la anotación preventiva de la misma en el Registro Mercantil.

SECCIÓN 4.^a

La división del patrimonio social

Artículo 391. División del patrimonio social

1. La división del patrimonio resultante de la liquidación se practicará con arreglo a las normas que se hubiesen establecido en los estatutos o, en su defecto, a las fijadas por la junta general.

2. Urteko kontuak onartzeko aurreikusitako epea baino luzeago jotzen badu likidazioak, likidatzaileek, ekitaldi bakoitzaren lehenengo sei hilabeteen barruan, sozietatearen urteko kontuak eta likidazioa zehazki zer egoeratan da- goen ikusaraziko duen txosten xehe bat aurkeztuko dituzte batzar nagusiaren aurrean.

389. artikulua. Likidazioak luzeegi irauteagatik likidatzaileak aldatzea

1. Likidazioa hasi zenetik hiru urte igaro eta likidazioaren azken balantzea batzar nagusiaren aurrean aurkeztu ez bada hark onespena eman diezaion, edo- zein bazkidek edo interes legitimoa duen edozein pertsonak eskatu ahal izango dio sozietate-helbidetako idazkari judizialari edo merkataritza-erregistratzaileari ken ditzala likidatzaileak kargutik.

2. Idazkari judizialak edo merkataritza-erregistratzaileak, aurrez likidatzaileei entzueran emanik, haiek kargurik kentzea erabakiko du atzerapena justifikatzen duen arrazoirik ez badago, eta komenigarri irizten dion pertsona edo pertsonak izendatuko ditu likidatzaile, eta haien jardunaren araubidea finkatuko.

3. Auditorearen errebokazioari buruz ematen den ebazpena merkataritza gaietako epailearen aurrean errekurritu ahal izango da.

390. artikulua. Likidazioaren azken balantzea

1. Likidazio-eragiketak amaitutakoan, likidatzaileek honako hauek aurkeztuko dituzte batzar nagusiaren aurrean, hark onar ditzan: azken balantze bat, eragiketa horiei buruzko txosten osatu bat eta ateratzen den aktiboa bazkideen artean zatitzeko proiektu bat.

2. Onarpen-erabakia aurkaratzeko aukera izango dute haren alde bozkatu ez duten bazkideek, erabakia hartzen den datatik hasi eta bi hilabeteko epean. Aurkaratze-demanda onartzean, epaileak Merkataritza Erregistroan haren prebentziozko idatz-oharra egitea erabakiko du ofizioz.

4. ATALA

Sozietatearen ondarea zatitzea

391. artikulua. Sozietatearen ondarea zatitzea

1. Likidaziotik ateratzen den ondarea estatutueta ezarritako arauen arabera zatituko da, edo, halakorik ezean, batzar nagusiak finkaturikoen arabera.

2. Los liquidadores no podrán satisfacer la cuota de liquidación a los socios sin la previa satisfacción a los acreedores del importe de sus créditos o sin consignarlo en una entidad de crédito del término municipal en que radique el domicilio social.

Artículo 392. El derecho a la cuota de liquidación

1. Salvo disposición contraria de los estatutos sociales, la cuota de liquidación correspondiente a cada socio será proporcional a su participación en el capital social.

2. En las sociedades anónimas y comanditarias por acciones, si todas las acciones no se hubiesen liberado en la misma proporción, se restituirá en primer término a los accionistas que hubiesen desembolsado mayores cantidades el exceso sobre la aportación del que hubiese desembolsado menos y el resto se distribuirá entre los accionistas en proporción al importe nominal de sus acciones.

Artículo 393. Contenido del derecho a la cuota de liquidación

1. Salvo acuerdo unánime de los socios, éstos tendrán derecho a percibir en dinero la cuota resultante de la liquidación.

2. Los estatutos podrán establecer en favor de alguno o varios socios el derecho a que la cuota resultante de la liquidación les sea satisfecha mediante la restitución de las aportaciones no dinerarias realizadas o mediante la entrega de otros bienes sociales, si subsistieren en el patrimonio social, que serán apreciadas en su valor real al tiempo de aprobarse el proyecto de división entre los socios del activo resultante.

En este caso, los liquidadores deberán enajenar primero los demás bienes sociales y si, una vez satisfechos los acreedores, el activo resultante fuere insuficiente para satisfacer a todos los socios su cuota de liquidación, los socios con derecho a percibirla en especie deberán pagar previamente en dinero a los demás socios la diferencia que corresponda.

Artículo 394. El pago de la cuota de liquidación

1. Transcurrido el término para impugnar el balance final de liquidación sin que contra él se hayan formulado reclamaciones o firme la sentencia que las hubiese resuelto, se procederá al pago de la cuota de liquidación a los socios. Cuando existan créditos no vencidos se asegurará previamente el pago.

2. Likidatzaileek ezin ordainduko diete likidazio-kuota bazkideei, aurrez hartzekodunei haien kredituen zenbatekoa ordaindu ez bazaie edo zenbateko hori sozietate-helbidea dagoen udalerriko kreditu-entitate batean gordailutu ez bada.

392. artikulua. Likidazio-kuotarako eskubidea

1. Sozietateko estatutuetan kontrakorik xedatu ezean, bazkide bakoitzari dagokion likidazio-kuota bazkide bakoitzak kapital sozialean duen partaidetza-rekiko proportzionala izango da.

2. Sozietate anonimoetan eta akzio bidezko komanditarioetan, akzio guztiak proportzio berean liberatu ez badira, lehenik kopuru handienak ordaindu dituzten akziodunei itzuliko zaie gutxien ordaindu duenaren ekarpenaren gainerakoa, eta gainerakoa, berriz, akziodunen artean banatuko da, bakoitzaren akzioen zenbateko nominalaren proportziora.

393. artikulua. Likidazio-kuotarako eskubidearen edukia

1. Bazkideen ahobatezko erabakirik ezean, likidaziotik ateratzen den kuota dirutan jasotzeko eskubidea izango dute bazkideek.

2. Estatutuetan, likidaziotik ateratzen den kuota egindako ekarpen ez-diruzkoak itzuliz edo sozietatearen beste ondasun batzuk entregatuz ordaintzeko eskubidea ezarri ahal izango da bazkideren baten edo gehiagoren alde, baldin eta ekarpen edo ondasunok sozietatearen ondarean badiraute, haien egiazko balioa likidaziotik ateratzen den aktiboa bazkideen artean zatitzeko proiektua onartzean balioetsiko delarik.

Kasu horretan, likidatzaileek sozietatearen gainerako ondasunak beste-rendu beharko dituzte lehenik, eta baldin, hartzekodunei ordaindu eta gero, ateratzen den aktiboa aski ez bada bazkide guztiei beren likidazio-kuota ordaintzeko, hura gauzatan jasotzeko eskubidea duten bazkideek lehenik dirutan ordaindu beharko diete gainerako bazkideei dagokion kendura.

394. artikulua. Likidazio-kuota ordaintzea

1. Likidazioaren azken balantzea aurkaratzeko epea igarotakoan, haren kontrako erreklamaziorik egin ez bada edo erreklamaziook ebatzi dituen epaia irmoa bada, bazkideei likidazio-kuotak ordaintzeari ekingo zaio. Muga-eguna bete ez duten kredituak badaude, lehenik ordainketa segurtatuko da.

2. Las cuotas de liquidación no reclamadas en el término de los noventa días siguientes al acuerdo de pago se consignarán en la caja General de Depósitos, a disposición de sus legítimos dueños.

SECCIÓN 5.^a

La extinción de la sociedad

Artículo 395. Escritura pública de extinción de la sociedad

1. Los liquidadores otorgarán escritura pública de extinción de la sociedad que contendrá las siguientes manifestaciones:

a) Que ha transcurrido el plazo para la impugnación del acuerdo de aprobación del balance final sin que se hayan formulado impugnaciones o que ha alcanzado firmeza la sentencia que las hubiera resuelto.

b) Que se ha procedido al pago de los acreedores o a la consignación de sus créditos.

c) Que se ha satisfecho a los socios la cuota de liquidación o consignado su importe.

2. A la escritura pública se incorporarán el balance final de liquidación y la relación de los socios, en la que conste su identidad y el valor de la cuota de liquidación que les hubiere correspondido a cada uno.

Artículo 396. Cancelación de los asientos registrales

1. La escritura pública de extinción se inscribirá en el Registro Mercantil.

2. En la inscripción se transcribirá el balance final de liquidación y se hará constar la identidad de los socios y el valor de la cuota de liquidación que hubiere correspondido a cada uno de ellos, y se expresará que quedan cancelados todos los asientos relativos a la sociedad.

3. Los liquidadores depositarán en el Registro Mercantil los libros y documentos de la sociedad extinguida.

Artículo 397. Exigencia de responsabilidad a los liquidadores tras la cancelación de la sociedad

Los liquidadores serán responsables ante los socios y los acreedores de cualquier perjuicio que les hubiesen causado con dolo o culpa en el desempeño de su cargo.

2. Ordaintze-erabakiaren ondorengo laurogeita hamar egunen buruan erreklamatu ez diren likidazio-kuotak Gordailuen Kutxa Orokorrean gordailutuko dira, haien jabe legitimoen esku.

5. ATALA

Sozietatea amaitzea

395. artikulua. Sozietatearen amaieraren eskritura publikoa

1. Likidatzaileek sozietatearen amaieraren eskritura publikoa egiletsiko dute, eta hartan honako adierazpen hauek jasoko dira:

a) Azken balantzea onartzen duen erabakia aurkaratzeko epea aurkarapenik egin gabe amaitu dela edo aurkarapenak ebatzi dituen epaia irmo izatera iritsi dela.

b) Hartzekodunei ordaindu zaiela edo haien kredituak gordailutu direla.

c) Bazkideei likidazio-kuota ordaindu zaiela edo haren zenbatekoa gordailutu dela.

2. Eskritura publikoari likidazioaren azken balantzea eta bazkideen zerranda erantsiko zaio, zinetan jasoko baitira bazkideon identitatea eta bakoitzari egokitu zaion likidazio-kuotaren balioa.

396. artikulua. Erregistro-idazpenak ezeztatzea

1. Amaieraren eskritura publikoa Merkataritza Erregistroan inskribatuko da.

2. Inskripzioan, likidazioaren azken balantzea transkribatuko da eta bazkideen identitatea eta bazkide bakoitzari egokitu zaion likidazio-kuotaren balioa jasoko, eta sozietateari dagozkion idazpen guztiak ezeztatuak geratzen direla adieraziko da.

3. Likidatzaileek Merkataritza Erregistroan gordailutuko dituzte amaituriko sozietatearen liburuak eta agiriak.

397. artikulua. Sozietatea ezeztatu ondoren likidatzaileei erantzukizuna galdatzea

Beren karguan dihardutela bazkideei eta hartzekodunei doloz edo erruz eragin dieten edozein kalteren erantzule izango dira likidatzaileak bazkideen eta hartzekodunen aurrean.

SECCIÓN 6.^a

Activo y pasivo sobrevenidos

Artículo 398. Activo sobrevenido

1. Cancelados los asientos relativos a la sociedad, si aparecieran bienes sociales los liquidadores deberán adjudicar a los antiguos socios la cuota adicional que les corresponda, previa conversión de los bienes en dinero cuando fuere necesario.

2. Transcurridos seis meses desde que los liquidadores fueren requeridos para dar cumplimiento a lo establecido en el apartado anterior, sin que hubieren adjudicado a los antiguos socios la cuota adicional, o en caso de defecto de liquidadores, cualquier interesado podrá solicitar del juez del último domicilio social el nombramiento de persona que los sustituya en el cumplimiento de sus funciones.

Artículo 399. Pasivo sobrevenido

1. Los antiguos socios responderán solidariamente de las deudas sociales no satisfechas hasta el límite de lo que hubieran recibido como cuota de liquidación.

2. La responsabilidad de los socios se entiende sin perjuicio de la responsabilidad de los liquidadores.

Artículo 400. Formalización de actos jurídicos tras la cancelación de la sociedad

1. Para el cumplimiento de requisitos de forma relativos a actos jurídicos anteriores a la cancelación de los asientos de la sociedad, o cuando fuere necesario, los antiguos liquidadores podrán formalizar actos jurídicos en nombre de la sociedad extinguida con posterioridad a la cancelación registral de ésta.

2. En defecto de liquidadores, cualquier interesado podrá solicitar la formalización por el juez del domicilio que hubiere tenido la sociedad.

Gerora sorturiko aktiboa eta pasiboa

398. artikulua. Gerora sorturiko aktiboa

1. Sozietateari dagozkion idazpenak ezeztatutakoan, sozietatearen ondasunik agertzen bada, dagokien kuota gehigarria esleitu beharko diete likidatzaileek aurreko bazkideei, aurrez ondasunak diru bihurturik, beharrezko denean.

2. Likidatzaileei aurreko zenbakian ezarritakoa betetzeko errekerimendua egin zitzaientetik hiru hilabete igaro eta haiek aurreko bazkideei kuota gehigarririk ordaindu ez badiete, edo likidatzaileek ez badago, edozein interesdunek eskatu ahal izango dio azken sozietate-helbidearen lekuko epaileari izenda dezala likidatzaileen ordeko pertsona bat, haien funtzioak bete ditzan.

399. artikulua. Gerora sorturiko pasiboa

1. Aurreko bazkideek modu solidarioan erantzungo dute ordaindu gabeko sozietatearen zorrez, likidazio-kuota gisa jaso dutena izango dutelarik muga.

2. Bazkideen erantzukizunak ez du eragotziko likidatzaileen erantzukizuna.

400. artikulua. Sozietatea ezeztatu ondoren egintza juridikoak formalizatzea

1. Sozietatearen idazpenak ezeztatu aurreko egintza juridikoei dagozkien formazko betekizunak betetzeko, edo beharrezko denean, aurreko likidatzaileek esku izango dute sozietate amaituaren izenean egintza juridikoak formalizatzeko sozietate hori erregistroan ezeztatua izan ondoren.

2. Likidatzaileek ez badago, edozein interesdunek eskatu ahal izango du sozietateak izan duen helbideko epaileak formalizatu ditzala egintzok.

TÍTULO XI

LAS OBLIGACIONES

CAPÍTULO I

La emisión de las obligaciones

Artículo 401. Sociedad emisora

1. Las sociedades de capital podrán emitir y garantizar series numeradas de obligaciones u otros valores que reconozcan o creen una deuda.

2. El importe total de las emisiones de la sociedad limitada no podrá ser superior al doble de sus recursos propios, salvo que la emisión esté garantizada con hipoteca, con prenda de valores, con garantía pública o con un aval solidario de entidad de crédito.

En el caso de que la emisión esté garantizada con aval solidario de sociedad de garantía recíproca, el límite y demás condiciones del aval quedarán determinados por la capacidad de garantía de la sociedad en el momento de prestarlo, de acuerdo con su normativa específica.

Las obligaciones previstas en los artículos 67 a 72 resultarán de aplicación a los aumentos de capital mediante aportaciones no dinerarias que se realicen por sociedades limitadas que tengan obligaciones u otros valores que reconozcan o creen deuda en circulación.

La sociedad de responsabilidad limitada no podrá en ningún caso emitir ni garantizar obligaciones convertibles en participaciones sociales.

3. Salvo lo establecido en leyes especiales, los valores que reconozcan o creen una deuda emitidos por sociedad anónima y sociedad de responsabilidad limitada quedarán sometidos al régimen establecido para las obligaciones en el presente título.

Artículo 402. Prohibición legal

(Derogado.)

Artículo 403. Condiciones de la emisión

En los supuestos que prevea la legislación especial aplicable a las emisiones de obligaciones u otros valores que reconozcan o creen deuda, será necesari-

XI. TITULUA
OBLIGAZIOAK

I. KAPITULUA
Obligazioak jaulkitzea

401. artikulua. Sozietate jaulkitzailea

1. Kapital-sozietateek zilegi izango dute obligazioen nahiz zor bat aitortzen edo sortzen duten beste balore batzuen serie zenbakituak jaulkitzea eta bermatzea.

2. Sozietate mugatuaren jaulkipenen zenbatekoa, guztira, ezin izango da baliabide berekien halako bi baino handiagoa, salbu eta jaulkipena bermatua badago hipotekaz, balore-bahiz, berme publikoz edo kreditu-entitate baten abal solidarioz.

Jaulkipena elkarren bermerako sozietate baten abal solidarioz bermaturik dagoen kasuan, sozietateak abala eskaintzean duen berme-gaitasunak ezarriko ditu abalaren muga eta gainerako baldintzak, sozietatearen araudi bereziaren arabera.

67. artikulutik 72.era bitartekoetan aurreikusitako eginbideak aplikatuko zaizkie obligazioak edo zor bat aitortzen edo sortzen duten beste balore batzuk zirkulazioan dituzten sozietate mugatuak egindako ekarpen ez-diruzkoen bidezko kapital-handitzei.

Erantzukizun mugatuko sozietateak ezin jaulkiko ditu, ez bermatuko, ezin kasutan, sozietate-partaidetza bihur daitezkeen obligazioak.

3. Lege berezietan ezarritakoa salbu, zor bat aitortzen edo sortzen duten balore sozietate anonimoek eta erantzukizun mugatuko sozietateek jaulkiak titulu honetan obligazioentzat ezarritako araudiaren mende geratuko dira.

402. artikulua. Legezko debekua

(Derogatua.)

403. artikulua. Jaulkipenaren baldintzak

Obligazioak edo zor bat aitortzen edo sortzen duten beste balore batzuk jaulkitzeari aplikagarria zaion legeria bereziak hala aurreikusten duen kasue-

ria la constitución de una asociación de defensa o sindicato de obligacionistas y la designación, por la sociedad, de una persona que, con el nombre de comisario, concurra al otorgamiento del contrato de emisión en nombre de los futuros obligacionistas, de acuerdo con lo establecido en los artículos 419 a 429.

Artículo 404. Garantías de la emisión

1. La total emisión podrá garantizarse a favor de los titulares presentes y futuros de los valores, especialmente:

- a) Con hipoteca mobiliaria o inmobiliaria.
- b) Con prenda de valores, que deberán ser depositados en entidad de crédito.
- c) Con prenda sin desplazamiento.
- d) Con garantía del Estado, de comunidad autónoma, provincia o municipio.
- e) Con aval solidario de entidad de crédito.
- f) Con el aval solidario de una sociedad de garantía recíproca inscrita en el registro especial del Ministerio de Economía y Hacienda.

2. Además de las garantías mencionadas, los obligacionistas podrán hacer efectivos los créditos sobre los demás bienes, derechos y acciones de la entidad deudora.

Artículo 405. De la emisión de obligaciones en el extranjero por sociedad española

1. Las sociedades españolas podrán emitir en el extranjero obligaciones u otros títulos de deuda.

2. La ley española determinará la capacidad, el órgano competente y las condiciones de adopción del acuerdo de emisión.

3. La ley a la cual se haya sometido la emisión regirá los derechos de los obligacionistas frente al emisor, sus formas de organización colectiva y el régimen del reembolso y amortización de las obligaciones.

4. En el caso de obligaciones convertibles, el contenido del derecho de conversión se regirá por la ley extranjera que rija la emisión, pero siempre dentro de los límites establecidos por la sociedad española como ley rectora de la sociedad.

tan, beharrezko izango da obligaziodunen babeserako elkarte bat edo obligaziodunen sindikatu bat eratzea eta sozietateak pertsona bat izendatzea, zeina, komisario izenez, jaulkipen-kontratua egilesteko ekitaldian izango baita obligaziodun izango direnen izenean, 419. artikulutik 429.era bitartekoetan ezarritakoaren arabera.

404. artikulua. Jaulkipenaren bermeak

1. Jaulkipen guztia bermatu ahal izango da baloreen oraingo eta geroko titularren alde; bereziki:

- a) Hipoteka higigarritz edo higiezinaz.
- b) Balore-bahiz, kreditu-entitate batean gordailutuko direlarik baloreak.
- c) Lekualdatzerik gabeko bahiz.
- d) Estatuaren, autonomia-erkidego baten, probintzia baten edo udalerrri baten bermez.
- e) Kreditu-entitate baten abal solidarioz.
- f) Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren erregistro berezian inskribaturiko elkarren bermerako sozietate baten abal solidarioz.

2. Aipaturiko bermeez gainera, obligaziodunek entitate zordunaren gainarako ondasun, eskubide eta akzioen gaineko kredituak gauzatu ahal izango dituzte.

405. artikulua. Espainiar sozietate batek atzerrian obligazioak jaulkitzea

1. Espainiar sozietateek zilegi izango dute atzerrian obligazioak eta beste zor-titulu batzuk jaulkitzea.

2. Espainiar legeak ezarriko ditu gaitasuna, organo eskuduna eta jaulkitzeko erabakia hartzeko baldintzak.

3. Jaulkipena zer legeren mende jarri den, hark eraenduko ditu obligaziodunek jaulkitzailearen aurrean dituzten eskubideak, haiek kolektiboki antolatzeko formak eta obligazioen itzulketa- eta amortizazio-araubidea.

4. Obligazio bihurtzeko kasuan, jaulkipena eraentzen duen lege atzerriarrak eraenduko du bihurtze-eskubidearen edukia, baina betiere espainiar sozietateak sozietatearen lege gidari gisa ezarritako muga barruan.

La ley española determinará el valor al que se pueden emitir obligaciones, los límites a la conversión y el régimen de exclusión del derecho de suscripción preferente.

Artículo 406. Competencia del órgano de administración

1. Salvo disposición contraria de los Estatutos y sin perjuicio de lo previsto en el apartado siguiente, el órgano de administración será competente para acordar la emisión y la admisión a negociación de obligaciones, así como para acordar el otorgamiento de garantías de la emisión de obligaciones.

2. La junta general de accionistas será competente para acordar la emisión de obligaciones convertibles en acciones o de obligaciones que atribuyan a los obligacionistas una participación en las ganancias sociales.

Artículo 407. Escritura pública

1. La emisión de obligaciones se hará constar en escritura pública que será otorgada por representante de la sociedad y por una persona que, con el nombre de comisario, represente a los futuros obligacionistas.

2. La escritura pública de emisión deberá contener las siguientes menciones:

a) La identidad, el objeto social y el capital de la sociedad emisora, con expresión de si está íntegramente desembolsado. Si tuviera obligaciones en circulación, se harán constar aquellas emisiones de obligaciones que estén total o parcialmente pendientes de amortización, de conversión o de canje, con expresión del importe.

b) La expresión del órgano que hubiera acordado la emisión y la fecha en que se hubiera adoptado el acuerdo.

c) El importe total de la emisión y el número de obligaciones que la integran, con expresión de si se representan por medio de títulos o por medio de anotaciones en cuenta.

d) El valor nominal de las obligaciones que se emiten, así como los intereses que devenguen o la fórmula para determinar el tipo, las primas, lotes y demás ventajas si los tuviere.

e) El reglamento de organización y funcionamiento del sindicato de obligacionistas y de sus relaciones con la sociedad emisora.

f) El régimen de amortización de las obligaciones, con expresión de las condiciones y de los plazos en que tenga lugar.

Espainiar legeak ezarriko du zer baliotan jaulki ahal izango diren obligazioak, zein izango diren bihurketarako mugak eta lehentasunezko harpidetza-eskubidea kentzeko araubidea.

406. artikulua. Administrazio-organismoaren eskumena

1. Estatutuetan kontrakorik xedatu ezean, eta hargatik eragotzi gabe hurrengo zenbakian aurreikusitakoa, administrazio-organismoaren eskudun izango da obligazioak jaulkitzea eta negoziatorako onartzea erabakitzeko, eta baita obligazio-jaulkipenaren bermeak ematea erabakitzeko ere.

2. Akziodunen batzar nagusia eskudun izango da akzio bihur daitezkeen obligazioak zein obligaziodunei sozietatearen irabazietan parte bat ematen dieten obligazioak jaulkitzea erabakitzeko.

407. artikulua. Eskritura publikoa

1. Obligazioen jaulkipena eskritura publikoan jasoko da, zeina egiletsiko baitute sozietatearen ordezkari batek eta, komisario izenez, obligaziodun izango direnak ordezkatzeko dituen pertsona batek.

2. Jaulkipenaren eskritura publikoan honako aipamen hauek jaso beharko dira:

a) Sozietate jaulkitzailearen identitatea, objektu soziala eta kapitala, kapital osoa ordaindurik dagoen adieraziz. Obligazioak zirkulazioan baditu, jasorik utzi beharko da zein diren guztiz edo partez amortizatuzko, bihurtzeko edo trukatuzko dauden obligazio-jaulkipenak, zenbatekoa adieraziz.

b) Zein den jaulkipena onartu duen organoa eta zein epetan hartu den erabakia.

c) Jaulkipenaren zenbateko osoa eta jaulkipena osatzen duten obligaziotopurua, esanez ea titulu bidez edo kontuko idatz-oharren bidez adierazten diren.

d) Jaulkitzen diren obligazioen balio nominala, eta, orobat, sortzen dituzten interesak edo tasa zehazteko formula, primak, loteak eta gainerako abantailak, halakorik badute.

e) Obligaziodunen sindikatuaren antolaketa eta funtzionamenduaren erregelamendua eta hark sozietate jaulkitzailearekin dituen harremanak.

f) Obligazioak amortizatuzko araubidea, zer baldintzatan eta epetan gertatuko den adieraziz.

3. Si se emitieran obligaciones especialmente garantizadas, la escritura expresará, además, las garantías de la emisión. Si las garantías fueran reales, se identificará el bien sobre el que se hubiera constituido la garantía con expresión del Registro público en el que se hubiera inscrito la garantía y la fecha de inscripción o la entidad depositaria de los bienes o derechos pignorados y la fecha de la pignoración. Si las garantías fueran personales, el garante deberá concurrir al otorgamiento de la escritura de emisión.

Artículo 408. Anuncio de la emisión

(Derogado.)

Artículo 409. Suscripción

La suscripción de las obligaciones implica para cada obligacionista la ratificación plena del contrato de emisión y, en su caso, su adhesión al sindicato.

Artículo 410. Régimen de prelación

(Derogado.)

Artículo 411. Reducción del capital y reservas

1. Salvo que la emisión estuviera garantizada con hipoteca, con prenda de valores, con garantía pública o con aval solidario de entidad de crédito, se precisará el consentimiento del sindicato de obligacionistas para reducir la cifra del capital social o el importe de las reservas, de modo que se disminuya la proporción inicial entre la suma de éstos y la cuantía de las obligaciones pendientes de amortizar.

2. El consentimiento del sindicato de obligacionistas no será necesario cuando simultáneamente se aumente el capital de la sociedad con cargo a las cuentas de regularización y actualización de balances o a las reservas.

CAPÍTULO II

Representación de las obligaciones

Artículo 412. Representación de las obligaciones

1. Las obligaciones podrán representarse por medio de títulos o por medio de anotaciones en cuenta.

3. Bereziki bermaturiko obligazioak jaulkitzen badira, jaulkipen-bermeak ere adierazi beharko dira eskrituran. Bermeak errealak badira, bermea zer ondasunen gainean eratu den esango da, eta bermea inskribatu den Erregistro publikoa eta inskripzio-epea edo bahian emandako ondasun zein eskubideak gordailuan dituen entitatea eta haiek bahian eman diren epea adieraziko. Bermeak pertsonalak badira, bermatzaileak jaulkipen-eskritura egilesteko ekitaldian egon beharko du.

408. artikulua. Jaulkipena iragartzea

(Derogatua.)

409. artikulua. Harpidetza

Obligazioak harpidetzeak jaulkipen-kontratua guztiz berrestea eta, hala badagokio, sindikatuan sartzea dakarkio berekin obligaziodun bakoitzari.

410. artikulua. Lehentasun-araubidea

(Derogatua.)

411. artikulua. Kapitala eta erreserbak murriztea

1. Salbu eta jaulkipena hipotekaz, balore-bahiz, berme publikoz edo kreditu-entitate baten abal solidarioz bermaturik badago, beharrezko izango da obligaziodunen sindikatuaren adostasuna kapital sozialaren zifra edo erreserben zenbatekoa murrizteko, eta, hala, haien baturaren eta amortizatzeko dauden obligazioen zenbatekoaren arteko hasierako proportzioa gutxitzeko.

2. Obligaziodunen sindikatuaren adostasuna ez da beharrezko izango baldin eta aldi berean sozietatearen kapitala handitzen bada balantzeen erregularizatze- eta eguneratze-kontuen kargura edo erreserben kargura.

II. KAPITULUA

Obligazioak adieraztea

412. artikulua. Obligazioak adieraztea

1. Obligazioak tituluen bidez edo kontuko idatz-oharren bidez adierazi ahal izango dira.

2. Las obligaciones representadas por medio de títulos podrán ser nominativas o al portador, tendrán fuerza ejecutiva y serán transferibles con sujeción a las disposiciones del Código de Comercio y a las leyes aplicables.

3. Las obligaciones representadas por medio de anotaciones en cuenta se registrarán por la normativa reguladora del mercado de valores.

Artículo 413. Título de la obligación

Los títulos de una emisión deberán ser iguales y contener:

- a) Su designación específica.
- b) Las características de la sociedad emisora y, en especial, el lugar en que ésta ha de pagar.
- c) La fecha de la escritura de emisión y la designación del notario y protocolo respectivo.
- d) El importe de la emisión, en euros.
- e) El número, valor nominal, intereses, vencimientos, primas y lotes del título, si los tuviere.
- f) Las garantías de la emisión.
- g) La firma por lo menos, de un administrador.

CAPÍTULO III

Obligaciones convertibles

Artículo 414. Requisitos de la emisión

1. La sociedad podrá emitir obligaciones convertibles en acciones, siempre que la junta general determine las bases y las modalidades de la conversión y acuerde aumentar el capital en la cuantía necesaria.

2. Los administradores deberán redactar con anterioridad a la convocatoria de la junta un informe que explique las bases y modalidades de la conversión, que deberá ser acompañado por otro de un auditor de cuentas, distinto al auditor de la sociedad, designado a tal efecto por el Registro Mercantil.

2. Tituluaren bidez adierazitako obligazioak izendunak edo eramailearenak izan daitezke; exekuzio-indarra izango dute eta Merkataritza Kodearen xedapenen eta lege aplikagarrien arabera eskualdatu ahal izango dira.

3. Kontuko idatz-oharren bidez adierazitako obligazioak balore-merkatua arautzen duen araudian xedaturikoaren mende egongo dira.

413. artikulua. Obligazioaren titulua

Jaulkipen bateko tituluek berdinak izan beharko dute, eta honako hauek jaso:

- a) Beren izen zehatza.
- b) Sozietate jaulkitzailearen ezaugarriak eta, bereziki, hark ordainketa egingo duen lekua.
- c) Jaulkipen-eskrituraren data eta notarioaren izendapena eta dagokion protokoloa.
- d) Jaulkipenaren zenbatekoa, eurotan.
- e) Tituluaren zenbakia, balio nominala, interesak, muga-egunak, primak eta loteak, halakorik badu.
- f) Jaulkipenaren bermeak.
- g) Gutxienez administratzaile baten sinadura.

III. KAPITULUA

Obligazio bihurtzarriak

414. artikulua. Jaulkipenaren betekizunak

1. Sozietateak akzio bihurtzarriak daitezkeen obligazioak jaulki ahal izango ditu, baldin eta batzar nagusiak bihurtzaren oinarriak eta modalitateak zehazten baditu eta kapitala behar den adina handitzea erabakitzen badu.

2. Administratzaileek txosten bat idatzi beharko dute batzarra deitu aurretik, hartan adieraziz bihurtzaren oinarriak eta modalitateak; txosten horrekin batera, kontu-auditore baten beste bat egingo da, auditore hori sozietatearenaz bestekoa izango delarik eta Merkataritza Erregistroak hartarako izendatua.

Artículo 415. Prohibiciones legales

1. Las obligaciones convertibles no pueden emitirse por una cifra inferior a su valor nominal.

2. Las obligaciones convertibles no pueden ser convertidas en acciones cuando el valor nominal de aquéllas sea inferior al de éstas.

Artículo 416. Derecho de suscripción preferente

1. Los accionistas de la sociedad tendrán derecho de suscripción preferente de las obligaciones convertibles.

2. El derecho de suscripción preferente de las obligaciones convertibles en acciones se regirá por lo dispuesto en los artículos 304 a 306.

Artículo 417. Supresión del derecho de suscripción preferente

1. Con los requisitos establecidos para la modificación de los estatutos sociales, la junta general, al decidir la emisión de obligaciones convertibles, podrá acordar la supresión total o parcial del derecho de preferencia de los socios en los casos en que el interés de la sociedad así lo exija.

2. Para que sea válido el acuerdo de exclusión del derecho de preferencia será necesario:

a) Que en el informe de los administradores se justifique detalladamente la propuesta.

b) Que en el informe del experto independiente se contenga un juicio técnico sobre la razonabilidad de los datos contenidos en el informe de los administradores y sobre la idoneidad de la relación de conversión, y, en su caso, de sus fórmulas de ajuste, para compensar una eventual dilución de la participación económica de los accionistas.

c) Que en la convocatoria de la junta se hayan hecho constar la propuesta de supresión del derecho de preferencia.

Artículo 418. Conversión

1. Salvo que la junta general hubiere establecido otro procedimiento al acordar la emisión, los obligacionistas podrán solicitar en cualquier momento la conversión. En este caso, dentro del primer mes de cada semestre los administradores emitirán las acciones que correspondan a los obligacionistas que hayan solicitado la conversión durante el semestre anterior e inscribirán durante

415. artikulua. Legezko debekuak

1. Obligazio bihurtarriak ez daitezke jaulki beren balio nominala baino txikiagoko zifra batean.

2. Obligazio bihurtarriak ez daitezke akzio bihurtu haien balio nominala akzioena baino txikiagoa denean.

416. artikulua. Lehentasunezko harpidetza-eskubidea

1. Sozietatearen akziodunek obligazio bihurtarriak harpidetzeko lehentasun-eskubidea izango dute.

2. Akzio bihurtarriak daitezkeen obligazioak harpidetzeko lehentasun-eskubidea 304. artikulutik 306.era bitartekoetan xedaturikoak eraenduko du.

417. artikulua. Lehentasunezko harpidetza-eskubidea kentzea

1. Sozietatearen estatutuak aldatzeko ezarritako betekizunak betez, batzar nagusiak, obligazio bihurtarriak jaulkitzea erabakitzean, bazkideen lehentasun-eskubidea guztiz edo partez kentzea erabaki ahal izango du sozietatearen interesak hala eskatzen duen kasuetan.

2. Lehentasunezko harpidetza-eskubidea kentzeko erabakia baliozkoa izan dadin, beharrezko izango da:

a) Administrazioaileen txostenean xehetasun guztiz justifikatzea proposamena.

b) Aditu independentearen txostenean iritzi tekniko bat jasotzea administrazioailearen txostenean jasotako datuen arrazoizkotasunari buruz eta bihurtarri-erlazioaren egokitasunari buruz, eta, hala badagokio, haien egokitze-formulei buruz, akziodunen partaidetza ekonomikoaren balizko urtze bat konpentsatzeko.

c) Batzarrerako deialdian jasota agertzea lehentasun-eskubidea kentzeko proposamena.

418. artikulua. Bihurketa

1. Salbu eta batzar nagusiak beste prozedura bat ezarri badu jaulkipena egitea erabakitzean, obligaziodunek edozein unetan eskatu ahal izango dute bihurketa. Kasu horretan, seihileko bakoitzaren lehenengo hilaren barruan, aurreko seihilekoan bihurketa egiteko eskatu duten obligaziodunei dagozkien akzioak jaulkiko dituzte administrazioaileek eta, hurrengo hilean, jaulkiriko

el siguiente mes en el Registro Mercantil el aumento de capital correspondiente a las acciones emitidas.

2. En cualquier caso, la junta general deberá señalar el plazo máximo para que pueda llevarse a efecto la conversión.

En tanto ésta sea posible, si se produce un aumento de capital con cargo a reservas o se reduce el capital por pérdidas, deberá modificarse la relación de cambio de las obligaciones por acciones, en proporción a la cuantía del aumento o de la reducción de forma que afecte de igual manera a los accionistas y a los obligacionistas.

3. La junta general no podrá acordar la reducción de capital mediante restitución de sus aportaciones a los accionistas o condonación de los dividendos pasivos, en tanto existan obligaciones convertibles, a no ser que, con carácter previo y suficientes garantías, se ofrezca a los obligacionistas la posibilidad de realizar la conversión.

CAPÍTULO IV

El sindicato de obligacionistas

Artículo 419. Constitución del sindicato

El sindicato de obligacionistas quedará constituido, una vez que se inscriba la escritura de emisión, entre los adquirentes de las obligaciones a medida que vayan recibiendo los títulos o practicándose las anotaciones.

Artículo 420. Gastos del sindicato

Los gastos normales que ocasione el sostenimiento del sindicato correrán a cargo de la sociedad emisora, sin que en ningún caso puedan exceder del dos por ciento de los intereses anuales devengados por las obligaciones emitidas.

Artículo 421. Comisario

1. Acordada la emisión de las obligaciones, la sociedad emisora procederá al nombramiento de comisario, que deberá ser persona física o jurídica con reconocida experiencia en materias jurídicas o económicas. La sociedad emisora fijará la retribución del comisario.

2. El comisario tutelaré los intereses comunes de los obligacionistas y, además de las facultades que le hayan sido conferidas en la escritura de emisión, tendrá las que le atribuya la asamblea general de obligacionistas.

akzioei dagokien kapital-handitzea inskribatuko dute Merkataritza Erregistroan.

2. Edozein kasutan, batzar nagusiak adierazi beharko du bihurketa egin ahal izateko gehienezko epea.

Bihurketa egin ahal izan arte, erreserben kargura egindako kapital-handitze bat gertatzen bada edo kapitala galerengatik murrizten bada, obligazioak akzioen truke aldatzeko erlazioa aldatu beharko da, handitzearen edo murriztearen zenbatekoaren proportzioan, akziodunei eta obligaziodunei era berean eragin diezaien.

3. Batzar nagusiak ezin erabakiko du akziodunei beren ekarpenak itzuliz edo dibidendu pasiboak barkatuz kapitala murriztea, obligazio bihurgarriak dauden bitartean, non eta ez zaien obligaziodunei eskaintzen, aldez aurretik eta aski bermerekin, bihurketa egiteko aukera.

IV. KAPITULUA

Obligaziodunen sindikatua

419. artikulua. Sindikatua eratzea

Obligaziodunen sindikatua obligazioak eskuratzen dituztenen artean eraturik geratuko da, behin jaulkipen-eskritura inskribatutakoan, tituluak jasotzen dituzten ahala edo idatz-oharrak egiten diren ahala.

420. artikulua. Sindikatuaren gastuak

Sindikatuari eusteak eragiten dituen gastu arruntak sozietate jaulkitzailearen kontura joango dira, baina ez dira izango, ezein kasutan, jaulkiriko obligazioek urtean sortutako interesen ehuneko bi baino handiagoak.

421. artikulua. Komisarioa

1. Obligazioak jaulkitzea onartutakoan, sozietate jaulkitzaileak komisarioa izendatuko du, zeina pertsona fisiko zein juridiko bat izango baita, arlo juridikoan edo ekonomikoan esperientzia ezaguna duena. Sozietate jaulkitzaileak ezarriko du komisarioaren lansaria.

2. Komisarioak obligaziodunen interes erkideak zainduko ditu eta, jaulkipen-eskrituran eman zaizkion ahalmenez gainera, obligaziodunen batzar orokorrak esleitzen dizkionak izango ditu.

3. El comisario establecerá el reglamento interno del sindicato, ajustándose en lo previsto al régimen establecido en la escritura de emisión.

4. El comisario será el representante legal del sindicato de obligacionistas, así como el órgano de relación entre la sociedad y los obligacionistas. Como tal, podrá asistir, con voz y sin voto, a las deliberaciones de la junta general de la sociedad emisora, informar a ésta de los acuerdos del sindicato y requerir de la misma los informes que, a su juicio, o al de la asamblea de obligacionistas, interesen a éstos.

5. El comisario presenciará los sorteos que hubieren de celebrarse, tanto para la adjudicación como para la amortización de las obligaciones, y vigilará el reembolso del nominal y el pago de los intereses.

6. El comisario podrá ejercitar en nombre del sindicato las acciones que correspondan contra la sociedad emisora, contra los administradores o liquidadores y contra quienes hubieran garantizado la emisión.

7. El comisario responderá frente a los obligacionistas y, en su caso, frente a la sociedad de los daños que cause por los actos realizados en el desempeño de su cargo sin la diligencia profesional con que debe ejercerlo.

Artículo 422. Facultad y obligación de convocar la asamblea

1. La asamblea general de obligacionistas podrá ser convocada por los administradores de la sociedad o por el comisario. Éste, además, deberá convocarla siempre que lo soliciten obligacionistas que representen, por los menos, la vigésima parte de las obligaciones emitidas y no amortizadas.

2. El comisario podrá requerir la asistencia de los administradores de la sociedad y éstos asistir aunque no hubieren sido convocados.

3. Si el comisario no atiende oportunamente la solicitud de convocatoria de la asamblea efectuada por los obligacionistas a que se refiere el apartado 1, podrá realizarse la convocatoria, previa audiencia del comisario, por el Secretario judicial o por el Registrador mercantil del domicilio social.

El Secretario judicial procederá a convocar la asamblea general de obligacionistas de conformidad con lo establecido en la legislación de jurisdicción voluntaria.

El Registrador mercantil procederá a convocar la asamblea general en la forma contemplada en el Reglamento del Registro Mercantil.

3. Komisarioak sindikatuaren barne-erregelamendua ezarriko du, jaulkipen-eskrituran ezarritako araubidean aurreikusitakoari jarraituz.

4. Komisarioa obligaziodunen sindikatuaren legezko ordezkaria izango da, eta baita sozietatearen eta obligaziodunen arteko harreman-organoa ere. Harreman-organo den aldetik, esku izango du, hitzarekin eta botorik gabe, sozietate jaulkitzailearen batzar nagusiaren eztabaidetan parte hartzeko, sozietateari sindikatuaren erabakien berri emateko eta, beraren iritziz, edo obligaziodunen batzarraren iritziz, obligaziodunei interesatzen zaizkien txostenak sozietateari eskatzeko.

5. Komisarioak bertatik bertara ikusiko ditu egiten diren zozketak, hala obligazioak esleitzekoak nola haiek amortizatzeakoak, eta nominalaren itzulketa eta interesen ordainketa zainduko ditu.

6. Komisarioak dagozkion akzioak baliatu ahal izango ditu sindikatuaren izenean sozietate jaulkitzailearen kontra, administratzaileen edo likidatzaileen kontra eta jaulkipena bermatu dutenen kontra.

7. Komisarioak obligaziodunen aurrean eta, hala badagokio, sozietatearen aurrean erantzungo du haren karguari dagokion prestasun profesionalik gabe karguan diharduelarik egindako egintzek eragindako kalteez.

422. artikulua. Batzarra deitzeko ahalmena eta eginbidea

1. Obligaziodunen batzar orokorra sozietatearen administratzaileek edo komisarioak deitu ahal izango dute. Komisarioak, gainera, jaukiriko eta amortizatu gabeko obligazioen gutxienez hogeirena ordezkatzan duten obligaziodunek eskatzen duten guztietan deitu beharko du batzarra.

2. Komisarioak esku izango du sozietatearen administratzaileak batzarrerera joan daitezela galdatzeko, eta administratzaileek, berriz, joateko, deitu ez bazaie ere.

3. Komisarioak ez badio garaian erantzuten 1. zenbakian aipatzen diren obligaziodunek batzarra deitzeko egindako eskaerari, sozietate-helbideko idazkari judicialak edo merkataritza-erregistratzaileak egin ahal izango du deialdia, aurrez komisarioari entzuera emanik.

Idazkari judicialak borondatezko jurisdikzioaren legerian ezarritakoaren arabera deituko du obligaziodunen batzar nagusia.

Merkataritza-erregistratzaileak Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduan aurreikusitako moduan deituko du batzar nagusia.

Contra el decreto o resolución por la que se acuerde la convocatoria de la asamblea general de obligacionistas no cabrá recurso alguno.

Artículo 423. Forma de convocatoria

La convocatoria de la asamblea general de obligacionistas se hará en la forma prevista en el reglamento del sindicato, que debe asegurar su conocimiento por los obligacionistas.

Artículo 424. Competencia de la asamblea

La asamblea de obligacionistas, debidamente convocada, se presume facultada para acordar lo necesario a la mejor defensa de los legítimos intereses de los obligacionistas frente a la sociedad emisora, modificar, de acuerdo con la misma, las garantías establecidas, destituir o nombrar al comisario, ejercer, cuando proceda, las acciones judiciales correspondientes y aprobar los gastos ocasionados por la defensa de los intereses comunes.

Artículo 424 bis. Asistencia

1. Los obligacionistas podrán asistir personalmente o hacerse representar por medio de otro obligacionista. En ningún caso podrán hacerse representar por los administradores de la sociedad, aunque sean obligacionistas.

2. El comisario deberá asistir a la asamblea general de obligacionistas, aunque no la hubiera convocado.

Artículo 424 ter. Derecho de voto

Cada obligación conferirá al obligacionista un derecho de voto proporcional al valor nominal no amortizado de las obligaciones de que sea titular.

Artículo 425. Adopción de acuerdos

1. Los acuerdos se adoptarán por mayoría absoluta de los votos emitidos. Por excepción, las modificaciones del plazo o de las condiciones del reembolso del valor nominal, de la conversión o del canje requerirán el voto favorable de las dos terceras partes de las obligaciones en circulación.

2. Los acuerdos adoptados por la asamblea general de obligacionistas vincularán a todos los obligacionistas, incluso a los no asistentes y a los disidentes.

Obligaziodunen batzar nagusia deitzea erabakitzen duen dekretuaren edo ebazpenaren kontra ezin jarriko da inolako errekurtsorik.

423. artikulua. Deialdia egiteko modua

Obligaziodunen batzar orokorrerako deialdia sindikatuaren erregelamenduan aurreikusitako moduan egingo da, zeinak segurtatu beharko baitu obligaziodunek haren berri izatea.

424. artikulua. Batzarraren eskumena

Obligaziodunen batzarrak ahalmena duela joko da, behar bezala deitua izan bada, obligaziodunen interes legitimoak sozietate jaulkitzailearen aurrean hobeto babesteko beharrezkoa dena erabakitzeko; sozietate jaulkitzailearekin bat etorritik, ezarritako bermeak aldatzeko; komisarioa kargutik kentzeko edo izendatzeko; bidezko denean, dagokion akzio judizialak baliatzeko, eta interes erkideak babesteak eragindako gastuak onartzeko.

424 bis artikulua. Batzarrean izatea

1. Obligaziodunak pertsonalki joan ahal izango dira batzarrera edo beste obligaziodun batek ordezkatu ahal izango ditu. Ezin ordezkatuko dituzte, ezein kasutan, sozietatearen administratzaileek, nahiz eta haiek ere obligaziodunak izan.

2. Komisarioak obligaziodunen batzar orokorrean egon beharko du, batzarrera berak deitu ez badu ere.

424 ter artikulua. Boto-eskubidea

Obligazio bakoitzak obligaziodunari emango dion boto-eskubidea hura titular den obligazioen balio nominal amortizatu gabearen proportzionala izango da.

425. artikulua. Erabakiak hartzea

1. Emandako botoen gehiengo absolutuz hartuko dira erabakiak. Salbuesenez, balio nominalaren itzulketarako, bihurketarako edo trukerako epea edo baldintzak aldatzeko, beharrezko izango da zirkulazioan dauden obligazioen bi herenen aldeko botoa.

2. Obligaziodunen batzar orokorrak hartutako erabakiek lotura-indarra izango dute obligaziodun guztientzat, are bertaratu ez direnentzat eta disidenteentzat.

Artículo 426. Acciones individuales

Las acciones judiciales o extrajudiciales que correspondan a los obligacionistas podrán ser ejercitadas individual o separadamente cuando no contradigan los acuerdos del sindicato, dentro de su competencia y sean compatibles con las facultades que al mismo se hubiesen conferido.

Artículo 427. Impugnación de los acuerdos de la asamblea general de obligacionistas

Los acuerdos de la asamblea general de obligacionistas podrán ser impugnados por los obligacionistas conforme a lo dispuesto en esta Ley, para la impugnación de los acuerdos sociales.

Artículo 428. Intervención

Cuando la sociedad haya retrasado en más de seis meses el pago de los intereses vencidos o la amortización del principal, el comisario podrá proponer al consejo la suspensión de cualquiera de los administradores y convocar la junta general de accionistas, si aquéllos no lo hicieren cuando estimen que deben ser sustituidos.

Artículo 429. Ejecución de garantías

Si la emisión se hubiera garantizado con hipoteca o con prenda y la sociedad hubiera demorado el pago de intereses por más de seis meses, el comisario, previo acuerdo de la asamblea general de obligacionistas, podrá ejecutar los bienes que constituyan la garantía para hacer pago del principal con los intereses vencidos.

CAPÍTULO V

Reembolso y rescate de las obligaciones

Artículo 430. Rescate

La sociedad podrá rescatar las obligaciones emitidas:

a) Por amortización o por pago anticipado, de acuerdo con las condiciones de la escritura de emisión.

b) Como consecuencia de los convenios celebrados entre la sociedad y el sindicato de obligacionistas.

426. artikulua. Banakako akzioak

Obligaziodunei dagozkien akzio judizialak zein auzitegitik kanpokoak banaka edo bereiz baliatu ahal izango dira sindikatuaren erabakiekin kontraesan ez badaude, haren eskumenen barruan, eta hari eman zaizkion ahalmenekin bateragarriak badira.

427. artikulua. Obligaziodunen batzar orokorraren erabakiak aurkaratzea

Obligaziodunek esku izango dute obligaziodunen batzar orokorraren erabakiak aurkaratzeko, lege honetan sozietate-erabakiak aurkaratzeko xedaturikoaren arabera.

428. artikulua. Esku-hartzea

Sozietateak sei hilabete baino gehiago atzeratu badu interes mugaeguneratuak ordaintzea edo printzipala amortizatzea, komisarioak administratzailetariko edozein aldi baterako kargutik kentzea proposatu ahal izango dio kontseiluari eta akziodunen batzar nagusia deitu ahal izango du, baldin eta administratzaileek batzarra deitzen ez badute ordezkatuak izan behar dutela irizten diotenean.

429. artikulua. Bermeak exekutatzea

Jaulkipena hipotekaz edo bahiz bermatu bada eta sozietateak sei hilabete baino gehiago atzeratu badu interesak ordaintzea, komisarioak, aurrez obligaziodunen batzar orokorrak hala erabakirik, berme diren ondasunak exekutatu ahal izango ditu interes mugaeguneratuekin printzipala ordaintzeko.

V. KAPITULUA

Obligazioak itzultzea eta erreskatatzea

430. artikulua. Erreskatatzea

Sozietateak jaulki diren obligazioak erreskatatu ahal izango ditu:

a) Amortizazioz edo ordainketa aurreratuz, jaulkipen-eskrituraren baldintzen arabera.

b) Sozietatearen eta obligaziodunen sindikatuaren artean egindako itunen ondorioz.

- c) Por adquisición en bolsa, al efecto de amortizarlas.
- d) Por conversión en acciones, de acuerdo con los titulares.

Artículo 431. Repetición de intereses

Los intereses de las obligaciones amortizadas que el obligacionista cobre de buena fe no podrán ser objeto de repetición por la sociedad emisora.

Artículo 432. Reembolso

1. La sociedad deberá satisfacer el importe de las obligaciones en el plazo convenido, con las primas, lotes y ventajas que en la escritura de emisión se hubiesen fijado.

2. Igualmente estará obligada a celebrar los sorteos periódicos en los términos y forma previstos por el cuadro de amortización, con intervención del comisario y siempre en presencia de notario, que levantará el acta correspondiente.

La falta de cumplimiento de esta obligación autorizará a los acreedores para reclamar el reembolso anticipado de las obligaciones.

Artículo 433. Cancelación de garantías

1. Para cancelar total o parcialmente las garantías de la emisión, si las obligaciones se hallan representadas por medio de títulos, será necesario presentar y estampillar aquellos o inutilizarlos, sustituyéndolos por otros, de acuerdo con lo establecido para la sustitución de los títulos en el artículo 117, cuando subsista el crédito sin la garantía.

Si se hallan representadas por medio de anotaciones en cuenta será preciso devolver los certificados expedidos por las entidades encargadas de los registros contables de anotaciones en cuenta y practicar el consiguiente asiento de modificación en el correspondiente registro.

2. Exceptúase el caso de que el rescate hubiera sido realizado como consecuencia de los convenios celebrados entre la sociedad y el sindicato de obligacionistas, si el acuerdo de cancelación hubiera sido válidamente adoptado por mayoría y el sindicato no pudiera presentar todos los títulos.

c) Haiek burtsan eskuratuz, amortizatzeko xedez.

d) Haiek akzio bihurtuz, titularren adostasunez.

431. artikulua. Interesak berreskatzea

Sozietate jaulkitzaileak ezin berreskatuko ditu obligazio amortizatuengatik obligaziodunak fede onez kobratzen dituen interesak.

432. artikulua. Itzulketa

1. Hitzarturiko epean ordaindu beharko du sozietateak obligazioen zenbatekoa, jaulkipen-eskrituran finkatu diren primak, loteak eta abantailak barne.

2. Sozietatea behaturik egongo da, orobat, aldian behingo zozketak egi-tera amortizazio-taulan aurreikusitako baldintzetan eta moduan, komisarioak esku hartzen duelarik eta notarioaren aurrean beti, zeinak dagokion akta jasoko baitu.

Eginbide hori betetzen ez bada, hartzekodunek baimena izango dute obligazioen itzulketa aurreratu dakiela erreklamatzeko.

433. artikulua. Bermeak ezeztatzea

1. Jaulkipenaren bermeak guztiz edo partez ezeztatzeko, obligazioak titulu bidez adierazita badaude, beharrezko izango da tituluok aurkeztea eta zigilatzea edo erabilezin bihurtzea, eta beste batzuek ordezkatzea, 117. artikuluan tituluak ordezkatzeko ezarritakoaren arabera, kreditua berme gabe dagoenean.

Kontuko idatz-oharren bidez adierazita badaude, beharrezko izango da kontuko idatz-oharren kontabilitate-erregistroak eramateko arduraren dute entitateek emandako ziurtagiriak itzultzea eta, ondorioz, dagokion erregistroan al-daketa-idazpena egitea.

2. Salbuespen da erreskatea sozietatearen eta obligaziodunen sindikatuaren artean egindako itunen ondorioz egin den kasua, baldin eta ezeztatze-erabakia modu baliozkoan gehiengoz hartu bada eta sindikatuak titulu guztiak aurkeztu ezin baditu.

TÍTULO XII
SOCIEDAD NUEVA EMPRESA

CAPÍTULO I

Disposiciones generales

Artículo 434. Régimen jurídico

La sociedad nueva empresa se regula en este título como especialidad de la sociedad de responsabilidad limitada.

Artículo 435. Denominación social

1. En su constitución, la denominación de la sociedad nueva empresa estará formada por los dos apellidos y el nombre de uno de los socios fundadores seguidos de un código alfanumérico que permita la identificación de la sociedad de manera única e inequívoca.

2. En la denominación de la compañía deberá figurar necesariamente la indicación «Sociedad Limitada nueva empresa» o su abreviatura «SLNE».

3. La denominación social se incorporará inmediatamente a una subsección especial de la Sección de Denominaciones del Registro Mercantil Central, quedando constancia de ello en la correspondiente certificación que se expida. Las certificaciones acreditativas de la denominación de la sociedad nueva empresa podrán pedirse, indistintamente, por un socio o por un tercero en su nombre. El beneficiario o interesado a cuyo favor se expida la certificación coincidirá necesariamente con el socio fundador que figura en la expresada denominación.

Artículo 436. Objeto social

1. La sociedad nueva empresa tendrá como objeto social todas o alguna de las siguientes actividades, que se transcribirán literalmente en los estatutos: agrícola, ganadera, forestal, pesquera, industrial, de construcción, comercial, turística, de transportes, de comunicaciones, de intermediación, de profesionales o de servicios en general.

2. Además, los socios fundadores podrán incluir en el objeto social cualquier actividad singular distinta de las anteriores. Si la inclusión de dicha actividad singular diera lugar a una calificación negativa del registrador mercantil de la escritura de constitución de la sociedad, no se paralizará su inscripción,

XII. TITULUA

ENPRESA BERRI SOZIETATEA

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

434. artikulua. Araubide juridikoa

Enpresa berri sozietatea erantzukizun mugatuko sozietatearen espezialitate gisa arautzen da titulu honetan.

435. artikulua. Sozietate-izendapena

1. Sozietatea eratzean, enpresa berri sozietatearen izendapena bazkide sortzaileetarikoen baten bi deituz eta izenaz osatuko da, haien ondoren kode alfanumerikoa bat duelarik, sozietatea modu bakar eta ezin nahasizkoan identifikatzea ahalbidetuko duena.

2. Konpainiaren izendapenean nahitaez agertu beharko du «Enpresa berri sozietate mugatua» oharpenak edo «EBSM» haren laburdurak.

3. Sozietate-izendapena Merkataritza Erregistro Zentralaren Izendapenen Ataleko azpialde berezi batean sartuko da berehala, eta hala jasorik geratzen dela frogatzen duen ziurtagiri bat emango da. Enpresa berri sozietatearen izendapenaren ziurtagiriak berdin jaso ahal izango ditu bazkide batek zein, haren izenean, hirugarren batek. Ziurtagiria bere izenean eman den onuraduna edo interesduna eta adierazitako izendapenean agertzen den bazkide sortzailea bat izango dira nahitaez.

436. artikulua. Objektu soziala

1. Honako jarduera hauek guztiak edo batzuk izango dira enpresa berri sozietatearen objektu soziala, eta hitzez hitz transkribatuko dira estatutuetan: nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza, industria, eraikuntza, merkataritza, turismoa, garraioak, komunikazioak, bitartekaritza, jarduera profesionalak edo zerbitzuak, oro har.

2. Bazkide sortzaileek, gainera, aurreko horiez besteko edozein jarduera berezi sartu ahal izango dute objektu sozialean. Jarduera berezi hori sartzek merkataritza-erregistratzaileak sozietatearen eratze-eskriturari kalifikazio negatibo bat ematea badakar, inskripzioa ez da geldituko: egin egingo da, delako jar-

que se practicará, sin la actividad singular en cuestión, siempre que los socios fundadores lo consientan expresamente en la propia escritura de constitución o con posterioridad.

3. En ningún caso podrán incluirse en el objeto social aquellas actividades para las cuales se exija forma de sociedad anónima ni aquellas cuyo ejercicio implique objeto único y exclusivo.

Artículo 437. Requisitos subjetivos

1. Sólo podrán ser socios de la sociedad nueva empresa las personas físicas.

2. Al tiempo de la constitución, los socios no podrán superar el número de cinco.

Artículo 438. Unipersonalidad

1. No podrán constituir ni adquirir la condición de socio único de una sociedad nueva empresa quienes ya ostenten la condición de socios únicos de otra sociedad nueva empresa.

A tal efecto, en la escritura de constitución de la sociedad nueva empresa unipersonal o en la escritura de adquisición de tal carácter se hará constar por el socio único que no ostenta la misma condición en otra sociedad nueva empresa.

2. La declaración de unipersonalidad de la sociedad nueva empresa podrá hacerse en la misma escritura de la que resulte dicha situación.

CAPÍTULO II

Requisitos constitutivos

Artículo 439. Tramitación de la constitución de la sociedad

1. Los trámites necesarios para el otorgamiento e inscripción de la escritura de constitución de la sociedad nueva empresa podrán realizarse a través de técnicas electrónicas, informáticas y telemáticas.

2. Las remisiones y notificaciones que realicen los notarios y los registradores mercantiles estarán amparadas con firma electrónica avanzada.

duera berezi hori gabe, betiere bazkide sortzaileek baimena espresuki ematen badute eratze-eskrituran berean edo geroago.

3. Objektu sozialean ezin sartuko dira, ezein kasutan, sozietate anonimo moduan baino egin ezin diren jarduerak, ez eta, haietan jarduteko, objektu bakarra eta eskusiboa izatea eskatzen dutenak ere.

437. artikulua. Betekizun subjektiboak

1. Pertsona fisikoak baino ezin izango dira enpresa berri sozietateko bazkide.

2. Eratzeko unean, bazkideak, gehienez ere, bost izango dira.

438. artikulua. Pertsonabakartasuna

1. Ezin izango dira enpresa berri sozietate bateko bazkide bakar, ez eta izaera hori lortu ere, dagoeneko beste enpresa berri sozietate bateko bazkide bakar direnak.

Horretarako, enpresa berri sozietate pertsonabakarra eratzeko eskrituran edo halako izaera lortzeko eskrituran, bazkide bakarrak idatziz jaso beharko du ez duela izaera hori bera beste enpresa berri sozietate batean.

2. Enpresa berri sozietatea pertsonabakarra delako deklarazioa egoera hori sortzen duen eskrituran berean egin ahal izango da.

II. KAPITULUA

Eraketari dagozkion betekizunak

439. artikulua. Sozietatearen eraketa izapidetzea

1. Enpresa berri sozietatearen eratze-eskritura egilesteko eta inskribatzeko beharrezko diren izapidetak teknika elektronikoen, informatikoen eta telematikoen bidez egin ahal izango dira.

2. Notarioek eta merkataritza-erregistratzaileek egiten dituzten igorpen eta jakinarazpenak sinadura elektronikoko aurreratuz babestuak egongo dira.

Artículo 440. Escritura de constitución

1. La remisión telemática al Registro Mercantil de la copia autorizada de la escritura de constitución de la sociedad sólo podrá realizarse por el notario, de conformidad con lo establecido en la legislación sobre la incorporación de técnicas electrónicas, informáticas y telemáticas a la seguridad jurídica preventiva, así como en su caso a otros registros o Administraciones públicas, cuando ello sea necesario.

No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, los socios fundadores podrán, con carácter previo al otorgamiento de la escritura de constitución, eximir al notario de las obligaciones que se establecen en el presente artículo y designar un representante para la realización de los trámites conducentes a la constitución de la sociedad conforme a las reglas generales o expresar su voluntad de hacerlo por sí mismos. En este supuesto, el notario deberá expedir la primera copia autorizada en soporte papel en un plazo no superior a veinticuatro horas desde la autorización de la escritura de constitución de la sociedad.

2. El notario que vaya a autorizar la escritura de constitución de la sociedad comprobará, de conformidad con la legislación registral, que no existe ninguna denominación social anterior idéntica a la de la sociedad que se pretende constituir. Una vez efectuada la comprobación anterior, procederá de manera inmediata a su otorgamiento.

3. Una vez autorizada la escritura, el notario la remitirá de manera inmediata, junto con el documento único electrónico, a las Administraciones tributarias competentes para la obtención del número de identificación fiscal de la sociedad, presentará, en su caso y de conformidad con lo dispuesto por la legislación tributaria, la autoliquidación del impuesto que grave el acto y remitirá la copia autorizada para su inscripción en el Registro Mercantil.

Artículo 441. Inscripción de la sociedad

1. Cualquiera que sea la forma de tramitación, y siempre que se utilicen los estatutos sociales orientativos oficiales, el registrador mercantil deberá calificar e inscribir, en su caso, la escritura de constitución en el plazo máximo de veinticuatro horas, a contar desde el momento del asiento de presentación o, si tuviere defectos subsanables, desde el momento de presentación de los documentos de subsanación. La inscripción se practicará en una sección especial creada a tal efecto.

2. En el caso de que el registrador mercantil calificare negativamente el título presentado, lo hará saber al notario autorizante de la escritura de constitución y, en su caso, al representante que, a tal efecto, los socios fundadores hubieren de-

440. artikulua. Eratze-eskritura

1. Soilik notarioak igorri ahal izango du sozietatearen eratze-eskrituraren kopia eskuetsia Merkataritza Erregistrora modu telematikoan, bat etorritz teknika elektronikoa, informatikoa eta telematikoak prebentziozko ziurtasun juridikoan erabiltzeari buruz legerian ezarritakoarekin, bai eta, hala badagokio, beste erregistro edo administrazio publiko batzuetan erabiltzeari buruz ezarritakoarekin ere, beharrezkoa denean.

Aurreko zenbakian xedaturikoa gorabehera, bazkide sortaileek, eratze-eskritura egiletsi aurretik, artikulua honetan ezartzen diren eginbideak betetzetik salbuetsi ahal izango dute notarioa, eta ordezkari bat izendatu, sozietatea arau orokorren arabera eratzeke izapideak egin ditzan, edo berek beren kabuz egin nahi dutela adierazi. Kasu horretan, notarioak lehenengo kopia eskuetsia papezko euskarrian eman beharko du, gehienez ere hogeita lau orduko epean, sozietatearen eratze-eskritura eskuetsi denetik kontatzen hasita.

2. Sozietatearen eratze-eskritura eskuetsi behar duen notarioak egiaztatuko du, erregistro-legeriaren arabera, ez dagoela eratu nahi den sozietatearen izendapen bereko lehenagoko sozietate-izendapenik. Aurreko egiaztapena egindakoan, eratze-eskritura egiletsiko du berehala.

3. Behin eskritura eskuetsitakoan, notarioak sozietatearen identifikazio fiskalaren zenbakia lortzeko eskudun diren tributu-administrazioei igorriko die berehala eskritura, eta, harekin batera, dokumentu bakar elektronikoa; hala badagokio, egintzak duen zergaren autolikidazioa aurkeztuko du, tributu-legerian xedaturikoaren arabera, eta kopia eskuetsia Merkataritza Erregistrora igorriko du inskribatzeko.

441. artikulua. Sozietatea inskribatzea

1. Edozein ere dela izapidetze modua, eta sozietatearen estatutu orientagarri ofizialak erabiltzen badira, merkataritza-erregistratzaileak eratze-eskritura kalifikatu beharko du eta, hala badagokio, inskribatu, gehienez ere hogeita lau orduko epean, aurkezpen-idazpenaren unetik kontatzen hasita edo, konponetzeko moduko akatsak baditu, konponketarako agiriak aurkezten diren unetik kontatzen hasita. Inskripzioa hartarako sorturiko atal berezi batean egingo da.

2. Merkataritza-erregistratzaileak modu negatiboan kalifikatzen badu aurkezturiko titulua, hala jakinaraziko dio eratze-eskritura eskuetsi duen notarioari eta, hala badagokio, bazkide sortaileek eskritura horretan hartarako izendatu-

signado en ella, dentro de las veinticuatro horas siguientes a la presentación. Asimismo, lo notificará a las Administraciones tributarias competentes.

Si la naturaleza de la falta apreciada permitiere su subsanación de oficio por el notario y éste estuviere de acuerdo con la calificación, procederá a su subsanación en el plazo máximo de veinticuatro horas, a contar desde el momento de la notificación de la calificación del registrador mercantil, dando cuenta de la subsanación a los socios fundadores o a sus representantes.

Artículo 442. Formalidades posteriores a la inscripción de la sociedad

1. Inmediatamente después de practicar la inscripción, el registrador mercantil notificará al notario autorizante los datos registrales para su constatación en la escritura matriz y en las copias que expida, y le remitirá la parte correspondiente del documento único electrónico a la que habrá incorporado los datos registrales de la sociedad.

El notario deberá expedir la copia autorizada en soporte papel de la escritura de constitución de la sociedad en un plazo no superior a veinticuatro horas, a contar desde la notificación de los datos registrales por el registrador mercantil. En ella deberá dejar constancia del número de identificación fiscal de la sociedad y de la remisión de la copia de la escritura de constitución y del documento único electrónico a las Administraciones tributarias competentes, para que éstas procedan a enviar el número de identificación fiscal definitivo de la sociedad a los socios fundadores. Del mismo modo, a petición de los socios fundadores, procederá a la remisión de los documentos necesarios para el cumplimiento de las obligaciones en materia de seguridad social.

2. Inscrita la sociedad, el registrador mercantil transmitirá al Registro Mercantil Central los datos concernientes a los actos sociales de la sociedad en la forma y plazos reglamentariamente establecidos. Asimismo, y a petición de los socios fundadores o de sus representantes, realizará las demás comunicaciones que le sean requeridas.

CAPÍTULO III

Capital social y participaciones sociales

Artículo 443. Capital social

1. El capital de la sociedad nueva empresa no podrá ser inferior a tres mil euros ni superior a ciento veinte mil euros.

riko ordezkariari, aurkezpena egin ondorengo hogeita lau orduen barruan. Orobat jakinaraziko die hori tributu-administrazio eskudunei.

Atzemandako akatsa notarioak ofizioz konpontzeko modukoa bada eta notarioa kalifikazioarekin ados badago, notarioak akatsa konponduko du, gehiezen ere hogeita lau orduko epean, merkataritza-erregistratzaileak kalifikazioa jakinarazten dion unetik kontaktzen hasita, eta konponketaren berri emango die bazkideei edo haien ordezkariari.

442. artikulua. Sozietatea inskribatu ondorengo formalitateak

1. Inskripzioa egin eta berehala, merkataritza-erregistratzaileak notario eskuetsleari jakinaraziko dizkio erregistro-datuak, eskritura matrizean eta egiten dituen kopietan jaso ditzan, eta dokumentu bakar elektronikoaren dagokion partea igorriko dio, sozietatearen erregistro-datuak hari erantsirik.

Notarioak sozietatearen eratze-eskrituraren kopia eskuetsia eman beharko du paperezko euskarrian, gehiezen ere hogeita lau orduko epean, merkataritza-erregistratzaileak erregistro-datuak jakinarazi dizkionetik kontaktzen hasita. Hartan, jasorik utzi beharko du sozietatearen identifikazio fiskalaren zenbakia, eta eratze-eskrituraren kopia eta dokumentu bakar elektronikoa tributu-administrazio eskudunei bidali izana, tributu-administraziook sozietatearen behin betiko identifikazio fiskalaren zenbakia bazkide sortzaileei bidal diezaieten. Era berean, bazkide sortzaileen eskariz, gizarte-segurantzaren arloko eginbideak betetzeko beharrezkoak diren agiriak igorriko ditu.

2. Sozietatea inskribatutakoan, merkataritza-erregistratzaileak sozietatearen egintza sozialei buruzko datuak bidaliko dizkio Merkataritza Erregistro Zentralari, erregelamenduz ezarritako forman eta epeetan. Era berean, bazkide sortzaileen edo haien ordezkarien eskariz, eskatzen zaizkion gainerako komunikazioak ere egingo ditu.

III. KAPITULUA

Kapital soziala eta sozietate-partaidetzak

443. artikulua. Kapital soziala

1. Enpresa berri sozietatearen kapital soziala ezin izango da hiru mila euro baino gutxiagokoa, ez eta chun eta hogeita mila euro baino gehiagokoa ere.

2. El capital social sólo podrá ser desembolsado mediante aportaciones dinerarias.

Artículo 444. Requisitos subjetivos en la transmisión de las participaciones sociales

1. Como consecuencia de la transmisión de participaciones sociales, podrá superarse el número de cinco socios.

2. La transmisión voluntaria por actos ínter vivos de participaciones sociales sólo podrá hacerse a favor de personas físicas.

Si fueran adquiridas participaciones sociales por personas jurídicas, deberán ser enajenadas a favor de personas físicas en el plazo de tres meses, contados desde la adquisición. En caso contrario, la sociedad nueva empresa quedará sometida a la normativa general de la sociedad de responsabilidad limitada, sin perjuicio de la responsabilidad de los administradores de no adoptarse el correspondiente acuerdo de adaptación de los estatutos sociales.

Artículo 445. Acreditación de la condición de socio

1. No será precisa la llevanza del libro registro de socios, acreditándose la condición de socio mediante el documento público con el que se hubiese adquirido.

2. La transmisión de la condición de socios y la constitución de derechos reales limitados sobre participaciones sociales deberán notificarse al órgano de administración mediante la remisión del documento público en el que figure.

3. El órgano de administración deberá notificar a los restantes socios la transmisión, la constitución de derechos reales o el embargo de participaciones sociales tan pronto como tenga conocimiento de que se hayan producido, siendo responsable de los perjuicios que el incumplimiento de esta obligación pueda ocasionar.

CAPÍTULO IV

Órganos sociales

Artículo 446. Junta general

La junta general de la sociedad nueva empresa podrá convocarse también mediante correo certificado con acuse de recibo al domicilio señalado a tal efecto

2. Kapital soziala ezin ordainduko da diruzko ekarpenez baino.

444. artikulua. Betekizun subjektiboak sozietate-partaidetzak eskualdatzean

1. Sozietate-partaidetzak eskualdatzearen ondorioz, bost bazkideko kopurua gainditu ahal izango da.

2. Sozietate-partaidetzak ezin eskualdatu ahal izango zaizkie borondatezko *inter vivos* egintzen bidez pertsona fisikoei baino.

Pertsona juridikoek partaidetzak eskuratzen badituzte, partaidetzok pertsona fisiko batzuei besterendu beharko zaizkie hiru hilabeteko epean, eskuratzen direnetik kontatzen hasita. Bestela, enpresa berri sozietatea erantzukizun mugatuko sozietatearen araudi orokorraren mende geratuko da, hargatik eragotzi gabe administratzaileen erantzukizuna baldin eta sozietatearen estatutuak egokitzeko dagokion erabakia hartzen ez bada.

445. artikulua. Bazkidetza egiaztatzea

1. Ez da beharrezko izango bazkideen liburua eramatea; bazkidetza lortu den dokumentu publikoaren bidez egiaztatuko da bazkide-izaera.

2. Bazkide-izaeraren eskualdaketa eta sozietate-partaidetzen gainean eskubide erreal mugatuak eraketa administrazio-organoari jakinarazi beharko zaizkio, haiek jasotzen dituen dokumentu publikoa igorritz.

3. Administrazio-organoak gainerako bazkideei jakinarazi beharko die eskualdaketa, eskubide errealen eraketa edo sozietate-partaidetzen enbargoa, gertatu direla jakiten duen bezain laster, eta eginbide hori ez betetzeak eragin ditzakeen kalteen erantzule izango da.

IV. KAPITULUA

Sozietatearen organoak

446. artikulua. Batzar nagusia

Enpresa berri sozietatearen batzar nagusia orobat deitu ahal izango da posta ziurtatua bidaliz, jasotze-agiriaren eskearekin, bazkideek hartarako izen-

por los socios y por procedimientos telemáticos que hagan posible al socio el conocimiento de la convocatoria a través de la acreditación fehaciente del envío del mensaje electrónico de la convocatoria o por el acuse de recibo del socio.

En estos supuestos, no será necesario el anuncio en el Boletín Oficial del Registro Mercantil ni en ningún diario.

Artículo 447. Estructura del órgano de administración

1. La administración podrá confiarse a un órgano unipersonal o a un órgano pluripersonal, cuyos miembros actuarán solidaria o mancomunadamente. Cuando la administración se atribuya a un órgano pluripersonal, en ningún caso adoptará la forma y el régimen de funcionamiento de un consejo de administración.

2. La representación de la sociedad y la certificación de los acuerdos sociales corresponderá, caso de existir un administrador único, a éste; caso de existir varios administradores solidarios, a uno cualquiera de ellos; y en el supuesto de existir varios administradores mancomunados, a dos cualesquiera de ellos.

Artículo 448. Estatuto de los administradores

1. Para ser nombrado administrador se requerirá la condición de socio.

2. El cargo de administrador podrá ser retribuido en la forma y cuantía que decida la junta general.

3. Los administradores ejercerán su cargo por tiempo indefinido. No obstante, podrá nombrarse administrador por un período determinado mediante acuerdo de la junta general posterior a la constitución de la sociedad.

Artículo 449. Remoción del cargo de administrador

1. La remoción del cargo de administrador requerirá acuerdo de la junta general, que podrá ser adoptado, aunque no figure en el orden del día de la reunión, por la mayoría ordinaria prevista en el artículo 198, sin que los estatutos puedan exigir una mayoría superior a los dos tercios de los votos correspondientes a las participaciones en que se divida el capital social.

2. El socio afectado por la remoción de su cargo de administrador no podrá ejercer el derecho de voto correspondiente a sus participaciones sociales, las cuales serán deducidas del capital social para el cómputo de la mayoría de votos exigida.

daturiko helbidera, edota bide telematikoen bidez, zeinek bazkideari deialdiaren berri jakitea ahalbidetuko baitiote deialdiaren mezu elektronikoa bidalitzana modu fede-emailean egiaztatuz edo bazkidearen jasotze-agiriaz.

Kasu horietan ez da beharrezko izango deialdia Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean edo ezin egunkaritan iragartzea.

447. artikulua. Administrazio-organoaren egitura

1. Administrazioa pertsona bakarreko organo bati edo zenbait pertsonako organo bati eman ahal izango zaio, eta kide horiek modu solidarioan edo mankomunatuan jardungo dute. Administrazioa zenbait pertsonako organo bati ematen zaionean, administrazioak ez du izango, ezin kasutan, administrazio-kontseilu baten forma ez funtzionamendu-araubidea.

2. Sozietatea ordezkatzeko eta sozietatearen erabakiak egiaztatzeko ardurara, administratzaile bakar bat badago, harena izango da; administratzaile solidario bat baino gehiago badaude, haietariko batena, edozein ere dela; eta zenbait administratzaile mankomunatu badaude, haietariko birena, edozein ere direla.

448. artikulua. Administratzaileen estatutua

1. Administratzaile izateko, beharrezko izango da bazkide izatea.

2. Administratzaile-kargua batzar nagusiak erabakitzen duen moduan eta zenbatekoan ordaindu ahal izango da.

3. Administratzaileek epe zehatzik gabe jardungo dute karguan. Hala ere, epe zehatz baterako izendatu ahal izango da administratzailea, sozietatea eratu ondoren batzar nagusiak harturiko erabaki baten bidez.

449. artikulua. Administratzaile-kargua kentzea

1. Administratzaile-kargua kentzeko, beharrezko izango da batzar nagusiaren erabakia, zeina, bilera-eguneko gai-zerrendan agertzen ez bada ere, 198. artikuluan aurreikusitako gehiengo arruntez hartu ahal izango baita, eta estatutuek ezin galdatuko dute gehiengoa izatea kapital soziala osatzen duten partaidetzei dagozkien botoen bi herenak baino handiagoa.

2. Bere administratzaile-kargua kentzeak ukitzen duen bazkideak ezin baliatuko du bere sozietate-partaidetzei dagokien boto-eskubidea; sozietate-partaidetza horiek kendu egingo zaizkio kapital sozialari behar den botoen gehiengoa kalkulatzeko.

CAPÍTULO V

Modificaciones estatutarias

Artículo 450. Modificación de estatutos

1. En la sociedad nueva empresa, sólo podrán llevarse a cabo modificaciones en la denominación, en el domicilio social y, dentro de los límites fijados en esta ley, en el capital social.

2. Lo establecido en el apartado anterior no será de aplicación en el supuesto de conversión de la sociedad nueva empresa en sociedad de responsabilidad limitada, de acuerdo con lo previsto en esta ley.

Artículo 451. Modificación de la denominación social

1. El notario que vaya a autorizar la escritura de cambio de denominación de la sociedad comprobará, de conformidad con la legislación registral, que no existe ninguna denominación social anterior idéntica a la que se pretenda adoptar.

Para ello, el notario incorporará a la escritura de cambio de denominación social la certificación telemática de denominación social expedida por el Registro Mercantil Central con firma electrónica reconocida de su titular. La incorporación se efectuará en los términos previstos en el artículo 113.1 de la Ley 24/2001, de 27 de diciembre.

2. En caso de que el socio cuyo nombre y apellidos figuren en la denominación social pierda dicha condición, la sociedad estará obligada a modificar de inmediato su denominación social.

Artículo 452. Aumento del capital social por encima del límite máximo

Si los socios acordaren aumentar el capital social por encima del límite máximo establecido en esta ley, deberán asimismo establecer si optan por la transformación de la sociedad nueva empresa en cualquier otro tipo social o si continúan sus operaciones en forma de sociedad de responsabilidad limitada.

V. KAPITULUA

Estatutuak aldatzea

450. artikulua. Estatutuak aldatzea

1. Enpresa berri sozietatean ezin egingo da aldaketarik hauetan baino: izendapenean, sozietate-helbidean eta, lege honetan finkaturiko mugen barruan, kapital sozialean.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoa ez da aplikagarria izango enpresa berri sozietatea erantzukizun mugatuko sozietate bihurtzen den kasuan, lege honetan aurreikusitakoaren arabera.

451. artikulua. Sozietate-izendapena aldatzea

1. Sozietatearen izendapena aldatzen duen eskritura eskuetsi behar duen notarioak egiaztatuko du, erregistro-legeriaren arabera, ez dagoela, lehendik, hartu nahi den sozietate-izendapenaren berdina den beste sozietate-izendapenik.

Horretarako, Merkataritza Erregistro Zentralak bere titularraren sinadura elektronikoa aitortuarekin emandako sozietate-izendapenaren ziurtagiri telematikoa sartuko du notarioak sozietate-izendapena aldatzen duen eskrituran. Sarrera hori 2001eko abenduaren 27ko 24/2001 Legaren 113.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan egingo da.

2. Bere izen-deiturak sozietate-izendapenean ezarriak dituen bazkideak bazkide izateari uzten badio, sozietatea beharturik egongo da sozietate-izendapena berehala aldatzera.

452. artikulua. Kapital soziala gehienezko mugatik gora handitzea

Bazkideek kapital soziala lege honetan ezarritako gehienezko mugatik gora handitzea erabakitzen badute, orobat zehaztu beharko dute ea enpresa berri sozietatea beste sozietate mota bat bihurtzea aukeratzen duten edo ea jarraitzen duten eragiketak erantzukizun mugatuko sozietate moduan egiten.

CAPÍTULO VI

Disolución

Artículo 453. Disolución

1. La sociedad nueva empresa se disolverá por las causas establecidas en esta ley para la sociedad de responsabilidad limitada y, además, por consecuencia de pérdidas que dejen reducido el patrimonio neto a una cantidad inferior a la mitad del capital social durante al menos seis meses, a no ser que se restablezca el patrimonio neto en dicho plazo.

2. En todo caso, será de aplicación lo dispuesto en los artículos 364 a 367.

CAPÍTULO VII

Conversión en sociedad de responsabilidad limitada

Artículo 454. Continuación como sociedad de responsabilidad limitada

1. La sociedad nueva empresa podrá continuar sus operaciones en forma de sociedad de responsabilidad limitada, para lo cual requerirá acuerdo de la junta general y adaptación de los estatutos sociales de la sociedad nueva empresa a lo establecido para la constitución de una sociedad de responsabilidad limitada.

Para la adopción de ambos acuerdos bastará la mayoría ordinaria.

2. La escritura de adaptación de los estatutos sociales deberá presentarse a inscripción en el Registro Mercantil en el plazo máximo de dos meses desde la adopción del acuerdo de la junta general.

VI. KAPITULUA

Desegitea

453. artikulua. Desegitea

1. Enpresa berri sozietatea lege honetan erantzukizun mugatuko sozietatearentzat ezarritako kausengatik desegingo da eta, horretaz gainera, ondare garbia gutxienez sei hilabetez kapital sozialaren erdiaren azpitik murriztua uzten duten galeren ondorioz, non eta ez den, epe horretan, ondare garbia lehengora ekartzen.

2. Edozein kasutan, aplikagarria izango da 364. artikulutik 367.era bitartekoetan xedaturikoa.

VII. KAPITULUA

Erantzukizun mugatuko sozietate bihurtzea

454. artikulua. Erantzukizun mugatuko sozietate gisa jarraitzea

1. Enpresa berri sozietateak erantzukizun mugatuko sozietate moduan jarraitu ahal izango du eragiketak egiten; hartarako, beharrezko izango du batzar nagusiaren erabakia eta enpresa berri sozietatearen estatutu sozialak egokitzea erantzukizun mugatuko sozietate bat eratzeko ezarritakora.

Bi erabaki horiek hartzeko, aski izango da gehiengo arrunta.

2. Sozietatearen estatutuak egokitzen dituen eskritura Merkataritza Erregistroa aurkeztu beharko da inskribatzera, gehienez ere bi hilabeteko epean, batzar nagusiak erabakia hartzen duenetik kontatzen hasita.

TÍTULO XIII

SOCIEDAD ANÓNIMA EUROPEA

CAPÍTULO I

Disposiciones generales

Artículo 455. Régimen de la sociedad anónima europea

La sociedad anónima europea (SE) que tenga su domicilio en España se regirá por lo establecido en el Reglamento (CE) núm. 2157/2001 del Consejo, de 8 de octubre de 2001, por las disposiciones de este título y por la ley que regula la implicación de los trabajadores en las sociedades anónimas europeas.

Artículo 456. Prohibición de identidad de denominaciones

No se podrá inscribir en el Registro Mercantil una sociedad anónima europea que vaya a tener su domicilio en España cuya denominación sea idéntica a la de otra sociedad española preexistente.

Artículo 457. Inscripción y publicación de los actos relativos a la sociedad anónima europea

1. En el Registro Mercantil se depositará el proyecto de constitución de una sociedad anónima europea que vaya a tener su domicilio en España.

2. La constitución y demás actos inscribibles de una sociedad anónima europea que tenga su domicilio en España se inscribirán en el Registro Mercantil conforme a lo dispuesto para las sociedades anónimas.

3. Los actos y datos de una sociedad anónima europea con domicilio en España deberán hacerse públicos en los casos y forma previstos en las disposiciones generales aplicables a las sociedades anónimas.

CAPÍTULO II

Domicilio social y su traslado a otro estado miembro

Artículo 458. Domicilio social

La sociedad anónima europea deberá fijar su domicilio en España cuando su administración central se halle dentro del territorio español.

XIII. TITULUA

EUROPAR SOZIETATE ANONIMOA

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

455. artikulua. Europar sozietate anonimoaren araubidea

Helbidea Espainian duen europar sozietate anonimoa (SE) hauek eraenduko dute: Kontseiluaren 2001eko urriaren 8ko 2157/2001 (EE) Erregelamenduan ezarritakoak, titulu honetako xedapenek eta europar sozietate anonimoetan langileek duten inplikazioa arautzen duen legeak.

456. artikulua. Izendapen-berdintasunaren debekua

Helbidea Espainian izatekoa duen europar sozietate anonimo bat ezin inskribatuko da Merkataritza Erregistroan baldin eta sozietate horren izendapena lehendik dagoen espainiar sozietate baten izendapenaren berdina bada.

457. artikulua. Europar sozietate anonimoari buruzko egintzak inskribatzea eta publiko egitea

1. Helbidea Espainian izatekoa duen europar sozietate anonimo baten erazte-proiektua Merkataritza Erregistroan gordailutuko da.

2. Helbidea Espainian duen europar sozietate anonimo baten eratzea eta gainerako egintza inskribagarriak Merkataritza Erregistroan inskribatuko dira sozietate anonimoentzat xedaturikoaren arabera.

3. Helbidea Espainian duen europar sozietate anonimo baten egintzak eta datuak sozietate anonimoei aplikagarriak zaizkien xedapen orokorretan aurreikusitako kasuetan eta moduan egingo dira publiko.

II. KAPITULUA

Sozietate-helbidea eta hura beste estatu kide batera eramatea

458. artikulua. Sozietate-helbidea

Europar sozietate anonimoak Espainian ezarri beharko du helbidea haren administrazio nagusia Espainiako lurraldearen barruan badago.

Artículo 459. Discordancia entre domicilio registral y domicilio real

Cuando una sociedad anónima europea domiciliada en España deje de tener su administración central en España debe regularizar su situación en el plazo de un año, bien volviendo a implantar su administración central en España, bien trasladando su domicilio social al Estado miembro en el que tenga su administración central.

Artículo 460. Procedimiento de la regularización

Las sociedades anónimas europeas que se encuentren en el supuesto descrito en el artículo anterior que no regularicen la situación en el plazo de un año, se deberán disolver conforme al régimen general previsto en esta ley, pudiendo el Gobierno designar a la persona que se encargue de intervenir y presidir la liquidación y de velar por el cumplimiento de la leyes y del estatuto social.

Artículo 461. Derecho de separación

En el caso de que una sociedad anónima europea con domicilio en España acuerde su traslado a otro Estado miembro de la Unión Europea, los accionistas que voten en contra del acuerdo de cambio de domicilio podrán separarse de la sociedad conforme a lo dispuesto en esta ley para los casos de separación del socio.

Artículo 462. Derecho de oposición de los acreedores

Los acreedores cuyo crédito haya nacido antes de la fecha de publicación del proyecto de traslado del domicilio social a otro Estado miembro tendrán el derecho de oponerse al traslado en los términos establecidos en esta ley para el derecho de oposición.

Artículo 463. Certificación previa al traslado

El registrador mercantil del domicilio social, a la vista de los datos obrantes en el Registro y en la escritura pública de traslado presentada, certificará el cumplimiento de los actos y trámites que han de realizarse por la sociedad antes del traslado.

Artículo 464. Oposición al traslado del domicilio a otro Estado miembro

1. El traslado de domicilio de una sociedad anónima europea registrada en territorio español que suponga un cambio de la legislación aplicable no surtirá

459. artikulua. Erregistroko helbidea eta benetako helbidea bat ez etortzea

Helbidea Espainian duen europar sozietate anonimo baten administrazio nagusiak Espainian egoteari uzten dionean, sozietate horrek urtebeteko epean erregularizatu beharko du egoera, dela administrazio nagusia berriro Espainian jarritz, dela sozietate-helbidea administrazio nagusia duen estatu kidera eramanez.

460. artikulua. Erregularizatzeko prozedura

Aurreko artikuluan deskribaturiko kasuan dauden eta urtebeteko epean egoera erregularizatzen ez duten europar sozietate anonimoek desegin egin beharko dute lege honetan aurreikusitako araubide orokorraren arabera, eta Gobernuak pertsona bat izendatu ahal izango du, sozietatearen likidazioaren kontu har dezan eta buru egin dezan eta legeak eta sozietatearen estatutuak gordetzen direla begira dezan.

461. artikulua. Sozietatea uzteko eskubidea

Helbidea Espainian duen europar sozietate anonimo batek helbidea Europar Batasuneko beste estatu kide batera eramatea erabakitzen badu, helbidea aldatzearen aurka bozkatu duten akziodunek sozietatea utzi ahal izango dute, lege honetan bazkideek sozietatea uzten duten kasuetarako xedaturikoaren arabera.

462. artikulua. Hartzekodunen aurkakotza-eskubidea

Beren kreditua sozietate-helbidea beste estatu kide batera eramateko proiektua publiko egiten den data baino lehenago sortua duten hartzekodunek eskubidea izango dute lekualdatzearen aurka egiteko, lege honetan aurkakotza-eskubiderako ezarritako baldintzetan.

463. artikulua. Lekualdaketaen aurretiko ziurtapena

Sozietate-helbidearen lekuko merkataritza-erregistratzaileak, Erregistroan eta aurkezturiko lekualdatze-eskritura publikoan ageri diren datuak ikusirik, sozietateak lekualdaketaen aurretik egin beharreko egintzak eta izapideak egin direla ziurtatuko du.

464. artikulua. Helbidea beste estatu kide batera lekualdatzeari aurka egitea

1. Espainiako lurraldean erregistraturiko europar sozietate anonimo baten helbidea lekualdatzeak legeria aplikagarria aldatzea esan nahi badu, lekualdake-

efecto si el Gobierno, a propuesta del Ministro de Justicia o de la Comunidad Autónoma donde la sociedad anónima tenga su domicilio social, se opone por razones de interés público.

Cuando la sociedad anónima europea esté sometida a la supervisión de una autoridad de vigilancia, la oposición podrá formularse también por dicha autoridad.

2. Una vez que tenga por efectuado el depósito, el registrador mercantil, en el plazo de cinco días, comunicará al Ministerio de Justicia, a la Comunidad Autónoma donde la sociedad anónima tenga su domicilio social y, en su caso, a la autoridad de vigilancia correspondiente la presentación de un proyecto de traslado de domicilio de una sociedad anónima europea.

3. El acuerdo de oposición al traslado de domicilio habrá de formularse dentro del plazo de los dos meses siguientes a la publicación del proyecto de traslado de domicilio. El acuerdo podrá recurrirse ante la autoridad judicial competente.

CAPÍTULO III

Constitución

SECCIÓN I.^a

Disposiciones generales

Artículo 465. Participación de otras sociedades en la constitución de una sociedad anónima europea

En la constitución de una sociedad anónima europea que se haya de domiciliar en España, además de las sociedades indicadas en el Reglamento (CE) n.º 2157/2001, podrán participar las sociedades que, aun cuando no tengan su administración central en la Unión Europea, estén constituidas con arreglo al ordenamiento jurídico de un Estado miembro, tengan en él su domicilio y una vinculación efectiva y continua con la economía de un Estado miembro.

Se presume que existe vinculación efectiva cuando la sociedad tenga un establecimiento en dicho Estado miembro desde el que dirija y realice sus operaciones.

tak ez du efekturik izango baldin eta Gobernuak, Justizia ministroaren edo sozietate anonimoak sozietate-helbidea duen autonomia-erkidegoaren proposamenez, aurka egiten badio interes publikoko arrazoiengatik.

Europar sozietate anonimoa zaintza-agintari baten ikuskaritzapean dagoenean, agintari horrek ere formulatu ahal izango du aurkakotza.

2. Gordailua egindakotzat daukanean, merkataritza-erregistratzaileak, bost eguneko epean, europar sozietate anonimo baten helbidea eskualdatzeko proiektuaren aurkezpenaren berri emango die Justizia Ministerioari, sozietate anonimoak sozietate-helbidea duen autonomia-erkidegoari eta, hala badagokio, zaintza-agintariari.

3. Helbidea lekualdatzeko proiektua publiko egin ondorengo bi hilabeteen barruan formulatu beharko da helbidea lekualdatzearen aurkako erabakia. Erabakia aginte judizial eskudunaren aurrean errekurritu ahal izango da.

III. KAPITULUA

Eratzea

I. ATALA

Xedapen orokorrak

465. artikulua. Beste sozietate batzuen parte-hartzea europar sozietate anonimo baten eraketan

Helbidea Espainian izatekoa duen europar sozietate anonimo baten eraketan parte hartu ahal izango dute, 2157/2001 (EE) Erregelamenduan adierazten diren sozietateez gainera, estatu kide baten ordenamendu juridikoaren arabera eratu diren, helbidea estatu kide hartan duten eta estatu kide baten ekonomia-rekin lotura egiazkoa eta jarraitua duten sozietateak, nahiz eta haien administrazio nagusia Europar Batasunean ez egon.

Sozietateak bere eragikerak estatu kide horretan duen establezimendu bate-tik zuzentzen eta egiten dituenean joko da egiazko lotura dagoela.

Artículo 466. Oposición a la participación de una sociedad española en la constitución de una sociedad anónima europea mediante fusión

1. El Gobierno, a propuesta del Ministro de Justicia o de la Comunidad Autónoma donde la sociedad anónima tenga su domicilio social, podrá oponerse por razones de interés público a que una sociedad española participe en la constitución mediante fusión de una sociedad anónima europea en otro Estado miembro.

Cuando la sociedad española que participe en la constitución de una sociedad anónima europea mediante fusión esté sometida a la supervisión de una autoridad de vigilancia, la oposición a su participación podrá formularse también por dicha autoridad.

2. Una vez que tenga por efectuado el depósito del proyecto de fusión, el registrador mercantil, en el plazo de cinco días, comunicará al Ministerio de Justicia, a la Comunidad Autónoma donde la sociedad anónima tenga su domicilio social y, en su caso, a la autoridad de vigilancia correspondiente, dicho depósito, para que éstos puedan formular su oposición a la fusión.

3. La oposición habrá de formularse antes de la expedición del certificado a que se refiere el artículo 469. El acuerdo de oposición podrá recurrirse ante la autoridad judicial competente.

SECCIÓN 2.^a

Constitución por fusión

Artículo 467. Nombramiento de experto o expertos que han de informar sobre el proyecto de fusión

En el supuesto de que una o más sociedades españolas participen en la fusión o cuando la sociedad anónima europea vaya a fijar su domicilio en España, el registrador mercantil será la autoridad competente para, previa petición conjunta de las sociedades que se fusionan, designar uno o varios expertos independientes que elaboren el informe único previsto en el artículo 22 del Reglamento (CE) n.º 2157/2001.

Artículo 468. Derecho de separación de los accionistas

Los accionistas de las sociedades españolas que voten en contra del acuerdo de una fusión que implique la constitución de una sociedad anónima europea

466. artikulua. Espainiar sozietate batek europar sozietate anonimo baten eraketan bat-egitearen bidez parte hartzearen aurka egotea

1. Gobernuak, Justizia Ministerioaren eta sozietate anonimoak sozietate-helbidea duen autonomia-erkidegoaren proposamenez, aurka egin ahal izango dio, interes publikoko arrazoiengatik, espainiar sozietate batek, bat-egitearen bidez, beste estatu kide batean europar sozietate anonimo bat eratzen parte hartzeari.

Bat-egitearen bidez europar sozietate anonimo bat eratzen parte hartzen duen espainiar sozietate bat zaintza-agintari baten ikuskaritzapean dagoenean, agintari horrek ere formulatu ahal izango du haren parte hartzeari buruzko aurkakotza.

2. Bat-egitearen proiektuaren gordailua egindakotzat daukanean, merkataritza-erregistratzaileak, bost eguneko epean, gordailutze horren berri emango die Justizia Ministerioari, sozietate anonimoak sozietate-helbidea duen autonomia-erkidegoari eta, hala badagokio, dagokion zaintza-agintariari, haiek beren aurkakotza formulatu ahal izan dezaten bat-egiteari buruz.

3. Aurkakotza 469 artikuluan aipatzen den ziurtapena eman baino lehen formulatu behar da. Aurkakotza-erabakia aginte judizial eskudunaren aurrean errekurritu ahal izango da.

2. ATALA

Bat-egitez eratzea

467. artikulua. Bat-egitearen proiektuaz irizpena eman behar duen aditua edo adituak izendatzea

Espainiar sozietate batek edo gehiagok bat-egitean parte hartzen duen kasuan edo europar sozietate anonimo batek helbidea Espainian jarri behar duenean, merkataritza-erregistratzailea izango da agintari eskuduna, batzen diren sozietateek aurrez eskari bateratua eginez, 2157/2001 (EE) Erregelamenduaren 22. artikuluan aurreikusitako txosten bakarra egingo duen aditu independente bat edo gehiago izendatzeko.

468. artikulua. Akziodunek sozietatea uzteko duten eskubidea

Helbidea beste estatu kide batean duen europar sozietate anonimo bat eratzea dakarren bat-egite baten erabakiaren aurka bozkatzen duten espainiar so-

domiciliada en otro Estado miembro podrán separarse de la sociedad conforme a lo dispuesto en esta ley para los casos de separación de socios. Igual derecho tendrán los accionistas de una sociedad española que sea absorbida por una sociedad anónima europea domiciliada en otro Estado miembro.

Artículo 469. Certificación relativa a la sociedad que se fusiona

El registrador mercantil del domicilio social, a la vista de los datos obrantes en el Registro y en la escritura pública de fusión presentada, certificará el cumplimiento por parte de la sociedad anónima española que se fusiona de todos los actos y trámites previos a la fusión.

Artículo 470. Inscripción de la sociedad resultante de la fusión

En el caso de que la sociedad anónima europea resultante de la fusión fije su domicilio en España, el registrador mercantil del domicilio social controlará la existencia de los certificados de las autoridades competentes de los países en los que tenían su domicilio las sociedades extranjeras participantes en la fusión y la legalidad del procedimiento en cuanto a la realización de la fusión y la constitución de la sociedad anónima europea.

SECCIÓN 3.^a

Constitución por holding

Artículo 471. Publicidad del proyecto de constitución

1. Los administradores de la sociedad o sociedades españolas que participen en la constitución de una sociedad anónima europea holding deberán depositar en el Registro Mercantil correspondiente el proyecto de constitución de esta sociedad. Una vez que tenga por efectuado el depósito, el registrador comunicará el hecho del depósito y la fecha en que hubiera tenido lugar al registrador mercantil central, para su inmediata publicación en el Boletín Oficial del Registro Mercantil.

2. La junta general que deba pronunciarse sobre la operación no podrá reunirse antes de que haya transcurrido, al menos, el plazo de un mes desde la fecha de la publicación a que se refiere el apartado anterior.

Artículo 472. Nombramiento de experto o expertos que han de informar sobre el proyecto de constitución

1. La autoridad competente para el nombramiento de experto o expertos independientes previstos en el apartado 4 del artículo 32 del Reglamento (CE)

zietateen akziodunek sozietatea utzi ahal izango dute bazkideek sozietatea uzten duten kasuetarako lege honetan aurreikusitakoaren arabera. Eskubide bera izango dute helbidea beste estatu kide batean duen europar sozietate anonimo batek xurgaturiko espainiar sozietate baten akziodunek.

469. artikulua. Batzen den sozietateari buruzko ziurtapena

Sozietate-helbidearen lekuko merkataritza-erregistratzaileak, Erregistroan eta aurkezturiko bat-egitearen eskritura publikoan ageri diren datuak ikusirik, ziurtatuko du ezen batzen den espainiar sozietate anonimoak eginak dituela bat-egitearen aurretik egin beharreko egintza eta izapide guztiak.

470. artikulua. Bat-egitearen ondoriozko sozietatea inskribatzea

Bat-egitetik sortzen den europar sozietate anonimoak helbidea Espainian ezartzen duen kasuan, sozietate-helbidearen lekuko merkataritza-erregistratzaileak kontrolatuko du, alde batetik, bat-egitean parte hartzen duten atzerriko sozietateek helbidea zuten herrialdeetako agintari eskudunen ziurtagiriak badaudela eta, bestetik, prozedura legezkoa dela bat egiteari eta europar sozietate anonimoa eratzeari dagokionez.

3. ATALA

Holding bidez eratzea

471. artikulua. Eratze-proiektua publiko egitea

1. Europar holding sozietate anonimo bat eratzen parte hartzen duen espainiar sozietatearen edo sozietateen administratzaileek dagokion Merkataritza Erregistroan gordailutu beharko dute sozietate hori eratzekeo proiektua. Gordailua egindakotzat daukanean, erregistratzaileak merkataritza-erregistro zentralean erregistratzaileari jakinaraziko dio gordailua egin dela eta zein datatan egin den, berehala Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Eragiketari buruz erabaki behar duen batzar nagusia ezin bilduko da harik eta gutxienez hilabete igaro arte aurreko zenbakian aipaturiko argitaratzearen dataz geroztik.

472. artikulua. Eratze-proiektuaz irizpena eman behar duen aditua edo adituak izendatzea

1. Europar holding sozietate anonimo bat eratzea sustatzen duen espainiar sozietate bakoitzaren helbidearen lekuko merkataritza-erregistratzailea edo iza-

n.º 2157/2001 será el registrador mercantil del domicilio de cada sociedad española que promueva la constitución de una sociedad anónima europea holding o del domicilio de la futura sociedad anónima europea.

2. La solicitud de nombramiento de experto o expertos independientes se efectuará conforme a lo dispuesto en el Reglamento del Registro Mercantil.

Artículo 473. Protección de los socios de las sociedades participantes en la constitución

Los socios de las sociedades promotoras de la constitución de una sociedad anónima europea holding que hubieran votado en contra del acuerdo de su constitución podrán separarse de la sociedad de la que formen parte conforme a lo previsto en esta ley para los casos de separación de socios.

SECCIÓN 4.ª

Constitución por transformación

Artículo 474. Transformación de una sociedad anónima existente en sociedad anónima europea

En el caso de constitución de una sociedad anónima europea mediante la transformación de una sociedad anónima española, sus administradores redactarán un proyecto de transformación de acuerdo con lo previsto en el Reglamento (CE) n.º 2157/2001 y un informe en el que se explicarán y justificarán los aspectos jurídicos y económicos de la transformación y se indicarán las consecuencias que supondrá para los accionistas y para los trabajadores la adopción de la forma de sociedad anónima europea. El proyecto de transformación será depositado en el Registro Mercantil y se publicará conforme a lo establecido en el artículo 471.

Artículo 475. Certificación de los expertos

Uno o más expertos independientes, designados por el registrador mercantil del domicilio de la sociedad que se transforma, certificarán, antes de que se convoque la junta general que ha de aprobar el proyecto de transformación y los estatutos de la sociedad anónima europea, que esa sociedad dispone de activos netos suficientes, al menos, para la cobertura del capital y de las reservas de la sociedad anónima europea.

tekoa den europar sozietate anonimoaren helbidearen lekukoa izango da 2157/2001 (EE) Erregelamenduaren 32. artikulua 4. zenbakian aurreikusitako aditu independentea edo independenteak izendatzeko agintari eskuduna.

2. Aditu independentea edo independenteak izendatzeko eskaera Merkataritza Erregistroari buruzko Erregelamenduan xedaturikoaren arabera egingo da.

473. artikulua. Eraketan parte hartzen duten sozietateetako bazkideen babesa

Europar holding sozietate anonimo bat eratzea sustatzen duten sozietateetakoak diren eta hura eratzeko erabakiaren aurka bozkatu duten bazkideek aukera izango dute berak partaide diren sozietatea uzteko, lege honetan bazkideek sozietatea uzten duten kasuetarako aurreikusitakoaren arabera.

4. ATALA

Eraldaketaren bidez eratzea

474. artikulua. Lehendik dagoen sozietate anonimo bat europar sozietate anonimo bihurtzea

Europar sozietate anonimo bat espainiar sozietate anonimo bat eraldatuz eratzen den kasuan, haren administratzaileek eraldatze-proiektu bat idatziko dute, 2157/2001 (EE) Erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera, eta txosten bat, zeinean azalduko eta justifikatuko baitira eraldaketaren alderdi juridikoak eta ekonomikoak eta adieraziko europar sozietate anonimoaren moldea hartzeak akziodunentzat eta langileentzat izango dituen ondorioak. Eraldatze-proiektua Merkataritza Erregistroan gordailutuko da eta 471. artikuluan ezarritakoaren arabera publiko egingo.

475. artikulua. Adituen ziurtapena

Eraldatzen den sozietateak helbidea duen lekuko merkataritza-erregistrozkoak izendaturiko aditu independente batek edo gehiagok ziurtatuko du, eraldatze-proiektua eta europar sozietate anonimoaren estatutuak onartu behar dituen batzar nagusia deitu baino lehen, ezen sozietate horren aktibo garbiak aski direla, gutxienez, europar sozietate anonimoaren kapitala eta erreserbak estaltzeko.

CAPÍTULO IV

Órganos sociales

SECCIÓN 1.^a

Sistemas de administración

Artículo 476. Opción estatutaria

La sociedad anónima europea que se domicilie en España podrá optar por un sistema de administración monista o dual, y lo hará constar en sus estatutos.

Artículo 477. Sistema monista

En caso de que se opte por un sistema de administración monista, será de aplicación a su órgano de administración lo establecido en la presente ley para los administradores de las sociedades anónimas, en cuanto no contradiga lo dispuesto en el Reglamento CE 2157/2001, y en la ley que regula la implicación de los trabajadores en las sociedades anónimas europeas.

SECCIÓN 2.^a

Sistema dual

Artículo 478. Órganos del sistema dual

En el caso de que se opte por un sistema de administración dual, existirá una dirección y un Consejo de control.

Artículo 479. Facultades de la dirección

1. La gestión y la representación de la sociedad corresponden a la dirección.

2. Cualquier limitación a las facultades de los directores de las sociedades anónimas europeas, aunque se halle inscrita en el Registro Mercantil, será ineficaz frente a terceros.

3. La titularidad y el ámbito del poder de representación de los directores se regirán conforme a lo dispuesto para los administradores en esta ley.

IV. KAPITULUA

Sozietatearen organoak

I. ATALA

Administrazio-sistemak

476. artikulua. Estatutuetako aukera

Helbidea Espainian ezartzen duen europar sozietate anonimoak administrazio-sistema monista edo duala aukeratu ahal izango du, eta hura estatutuetan jasoko du.

477. artikulua. Sistema monista

Administrazio-sistema monista aukeratzeko kasuan, haren administrazio-organismoari aplikagarriak izango zaizkio lege honetan sozietate anonimoen administratzaileentzat ezarritakoa, 2157/2001 (EE) Erregelamenduan xedaturikoarekin kontraesan ez dagoen hartan, eta europar sozietate anonimoetan langileek duten inplikazioa arautzen duen legean ezarritakoa.

2. ATALA

Sistema duala

478. artikulua. Sistema dualaren organoak

Administrazio-sistema duala aukeratzeko kasuan, zuzendaritza bat eta kontrol-kontseilu bat egongo dira.

479. artikulua. Zuzendaritzaren ahalmenak

1. Zuzendaritzari dagokio sozietatea kudeatzea eta ordezkatzeta.
2. Europar sozietate anonimoen zuzendarien ahalmenei ezarritako mugapen oro, nahiz eta Merkataritza Erregistroan inskribaturik egon, eraginik gabea izango da hirugarrenen aurrean.
3. Zuzendarien titulartasuna eta ordezkaritza-ahalmenaren eremua lege honetan administratzaileentzat xedaturikoak eraenduko du.

Artículo 480. Modos de organizar la dirección

1. La gestión podrá confiarse, conforme dispongan los estatutos, a un solo director, a varios directores que actúen solidaria o conjuntamente o a un consejo de dirección.

2. Cuando la gestión se confíe conjuntamente a más de dos personas, éstas constituirán el consejo de dirección.

Artículo 481. Composición del consejo de dirección

El consejo de dirección estará formado por un mínimo de tres miembros y un máximo de siete.

Artículo 482. Determinación del número de los miembros de la dirección

Los estatutos de la sociedad, cuando no determinen el número concreto, establecerán el número máximo y el mínimo, y las reglas para su determinación.

Artículo 483. Organización, funcionamiento y régimen de adopción de acuerdos del consejo de dirección

Salvo lo dispuesto en el Reglamento (CE) n.º 2157/2001, la organización, funcionamiento y régimen de adopción de acuerdos del consejo de dirección se regirá por lo establecido en los estatutos sociales y, en su defecto, por lo previsto en esta ley para el consejo de administración de las sociedades anónimas.

Artículo 484. Límite a la cobertura de vacante en la dirección por un miembro del consejo de control

La duración del nombramiento de un miembro del Consejo de control para cubrir una vacante de la dirección conforme al artículo 39.3 del Reglamento (CE) n.º 2157/2001 no será superior al año.

Artículo 485. Funcionamiento del consejo de control

Será de aplicación al consejo de control lo previsto en esta ley para el funcionamiento del consejo de administración de las sociedades anónimas en cuanto no contradiga lo dispuesto en el Reglamento (CE) n.º 2157/2001.

Artículo 486. Nombramiento y revocación de los miembros del consejo de control

Los miembros del consejo de control serán nombrados y revocados por la junta general, sin perjuicio de lo dispuesto en el Reglamento (CE)

480. artikulua. Zuzendaritza antolatzeako moduak

1. Kudeaketaren ardura, estatutuetan xedaturikoaren arabera, zuzendari bakar bati, modu solidarioan edo batera diharduten zenbait zuzendariri edo zuzendaritza-kontseilu bati eman ahal izango zaio.

2. Kudeaketaren ardura bi pertsona baino gehiagori modu bateratuan ematen zaionean, pertsona horiek zuzendaritza-kontseilua osatuko dute.

481. artikulua. Zuzendaritza-kontseiluaren osaera

Zuzendaritza-kontseilua gutxienez hiru kidek eta gehienez zazpik osatuko dute.

482. artikulua. Zuzendaritzako kideen kopurua zehaztea

Sozietatearen estatutuek, kopuru zehatza finkatzen ez badute, gehienezko eta gutxieneko kopuruak ezarriko dituzte, eta haiek zehazteko arauak.

483. artikulua. Zuzendaritza-kontseiluaren antolaketa, funtzionamendua eta erabakiak hartzeko araubidea

2157/2001 (EE) Erregelamenduan xedaturikoa salbu, zuzendaritza-kontseiluaren antolaketa, funtzionamendua eta erabakiak hartzeko araubidea sozietatearen estatutuetan ezarritakoak eraenduko du, eta, halakorik ezean, lege honetan sozietate anonimoen administrazio-kontseiluarentzat aurreikusitakoak.

484. artikulua. Zuzendaritzako kargu-hutsaldi bat kontrol-kontseiluko kide batek betetzeari ezarritako muga

2157/2001 (EE) Erregelamenduaren 39.3 artikulua arabera zuzendaritzako kargu-hutsaldi bat betetzeko kontrol-kontseiluko kide baten izendapenak urtebete iraungo du gehienez.

485. artikulua. Kontrol-kontseiluaren funtzionamendua

Kontrol-kontseiluari aplikagarria izango zaio lege honetan sozietate anonimoen administrazio-kontseiluaren funtzionamendurako aurreikusitakoa, 2157/2001 (EE) Erregelamenduan xedaturikoarekin kontraesanean ez dagoen hartan.

486. artikulua. Kontrol-kontseiluko kideak izendatzea eta errebokatzea

Kontrol-kontseiluko kideak batzar nagusiak izendatuko eta errebokatuko ditu, hartatik eragotzi gabe 2157/2001 (EE) Erregelamenduan eta europar so-

n.º 2157/2001, en la ley que regula la implicación de los trabajadores en las sociedades anónimas europeas y de lo establecido en el artículo 243.

Artículo 487. Representación frente a los miembros de la dirección

La representación de la sociedad frente a los miembros de la dirección corresponde al consejo de control.

Artículo 488. Asistencia de la dirección a las reuniones del consejo de control

El consejo de control, cuando lo estime conveniente, podrá convocar a los miembros de la dirección para que asistan a sus reuniones con voz pero sin voto.

Artículo 489. Operaciones sometidas a autorización previa del consejo de control

El consejo de control podrá acordar que determinadas operaciones de la dirección se sometan a su autorización previa. La falta de autorización previa será inoponible a los terceros, salvo que la sociedad pruebe que el tercero hubiera actuado en fraude o con mala fe en perjuicio de la sociedad.

Artículo 490. Responsabilidad de los miembros de los órganos de administración

Las disposiciones sobre responsabilidad previstas para los administradores de sociedades de capital se aplicarán a los miembros de los órganos de administración, de dirección y del consejo de control en el ámbito de sus respectivas funciones.

Artículo 491. Impugnación de acuerdos de los órganos de administración

Los miembros de cada órgano colegiado podrán impugnar los acuerdos nulos o anulables del consejo o comisión a que pertenezcan en el plazo de un mes desde su adopción. Igualmente podrán impugnar tales acuerdos los accionistas que representen al menos el cinco por ciento del capital social en el plazo de un mes desde que tuvieron conocimiento de ellos, siempre que no hubiera transcurrido un año desde su adopción.

zietate anonimoetan langileek duten inplikazioa arautzen duen legean xedaturikoa eta 243. artikuluan ezarritakoa.

487. artikulua. Zuzendaritzako kideen aurrean ordezkaritza egitea

Kontrol-kontseiluari dagokio zuzendaritzako kideen aurrean sozietatea ordezkatzea.

488. artikulua. Zuzendaritza kontrol-kontseiluaren bileretan egotea

Kontrol-kontseiluak, hala komeni dela irizten dionean, zuzendaritzako kideei deitu ahal izango die, hitzarekin baina botorik gabe haren bileretan parte har dezaten.

489. artikulua. Aurrez kontrol-kontseiluaren baimena behar duten eragiketak

Kontrol-kontseiluak erabaki ahal izango du ezen zuzendaritzaren eragiketa jakin batzuek haren baimena beharko dutela aurrez. Aurretiazko baimenik eza ezin baliatuzkoa izango da hirugarrenen kontra, salbu eta sozietateak frogatzen badu ezen hirugarrenak iruzurrez edo fede gaiztoz jokatu duela sozietatearen kaltetan.

490. artikulua. Administrazio-organoetako kideen erantzukizuna

Erantzukizunari buruz kapital-sozietateen administratzaileentzat aurreikusitako xedapenak administrazio-organoetako kidei, zuzendaritzakoei eta kontrol-kontseilukoei aplikatuko zaizkie, bakoitzaren funtzioen eremuan.

491. artikulua. Administrazio-organoen erabakiak aurkaratzea

Organo kolegiatu bakoitzeko kideek berak partaide diren kontseiluaren edo batzarraren erabaki deusezak edo deuseztagarriak aurkaratu ahal izango dituzte hilabeteko epean, hartzen direnetik kontatzen hasita. Orobat aurkaratu ahal izango dituzte erabaki horiek kapital sozialaren gutxienez ehuneko bost ordezkatzeko duten akziodunek, haien berri izaten dutenetik hilabeteko epean, betiere urtebete igaro ez bada erabakiak hartu zirenetik.

Artículo 492. Convocatoria de la junta general en el sistema dual

1. En el sistema dual de administración, la competencia para la convocatoria de la junta general corresponde a la dirección. La dirección deberá convocar la junta general cuando lo soliciten accionistas que sean titulares de, al menos, el cinco por ciento del capital social.

2. Si las juntas no fueran convocadas dentro de los plazos establecidos por el Reglamento (CE) n.º 2157/2001 o los estatutos, podrán serlo por el consejo de control o, a petición de cualquier socio, por el Registrador mercantil del domicilio social conforme a lo previsto para las juntas generales en esta Ley.

3. El Consejo de control podrá convocar la junta general de accionistas cuando lo estime conveniente para el interés social.

Artículo 493. Plazo de convocatoria de la junta general

La junta general de la sociedad anónima europea deberá ser convocada por lo menos un mes antes de la fecha fijada para su celebración.

Artículo 494. Inclusión de nuevos asuntos en el orden del día

Los accionistas minoritarios que sean titulares de, al menos, el cinco por ciento del capital social podrán solicitar la inclusión de asuntos en el orden del día de la junta general ya convocada, así como solicitar la convocatoria de la junta general extraordinaria, conforme a lo establecido en esta ley. El complemento de la convocatoria deberá publicarse con quince días de antelación como mínimo a la fecha establecida para la reunión de la junta.

Batzar nagusia

492. artikulua. Sistema dualean batzar nagusia deitzea

1. Administrazio-sistema dualean, zuzendaritzari dagokio batzar nagusia deitzeko eskumena. Zuzendaritzak batzar nagusia deitu beharko du kapital sozialaren gutxienez ehuneko bosten titular diren akziodunek hala eskatzen dutenean.

2. Batzarrak deitzen ez badira 2157/2001 (EE) Erregelamenduan edo estatutetan ezarritako epeen barruan, kontrol-kontseiluak deitu ahal izango ditu edo, edozein bazkideren eskariz, sozietate-helbideko merkataritza-erregistratzaileak, lege honetan batzar nagusietarako aurreikusitakoaren arabera.

3. Kontrol-kontseiluak akziodunen batzar nagusia deitu ahal izango du interes sozialerako hala komeni dela irizten dionean.

493. artikulua. Batzar nagusia deitzeko epea

Europar sozietate anonimoaren batzar nagusiaren deialdia batzarra egiteko finkaturiko data baino gutxienez hilabete lehenago egin beharko da.

494. artikulua. Eguneko gai-zerrendan beste gai batzuk sartzea

Kapital sozialaren gutxienez ehuneko bosten titular diren akziodun minoritarioek esku izango dute jada deitua izan den batzar nagusiaren gai-zerrendan beste gai batzuk sar daitezela eskatzeko, bai eta ezohiko batzar nagusia deidala eskatzeko ere, lege honetan ezarritakoaren arabera. Batzarra biltzeko ezarritako data baino gutxienez hamabost egun lehenago argitaratu beharko da deialdiaren osagarria.

TÍTULO XIV
SOCIEDADES ANÓNIMAS COTIZADAS

CAPÍTULO I

Disposiciones generales

Artículo 495. Concepto

1. Son sociedades cotizadas las sociedades anónimas cuyas acciones estén admitidas a negociación en un mercado secundario oficial de valores.

2. En todas aquellas cuestiones no previstas en este Título, las sociedades cotizadas se regirán por las disposiciones aplicables a las sociedades anónimas, además de por las demás normas que les sean de aplicación, con las siguientes particularidades:

a) El porcentaje mínimo del cinco por ciento que determinadas disposiciones aplicables a las sociedades anónimas exigen para el ejercicio de ciertos derechos de los accionistas reconocidos en esta Ley será del tres por ciento en las sociedades cotizadas.

b) La fracción del capital social necesaria para poder impugnar acuerdos sociales, conforme a los artículos 206.1 y 251, será del uno por mil del capital social.

c) Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 205.1 para los acuerdos que resultaren contrarios al orden público, la acción de impugnación de los acuerdos sociales caducará en el plazo de tres meses.

CAPÍTULO II

Especialidades en materia de acciones

SECCIÓN I.^a

Representación de las acciones

Artículo 496. Representación de las acciones de sociedades cotizadas

1. Las acciones y las obligaciones que pretendan acceder o permanecer admitidas a cotización en un mercado secundario oficial de valores habrán de representarse necesariamente por medio de anotaciones en cuenta.

XIV. TITULUA
SOZIE TATE ANONIMO KOTIZATUAK

I. KAPITULUA
Xedapen orokorrak

495. artikulua. Kontzeptua

1. Beren akzioak bigarren mailako balore-merkatu ofizial batean negoziatuziorako onartu zaizkien sozietate anonimoak dira sozietate kotizatu.

2. Titulu honetan aurreikusi ez diren gai guztietan, sozietate anonimoei aplikagarri zaizkien xedapenek eraenduko dituzte sozietate kotizatuak, aplikagarriak zaizkien gainerako arauak ez ezik, berezitasun hauekin:

a) Lege honetan akziodunei aitortzen zaizkien eskubide batzuk baliatzeko sozietate anonimoei aplikagarriak zaizkien xedapen jakin batzuk galdatzen duten ehuneko bosteko gutxienekoa ehuneko hirukoa izango da sozietate kotizatuetan.

b) Sozietate-erabakiak aurkaratzeko behar den kapital sozialaren zatia, 206.1 eta 251. artikuluen arabera, kapital sozialaren milako bata izango da.

c) Hargatik eragotzi gabe 205.1 artikuluan ordena publikoaren kontrakoak gertatzen diren erabakientzat xedaturikoa, sozietate-erabakiak aurkaratzeko akzioa hiru hilabeteko epean iraungiko da.

II. KAPITULUA
Akzio-gaie tako berezitasunak

I. ATALA
Akzioak adieraztea

496. artikulua. Sozietate kotizatuen akzioak adieraztea

1. Bigarren mailako balore-merkatu batean kotizatuzera iritsi nahi duten edo kotizatuzeko onarturik jarraitu nahi duten akzioak eta obligazioak kontuko idatz-oharren bidez adierazi beharko dira nahitaez.

2. Tan pronto como los valores se representen por anotaciones en cuenta, los títulos en que anteriormente se reflejaban quedarán amortizados de pleno derecho, debiendo darse publicidad a su anulación mediante anuncios en el Boletín Oficial del Registro Mercantil, en los correspondientes a las Bolsas de Valores y en tres diarios de máxima difusión en el territorio nacional.

3. El Gobierno, previo informe de la Comisión Nacional del Mercado de Valores, fijará los plazos y el procedimiento para la representación por medio de anotaciones en cuenta de las acciones cotizadas.

Artículo 497. Derecho a conocer la identidad de los accionistas

1. La sociedad emisora tendrá derecho a obtener en cualquier momento de las entidades que lleven los registros de los valores los datos correspondientes de los accionistas, incluidos las direcciones y medios de contacto de que dispongan.

2. El mismo derecho tendrán las asociaciones de accionistas que se hubieran constituido en la sociedad emisora y que representen al menos el uno por ciento del capital social, así como los accionistas que tengan individual o conjuntamente una participación de, al menos, el tres por ciento del capital social, exclusivamente a efectos de facilitar su comunicación con los accionistas para el ejercicio de sus derechos y la mejor defensa de sus intereses comunes.

En el supuesto de utilización abusiva o perjudicial de la información solicitada, la asociación o socio será responsable de los daños y perjuicios causados.

3. Reglamentariamente se concretarán los aspectos técnicos y formales necesarios para el ejercicio del derecho a los datos conforme a los dos apartados anteriores.

SECCIÓN 2.^a

Acciones con derecho a un dividendo preferente

Artículo 498. Obligación de acordar el reparto del dividendo preferente

Cuando el privilegio conferido por acciones emitidas por sociedades cotizadas consista en el derecho a obtener un dividendo preferente la sociedad estará obligada a acordar el reparto del dividendo si existieran beneficios distribuíbles, sin que los estatutos puedan disponer otra cosa.

2. Baloreak kontuko idatz-oharren bidez adierazi bezain laster, aurretik haien adierazle ziren tituluak amortizaturik geratuko dira zuzenbide osoz, eta haien balio gabetzearen berri eman beharko da, hartarako iragarkiak jarritz Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean, Balore Burtsei dagozkienetan eta nazio-lurraldean zabalkunde handiena duten hiru egunkaritan.

3. Gobernuak, aurrez Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak txostena eginik, akzio kotizatuak kontuko idatz-oharren bidez adierazteko epeak eta prozedurak finkatuko ditu.

497. artikulua. Akziodunen identitatea ezagutzeko eskubidea

1. Sozietate jaulkitzaileak eskubidea izango du baloreen erregistroa datarmaten entitateengandik edozein unetan akziodunei dagozkien datuak lortzeko, eskura dituzten helbideak eta kontaktubideak barne.

2. Eskubide bera izango dute sozietate jaulkitzaile bihurtu diren eta kapital sozialaren gutxienez ehuneko bat ordezkatzan duten akziodunen elkarteek, eta baita bakarka edo batera kapital sozialaren gutxienez ehuneko hiruko partaide-tza bat duten akziodunek, akziodunekiko komunikazioa ahalbidetzeko ez bestetarako, haiek beren eskubideak balia ditzaten eta haien interes erkideak ondoen babes daitezen.

Eskaturiko informazioaren erabilera abusuzkoa edo kaltegarria egiten den kasuan, elkartea edo bazkidea izango da eragindako kalte-galeren erantzule.

3. Erregelamenduz zehaztuko dira aurreko bi zenbakien arabera datuak lortzeko eskubidea baliatzeko behar diren alderdi teknikoak eta formalak.

2. ATALA

Lehentasunezko dibidendu baterako eskubidea duten akzioak

498. artikulua. Lehentasunezko dibidendua banatzea erabakitze eginbidea

Sozietate kotizatuak jaulkiriko akzioek ematen duten pribilegioa lehentasunezko dibidendu bat lortzeko eskubidea denean, sozietatea beharturik egongo da dibidendua banatzeko erabakia hartzera mozkin banagarriak badaude, eta estatutuek ezin xedatuko dute bestelakorik.

Artículo 499. Régimen legal del dividendo preferente

1. El régimen legal del dividendo preferente de las acciones privilegiadas emitidas por sociedades cotizadas será el establecido para las acciones sin voto en la sección 2.^a del capítulo II del título IV.

2. En caso de acciones sin voto, se estará a lo que dispongan los estatutos sociales respecto del derecho de suscripción preferente de los titulares de estas acciones, así como respecto de la recuperación del derecho de voto en el caso de no satisfacción del dividendo mínimo y respecto del carácter no acumulativo del mismo.

SECCIÓN 3.^a

Acciones rescatables

Artículo 500. Emisión de acciones rescatables

1. Las sociedades anónimas cotizadas podrán emitir acciones que sean rescatables a solicitud de la sociedad emisora, de los titulares de estas acciones o de ambos, por un importe nominal no superior a la cuarta parte del capital social. En el acuerdo de emisión se fijarán las condiciones para el ejercicio del derecho de rescate.

2. Las acciones rescatables deberán ser íntegramente desembolsadas en el momento de la suscripción.

3. Si el derecho de rescate se atribuye exclusivamente a la sociedad, no podrá ejercitarse antes de que transcurran tres años a contar desde la emisión.

Artículo 501. Amortización de acciones rescatables

1. La amortización de las acciones rescatables deberá realizarse con cargo a beneficios o a reservas libres o con el producto de una nueva emisión de acciones acordada por la junta general con la finalidad de financiar la operación de amortización.

2. Si se amortizarán estas acciones con cargo a beneficios o a reservas libres, la sociedad deberá constituir una reserva por el importe del valor nominal de las acciones amortizadas.

3. En el caso de que no existiesen beneficios o reservas libres en cantidad suficiente ni se emitan nuevas acciones para financiar la operación, la amortización sólo podrá llevarse a cabo con los requisitos establecidos para la reducción de capital social mediante devolución de aportaciones.

499. artikulua. Lehentasunezko dibidenduaren lege-araubidea

1. Sozietate kotizatuek jaulkiriko akzio pribilegiatuen lehentasunezko dibidenduaren lege-araubidea IV. tituluko II. kapituluaren 2. atalean botorik gabeko akzioentzat ezarritakoa izango da.

2. Botorik gabeko akzioen kasuan, sozietate-estatutuek akzio horien titularrren lehentasunezko harpidetza-eskubideari buruz xedatzen dutena jarraituko da, bai eta gutxieneko dibidendua ordaindu ezean boto-eskubidea berreskuratzeari buruz eta dibidendu horren izaera ez-metagarriari buruz xedatzen dutena ere.

3. ATALA

Akzio erreskatagarriak

500. artikulua. Akzio erreskatagarriak jaulkitzea

1. Sozietate anonimo kotizatuek esku izango dute sozietate jaulkitzailearen, akzioen titularren edo bien eskariz erreskatatu daitezkeen akzioak jaulkitzeko, gehienez ere kapital sozialaren laurdenaren zenbateko nominallean. Jaulkitze-erabakian ezarriko dira erreskate-eskubidea baliatzeko baldintzak.

2. Akzio erreskatagarriak oso-osorik ordaindu beharko dira harpidetzeko unean.

3. Erreskate-eskubidea sozietateari baino esleitzen ez bazaio, eskubide hori ezin baliatuko da hiru urte igaro arte, jaulkipenetik kontatzen hasita.

501. artikulua. Akzio erreskatagarriak amortizatzea

1. Akzio erreskatagarriak mozkinen edo erreserba libreen kargura amortizatu beharko dira, edo batzar nagusiak amortizazio-eragiketa finantzatzeko helburuz erabakitako beste akzio-jaulkipen baten etekinaren bidez.

2. Akzio horiek mozkinen edo erreserba libreen kargura amortizatzen bada, sozietateak erreserba bat eratu beharko du, amortizaturiko akzioen balio nominalaren zenbatekoko.

3. Behar beste mozkin edo erreserba libre ez badago eta eragiketa finantzatzeko akzio berririk ere jaulkitzen ez bada, amortizazioa ezin egingo da kapital soziala ekarpenak itzuliz murrizteko ezarritako betekizunak betez baino.

SECCIÓN 4.^a

Acciones sometidas a usufructo

Artículo 502. Cálculo del valor de nuevas acciones sometidas a usufructo

1. Cuando se suscriban nuevas acciones, bien por el nudo propietario o el usufructuario, el usufructo se extenderá a las acciones cuyo desembolso hubiera podido calcularse conforme al precio medio de cotización durante el periodo de suscripción.

2. Las cantidades que hayan de pagarse en caso de extinción del usufructo o por no haber ejercitado el nudo propietario derecho de suscripción preferente en caso de aumento de capital, se calcularán de acuerdo con el valor de cotización media del trimestre anterior a la producción de los hechos anteriormente mencionados.

CAPÍTULO III

Especialidades en materia de suscripción de acciones

Artículo 503. Plazo mínimo para el ejercicio del derecho de suscripción

En las sociedades cotizadas el ejercicio del derecho de suscripción preferente se realizará dentro del plazo concedido por los administradores de la sociedad, que no podrá ser inferior a quince días desde la publicación del anuncio de la oferta de suscripción de la nueva emisión en el Boletín Oficial del Registro Mercantil.

Artículo 504. Régimen general de exclusión del derecho de suscripción preferente

1. En las sociedades cotizadas la exclusión del derecho de suscripción preferente exigirá la observancia de lo establecido en el artículo 308.

2. El valor razonable se entenderá como valor de mercado. Salvo que se justifique lo contrario, se presumirá valor de mercado el que se establezca por referencia a la cotización bursátil.

Artículo 505. Régimen especial de exclusión del derecho de suscripción preferente

1. No obstante lo establecido en el apartado segundo del artículo anterior, la junta general de accionistas de sociedad cotizada, una vez que disponga del

502. artikulua. Gozamenari loturiko akzio berrien balioa kalkulatzea

1. Jabe soilak nahiz gozamendunak akzio berriak harpidetzen dituenean, beren ordainketa harpidetza-aldiko batez besteko kotizazio-prezioaren arabera kalkula zitekeen akzioetara hedatuko da gozamena.

2. Gozamena amaitzen den kasuan ordaindu beharreko kopuruak, edo kapitala handitzen den kasuan jabe soilak lehentasunezko harpidetza-eskubidea baliatu ez duelako ordaindu beharrekoak, gorago aipaturiko egitateak gertatu aurreko hiruhilekoan izandako batez besteko kotizazio-balioaren arabera kalkulatu dira.

III. KAPITULUA

Akzio-harpidetzaren arloko berezitasunak

503. artikulua. Harpidetza-eskubidea baliatzeko gutxieneko epea

Sozietate kotizatueta, sozietatearen administratzaileek emandako epearen barruan baliatuko da lehentasunezko harpidetza-eskubidea; epe hori, gutxienez, hamabost egunekoa izango da, jaulkipen berria harpidetzeko eskaintzaren iragarkia Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatuta.

504. artikulua. Lehentasunezko harpidetza-eskubidea kentzeko araubide orokorra

1. Sozietate kotizatueta lehentasunezko harpidetza-eskubidea kentzeko, beharrezko izango da 308. artikuluan ezarritakoa betetzea.

2. Arrazoizko balioa merkatuko baliotzat joko da. Kontrakoa justifikatu ezean, burtsako kotizazioarekiko erreferentziaz ezartzen den balioa joko da merkatuko baliotzat.

505. artikulua. Lehentasunezko harpidetza-eskubidea kentzeko araubide berezia

1. Aurreko artikulua bigarren zenbakian ezarritakoa gorabehera, sozietate kotizatuaren akziodunen batzar nagusiak esku izango du, behin 308. ar-

informe de los administradores y del informe del experto independiente requeridos en el artículo 308, podrá acordar la emisión de nuevas acciones a cualquier precio, siempre que sea superior al valor neto patrimonial de éstas que resulte del informe del auditor, pudiendo la junta limitarse a establecer el procedimiento para su determinación.

2. Para que la junta general pueda adoptar el acuerdo a que se refiere el apartado anterior, será necesario que el informe de los administradores y el informe del experto independiente determinen el valor patrimonial neto de las acciones.

3. El experto independiente determinará el valor patrimonial neto sobre la base de las últimas cuentas anuales auditadas de la sociedad o, bien, si son de fecha posterior a éstas, sobre la base de los últimos estados financieros auditados de la sociedad conformes con el artículo 254, formulados, en cualquiera de los casos, por los administradores de acuerdo con los principios de contabilidad recogidos en el Código de Comercio. La fecha de cierre de estas cuentas o de estos estados no podrá ser anterior en más de seis meses a la fecha en la que la junta general adopte el acuerdo de ampliación, siempre que no se realicen operaciones significativas. En la determinación del valor deberán tenerse en cuenta las eventuales salvedades que pudiera haber puesto de manifiesto en su informe el auditor de las cuentas anuales o de los estados financieros.

4. En el caso de sociedades cotizadas que sean dominantes de un grupo de empresas, el valor neto patrimonial se determinará conforme a los datos que para la sociedad se deriven de la contabilidad consolidada del grupo.

5. El registro contable de las operaciones se realizará de acuerdo con los principios y normas de contabilidad establecidas en el Código de Comercio.

Artículo 506. Delegación de la facultad de excluir el derecho de suscripción preferente en caso de emisión de nuevas acciones

1. En el caso de sociedades cotizadas, cuando la junta general delegue en los administradores la facultad de aumentar el capital social, podrá atribuirles también la facultad de excluir el derecho de suscripción preferente en relación a las emisiones de acciones que sean objeto de delegación si el interés de la sociedad así lo exigiera.

2. En el anuncio de convocatoria de la junta general en el que figure la propuesta de delegar en los administradores la facultad de aumentar el capital social también deberá constar expresamente la propuesta de exclusión del derecho de suscripción preferente. Desde la convocatoria de junta general se pondrá a disposición de los accionistas un informe de los administradores en el que se justifique la propuesta de delegación de esa facultad.

tikulan galdaturiko administratzaileen txostena eta aditu independentearen txostena jasotakoan, akzio berriak edozein preziotan jaulkitzea erabakitzeko, betiere auditorearen txostenetik ateratzen den akzioon ondare-balio garbia baino handiagoa bada prezioa, batzarrak aukera izango duelarik prezioa zehazteko prozedura besterik ez ezartzeko.

2. Batzar nagusiak aurreko zenbakian aipatzen den erabakia hartu ahal izan dezan, beharrezko izango da administratzaileen txostenean eta aditu independentearen txostenean zehaztea akzioen ondare-balio garbia.

3. Aditu independenteak sozietatearen azken urteko kontu auditatuak hartuko ditu oinarritzat ondare-balio garbia zehazteko, edo, kontu auditatuak baino geroagokoak badira, sozietateak 254. artikulua arabera formulariko azken egoera-orri finantzario auditatuak, zeinak, edozein kasutan, administratzaileek formularik izango baitira Merkataritza Kodean jasotako kontabilitate-printzipioen arabera. Kontu horien edo egoera-orri horien itxiera-data, gehienez ere, batzar nagusiak handitze-erabakia hartzen duen data baino sei hilabete lehenagokoa izango da, betiere eragiketa esanguratsurik egiten ez bada. Balioa zehaztean, kontuan hartu beharko dira urteko kontuen edo egoera-orri finantzarioen auditoreak bere txostenean nabarmendu dituen salbuespenak, halakorik nabarmendu badu.

4. Enpresa talde batean sozietate nagusi diren sozietate kotizatuen kasuan, taldearen kontabilitate bateratutik sozietatearentzat ondorioztatzen diren datuen arabera zehaztuko da ondare-balio garbia.

5. Eragiketen kontabilitate-erregistroa Merkataritza Kodean ezarritako kontabilitate-printzipio eta -arauen arabera egingo da.

506. artikulua. Lehentasunezko harpidetza-eskubidea kentzeko ahalmena eskuordetzea akzio berriak jaulkitzen diren kasuan

1. Sozietate kotizatuen kasuan, batzar nagusiak administratzaileei eskuordetzen dienean kapital soziala handitzeko ahalmena, orobat eskuordetu ahal izango die lehentasunezko harpidetza-eskubidea kentzeko ahalmena, eskuordetzen diren akzioen jaulkipenei dagokienez, sozietatearen interesak hala eskatzen badu.

2. Kapital soziala handitzeko ahalmena administratzaileei eskuordetzeko proposamena jasotzen duen eta batzar nagusia deitzeko egiten den iragarkian orobat jasoko da, espresuki, lehentasunezko harpidetza-eskubidea kentzeko proposamena. Batzar nagusia deitzen denetik, administratzaileen txosten bat jarriko da akziodunen eskura, ahalmen hori eskuordetzeko proposamena justifikatzen duena.

3. En el acuerdo de ampliación que se realice en base a la delegación de la junta el informe de los administradores y el informe del auditor de cuentas deberán estar referidos a cada ampliación concreta.

4. El valor nominal de las acciones a emitir, más, en su caso, el importe de la prima de emisión deberá corresponder al valor razonable que resulte del informe del auditor de cuentas. Estos informes serán puestos a disposición de los accionistas y comunicados a la primera junta general que se celebre tras el acuerdo de ampliación.

Artículo 507. Suscripción incompleta de nuevas acciones

Cuando la Comisión Nacional del Mercado de Valores hubiera intervenido en la verificación inicial de una operación de aumento del capital de sociedad cotizada con emisión de nuevas acciones, el fracaso total o parcial del aumento del capital por suscripción incompleta habrá de comunicarse a la Comisión.

Artículo 508. Derecho a la restitución de aportaciones

1. En el supuesto de que la emisión de las nuevas acciones por sociedad cotizada hubiera sido autorizada o verificada por la Comisión Nacional del Mercado de Valores, transcurrido un año desde la conclusión del período de suscripción sin que se hubiera presentado a inscripción en el Registro Mercantil la escritura de ejecución del acuerdo, el registrador, de oficio, o a solicitud de cualquier interesado, procederá a la cancelación de la inscripción del acuerdo de aumento del capital social, remitiendo certificación a la propia sociedad y a la Comisión Nacional del Mercado de Valores.

2. Cancelada la inscripción del aumento, los titulares de las nuevas acciones emitidas tendrán el derecho a exigir la restitución de las aportaciones realizadas. Si la causa de la cancelación fuera imputable a la sociedad, podrán exigir también el interés legal.

CAPÍTULO IV

Límite máximo de la autocartera

Artículo 509. Límite máximo de la autocartera

Salvo en los supuestos de libre adquisición de las propias acciones, en las sociedades cotizadas el valor nominal de las acciones propias adquiridas directa

3. Batzarrak emandako eskuordetzan oinarriturik egiten den handitze-erabakian, administratzaileen txostenak eta kontu-auditorearen txostenak handitze konkretu bakoitzari dagozkionak izan beharko dute.

4. Jaulki beharreko akzioen balio nominala, gehi, hala badagokio, jaulkipen-primaren zenbatekoa, kontu-auditorearen txostenetik ateratzen den arazoizko balioari dagokiona izango da. Txosten horiek akziodunen eskura jarriko dira eta handitze-erabakiaren ondoren egiten den lehenengo batzar nagusiari adieraziko zaizkio.

507. artikulua. Akzio berrien harpidetza osatu gabea

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak esku hartu badu sozietate kotizatu baten kapitala akzio berriak jaulkiz handitzeko eragiketa baten hasierako egiaztapena egiten, Batzordeari jakinarazi beharko zaio kapital-handitzeak guttiz edo partez porrot egin izana harpidetza osatu gabez.

508. artikulua. Ekarpinak atzera itzultzeko eskubidea

1. Sozietate kotizatu batek egindako akzio berrien jaulkipena Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak baimendu edo egiaztatu duen kasuan, harpidetza-epa amaitzen denetik urtebete igaro eta erabakiaren exekuzio-eskritura Merkataritza Erregistroan inskribatzera aurkeztu ez bada, erregistratzaileak, ofizioz, edo edozein interesdunen eskariz, kapital soziala handitzeko erabakiaren inskripzioa ezeztatuko du, eta ziurtagiria bidaliko die sozietateari berari eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari.

2. Handitzearen inskripzioa ezeztutakoan, jaulkiriko akzio berrien titularrak eskubidea izango dute egindako ekarpinak atzera itzul dakizkiela galdatzeko. Ezeztapenaren kausa sozietateari egotz dakiokiena bada, legezko interesa ere galdatu ahal izango dute.

IV. KAPITULUA

Autozorroaren gehienezko muga

509. artikulua. Autozorroaren gehienezko muga

Akzio berekien eskuratzeko libreaken kasuetan izan ezik, sozietate kotizatuetan, sozietateak zuzenean edo zeharka eskuraturiko akzio berekien balio no-

o indirectamente por la sociedad, sumándose al de las que ya posean la sociedad adquirente y sus filiales y, en su caso, la sociedad dominante y sus filiales, no podrá ser superior al diez por ciento del capital suscrito.

CAPÍTULO V

Obligaciones

Artículo 510. Emisión de obligaciones

El límite legal máximo para la emisión de obligaciones no será de aplicación a las sociedades anónimas cotizadas.

Artículo 511. Delegación de la facultad de excluir el derecho de suscripción preferente en caso de emisión de obligaciones convertibles

1. En el caso de sociedades cotizadas, cuando la junta general delegue en los administradores la facultad de emitir obligaciones convertibles, podrá atribuirles también la facultad de excluir el derecho de suscripción preferente en relación a las emisiones de obligaciones convertibles que sean objeto de delegación si el interés de la sociedad así lo exigiera.

2. En el anuncio de convocatoria de la junta general en el que figure la propuesta de delegar en los administradores la facultad de emitir obligaciones convertibles también deberá constar expresamente la propuesta de exclusión del derecho de suscripción preferente. Desde la convocatoria de junta general se pondrá a disposición de los accionistas un informe de los administradores en el que se justifique la propuesta de exclusión.

3. En el acuerdo de ampliación que se realice en base a la delegación de la junta el informe de los administradores y el informe del auditor de cuentas deberán estar referidos a cada emisión concreta.

Estos informes serán puestos a disposición de los accionistas y comunicados a la primera junta general que se celebre tras el acuerdo de ampliación.

minala, sozietate eskuratzailleak eta haren filialek eta, hala badagokio, sozietate nagusiak eta haren filialek jada dituzten akzioenari gehiturik, ezin izango da harpideturiko kapitalaren ehuneko hamar baino handiagoa.

V. KAPITULUA

Obligazioak

510. artikulua. Obligazioak jaulkitzea

Legeak obligazioak jaulkitzeko ezartzen duen gehienezko muga ez zaie aplikatuko sozietate anonimo kotizatuei.

511. artikulua. Lehentasunezko harpidetza-eskubidea kentzeko ahalmena eskuordetzea obligazio bihurtarriak jaulkitzen diren kasuan

1. Sozietate kotizatuen kasuan, batzar nagusiak administratzaileei eskuordetzen dienean obligazio bihurtarriak jaulkitzeko ahalmena, orobat eskuordetu ahal izango die lehentasunezko harpidetza-eskubidea kentzeko ahalmena, eskuordetzen diren obligazio bihurtarrien jaulkipenei dagokienez, sozietatearen interesak hala eskatzen badu.

2. Obligazio bihurtarriak jaulkitzeko ahalmena administratzaileei eskuordetzeko proposamena jasotzen duen eta batzar nagusia deitzeko egiten den iragarkian orobat jasoko da, espresuki, lehentasunezko harpidetza-eskubidea kentzeko proposamena. Batzar nagusia deitzen denetik, administratzaileen txosten bat jarriko da akziodunen eskura, lehentasunezko harpidetza-eskubidea kentzeko proposamena justifikatzen duena.

3. Batzarrak emandako eskuordetzan oinarriturik egiten den handitze-erabakian, administratzaileen txostenak eta kontu-auditorearen txostenak jaulkipen konkretu bakoitzari dagozkionak izan beharko dute.

Txosten horiek akziodunen eskura jarriko dira eta handitze-erabakiaren ondoren egiten den lehenengo batzar nagusiari adieraziko zaizkio.

CAPÍTULO VI

Especialidades de la junta general de accionistas

SECCIÓN 1.^a

Competencias de la Junta General

Artículo 511 bis. Competencias adicionales

1. En las sociedades cotizadas constituyen materias reservadas a la competencia de la junta general, además de las reconocidas en el artículo 160, las siguientes:

- a) La transferencia a entidades dependientes de actividades esenciales desarrolladas hasta ese momento por la propia sociedad, aunque esta mantenga el pleno dominio de aquellas.
- b) Las operaciones cuyo efecto sea equivalente al de la liquidación de la sociedad.
- c) La política de remuneraciones de los consejeros en los términos establecidos en esta ley.

2. Se presumirá el carácter esencial de las actividades y de los activos operativos cuando el volumen de la operación supere el veinticinco por ciento del total de activos del balance.

SECCIÓN 2.^a

El reglamento de la junta general

Artículo 512. Carácter obligatorio del reglamento de la junta general

La junta general de accionistas de la sociedad anónima con acciones admitidas a negociación en un mercado secundario oficial de valores, constituida con el quórum del artículo 193 o con el superior previsto a este propósito en los estatutos, aprobará un reglamento específico para la junta general. En este reglamento podrán contemplarse todas aquellas materias que atañen a la junta general, respetando lo establecido en la ley y los estatutos.

Artículo 513. Publicidad del reglamento

1. El reglamento de la junta general de accionistas de sociedad cotizada será objeto de comunicación a la Comisión Nacional del Mercado de Valores, acompañando copia del documento en que conste.

VI. KAPITULUA

Akziodunen batzar nagusiaren berezitasunak

I. ATALA

Batzar nagusiaren eskumenak

511 bis artikulua. Eskumen gehigarriak

1. Sozietate kotizatueta, batzar nagusiaren eskumeneko gaiak dira, 160. artikuluan aitorturikoez gainera, honako hauek:

a) Mendeko entitate batzuei eskualdatzea une horretara arte sozietateak berak egin dituen funtsezko jarduerak, nahiz eta sozietateak gorde haien gaineko nagusitasun osoa.

b) Sozietatea likidatzearen efektu baliokidea duten eragiketak.

c) Kontseilariaren ordainsarien politika, lege honetan ezarritako baldintzetan.

2. Eragiketaren bolumenak balantzeko aktibo guztien ehuneko hogeita bost gaintzen duenean joko da jarduerak eta aktibo operatiboek funtsezko izaera dutela.

2. ATALA

Batzar nagusiaren erregelamendua

512. artikulua. Batzar nagusiaren erregelamenduaren izaera nahitaezkoa

Bigarren mailako balore-merkatu ofizial batean negoziatziorako onarturiko akzioak dituen sozietate anonimoaren akziodunen batzar nagusiak, 193. artikuluko quorumarekin edo estatutueta horretarako aurreikusitako quorum handiagoarekin eraturik, berariazko erregelamendu bat onartuko du batzar nagusiarentzat. Erregelamendu horretan, batzar nagusiari dagozkion gai guztiak aurreikusi ahal izango dira, legean eta estatutueta ezarritakoa gordez.

513. artikulua. Erregelamendua publiko egitea

1. Sozietate kotizatuaren akziodunen batzar nagusiaren erregelamendua Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinaraziko zaio, hura jasotzen duen dokumentuaren kopia bat igorritz.

2. Efectuada esta comunicación se inscribirá en el Registro Mercantil con arreglo a las normas generales y, una vez inscrito, se publicará por la Comisión Nacional del Mercado de Valores.

SECCIÓN 3.^a

Funcionamiento de la junta general

Subsección 1.^a Disposiciones generales

Artículo 514. Igualdad de trato

Las sociedades anónimas cotizadas garantizarán, en todo momento, la igualdad de trato de todos los accionistas que se hallen en la misma posición, en lo que se refiere a la información, la participación y el ejercicio del derecho de voto en la junta general.

Artículo 515. Plazo de convocatoria de las juntas generales extraordinarias

1. Cuando la sociedad ofrezca a los accionistas la posibilidad efectiva de votar por medios electrónicos accesibles a todos ellos, las juntas generales extraordinarias podrán ser convocadas con una antelación mínima de quince días.

2. La reducción del plazo de convocatoria requerirá un acuerdo expreso adoptado en junta general ordinaria por, al menos, dos tercios del capital suscrito con derecho a voto, y cuya vigencia no podrá superar la fecha de celebración de la siguiente.

Artículo 516. Publicidad de la convocatoria

1. La sociedad anónima cotizada está obligada a anunciar la convocatoria de su junta general, ordinaria o extraordinaria, de modo que se garantice un acceso a la información rápido y no discriminatorio entre todos los accionistas. A tal fin, se garantizarán medios de comunicación que aseguren la difusión pública y efectiva de la convocatoria, así como el acceso gratuito a la misma por parte de los accionistas en toda la Unión Europea.

2. La difusión del anuncio de convocatoria se hará utilizando, al menos, los siguientes medios:

a) El «Boletín Oficial del Registro Mercantil» o uno de los diarios de mayor circulación en España.

2. Jakinarazpen hori egindakoan, Merkataritza Erregistroan inskribatuko da arau orokorren arabera eta, inskribatutakoan, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak publiko egingo du.

3. ATALA

Batzar nagusiaren funtzionamendua

1. azpiatala. Xedapen orokorrak

514. artikulua. Tratu-berdintasuna

Sozietate anonimo kotizatuak egoera berean dauden akziodun guztien tratu-berdintasuna bermatuko dute uneoro, informazioari, parte-hartzeari eta batzar nagusian boto-eskubidea baliatzeari dagokionez.

515. artikulua. Ezohiko batzar nagusiak deitzeko epea

1. Sozietateak akziodunei benetako aukera ematen badie haiiek guztiek eskuragarri dituzten bide elektronikoen bidez botoa emateko, ezohiko batzar nagusiak gutxienez hamabost eguneko aurrerapenez deitu ahal izango dira.

2. Deialdi-epea murrizteko, berariazko erabaki bat beharko da, ohiko batzar nagusiak hartua, boto-eskubidea duen kapital harpidetuaren gutxienez bi herenen adostasunez, eta haren indarraldia, gehienez ere, hurrengoa egiten den data artekoa izango da.

516. artikulua. Deialdia publiko egitea

1. Akziodun guztiei informazioa bizkor eta diskriminaziorik gabe iristen zaiela bermatzeko moduan iragarri beharko du sozietate anonimo kotizatuak bere batzar nagusiaren deialdia, dela batzarra ohikoa zein ezohikoa. Horretarako, deialdiaren zabalkunde publikoa eta benetakoa ziurtatzen duten hedabideak bermatuko dira, eta orobat bermatuko da akziodunek Europar Batasun guztian doako irispidea izan dezatela deialdira.

2. Deialdiaren iragarpena zabaltzeko, honako bide hauek erabiliko dira, gutxienez:

a) Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofiziala edo Espainian zabalkunde handiena duten egunkarietariko bat.

- b) La página web de la Comisión Nacional del Mercado de Valores.
- c) La página web de la sociedad convocante.

Artículo 517. Contenido del anuncio de convocatoria

1. El anuncio de la convocatoria de junta general de sociedad cotizada, además de las menciones legalmente exigibles con carácter general, expresará la fecha en la que el accionista deberá tener registradas a su nombre las acciones para poder participar y votar en la junta general, el lugar y la forma en que puede obtenerse el texto completo de los documentos y propuestas de acuerdo, y la dirección de la página web de la sociedad en que estará disponible la información.

2. Además, el anuncio deberá contener una información clara y exacta de los trámites que los accionistas deberán seguir para participar y emitir su voto en la junta general, incluyendo, en particular, los siguientes extremos:

a) El derecho a solicitar información, a incluir puntos en el orden del día y a presentar propuestas de acuerdo, así como el plazo de ejercicio. Cuando se haga constar que en la página web de la sociedad se puede obtener información más detallada sobre tales derechos, el anuncio podrá limitarse a indicar el plazo de ejercicio.

b) El sistema para la emisión de voto por representación, con especial indicación de los formularios que deban utilizarse para la delegación de voto y de los medios que deban emplearse para que la sociedad pueda aceptar una notificación por vía electrónica de las representaciones conferidas.

c) Los procedimientos establecidos para la emisión del voto a distancia, sea por correo o por medios electrónicos.

Artículo 518. Información general previa a la junta

Desde la publicación del anuncio de convocatoria y hasta la celebración de la junta general, la sociedad deberá publicar ininterrumpidamente en su página web, al menos, la siguiente información:

a) El anuncio de la convocatoria.

b) El número total de acciones y derechos de voto en la fecha de la convocatoria, desglosados por clases de acciones, si existieran.

c) Los documentos que deban ser objeto de presentación a la junta general y, en particular, los informes de administradores, auditores de cuentas y expertos independientes.

- b) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren web orria.
- c) Deialdia egiten duen sozietatearen web orria.

517. artikulua. Deialdiaren iragarpenaren edukia

1. Sozietate kotizatuaren batzar nagusiaren deialdiaren iragarpenak, legez galda daitezkeen aipamen orokorrez gainera, puntu hauek adieraziko ditu: akziodunak zer epetan izan beharko dituen akzioak bere izenean erregistraturik batzar nagusian parte hartu eta botoa eman ahal izateko; zer lekutan eta nola lortu ahal izango den dokumentuen eta erabaki-proposamenen testu osoa, eta sozietateak informazioa eskuragarri jarriko duen web orriaren helbidea.

2. Iragarpenak, gainera, informazio argi eta zehatza eman beharko du akziodunek batzar nagusian parte hartzeko eta botoa emateko egin beharko dituzten izapideei buruz, eta, bereziki, puntu hauek jaso beharko ditu:

a) Informazioa eskatzeko, eguneko gai-zerrendan gaiak sartzeko eta erabaki-proposamenak egiteko eskubidea, bai eta eskubidea baliatzeko epea ere. Baldin eta adierazten bada ezen sozietatearen wen orrian eskubide horiei buruzko informazio zehatzagoa lor daitekeela, aski izango da eskubidea baliatzeko epea adieraztea iragarpenean.

b) Botoa ordezkari-tzaz emateko sistema, bereziki adieraziz botoa eskuordetzeko erabili beharreko inprimakiak eta zer bide erabili behar diren sozietateak onar dezan emandako ordezkari-tzen jakinarazpen bat bide elektronikoz egitea.

c) Dela postaz, dela bide elektronikoz, botoa urrutitik emateko ezarritako prozedurak.

518. artikulua. Batzarraren aurretiko informazio orokorra

Deialdiaren iragarpena argitaratzen denetik batzar nagusia egiten den arte, sozietateak gutxienez honako informazio hau argitaratu beharko du, etenik gabe, bere wen orrian:

a) Deialdiaren iragarpena.

b) Deialdiaren datan dauden akzio guztien eta boto-eskubide guztien kopurua, akzio motatan banakaturik, halakorik bada.

c) Batzar nagusira aurkeztu behar diren agiriak eta, bereziki, administratzaileen, kontu-auditoreen eta aditu independenteen txostenak.

d) Los textos completos de las propuestas de acuerdo sobre todos y cada uno de los puntos del orden del día o, en relación con aquellos puntos de carácter meramente informativo, un informe de los órganos competentes comentando cada uno de dichos puntos. A medida que se reciban, se incluirán también las propuestas de acuerdo presentadas por los accionistas.

e) En el caso de nombramiento, ratificación o reelección de miembros del consejo de administración, la identidad, el currículum y la categoría a la que pertenezca cada uno de ellos, así como la propuesta e informes a que se refiere el artículo 529 decies. Si se tratase de persona jurídica, la información deberá incluir la correspondiente a la persona física que se vaya a nombrar para el ejercicio permanente de las funciones propias del cargo.

f) Los formularios que deberán utilizarse para el voto por representación y a distancia, salvo cuando sean enviados directamente por la sociedad a cada accionista. En el caso de que no puedan publicarse en la página web por causas técnicas, la sociedad deberá indicar en ésta cómo obtener los formularios en papel, que deberá enviar a todo accionista que lo solicite.

Artículo 519. Derecho a completar el orden del día y a presentar nuevas propuestas de acuerdo

1. Los accionistas que representen al menos el tres por ciento del capital social podrán solicitar que se publique un complemento a la convocatoria de la junta general ordinaria, incluyendo uno o más puntos en el orden del día, siempre que los nuevos puntos vayan acompañados de una justificación o, en su caso, de una propuesta de acuerdo justificada. En ningún caso podrá ejercitarse dicho derecho respecto a la convocatoria de juntas generales extraordinarias.

2. El ejercicio de este derecho deberá efectuarse mediante notificación fehaciente, que habrá de recibirse en el domicilio social dentro de los cinco días siguientes a la publicación de la convocatoria. El complemento deberá publicarse, como mínimo, con quince días de antelación a la fecha establecida para la reunión de la junta. La falta de publicación en plazo del complemento será causa de impugnación de la junta.

3. Los accionistas que representen al menos el tres por ciento del capital social podrán, en el mismo plazo señalado en el apartado anterior, presentar propuestas fundamentadas de acuerdo sobre asuntos ya incluidos o que deban incluirse en el orden del día de la junta convocada. La sociedad asegurará la difusión de estas propuestas de acuerdo y de la documentación que en su caso se

d) Eguneko gai-zerrendako puntu guztiei eta bakoitzari buruzko erabaki-proposamenen testu osoak edo, informazio hutsezko puntuei dagokienez, organo eskudunen txosten bat, puntu horietariko bakoitza iruzkinduz. Akziodunek aurkezturiko erabaki-proposamenak ere sartuko dira, jaso ahala.

e) Administrazio-kontseiluko kideak izendatzen, berresten edo berrautatzen diren kasuan, haietariko bakoitzaren identitatea, curriculum eta kategoria, eta baita 529 decies artikuluan aipatzen diren proposamena eta txostenak ere. Pertsona juridikoa bada, karguari dagozkion funtzioak modu iraunkorrean betetzeko izendatuko den pertsona fisikoari dagokion informazioa sartu beharko da.

f) Ordezkarri bidez eta urrutitik botoa emateko erabili beharko diren inprimakiak, non eta sozietateak akziodun bakoitzari zuzenean bidali ez dizkion. Arrazoi teknikoengatik web orrian argitaratu ezin badira, sozietateak web orrian adierazi beharko du nola lortu paperezko inprimakiak, zeinak bidali beharko baitzizkio hala eskatzen duen akziodun orori.

519. artikulua. Eguneko gai-zerrenda osatzeko eta beste erabaki-proposamen batzuk aurkezteko eskubidea

1. Gutxienez kapital sozialaren ehuneko hiru ordezkatzan duten akziodunek ohiko batzar nagusiaren deialdiaren osagarri bat argitara dadila eskatu ahal izango dute, eguneko gai-zerrendan puntu bat edo gehiago sartuz, baldin eta puntu berriekin batera justifikazio bat aurkezten bada edo, hala badagokio, erabaki-proposamen justifikatu bat aurkezten bada. Eskubide hori ezin baliatuko da, ezein kasutan, ezohiko batzar nagusien deialdiari dagokionez.

2. Eskubide hori jakinarazpen fede-emaile baten bidez baliatu beharko da, zeina sozietate-helbidean jaso beharko baita deialdia argitaratu ondorengo bost egunen barruan. Batzarra biltzeko ezarritako data baino gutxienez hamabost egun lehenago argitaratu beharko da osagarria. Osagarria epearen barruan ez argitaratzea batzarra aurkaratzeko kausa izango da.

3. Gutxienez kapital sozialaren ehuneko hiru ordezkatzan duten akziodunek erabaki-proposamen funtsatuak aurkeztu ahal izango dituzte, aurreko zenbakian adierazitako epe berean, deitu den batzarraren eguneko gai-zerrendan jada sarturiko edo sartu beharreko gaietara buruz. Erabaki-proposamen horiek eta, hala badagokio, haiekin batera aurkezten den dokumentazioa gainerako akzio-

adjunte entre el resto de los accionistas, de conformidad con lo dispuesto en la letra d) del artículo anterior.

Artículo 520. Ejercicio del derecho de información del accionista

1. El ejercicio del derecho de información de los accionistas se rige por lo previsto en el artículo 197, si bien las solicitudes de informaciones o aclaraciones o la formulación por escrito de preguntas se podrán realizar hasta el quinto día anterior al previsto para la celebración de la junta. Además, los accionistas podrán solicitar a los administradores, por escrito y dentro del mismo plazo o verbalmente durante la celebración de la junta, las aclaraciones que estimen precisas acerca de la información accesible al público que la sociedad hubiera facilitado a la Comisión Nacional del Mercado de Valores desde la celebración de la última junta general y acerca del informe del auditor.

2. Las solicitudes válidas de informaciones, aclaraciones o preguntas realizadas por escrito y las contestaciones facilitadas por escrito por los administradores se incluirán en la página web de la sociedad.

3. Cuando, con anterioridad a la formulación de una pregunta concreta, la información solicitada esté disponible de manera clara, expresa y directa para todos los accionistas en la página web de la sociedad bajo el formato pregunta-respuesta, los administradores podrán limitar su contestación a remitirse a la información facilitada en dicho formato.

Artículo 521. Participación a distancia

1. La participación en la junta general y el voto de las propuestas sobre puntos comprendidos en el orden del día de cualquier clase de junta general podrán delegarse o ejercitarse directamente por el accionista mediante correspondencia postal, electrónica o cualquier otro medio de comunicación a distancia, en los términos que establezcan los estatutos de la sociedad, siempre que se garantice debidamente la identidad del sujeto que participa o vota y la seguridad de las comunicaciones electrónicas.

2. De conformidad con lo que se disponga en los estatutos, el reglamento de la junta general podrá regular el ejercicio a distancia de tales derechos incluyendo, en especial, alguna o todas las formas siguientes:

a) La transmisión en tiempo real de la junta general.

b) La comunicación bidireccional en tiempo real para que los accionistas puedan dirigirse a la junta general desde un lugar distinto al de su celebración.

dunen artean zabaltzen direla segurtatuko du sozietateak, aurreko artikulua-
d) letran xedaturikoaren arabera.

520. artikulua. Akziodunaren informazio-eskubidea baliatzea

1. Akziodunen informazio-eskubidea baliatzea 197. artikuluan aurreikusitakoak eraentzen du; hala ere, informazio- zein azalpen-eskaerak edo idatzizko galderak batzarra egiteko aurreikusitako egunaren aurreko bosgarren egunera arte egin ahal izango dira. Akziodunek, gainera, beharrezko irizten dioten azalpenak eskatu ahal izango dizkiete administratzaileei, idatziz, epe berean, edo ahoz, batzarra egitean, sozietateak azken batzar nagusia egin zenetik Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari eman dion eta jendeak eskura dezakeen informazioari buruz eta auditorearen txostenari buruz.

2. Baliozko informazio- eta azalpen-eskaerak edo idatziz eginiko galderak eta administratzaileek idatziz emandako erantzunak sozietatearen web orrian sartuko dira.

3. Baldin eta, galdera konkretu bat egin aurretik, eskaturiko informazioa sozietatearen web orrian galdera-erantzunak formatuan badago akziodun guztiek modu argian, espresuki eta zuzenean eskuratzeko moduan, administratzaileek, erantzunean, eskatzailea formatu horretan emandako informaziora igorri ahal izango dute, besterik gabe.

521. artikulua. Urrutitik parte hartzea

1. Akziodunak posta bidezko korrespondentziaz, korrespondentzia elektronikoz edo urrutiko beste edozein komunikazio-bide erabiliz eskuordetu edo baliatu ahal izango du batzar nagusian parte hartzeko eskubidea eta edozein eratako batzar nagusitako gai-zerrendan sarturiko puntuei buruzko proposamenen botoa, sozietatearen estatutuek ezarritako baldintzetan, betiere behar bezala bermatzen bada boto-eskubidea baliatzen duen subjektuaren identitatea eta komunikazio elektronikoen segurtasuna.

2. Estatutuetan xedatzen denarekin bat etorritz, batzar nagusiaren erregelamenduan arautu ahal izango da eskubide horiek urrutitik baliatzeko modua; bereziki, honako modu hauetariko batzuk edo guztiak sartuz:

a) Batzar nagusia denbora errealean transmititzea.

b) Denbora errealean egindako komunikazio bidirekzionala, batzarra egin den lekuaz besteko leku batetik iritsi daitezten akziodunak batzar nagusira.

c) Un mecanismo para ejercer el voto antes o durante la junta general sin necesidad de nombrar a un representante que esté físicamente presente en la junta.

Artículo 521 bis. Derecho de asistencia

En las sociedades anónimas cotizadas, los estatutos no podrán exigir para asistir a la junta general la posesión de más de mil acciones.

Subsección 2.^a Participación en la junta por medio de representante

Artículo 522. La representación del accionista en la junta general

1. Las cláusulas estatutarias que limiten el derecho del accionista a hacerse representar por cualquier persona en las juntas generales serán nulas. No obstante, los estatutos podrán prohibir la sustitución del representante por un tercero, sin perjuicio de la designación de una persona física cuando el representante sea una persona jurídica.

2. En caso de que se hayan emitido instrucciones por parte del accionista representado, el representante emitirá el voto con arreglo a las mismas y tendrá la obligación de conservar dichas instrucciones durante un año desde la celebración de la junta correspondiente.

3. El nombramiento del representante por el accionista y la notificación del nombramiento a la sociedad podrán realizarse por escrito o por medios electrónicos. La sociedad establecerá el sistema para la notificación electrónica del nombramiento, con los requisitos formales, necesarios y proporcionados para garantizar la identificación del accionista y del representante o representantes que designe. Lo dispuesto en este apartado será de aplicación a la revocación del nombramiento del representante.

4. El representante podrá tener la representación de más de un accionista sin limitación en cuanto al número de accionistas representados. Cuando un representante tenga representaciones de varios accionistas, podrá emitir votos de signo distinto en función de las instrucciones dadas por cada accionista.

5. En todo caso, el número de acciones representadas se computará para la válida constitución de la junta.

Artículo 523. Conflicto de intereses del representante

1. Antes de su nombramiento, el representante deberá informar con detalle al accionista de si existe situación de conflicto de intereses. Si el conflicto fuera posterior al nombramiento y no se hubiese advertido al accionista representado

c) Batzarrean fisikoki egongo den ordezkari bat izendatu beharrik gabe, batzar nagusiaren aurretik edo haren denboran botoa emateko mekanismo bat.

521 bis artikulua. Bertaratzeko eskubidea

Sozietate anonimo kotizatueta, estatutueta ezin galdatuko da mila akzio baino gehiago edukitzea batzar nagusira joateko.

2. azpiatala. Batzarrean ordezkari bidez parte hartzea

522. artikulua. Akzioduna batzar nagusian ordezkatzea

1. Akziodunak batzar nagusietan bere burua edozein pertsonaren bidez ordezkatzeko duen eskubidea mugatzen duten estatutu-klausulak deusez izango dira. Hala ere, estatutuek debeka dezakete ordezkaria hirugarren batez ordezte, hargatik eragotzi gabe pertsona fisiko bat izendatzea ordezkaria pertsona juridiko bat denean.

2. Akziodun ordezkatuak jarraibideak eman dituen kasuan, ordezkariak haien arabera emango du botoa, eta beharturik egongo da jarraibide haiek urtebetean gordetzera, dagokion batzarra egin denetik kontaktzen hasita.

3. Idatziz edo bide elektronikoz izendatu ahal izango du akziodunak ordezkaria eta jakinarazi ahal izango zaio izendapena sozietateari. Sozietateak ezarriko du izendapena bide elektronikoz jakinarazteko sistema, beharrezko betekizun formal proportzionatuak ezarri akziodunaren eta hark izendatzen duen ordezkariaren edo ordezkarien identifikazioa bermatzeko. Zenbaki honetan xedaturikoa aplikagarria izango zaio ordezkariaren izendapena errebo-katzeari.

4. Ordezkariak akziodun baten baino gehiagoren ordezkaritza izan dezake, eta ez da izango mugarik ordezkaturiko akziodunen kopuruari dagokionez. Ordezkari batek akziodun bat baino gehiagoren ordezkaritza duenean, joera desberdineko botoak eman ahal izango ditu akziodun bakoitzak emandako jarraibideen arabera.

5. Edozein kasutan, ordezkaturiko akzio kopurua kontuan hartuko da batzarra modu baliozkoan eratzeko.

523. artikulua. Ordezkariaren interes-gatazka

1. Izendatua izan aurretik, ordezkariak zehazki jakinarazi beharko dio akziodunari ea interes-gatazkarik badagoen. Gatazka izendapenaren ondorengoa bada eta akziodunari jakinarazi ez bazaio halakorik izan zitekeenik, berehala

de su posible existencia, deberá informarle de ello inmediatamente. En ambos casos, de no haber recibido nuevas instrucciones de voto precisas para cada uno de los asuntos sobre los que el representante tenga que votar en nombre del accionista, deberá abstenerse de emitir el voto.

2. Puede existir un conflicto de intereses a los efectos del presente artículo, en particular, cuando el representante se encuentre en alguna de estas situaciones:

a) Que sea un accionista de control de la sociedad o una entidad controlada por él.

b) Que sea un miembro del órgano de administración, de gestión o de supervisión de la sociedad o del accionista de control o de una entidad controlada por éste. En el caso de que se trate de un administrador, se aplicará lo dispuesto en el artículo 526.

c) Que sea un empleado o un auditor de la sociedad, del accionista de control o de una entidad controlada por éste.

d) Que sea una persona física vinculada con las anteriores. Se considerarán personas físicas vinculadas: el cónyuge o quien lo hubiera sido dentro de los dos años anteriores, o las personas que convivan con análoga relación de afectividad o hubieran convivido habitualmente dentro de los dos años anteriores, así como los ascendientes, descendientes y hermanos y sus cónyuges respectivos.

Artículo 524. Delegación de la representación y ejercicio del voto por parte de entidades intermediarias

1. Las entidades que aparezcan legitimadas como accionistas en virtud del registro contable de las acciones pero que actúen por cuenta de diversas personas, podrán en todo caso fraccionar el voto y ejercitarlo en sentido divergente en cumplimiento de instrucciones de voto diferentes, si así las hubieran recibido.

2. Las entidades intermediarias a que se refiere el apartado anterior podrán delegar el voto a cada uno de los titulares indirectos o a terceros designados por estos, sin que pueda limitarse el número de delegaciones otorgadas.

Subsección 3.^a Votación de acuerdos

Artículo 525. Resultado de las votaciones

1. Para cada acuerdo sometido a votación de la junta general deberá determinarse, como mínimo, el número de acciones respecto de las que se hayan emitido votos válidos, la proporción de capital social representado por dichos

eman beharko dio haren berri. Bi kasuetan, ordezkariak akziodunaren izenean bozkatu beharreko gai bakoitzari buruzko boto-jarraibide berri zehatzik jaso ezean, ordezkariak ezingo du botorik eman.

2. Artikulu honi dagokionez, ordezkaria egoera hauetariko batean dagoenean egon daiteke, bereziki, interes-gatazka:

a) Sozietatearen kontroleko akziodun bat edo hark kontrolaturiko entitate bat izatea.

b) Sozietatearen edo kontroleko akziodunaren edo kontroleko akziodunak kontrolaturiko entitate baten administrazio-, kudeaketa- edo ikuskatze-organoko kide bat izatea. Administratzaile bat den kasuan, 526. artikuluan xedaturikoa aplikatuko da.

c) Sozietatearen, kontroleko akziodunaren edo kontroleko akziodunak kontrolaturiko entitate baten enplegatu edo auditore izatea.

d) Aurrekoekin lotura duen pertsona fisiko bat izatea. Pertsona fisiko loturaduntzat joko dira: ezkontidea edo aurreko bi urteetan ezkontide izan dena, edo antzeko afektibitate-harremanean elkarrekin bizi diren edo aurreko bi urteen barruan elkarrekin bizi izan diren pertsonak, eta, orobat, aurrekoak, ondorengoak eta anai-arrebak eta haien ezkontideak.

524. artikulua. Entitate bitartekariak ordezkaritza eskuordetzea eta botoa baliatzea

1. Akzioen kontabilitate-erregistroaren arabera akziodun gisa legitimaturik ageri diren baina zenbait pertsonaren kontura diharduten entitateek esku izango dute, edozein kasutan, botoa zatitzeko eta zein bere aldera baliatzeko boto-jarraibide desberdinak jarraituz, boto-jarraibide desberdinak jaso badituzte.

2. Aurreko zenbakian aipaturiko entitate bitartekariak zeharkako titularrerarik bakoitzari edo haiek izendaturiko hirugarren batzuei eskuordetu ahal izango diete botoa, ezin mugatuko delarik emandako eskuordetza kopurua.

3. azpiatala. Erabakiak bozkatzea

525. artikulua. Bozketen emaitza

1. Batzar nagusian bozkatzen den erabaki bakoitzerako, beharrezko izango da zehaztea, gutxienez, baliozko botoak eman dituzten akzioen kopurua, boto horietan ordezkaturiko kapital sozialaren proportzioa, baliozko boto guztien

votos, el número total de votos válidos, el número de votos a favor y en contra de cada acuerdo y, en su caso, el número de abstenciones.

2. Los acuerdos aprobados y el resultado de las votaciones se publicarán íntegros en la página web de la sociedad dentro de los cinco días siguientes a la finalización de la junta general.

Artículo 526. Ejercicio del derecho de voto por administrador en caso de solicitud pública de representación

1. Además de cumplir los deberes previstos en el apartado 1 del artículo 523, en el caso de que los administradores de una sociedad anónima cotizada, u otra persona por cuenta o en interés de cualquiera de ellos, hubieran formulado solicitud pública de representación, el administrador que la obtenga no podrá ejercitar el derecho de voto correspondiente a las acciones representadas en aquellos puntos del orden del día en los que se encuentre en conflicto de intereses, salvo que hubiese recibido del representado instrucciones de voto precisas para cada uno de dichos puntos conforme al artículo 522. En todo caso, se entenderá que el administrador se encuentra en conflicto de intereses respecto de las siguientes decisiones:

- a) Su nombramiento, reelección o ratificación como administrador.
- b) Su destitución, separación o cese como administrador.
- c) El ejercicio contra él de la acción social de responsabilidad.

d) La aprobación o ratificación, cuando proceda, de operaciones de la sociedad con el administrador de que se trate, sociedades controladas por él o a las que represente o personas que actúen por su cuenta.

2. La delegación podrá también incluir aquellos puntos que, aun no previstos en el orden del día de la convocatoria, sean tratados, por así permitirlo la ley, en la junta, aplicándose también en estos casos lo previsto en el apartado anterior.

3. Lo establecido en este artículo será de aplicación a los miembros del consejo de control de una sociedad anónima europea domiciliada en España que haya optado por el sistema dual.

Artículo 527. Cláusulas limitativas del derecho de voto

En las sociedades anónimas cotizadas las cláusulas estatutarias que, directa o indirectamente, fijen con carácter general el número máximo de votos que

kopurua, erabaki bakoitzaren alde eta aurka emandako botoen kopurua eta, hala badagokio, abstentzioen kopurua.

2. Hartutako erabakiak eta bozketen emaitzak sozietatearen web orrian argitaratuko dira, osorik, batzar nagusia amaitu ondorengo bost egunen barruan.

526. artikulua. Boto-eskubidea administratzaile baten bidez baliatzea ordezkaritza-eskaera publikoaren kasuan

1. 523. artikulua 1. zenbakian aurreikusitako betebeharrak betetzeaz gainera, sozietate anonimo kotizatu baten administratzaileek, edo, haietariko edozeinen kontura eta interesetan, beste pertsona batek, ordezkaritza-eskaera publikoa egin duten kasuan, hura lortzen duen administratzaileak ezin baliatuko du ordezkatu-rik akzioei dagokien boto-eskubidea interes-gatazka eragiten dioten eguneko gai-zerrendako puntuei dagokienez, salbu eta ordezkatua-rengandik boto-jarraibide zehatzak jaso baditu puntu horietariko bakoitzari buruz 522. artikulua- ren arabera. Edozein kasutan, administratzaileak interes-gatazka duela joko da honako erabaki hauei dagokienez:

- a) Hura administratzaile izendatzea, berrautatzea edo berrestea.
- b) Hura administratzaile-kargutik kentzea, hark sozietatea uztea edo kargua uztea.
- c) Haren aurka sozietatearen erantzukizun-akzioa baliatzea.
- d) Sozietateak dagokion administratzailearekin, administratzaileak kontrolaturiko zein ordezkatu-rik sozietateekin edo haren kontura diharduten pertso- nekin egindako eragiketak onartzea edo berrestea, hala dagokionean.

2. Eskuordetzan sartu ahal izango dira, orobat, nahiz eta deialdiko gai-zerrendan aurreikusiak egon ez, legeak hala zilegitzen duelako batzarrean trata- tzen diren puntuak, eta kasu horietan ere aurreko artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

3. Artikulu honetan xedaturikoa aplikagarria izango zaie helbidea Espai- nian duen eta sistema duala aukeratu duen europar sozietate anonimo baten kontrol-kontseiluko kideei.

527. artikulua. Boto-eskubidea mugatzen duten klausulak

Sozietate anonimo kotizatu-etan, akziodun berak, talde berekoak diren so- zietateek edo aurrekookin hitzarturik dihardutenek eman ditzaketen gehie-

pueden emitir un mismo accionista, las sociedades pertenecientes a un mismo grupo o quienes actúen de forma concertada con los anteriores, quedarán sin efecto cuando tras una oferta pública de adquisición, el oferente haya alcanzado un porcentaje igual o superior al 70 por ciento del capital que confiera derechos de voto, salvo que dicho oferente no estuviera sujeto a medidas de neutralización equivalentes o no las hubiera adoptado.

CAPÍTULO VII

Especialidades de la administración

SECCIÓN 1.^a

Reglamento del Consejo de Administración

Artículo 528. Carácter obligatorio del reglamento del consejo de administración

En las sociedades anónimas cotizadas el consejo de administración, con informe a la junta general, aprobará un reglamento de normas de régimen interno y funcionamiento del propio consejo, de acuerdo con la ley y los estatutos, que contendrá las medidas concretas tendentes a garantizar la mejor administración de la sociedad.

Artículo 529. Publicidad del reglamento

1. El reglamento será objeto de comunicación a la Comisión Nacional del Mercado de Valores, acompañando copia del documento en que conste.

2. Efectuada esta comunicación se inscribirá en el Registro Mercantil con arreglo a las normas generales y, una vez inscrito, se publicará por la Comisión Nacional del Mercado de Valores.

SECCIÓN 2.^a

Especialidades del Consejo de Administración

Artículo 529 bis. Carácter necesario del consejo de administración

1. Las sociedades cotizadas deberán ser administradas por un consejo de administración.

nezko botoak modu orokorrean, zuzenean edo zeharka, finkatzen dituzten estatutu-klausulak efekturik gabe geratuko dira baldin eta, erosteko eskaintza publiko baten ondoren, eskaintzaileak iritsia badu boto-eskubidea ematen duen kapitalaren ehuneko 70 edo gehiago, salbu eta eskaintzaile hori balio bereko neutralizazio-neurri batzuen mende ez badago edo halako neurririk hartu ez badu.

VII. KAPITULUA

Administrazioaren berezitasunak

I. ATALA

Administrazio-kontseiluaren erregelamendua

528. artikulua. Administrazio-kontseiluaren erregelamenduaren izaera nahitaezkoa

Sozietate anonimo kotizatueta, administrazio-kontseiluak, batzar nagusiaren txostenarekin, kontseiluaren beraren barne-araubide eta funtzionamendurako arau-erregelamendu bat onartuko du, legearen eta estatutuen arabera, hartan jasoko direlarik sozietatearen administrazio onena bermatzera bideraturiko neurriak.

529. artikulua. Erregelamendua publiko egitea

1. Erregelamendua Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinaraziko zaio, hura jasotzen duen dokumentuaren kopia bat igorritz.

2. Jakinarazpen hori egindakoan, Merkataritza Erregistroan inskribatuko da arau orokorren arabera eta, inskribatutakoan, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak publiko egingo du.

2. ATALA

Administrazio-kontseiluaren berezitasunak

529 bis artikulua. Administrazio-kontseilua, beharrezkoa

1. Sozietate kotizatuak administrazio-kontseilu batek administratu beharko ditu.

2. El consejo de administración deberá velar por que los procedimientos de selección de sus miembros favorezcan la diversidad de género, de experiencias y de conocimientos y no adolezcan de sesgos implícitos que puedan implicar discriminación alguna y, en particular, que faciliten la selección de consejeras.

Artículo 529 ter. Facultades indelegables

1. El consejo de administración de las sociedades cotizadas no podrá delegar las facultades de decisión a que se refiere el artículo 249 bis ni específicamente las siguientes:

a) La aprobación del plan estratégico o de negocio, los objetivos de gestión y presupuesto anuales, la política de inversiones y de financiación, la política de responsabilidad social corporativa y la política de dividendos.

b) La determinación de la política de control y gestión de riesgos, incluidos los fiscales, y la supervisión de los sistemas internos de información y control.

c) La determinación de la política de gobierno corporativo de la sociedad y del grupo del que sea entidad dominante; su organización y funcionamiento y, en particular, la aprobación y modificación de su propio reglamento.

d) La aprobación de la información financiera que, por su condición de cotizada, deba hacer pública la sociedad periódicamente.

e) La definición de la estructura del grupo de sociedades del que la sociedad sea entidad dominante.

f) La aprobación de las inversiones u operaciones de todo tipo que por su elevada cuantía o especiales características, tengan carácter estratégico o especial riesgo fiscal, salvo que su aprobación corresponda a la junta general.

g) La aprobación de la creación o adquisición de participaciones en entidades de propósito especial o domiciliadas en países o territorios que tengan la consideración de paraísos fiscales, así como cualesquiera otras transacciones u operaciones de naturaleza análoga que, por su complejidad, pudieran menoscabar la transparencia de la sociedad y su grupo.

h) La aprobación, previo informe de la comisión de auditoría, de las operaciones que la sociedad o sociedades de su grupo realicen con consejeros, en los términos de los artículos 229 y 230, o con accionistas titulares, de forma individual o concertadamente con otros, de una participación significativa, incluyendo accionistas representados en el consejo de administración de la sociedad o de otras sociedades que formen parte del mismo grupo o con per-

2. Administrazio-kontseiluak zaindu beharko du ezen haren kideak aukeratzeko prozeduretan genero-, esperientzia- eta ezagutza-aniztasunaren alde egiten dela eta ez dagoela diskriminazioa adieraz dezakeen joera inpliziturik eta, bereziki, kontseilari emakumezkoak aukeratzeari ahalbidetzen dela.

529 ter artikulua. Ezin eskuordetuzko ahalmenak

1. Sozietate kotizatuen administrazio-kontseiluak ezin eskuordetuko ditu 249 bis artikuluan aipatzen diren erabakitze-ahalmenak, ez, zehazki, honako hauek:

a) Plan estrategikoa edo negozio-plana, urteko kudeaketa- eta aurrekontu-helburuak, inbertsio- eta finantzatze-politika, erantzukizun sozial korporatiboaren inguruko politika eta dibidendu-politika onartzea.

b) Arriskuen kontrol- eta kudeaketa-politika zehaztea, arrisku fiskalena barne, eta informaziorako eta kontrolerako barne-sistemak ikuskatzea.

c) Sozietatearen eta hura entitate nagusi den taldearen gobernu korporatiboaren politika zehaztea; haren antolamendua eta funtzionamendua zehaztea eta, bereziki, bere erregelamendua onartzea eta aldatzea.

d) Sozietateak, kotizatu den aldetik, aldian behin publiko egin behar duen informazio finantzarioa onartzea.

e) Sozietate entitate nagusi den sozietate-taldeko egitura definitzea.

f) Beren zenbateko handiagatik edo ezaugarri bereziengatik estrategikoak diren edo arrisku fiskal berezia duten edozein eratako inbertsioak edo eragiketak onartzea, salbu eta batzar nagusiari badagokio haiek onartzea.

g) Xede bereziko entitateetan edo paradisu fiskaltzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetan helbideraturik daudenetan partaidetzak sortzea edo eskuratzea onartzea, eta baita beren konplexutasunagatik sozietatearen eta haren taldearen gardentasuna gutxiarazi dezaketen antzeko beste transakzio edo eragiketa batzuk onartzea ere.

h) Aurrez auditoria-batzordeak txostena eginik, sozietateak edo haren taldeko sozietateek beren kontseilariekin 229. eta 230. artikuluen baldintzetan egiten dituzten eragiketak onartzea, edo, bakarka zein beste batzuekin hitzarturik, partaidetza esanguratsu baten titular diren akziodunekin egiten dituztenak, barne harturik sozietatearen edo talde berekoak diren beste sozietate batzuen administrazio-kontseiluan ordezkaturiko akziodunak edo haiekin lotura

sonas a ellos vinculadas. Los consejeros afectados o que representen o estén vinculados a los accionistas afectados deberán abstenerse de participar en la deliberación y votación del acuerdo en cuestión. Solo se exceptuarán de esta aprobación las operaciones que reúnan simultáneamente las tres características siguientes:

1.º que se realicen en virtud de contratos cuyas condiciones estén estandarizadas y se apliquen en masa a un elevado número de clientes,

2.º que se realicen a precios o tarifas establecidos con carácter general por quien actúe como suministrador del bien o servicio de que se trate, y

3.º que su cuantía no supere el uno por ciento de los ingresos anuales de la sociedad.

i) La determinación de la estrategia fiscal de la sociedad.

2. Cuando concurren circunstancias de urgencia, debidamente justificadas, se podrán adoptar las decisiones correspondientes a los asuntos anteriores por los órganos o personas delegadas, que deberán ser ratificadas en el primer Consejo de Administración que se celebre tras la adopción de la decisión.

Artículo 529 quáter. Asistencia a las reuniones

1. Los consejeros deben asistir personalmente a las sesiones que se celebren.

2. No obstante lo anterior, los consejeros podrán delegar su representación en otro consejero. Los consejeros no ejecutivos solo podrán hacerlo en otro no ejecutivo.

Artículo 529 quinquies. Información

1. Salvo que el consejo de administración se hubiera constituido o hubiera sido excepcionalmente convocado por razones de urgencia, los consejeros deberán contar previamente y con suficiente antelación con la información necesaria para la deliberación y la adopción de acuerdos sobre los asuntos a tratar.

2. El presidente del consejo de administración, con la colaboración del secretario, deberá velar por el cumplimiento de esta disposición.

Artículo 529 sexies. Presidente del consejo de administración

1. El consejo de administración, previo informe de la comisión de nombramientos y retribuciones, designará de entre sus miembros a un presidente y, en su caso, a uno o a varios vicepresidentes.

duten pertsonak. Horrek eragiten dien kontseilariak edo horrek eragiten dien akziodunak ordezkatzten dituztenek edo haiekin lotura dutenek ez dute parte hartuko auzitan dagoen erabakiaren eztabaida-saioan eta bozketan. Aldi berean hiru ezaugarri hauek betetzen dituzten eragiketak baino ez dira salbuetsiko onarpen horretatik:

1) baldintza estandarizatuak dituzten kontratuen arabera egitea eta bezero kopuru handi bati batera aplikatzen zaizkionak izatea,

2) dagokion ondasun edo zerbitzuaren hornitzaile gisa diharduenak eginak izatea, oro har ezarritako prezioetan edo tarifetan, eta

3) haien zenbatekoa ez izatea sozietatearen urteko sarrerren ehuneko bat baino handiagoa.

i) Sozietatearen estrategia fiskala erabakitzea.

1. Las operaciones de fusión entre entidades de crédito de la misma naturaleza, así como las de escisión y cesión global de activos y pasivos entre entidades de crédito de idéntica o distinta naturaleza se regirán por las normas establecidas para dichas operaciones en la presente ley, sin perjuicio de lo previsto en la legislación específica aplicable a estas entidades.

2. Cuando la operación consista en el traspaso por sucesión universal de una o varias partes del patrimonio de una entidad de crédito, cualquiera que sea su naturaleza, que formen una unidad económica, a otra entidad de crédito de igual o distinta naturaleza a cambio de una contraprestación que no consista en acciones, participaciones o cuotas de la entidad cesionaria, resultará de aplicación a la misma el régimen de la cesión global de activos y pasivos previsto en los artículos 85 a 91 de la presente ley, sin perjuicio de lo previsto en su legislación específica.

Disposición transitoria. Régimen transitorio

La presente Ley se aplicará a las modificaciones estructurales de sociedades mercantiles cuyos proyectos no hubieren sido aún aprobados por la sociedad o sociedades implicadas con anterioridad a la entrada en vigor de la Ley.

Disposición derogatoria. Normas derogadas

A la entrada en vigor de la presente Ley quedarán derogados:

1.º El apartado segundo del artículo 149, el Capítulo VIII (artículos 223 a 259), el número 6.º del apartado primero del artículo 260 y el apartado se-

Bigarren xedapen gehigarria

Sozietate kolektibo inskribatu gabeak eta, oro har, sozietate irregularrak eraldatzeko, batzeko, zatitzeko edo haien aktiboaren eta pasiboaren lagapen globala egiteko, beharrezko izango da, aurrez, haiek erregistroan inskribatzea.

Hirugarren xedapen gehigarria. Kreditu-entitateen arteko bat-egite, zatitze eta aktiboaren eta pasiboaren lagapen global zein partzialen eragiketei aplikagarria zaien araubidea

1. Izaera bereko kreditu-entitateen arteko bat-egite eragiketak, eta, orobat, izaera bereko zein banako kreditu-entitateen arteko zatiketak eta aktiboaren eta pasiboaren lagapen globalak lege honetan eragiketa horientzat ezarritako arauen mende egongo dira, hargatik eragotzi gabe entitate horiei aplikagarria zaien berriazko legerian aurreikusitakoa.

2. Kreditu-entitate batek, edozein ere dela haren izaera, ondarearen parte bat edo gehiago oinordetza unibertsalez eskualdatzen badio, unitate ekonomiko bat osatzen dutelarik parteok, izaera bereko zein bestelako beste kreditu-entitate bati, entitate lagapen-hartzailearen akzioez, partaidetzez edo kuo-
tez besteko kontraprestazio baten truke, eragiketa horri aplikagarria izango zaio lege honen 85. artikulutik 91.era bitartekoetan aurreikusitako aktiboaren eta pasiboaren lagapen globalerako araubidea, hargatik eragotzi gabe haien berriazko legerian aurreikusitakoa.

Xedapen iragankorra. Araubide iragankorra

Lege hau aplikatuko zaie merkataritza-sozietateen egitura-aldaketei baldin eta aldaketan inplikaturiko sozietateak edo sozietateek beren proiektuak onartu gabe badituzte legea indarrean sartu aurretik.

Xedapen derogatzailea. Arau derogatuak

Lege hau indarrean sartzean, derogaturik geratuko dira:

1) 1989ko abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretuak onetsirikoa Sozietate Anonimoei buruzko Legearen Testu Bateginaren 149. ar-

gundo de la disposición adicional primera del Texto Refundido de la Ley de Sociedades Anónimas aprobado por Real Decreto Legislativo 1564/1989, de 22 de diciembre.

2.º El Capítulo VIII (artículos 87 a 94), el párrafo segundo del apartado segundo del artículo 111, el artículo 117 y el artículo 143 de la Ley 2/1995, de 23 de marzo, de Sociedades de Responsabilidad Limitada.

3.º Los artículos 19 y 20 de la Ley 12/1991, de 29 de abril, de Agrupaciones de Interés Económico.

Disposición final primera. Modificación del Texto Refundido de la Ley de Sociedades Anónimas, aprobado por Real Decreto Legislativo 1564/1989, de 22 de diciembre

Se modifican los artículos 11.1, 15.2, 38, 41.1, 42, 75, 76, 78, 79.3.^a, 84, 103.1, 158.1, 166, 266 y 293 del Texto Refundido de la Ley de Sociedades Anónimas, aprobado por Real Decreto Legislativo 1564/1989, de 22 de diciembre, y se introducen en esta misma Ley los nuevos artículos 38 bis, 38 ter, 38 quater y 50 bis.

Uno. El apartado 1 del artículo 11 queda redactado del siguiente modo:

«1. Los fundadores y los promotores de la sociedad podrán reservarse derechos especiales de contenido económico, cuyo valor en conjunto, cualquiera que sea su naturaleza, no podrá exceder del diez por ciento de los beneficios netos obtenidos según balance, una vez deducida la cuota destinada a la reserva legal y por un período máximo de diez años. Los estatutos habrán de prever un sistema de liquidación para los supuestos de extinción anticipada de estos derechos especiales.»

Dos. El apartado 2 del artículo 15 tendrá la siguiente redacción:

«2. Por los actos y contratos indispensables para la inscripción de la sociedad, por los realizados por los administradores dentro de las facultades que les confiere la escritura para la fase anterior a la inscripción y por los estipulados en virtud de mandato específico por las personas a tal fin designadas por todos los socios, responderá la sociedad en formación con el patrimonio formado por las aportaciones de los socios. Los socios responderán personalmente hasta el límite de lo que se hubiesen obligado a aportar.»

tikuluaren bigarren zenbakia, VIII kapitulua (223. artikulutik 259.era bitartekoak), 260. artikulua lehenengo zenbakiaren 6. atala eta lehen xedapen gehigarriaren bigarren zenbakia.

2) 1995ko martxoaren 23ko Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko 2/1995 Legearen VIII. kapitulua (87. artikulutik 94.era bitartekoak), 111. artikulua bigarren zenbakiko bigarren paragrafoa, 117. artikulua eta 143. artikulua.

3) 1991ko apirilaren 29ko Interes Ekonomikoko Taldeei buruzko 12/1991 Legearen 19. eta 20. artikulua.

**Amaierako lehen xedapena. 1989ko abenduaren 22ko 1564/1989
Legegintzako Errege Dekretuak onetsiriko
Sozietate Anonimoei buruzko Legearen Testu
Bategina aldatzea**

1989ko abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretuak onetsiriko Sozietate Anonimoei buruzko Legearen Testu Bateginaren 11.1, 15.2, 38., 41.1, 42., 75., 76., 78., 79.3, 84., 103.1, 158.1, 166., 266. eta 293. artikulua aldatzen dira eta 38 bis, 38 ter, 38 quater eta 50 bis artikulua berriak sartzen lege horretan bertan.

Bat. 11. artikulua 1. zenbakia era honetan idatzirik geratzen da:

«1. Sozietatearen sortzaileek eta sustatzaileek eduki ekonomikoko eskubide bereziak gorde ahal izango dituzte berentzat, gehienez ere hamar urtez; eskubideon balioa, guztira, edozein ere dela haien izaera, ezin izango da balantzearen arabera lorturiko mozkin garbien ehuneko hamar baino handiagoa, mozkinoin aurrez kendurik legezko erreserbarako kuota. Estatutuetan likidazio-sistema bat aurreikusitako beharko da eskubide berezi horiek denbora baino lehenago amaitzen diren kasuetarako.»

Bi. 15. artikulua 2. zenbakia honela idatziko da:

«2. Eratze-bidean dagoen sozietateak erantzungo du, bazkideen ekarpenez osaturiko ondarearekin, sozietatea inskribatzeko nahitaezkoak diren egintzez eta kontratuez, inskripzioa egin aurreko faserako eskriturak ematen dizkien ahalmenen barruan administratzaileek egindakoez eta bazkide guztiek hartarako izendaturiko pertsonak, berariazko agindua betez, erabakitakoez. Bazkideek pertsonalki erantzungo dute sozietateari egitera lotu diren ekarpenaren neurriraino.»

No obstante, si la fecha de comienzo de las operaciones sociales coincide con la de otorgamiento de la escritura fundacional, y salvo que los estatutos sociales o la escritura dispongan otra cosa, se entenderá que los administradores ya quedan facultados para el pleno desarrollo del objeto social y para realizar toda clase de actos y contratos, de los que responderán la sociedad en formación y los socios en los términos que se han indicado.»

Tres. El artículo 38 queda redactado del siguiente modo:

«Artículo 38. Aportaciones no dinerarias: informe del experto

1. Las aportaciones no dinerarias, cualquiera que sea su naturaleza, habrán de ser objeto de un informe elaborado por uno o varios expertos independientes con competencia profesional, designados por el Registrador mercantil del domicilio social conforme al procedimiento que reglamentariamente se determine.

2. El informe contendrá la descripción de la aportación, con sus datos registrales, si existieran, y la valoración de la aportación, expresando los criterios utilizados y si se corresponde con el valor nominal y, en su caso, con la prima de emisión de las acciones que se emitan como contrapartida.

3. El valor que se dé a la aportación en la escritura social no podrá ser superior a la valoración realizada por los expertos.

4. El experto responderá frente a la sociedad, frente a los accionistas y frente a los acreedores de los daños causados por la valoración, y quedará exonerado si acredita que ha aplicado la diligencia y los estándares propios de la actuación que le haya sido encomendada.

La acción para exigir esta responsabilidad prescribirá a los cuatro años de la fecha del informe.»

Cuatro. Se introduce un nuevo artículo 38 bis con la siguiente redacción:

«Artículo 38 bis. Excepciones a la exigencia del informe

El informe del experto no será necesario en los siguientes casos:

1.º Cuando la aportación no dineraria consista en valores mobiliarios que coticen en un mercado secundario oficial o en otro mercado regulado o en instrumentos del mercado monetario. Estos bienes se valorarán al precio medio ponderado al que hubieran sido negociados en uno o varios mercados regulados en el último trimestre anterior a la fecha de la realización efectiva de la

Hala ere, sozietate-eragiketen hasiera-data sortze-eskritura egilesten denekoa bera bada, eta sozietatearen estatutueta edo eskrituran bestelakorik xedatu ezean, ulertuko da ezen administratzaileek ahalmena dutela objektu soziala bete-betean garatzeko eta era guztietako egintzak eta kontratuak egiteko, zeinen erantzukizuna eratze-bidean den sozietateak eta bazkideek izango baitute adierazi diren baldintzetan.»

Hiru. 38. artikulua era honetan idatzirik geratzen da:

«38. artikulua. Diruzkoak ez diren ekarpenak: adituaren txostena

1. Diruzkoak ez diren ekarpenek, edozein eratakoak direla ere, txosten bat beharko dute, gaitasun profesionala duen aditu independente batek edo gehiagok egina, sozietate-helbideari dagokion merkataritza-erregistro-erregistroak izendatuko dituelarik adituok erregelamenduz ezartzen den prozeduraren arabera.

2. Txostenean, ekarpenaren deskripzioa jasoko da, haren erregistro-datuak emanez, halakorik bada, eta ekarpenaren balioespena, erabilitako irizpideak azalduz eta kontrapartida gisa jaulkitzen diren akzioen balio nominalarekin edo, hala badagokio, jaulkipen-primarekin bat datorren adieraziz.

3. Ekarpinari sozietate-eskrituran ematen zaion balioa ezin izango da adituek egindako balioespena baino handiagoa.

4. Adituak sozietatearen, akziodunen eta hartzekodunen aurrean erantzungo du balioespenak eragindako kalteez, eta erantzukizunetik libre geratuko da baldin eta enkargatu zaion egintzabideari dagozkion prestasuna eta estandararak aplikatu dituela egiaztatzen badu.

Erantzukizun hori galdatzeko akzioa txostenaren datatik lau urtera preskribatuko da.»

Lau. 38 bis artikulua berri bat sartzen da, honela idatzirik:

«38 bis artikulua. Txostena beharrezkoa ez den kasuak

Adituaren txostena ez da beharrezkoa izango kasu hauetan:

1) Diruzkoa ez den ekarpena bigarren mailako merkatu ofizial batean edo beste merkatu arautu batean kotizatzen duten balore higigarriak direnean edo diru-merkatuko tresnak direnean. Ekarpena egiazki egin den dataren aurreko azken hiruhilekoan merkatu arautu batean edo gehiagotan negoziatu diren batez besteko prezio haztatuan balioetsiko dira ondasun horiek, bigarren mailako

aportación, de acuerdo con la certificación emitida por la sociedad rectora del mercado secundario oficial o del mercado regulado de que se trate.

Si ese precio se hubiera visto afectado por circunstancias excepcionales que hubieran podido modificar significativamente el valor de los bienes en la fecha efectiva de la aportación, los administradores de la sociedad deberán solicitar el nombramiento de experto independiente para que emita informe.

2.º Cuando la aportación consista en bienes distintos de los señalados en el número 1.º cuyo valor razonable se hubiera determinado, dentro de los seis meses anteriores a la fecha de la realización efectiva de la aportación, por experto independiente con competencia profesional no designado por las partes, de conformidad con los principios y las normas de valoración generalmente reconocidos para esos bienes.

Si concurrieran nuevas circunstancias que pudieran modificar significativamente el valor razonable de los bienes a la fecha de la aportación, los administradores de la sociedad deberán solicitar el nombramiento de experto independiente para que emita informe.

En este caso, si los administradores no hubieran solicitado el nombramiento de experto debiendo hacerlo, el accionista o los accionistas que representen, al menos, el cinco por ciento del capital social, el día en que se adopte el acuerdo de aumento del capital, podrán solicitar del Registrador mercantil del domicilio social que, con cargo a la sociedad, nombre un experto para que se efectúe la valoración de los activos. La solicitud podrán hacerla hasta el día de la realización efectiva de la aportación, siempre que en el momento de presentarla continúen representando al menos el cinco por ciento del capital social.»

Cinco. Se introduce un nuevo artículo 38 ter con la siguiente redacción:

«Artículo 38 ter. Informe de los administradores

Cuando las aportaciones no dinerarias se efectuaran sin informe de expertos independientes, designados por el Registro Mercantil, los administradores elaborarán un informe, que contendrá:

1.º La descripción de la aportación.

2.º El valor de la aportación, el origen de esa valoración y, cuando proceda, el método seguido para determinarla.

Si la aportación hubiera consistido en valores mobiliarios cotizados en mercado secundario oficial o del mercado regulado del que se trate o en instru-

merkatu ofizialaren edo dagokion merkatu arautuaren sozietate zuzentzaileak emandako ziurtagiriaren arabera.

Ekarpena egiazki egin zen datan ondasunen balioa nabarmen alda zeza-keren ohiz kanpoko inguruabar batzuek eragina izan badute prezio horretan, sozietatearen administratzaileek aditu independente bat izenda dadila eskatu beharko dute txosten bat egin dezan.

2) Ekarpena 1. zenbakian adierazitakoez besteko ondasunak direnean, eta haien arrazoizko balioa alderdiek izendatu ez duten gaitasun profesionaleko aditu independente batek erabakia, ekarpena egiazki egin den dataren aurreko sei hilabeteen barruan, ondasunok balioesteko oro har aitorturiko printzipio eta arauen arabera.

Ekarpena egiten den datan ondasunen balioa nabarmen alda dezaketen in-guruabar berriak gertatzen badira, sozietatearen administratzaileek aditu inde-pendente bat izenda dadila eskatu beharko dute txosten bat egin dezan.

Kasu horretan, baldin eta sozietatearen administratzaileek, aditu indepen-dente bat izenda zedila eskatu behar zutelarik, eskatu ez badute, kapitala handi-tzeko erabakia hartzen den egunean kapital sozialaren gutxienez ehuneko bost ordezkatzan duen akziodunak edo akziodunek esku izango dute sozietate-helbi-deari dagokion merkataritza-erregistratzaileari eskatzeko, sozietatearen kargura, aditu bat izenda dezala aktiboen balioespen bat egin dadin. Ekarpena egiazki egiten den egunera arte egin ahal izango dute eskaera, baldin eta eskaera aur-kezteko unean kapital sozialaren ehuneko gutxienez bost ordezkatzan jarraitzen badute.»

Bost. 38 ter artikulua berri bat sartzen da, honela idatzirik:

«38 ter artikulua. Administratzaileen txostena

Diruzkoak ez diren ekarpenak Merkataritza Erregistroak izendaturiko aditu independenteen txostenik gabe egiten direnean, administratzaileek txos-ten bat egingo dute, hartan jasotzen delarik:

- 1) Ekarpenaren deskripzioa.
- 2) Ekarpenaren balioa, balioespen horren jatorria eta, hala dagokionean, hura zehazteko erabili den metodoa.

Ekarpena bigarren mailako merkatu ofizial batean edo dagokion merkatu arautuan kotizatzen duten balore higigarriak edo diru-merkatuko tresnak izan

mentos del mercado monetario, se unirá al informe la certificación emitida por su sociedad rectora.

3.º Una declaración en la que se precise si el valor obtenido corresponde, como mínimo, al número y al valor nominal y, en su caso, a la prima de emisión de las acciones emitidas como contrapartida.

4.º Una declaración en la que se indique que no han aparecido circunstancias nuevas que puedan afectar a la valoración inicial.»

Seis. Se introduce un nuevo artículo 38 quater con la siguiente redacción:

«Artículo 38 quater. Publicidad de los informes

1. Una copia autenticada del informe del experto o, en su caso, del informe de los administradores deberá depositarse en el Registro Mercantil en el plazo máximo de un mes a partir de la fecha efectiva de la aportación.

2. El informe del experto o, en su caso, el informe de los administradores, se incorporará como anexo a la escritura de constitución de la sociedad o a la de ejecución del aumento del capital social.»

Siete. Se modifica el apartado primero del artículo 41 que pasa a tener la siguiente redacción:

«1. Las adquisiciones de bienes a título oneroso realizadas por una sociedad anónima desde el otorgamiento de la escritura de constitución o a partir de la transformación en este tipo social y hasta dos años de su inscripción en el Registro Mercantil habrán de ser aprobadas por la junta general de accionistas si el importe de aquéllas excede de la décima parte del capital social.

Con la convocatoria de la junta deberá ponerse a disposición de los accionistas un informe elaborado por los administradores que justifique la adquisición, así como el exigido en esta Sección para la valoración de las aportaciones no dinerarias. Será de aplicación lo previsto en el artículo 38 quater.»

Ocho. Se modifica el artículo 42, que pasa a tener la siguiente redacción:

«Artículo 42. Dividendos pasivos

1. El accionista deberá aportar a la sociedad la porción del capital que hubiera quedado pendiente de desembolso, en la forma y dentro del plazo máximo previstos en los estatutos sociales.

2. La exigencia del pago de los dividendos pasivos se notificará a los afectados o se anunciará en el «Boletín Oficial del Registro Mercantil». Entre la fecha

badira, haien sozietate zuzentzaileak emandako ziurtagiria erantsiko zaio txostenari.

3) Adierazpen bat, zeinean azalduko baita ea lorturiko balorea bat datoren, gutxienez, kontrapartida gisa jaulkiriko akzioen kopuruarekin eta balio nominalarekin eta, hala badagokio, jaulkipen-primarekin.

4) Hasierako balioespenari eragin diezaiokeen inguruabar berririk ez dela agertu dioen adierazpen bat.»

Sei. 38 quater artikulua berri bat sartzen da, honela idatzirik:

«38 quater artikulua. Txostenak publiko egitea

1. Adituaren txostenaren edo, hala badagokio, administratzaileen txostenaren kopia zinezkotu bat aurkeztu beharko da Merkataritza Erregistroan, gehiezin ere hilabeteko epean, ekarpena egiazki egin den datatik kontatzen hasita.

2. Adituaren txostena edo, hala badagokio, administratzaileen txostena eranskin gisa gehituko zaio sozietatea eratze eskriturari edo kapital sozialaren handitzea exekutatzekoari.»

Zazpi. 41. artikuluaren lehenengo zenbakia aldatzen da, zeina honela idatzirik geratzen baita:

«1. Sozietate anonimo batek bere eratze-eskritura egilesten denetik edo sozietate mota horretara eraldatzen denetik Merkataritza Erregistroan erregistratu ondorengo bi urtera arte kostu bidez egindako ondasun-eskuratzeak akziodunen batzar nagusiak onartu beharko ditu, baldin eta haien zenbatekoa kapital sozialaren hamarrena baino handiagoa bada.

Batzarra deitzean, administratzaileek eskuratze hori justifikatuz egindako txosten bat jarri beharko da akziodunen eskura, bai eta diruzkoak ez diren ekarpenak balioesteko atal honetan galdatzen den txostena ere. Aplikagarria izango da 38 quater artikuluan aurreikusitakoa.»

Zortzi. 42. artikulua aldatzen da, zeina honela idatzirik geratzen baita:

«42. artikulua. Dibidendu pasiboak

1. Akziodunak ordaindu gabe geratu den kapital zatia ordaindu beharko dio sozietateari, sozietatearen estatutuetan aurreikusitako moduan eta gehiezin epearen barruan.

2. Dibidendu pasiboak ordaindu behar direlakoa beharkizun horrek ukitzen dituen jakinaraziko zaie edo Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofi-

de envío de la comunicación o la del anuncio y la fecha del pago deberá mediar, al menos, el plazo de un mes.»

Nueve. Se introduce un nuevo artículo 50 bis con la siguiente redacción:

«Artículo 50 bis. Igualdad de trato

La sociedad deberá dar un trato igual a los accionistas que se encuentren en condiciones idénticas.»

Diez. Se modifica el artículo 75, que pasa a tener la siguiente redacción:

«Artículo 75. Adquisiciones derivativas de acciones propias

1. La sociedad podrá adquirir sus propias acciones y las emitidas por su sociedad dominante en las siguientes condiciones:

1.^a Que la adquisición haya sido autorizada mediante acuerdo de la junta general, que deberá establecer las modalidades de la adquisición, el número máximo de acciones a adquirir, el contravalor mínimo y máximo cuando la adquisición sea onerosa, y la duración de la autorización, que no podrá exceder de cinco años.

Cuando la adquisición tenga por objeto acciones de la sociedad dominante, la autorización deberá proceder también de la junta general de esta sociedad.

Cuando la adquisición tenga por objeto acciones que hayan de ser entregadas directamente a los trabajadores o administradores de la sociedad, o como consecuencia del ejercicio de derechos de opción de que aquéllos sean titulares, el acuerdo de la junta deberá expresar que la autorización se concede con esta finalidad.

2.^a Que la adquisición, comprendidas las acciones que la sociedad, o persona que actuase en nombre propio pero por cuenta de aquélla, hubiese adquirido con anterioridad y tuviese en cartera, no produzca el efecto de que el patrimonio neto resulte inferior al importe del capital social más las reservas legal o estatutariamente indisponibles.

A estos efectos, se considerará patrimonio neto el importe que se califique como tal conforme a los criterios para confeccionar las cuentas anuales, minorado en el importe de los beneficios imputados directamente al mismo, e incrementado en el importe del capital social suscrito no exigido, así como en el importe del nominal y de las primas de emisión del capital social suscrito que esté registrado contablemente como pasivo.

zialean iragarriko da. Jakinarazpena bidaltzen den edo iragarpena egiten den dataren eta ordainketa-dataren artean hilabeteko tartea utzi beharko da gutxienez.»

Bederatzi. 50 bis artikulua berri bat sartzen da, honela idatzirik:

«50 bis artikulua. Tratu-berdintasuna

Sozietateak tratu bera eman beharko die egoera berdinean dauden akziodunei.»

Hamar. 75. artikulua aldatzen da, zeina honela idatzirik geratzen baita:

«75. artikulua. Akzio berekien eskuratzeko eratorriak

1. Sozietateak bere akzio berekiak eta sozietate nagusiak jaulkirikoak eskuratu ahal izango ditu baldintza hauek betez gero:

1) Eskuraketa batzar nagusiaren erabakiz baimendua izatea, batzarrak ezarri beharko dituelarik eskuratzeko moduak; eskuratu beharreko partaidetzen edo akzioen gehienezko kopurua; gehienezko eta gutxienezko kontrabaloia, eskuraketa kostu bidezkoa denean; eta baimenaren iraupena, zeina, gehienez ere, bost urtekoa izango baita.

Eskuratu nahi direnak sozietate nagusiaren akzioak direnean ere sozietate horren batzar nagusiak eman beharko du baimena.

Eskuratu nahi direnak sozietatearen langileei edo administratzaileei zuzenean entregatu beharreko akzioak direnean, edo haien titular diren aukera-ekubideak baliatzearen ondorioz entregatu beharrekoak, batzarraren erabakian adierazi beharko da helburu horrekin ematen dela baimena.

2) Eskuraketak, barne harturik sozietateak edo norberaren izenean baina sozietatearen kontura diharduen pertsona batek lehenago eskuratu eta zorroan dituen akzioak, ez dezala eragin ondare garbia txikiagoa izatea kapital sozialaren zenbatekoa gehi legez edo estatutuz erabilezinak diren erreserbak baino.

Horri dagokionez, ondare garbitzat joko da: urteko kontuak egiteko irizpideen arabera halakotzat ematen den zenbatekoa, hari kendurik zuzenean ondarrera egotziriko mozkinen zenbatekoa, eta hari gehiturik harpideturiko kapital sozial ez galdatuaren zenbatekoa, bai eta nominalaren zenbatekoa eta kontabilitatean pasibo gisa erregistraturik dagoen kapital sozial harpidetuaren jaulkipen-primena ere.

2. El valor nominal de las acciones adquiridas directa o indirectamente, sumándose al de las que ya posean la sociedad adquirente y sus filiales, y, en su caso, la sociedad dominante y sus filiales, no podrá ser superior al veinte por ciento o, si la sociedad fuese cotizada, al diez por ciento del capital suscrito.

3. Los administradores deberán controlar especialmente que, en el momento de cualquier adquisición autorizada, se respeten las condiciones establecidas en este artículo.

4. Será nula la adquisición por la sociedad de acciones propias parcialmente desembolsadas, salvo que la adquisición sea a título gratuito, y de las que lleven aparejada la obligación de realizar prestaciones accesorias.»

Once. Se modifica el artículo 76, que pasa a tener la siguiente redacción:

«Artículo 76. Consecuencias de la infracción

1. Las acciones adquiridas en contravención de lo establecido en los artículos anteriores deberán ser enajenadas en el plazo máximo de un año a contar desde la fecha de la primera adquisición.

2. Transcurrido el plazo a que se refiere el apartado anterior sin que hubiera tenido lugar la enajenación, los administradores procederán de inmediato a convocar junta general de accionistas para que acuerde la amortización de las acciones propias con la consiguiente reducción del capital social.

3. En el caso de que la sociedad no hubiera reducido el capital social dentro de los dos meses siguientes a la fecha de finalización del plazo máximo para la enajenación, cualquier interesado podrá solicitar la reducción del capital al Juez de lo mercantil del lugar del domicilio social. Los administradores están obligados a solicitar la reducción judicial del capital social cuando el acuerdo de la junta hubiera sido contrario a esa reducción o no pudiera ser logrado.

4. Las acciones de la sociedad dominante serán enajenadas judicialmente a instancia de parte interesada.»

Doce. Se modifica el artículo 78, que pasa a tener la siguiente redacción:

«Artículo 78. Obligación de enajenar

1. Las acciones adquiridas conforme a lo dispuesto en los apartados b) y c) del artículo anterior deberán ser enajenadas en un plazo máximo de tres años a contar desde la fecha de adquisición, salvo que previamente hubieran sido amortizadas mediante reducción del capital social o que, sumadas a las que ya

2. Zuzenean edo zeharka eskuraturiko akzioen balio nominala, sozietate eskuratzailleak eta haren filialek eta, hala badagokio, sozietate nagusiak eta haren filiakek jada badituzten akzioenari gehiturik, ezin izango da kapital harpidetua-ren ehuneko hogeai baino handiagoa edo, sozietatea kotizatua bada, ehuneko hamar baino handiagoa.

3. Administratzaileek bereziki kontrolatu beharko dute ezen, baimenduriko edozein eskuratze egiten den unean, artikulua honetan ezarritako baldintzak bete daitezela.

4. Deusez izango da sozietateak akzio bereki partzialki ordainduak eskuratzeari, salbu eta eskuraketa doan egiten bada, eta prestazio osagarriak emateko eginbidea atxikirik dutenak eskuratzeari.»

Hamaika. 76. artikulua aldatzen da, zeina honela idatzirik geratzen baita:

«76. artikulua. Arau-haustearen ondorioak

1. Aurreko artikuluetan xedaturikoa urratuz eskuraturiko akzioak gehienez ere urtebeteko epean besterendu beharko dira, lehenengo eskuratzearen datatik kontatzen hasita.

2. Aurreko zenbakian aipaturiko epea besterentzerik egin gabe amaitutakoan, administratzaileek akziodunen batzar nagusia deituko dute berehala, batzarrak akzio berekiak amortizatzea eta, ondorioz, kapital soziala murriztea erabaki dezan.

3. Besterentzeko gehienezko epea amaitu ondorengo bi hilabeteen barruan sozietateak kapital soziala murriztu ez badu, edozein interesdunek eskatu ahal izango dio kapital-murrizketa sozietate-helbidetaren lekuko merkataritza gaie-tako epaileari. Administratzaileak beharturik daude kapital sozialaren murrizketa judiziala eskatzera batzarraren erabakia murrizketa horren kontrakoa izan denean edo erabakia lortu ezin izan denean.

4. Sozietate nagusiaren akzioak judizialki besterenduko dira alderdi interesdun baten eskariz.»

Hamabi. 78. artikulua aldatzen da, zeina honela idatzirik geratzen baita:

«78. artikulua. Besterentzeko eginbidea

1. Aurreko artikuluen b) eta c) letretan xedaturikoaren arabera eskuraturiko akzioak gehienez ere hiru urteko epean besterendu beharko dira, eskuratzeari datatik kontatzen hasita, salbu eta aurrez kapital sozialaren murrizketaren bidez amortizatu badira edo, sozietate eskuratzailleak edo haren filialek eta, hala

posean la sociedad adquirente y sus filiales y, en su caso, la sociedad dominante y sus filiales, no excedan del veinte por ciento o, si la sociedad fuere cotizada, del diez por ciento del capital social.

2. Transcurrido el plazo a que se refiere el apartado anterior sin que hubiera tenido lugar la enajenación, será de aplicación lo previsto en los apartados 2 y 3 del artículo 76.»

Trece. Se modifica la regla tercera del artículo 79, que pasa a tener la siguiente redacción:

«3.^a Se establecerá en el patrimonio neto una reserva indisponible equivalente al importe de las acciones de la sociedad dominante computado en el activo. Esta reserva deberá mantenerse en tanto las acciones no sean enajenadas.»

Catorce. Se modifica el artículo 84, que pasa a tener la siguiente redacción:

«Artículo 84. Reserva de participaciones recíprocas

En el patrimonio neto de la sociedad obligada a la reducción se establecerá una reserva equivalente al importe de las participaciones recíprocas que excedan del diez por ciento del capital computadas en el activo.»

Quince. Se modifica el apartado primero del artículo 103, que pasa a tener la siguiente redacción:

«Artículo 103. Constitución. Supuestos especiales

1. Para que la junta general ordinaria o extraordinaria pueda acordar válidamente el aumento o la reducción del capital y cualquier otra modificación de los estatutos sociales, la emisión de obligaciones, la supresión o la limitación del derecho de adquisición preferente de nuevas acciones, así como la transformación, la fusión, la escisión o la cesión global de activo y pasivo y el traslado de domicilio al extranjero, será necesaria, en primera convocatoria, la concurrencia de accionistas presentes o representados que posean, al menos, el cincuenta por ciento del capital suscrito con derecho de voto.»

Dieciséis. Se modifica el apartado 1 del artículo 158, que pasa a tener la siguiente redacción:

«1. En los aumentos de capital social con emisión de nuevas acciones, ordinarias o privilegiadas, con cargo a aportaciones dinerarias, los antiguos accionistas podrán ejercitar, dentro del plazo que a tal efecto les conceda la administración de la sociedad, que no será inferior a quince días desde la publicación

badagokio, sozietate nagusiak eta haren filialek lehendik dituztenei gaineratzen direlarik, kapital sozialaren ehuneko hogeai gaingaitzen ez badute edo, sozietatea kotizatua bada, ehuneko hamar gaingaitzen ez badute.

2. Aurreko zenbakian aipaturiko epea besterentzea egin gabe amaitu bada, 76. artikulua 2. eta 3. zenbakietan aurreikusitakoa aplikatuko da.»

Hamahiru. 79. artikulua aldatzen da, zeina honela idatzirik geratzen baita:

«3) Ondare garbian erreserba erabilezin bat jarriko da, sozietate nagusiaren akzioei dagokien eta aktiboan kontatzen den zenbatekoa adinakoa. Erreserba hori akzioak besterentzen ez diren bitartean mantendu beharko da.»

Hamalau. 84. artikulua aldatzen da, zeina honela idatzirik geratzen baita:

«84. artikulua. Elkarrekiko partaidetzen erreserba

Murrizketa egitera beharturiko sozietatearen ondare garbian erreserba bat jarriko da, kapitalaren ehuneko hamar gaingaitzen duten eta aktiboan kontatzen diren elkarrekiko partaidetzen zenbatekoa adinakoa.»

Hamabost. 103. artikulua lehenengo zenbakia aldatzen da, zeina honela idatzirik geratzen baita:

«103. artikulua. Eratzea. Kasu bereziak

1. Ohiko zein ezohiko batzar nagusiak modu baliozkoan erabaki ahal izan dezan kapitala handitzea edo murriztea eta sozietate-estatutueta beste edozein aldaketa egitea, obligazioak jaulkitzea, akzio berriak lehentasunez eskuratzeko eskubidea kentzea edo mugatzea, eta, orobat, eraldatzea, batzea, zatitzea edo aktibo eta pasibo guztia lagatzea eta helbidea atzerrira eramatea, beharrezko izango da, lehenengo deialdian, bileran parte hartzen duten akziodun bertaruek zein ordezkariuek boto-eskubidea ematen duen kapital harpidetuaren ehuneko gutxienez berrogeita hamar izatea.»

Hamasei. 158. artikulua 1. zenbakia aldatzen da, zeina honela idatzirik geratzen baita:

«1. Akzio berriak, arruntak zein pribilegiatuak, diruzko ekarpenen kargura jaulkiz handitzen bada kapital soziala, aurreko akziodunek eskubidea izango dute akzio kopuru bat eskuratzeko, dauzkaten akzioen balio nominalaren portzioan, sozietatearen administrazioak hartarako ematen dien epearen ba-

del anuncio de la oferta de suscripción de la nueva emisión en el «Boletín Oficial del Registro Mercantil» en el caso de las sociedades cotizadas, y de un mes en el resto de los casos, el derecho a suscribir un número de acciones proporcional al valor nominal de las acciones que posean.»

Diecisiete. Se modifica el artículo 166, que pasa a tener la siguiente redacción:

«Artículo 166. Derecho de oposición

1. Los acreedores cuyos créditos hayan nacido antes de la fecha del último anuncio del acuerdo de reducción del capital, no hayan vencido en ese momento y hasta que se les garanticen tales créditos tendrán el derecho de oponerse a la reducción.

No gozarán de este derecho los acreedores cuyos créditos se encuentren ya suficientemente garantizados.

2. El derecho de oposición habrá de ejercitarse en el plazo de un mes a contar desde la fecha del último anuncio del acuerdo.

3. En los casos en que los acreedores tengan derecho a oponerse a la reducción, ésta no podrá llevarse a efecto hasta que la sociedad preste garantía a satisfacción del acreedor o, en otro caso, hasta que notifique a dicho acreedor la prestación de fianza solidaria en favor de la sociedad por una entidad de crédito debidamente habilitada para prestarla por la cuantía del crédito de que fuera titular el acreedor y hasta tanto no prescriba la acción para exigir su cumplimiento.»

Dieciocho. Se modifica el artículo 266, que pasa a tener la siguiente redacción:

«Artículo 266. Apertura de la liquidación

La disolución de la sociedad abre el periodo de liquidación.»

Diecinueve. Se modifica el artículo 293, que pasa a tener la siguiente redacción:

«1. Los accionistas de la sociedad tendrán derecho de suscripción preferente de las obligaciones convertibles, al que resultará de aplicación lo dispuesto en el artículo 158 de esta Ley.

2. En los casos en que el interés de la sociedad así lo exija, la Junta General, al decidir la emisión de obligaciones convertibles, podrá acordar la supresión total o parcial del derecho de suscripción preferente. Para la validez de este

rruan, zeina, gutxienez, hamabost egunekoa izango baita, jaulkipen berriaren iragarpena Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen dene-tik kontatzen hasita, sozietate kotizatuen kasuan, eta hilabetekoa gainerako ka-suetan.»

Hamazazpi. 166. artikulua aldatzen da, zeina honela idatzirik geratzen baita:

«166. artikulua. Aurkakotza-eskubidea

1. Beren kredituak kapitala murrizteko erabakiaren azken iragarkiaren data baino lehen sortuak eta une horretan mugaeguneratu gabe dituzten hartzeko-dunek eskubidea izango dute murrizketaren aurka agertzeko, harik eta kreditu horiek bermatzen zaizkien arte.

Beren kredituak jada aski bermatuak dituzten hartzekodunek ez dute izango eskubide hori.

2. Aurka egiteko eskubidea baliatzeko epea hilabetekoa izango da, eraba-kiaren azken iragarkiaren datatik kontatzen hasita.

3. Hartzekodunek murrizketaren aurka agertzeko eskubidea duten kasue-tan, murrizketa ezin gauzatuko da harik eta sozietateak bermea hartzekoduna-ren gogara eskaini arte edo, bestela, harik eta hartzekodun horri jakinarazten dion arte ezen sozietateari fidantza solidarioa eman diola hartarako behar be-zalako gaikuntza duen kreditu-entitate batek, hartzekoduna titular den kredi-tuaren muntakoa, eta harik eta hura bete dadila eskatzeko akzioa preskribatu arte.»

Hemezortzi. 266. artikulua aldatzen da, zeina honela idatzirik geratzen baita:

«266. artikulua. Likidazioaren hasiera

Sozietatea desegiteak likidazioaldia hasten du.»

Hemeretzi. 293. artikulua aldatzen da, zeina honela idatzirik geratzen baita:

«1. Sozietatearen akziodunek obligazio bihurtzeko lehentasunez harpide-tzeko eskubidea izango dute, zeinari lege honen 158. artikuluan xedaturikoa aplikatuko baitzaio.

2. Sozietatearen interesak hala eskatzen duen kasuetan, batzar nagusiak, obligazio bihurtzeko lehentasunezko harpidetza-esku-bidea guztiz edo partez kentzea erabaki ahal izango du. Erabaki horrek 144. ar-

acuerdo, que habrá de respetar lo dispuesto en el artículo 144, será imprescindible:

a) Que en la convocatoria de la Junta se haya hecho constar la propuesta de supresión del derecho de suscripción preferente.

b) Que en el informe de los administradores al que se refiere el apartado 2 del artículo 292, se justifique detalladamente, además, la propuesta de supresión.

c) Que en el informe del auditor de cuentas al que se refiere el apartado 2 del artículo 292, se emita un juicio técnico sobre la razonabilidad de los datos contenidos en el informe de los administradores y sobre la idoneidad de la relación de conversión, y, en su caso, de sus fórmulas de ajuste, para compensar una eventual dilución de la participación económica de los accionistas.»

Disposición final segunda. Modificación de la Ley 2/1995, de 23 de marzo, de Sociedades de Responsabilidad Limitada

Se modifican los artículos 21.5 y 53.2 de la Ley 2/1995, de 23 de marzo, de Sociedades de Responsabilidad Limitada.

Uno. El apartado quinto del artículo 21 queda redactado del siguiente modo:

«5. Quedan excluidos de la responsabilidad solidaria los socios cuyas aportaciones no dinerarias sean valoradas de conformidad a lo previsto en la Ley de Sociedades Anónimas.»

Dos. El apartado segundo del artículo 53 queda redactado del siguiente modo:

«2. Por excepción a lo dispuesto en el apartado anterior:

1.º El aumento o la reducción del capital y cualquier otra modificación de los estatutos sociales requerirán el voto favorable de más de la mitad de los votos correspondientes a las participaciones en que se divida el capital social.

2.º La autorización a los administradores para que se dediquen, por cuenta propia o ajena, al mismo, análogo o complementario género de actividad que constituya el objeto social; la supresión o la limitación del derecho de preferencia en los aumentos del capital; la transformación, la fusión, la escisión, la cesión global de activo y pasivo y el traslado del domicilio al extranjero, y la exclusión de socios requerirán el voto favorable de, al menos, dos tercios de los votos correspondientes a las participaciones en que se divida el capital social.»

tikuluan xedaturikoa gorde beharko du, eta, baliozkoa izan dadin, nahitaezkoa izango da:

a) Batzarrerako deialdian jasotzea lehentasunezko harpidetza-eskubidea kentzeko proposamena.

b) 292. artikulua 2. zenbakian aipatzen den administratzaileen txostenean zehatz-mehatz justifikatzea, gainera, kentzeko proposamena.

c) 292. artikulua 2. zenbakian aipaturiko kontu-auditorearen txostenean iritzi tekniko bat jasotzea administratzaileen txostenean jasotako datuen arrazoizkotasunari buruz eta bihurketa-erlazioaren egokitasunari buruz, eta, hala badagokio, haien egokitze-formulei buruz, akziodunen partaidetza ekonomikoaren balizko urte bat konpentsatzeko.»

Amaierako bigarren xedapena. 1995eko martxoaren 23ko Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko 2/1995 Legea aldatzea

1995eko martxoaren 23ko Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko 2/1995 Legearen 21.5 eta 53.2 artikulua aldatzen dira.

Bat. 21. artikulua bosgarren zenbakia era honetan idatzirik geratzen da:

«5. Erantzukizun solidariorik libre geratzen dira beren ekarpen ez-diruzkoak Sozietate Anonimoen buruzko Legean aurreikusitakoaren arabera balioesten zaizkien bazkideak.»

Bi. 53. artikulua bigarren zenbakia era honetan idatzirik geratzen da:

«2. Aurreko artikuluan xedaturikoaren salbuespenez:

1) Kapitala handitzeko edo murrizteko eta sozietatearen estatutuetan beste edozein aldaketa egiteko, beharrezko izango da kapital soziala osatzen duten partaidetzei dagozkien botoen erdiaren baino gehiagoren aldeko botoa.

2) Kapital soziala osatzen duten partaidetzei dagozkien botoen bi herenen aldeko botoa beharko da, gutxienez, administratzaileek, beren zein besteren kontura, objektu soziala den jarduera mota bera, antzekoa edo osagarria egin dezatela baimentzeko; kapital-handitzeetan lehentasun-eskubidea kentzeko edo mugatzeko; eraldatzeko, bat-egiteko, zatitzeko, aktiboaren eta pasiboaren lagapen globala egiteko eta helbidea atzerrira lekualdatzeko, eta bazkideak kanporatzeko.»

Disposición final tercera. Modificación de la Ley 31/2006, de 18 de octubre, sobre implicación de los trabajadores en las sociedades anónimas y cooperativas europeas

Uno. Se introduce un nuevo título en la Ley 31/2006, de 18 de octubre, sobre implicación de los trabajadores en las sociedades anónimas y cooperativas europeas, con la siguiente redacción:

«TÍTULO IV

**DISPOSICIONES APLICABLES A LAS FUSIONES
TRANSFRONTERIZAS INTRACOMUNITARIAS DE SOCIEDADES
DE CAPITAL**

CAPÍTULO I

**Disposiciones aplicables a las sociedades resultantes
de fusiones transfronterizas intracomunitarias con domicilio
en España**

**Artículo 39. Derechos de participación de los trabajadores en las
sociedades resultantes de fusiones transfronterizas
intracomunitarias**

1. La participación de los trabajadores en la sociedad resultante de la fusión transfronteriza intracomunitaria que tenga o vaya a tener su domicilio en España, así como su implicación en la definición de los derechos correspondientes, se regirá por las disposiciones previstas en este capítulo cuando concurra alguna de las siguientes circunstancias:

a) Que al menos una de las sociedades que se fusionan emplee, durante el período de seis meses que precede a la publicación del proyecto común de fusión, un número medio de trabajadores superior a 500 y esté gestionada en régimen de participación de los trabajadores.

b) Que en el caso de existir participación de los trabajadores en la sociedad resultante de la fusión transfronteriza aquella no alcance al menos el mismo nivel de participación de los trabajadores que el aplicado a las sociedades participantes en la fusión, medido en función de la proporción de miembros que representan a los trabajadores en el órgano de administración o control, o sus comités, o en el órgano directivo competente dentro de las sociedades para decidir el reparto de los beneficios.

Amaierako hirugarren xedapena. Europar sozietate anonimoetan eta kooperatiboetan langileek duten inplikazioari buruzko 2006ko urriaren 18ko 31/2006 Legea aldatzea

Bat. Titulu berri bat sartzen da Europar sozietate anonimoetan eta kooperatiboetan langileek duten inplikazioari buruzko 2006ko urriaren 18ko 31/2006 Legean, honela idatzirik:

«IV. TITULUA

KAPITAL SOZIEATEEN EUROPAR ERKIDEGO BARRUKO MUGEZ GAINDIKO BAT-EGITEEI APLIKAGARRIAK ZAIZKIEN XEDAPENAK

I. KAPITULUA

Kapital-sozietateen Europar Erkidego barruko mugez gaindiko bat-egiteetatik sortu eta helbidea Espainian duten sozietateei aplikagarriak zaizkien xedapenak

39. artikulua. Langileek Europar Erkidego barruko mugez gaindiko bat-egiteetatik sorturiko sozietateetan parte hartzeko duten eskubidea

1. Europar Erkidego barruko mugez gaindiko bat-egiteetik sortu eta helbidea Espainian duen edo izango duen sozietatean langileek duten edo izango duten parte-hartzea eta, orobat, horri dagozkion eskubideak definitzean duten inplikazioa, kapitulu honetan aurreikusitako xedapenen mende egongo dira egoera hauetarikoren bat gertatzen denean:

a) Batzen diren sozietateetarako gutxienez batek, bat-egite proiektu erkidea argitaratu aurreko sei hilabeteetan, batez beste, 500 langile baino gehiago enplegatzea eta sozietate hori langileen parte-hartzearen araubidearen barruan kudeaturik egotea.

b) Mugez gaindiko bat-egiteetik sorturiko sozietatean langileen parte-hartzea dagoen kasuan, parte-hartze horrek ez iristea, gutxienez, bat-egitean parte hartzen duten sozietateei aplikaturiko langileen parte-hartze maila bera, maila hori neurturik administrazio- edo kontrol-organoan, edo haren batzordeetan, edo sozietateen barruan mozkinak banatzea erabakitzeko eskumena duen zuzendaritza-organoan langileak ordezkatzeko dituzten kideen proportzioaren arabera.

c) Que, en el caso de existir participación de los trabajadores en la sociedad resultante de la fusión, los trabajadores de los establecimientos de tal sociedad situados en otros Estados miembros ejerzan unos derechos de participación inferiores a los derechos de participación que ejercen los trabajadores empleados en España.

2. La aplicación de las disposiciones de este Capítulo excluye la de las disposiciones de cualquier otro Estado miembro en que la sociedad resultante de la fusión o las sociedades que se fusionan cuenten con centros de trabajo, salvo en los casos en los que exista una remisión expresa en este capítulo.

Artículo 40. Procedimiento de negociación de los derechos de participación

Serán de aplicación a los derechos de participación de los trabajadores las disposiciones contenidas en el Capítulo I del Título I de esta Ley, con las siguientes peculiaridades:

